

## A T A R I A

Emerson ipar-amerikar jakintsuari jazoa da gogora. Bein, udako egun sargori baten aubbusean ei joian jante askogaz. Gero gogai karriaz aspertuta edo, ia-nak ixillik, ez eban iñortxok be berbarik ateraten; orrela bide-arloa egin ondoren, gera-tu zan tarranta zain egon jente geiago artzoko; beste batzuen artean, ama gazte bat igon zan autibusera semetxo bat besnetan ebala.

Antzoki baten lez aldatu zan gauzea. Ama gaztea ta ume begi-urdia zikondo baten jarri ziran. Baiña bertatik asi zan bidaztien aldarte ta umorea guztiz bestelako-tzen. Aurtxaren itaun, barre-algara ta irri gozoak izan ziran bidaztien arimak aize oz-kirriz ase ebezana. Goibel, nekaturik lez joiazen aretx pozaren eztia oartzan asi ziran berrien barri.

Amak zoragarriro itz-egitson semetxoari, ta onek milla txera ta zorakeriz ordaintzen maite-erakutsiak. Eta bringo baten, erakarpenaren eztiz, tarrantako guztien bintzak eurekandu ebezan ama-seme gazteak; eta arrestian griñerik ezik, otz kiribilduta egizanek, niesz-lako su-galdaz birbizten asi ziran.

Orri berori qartatu zan Jesus eta Maria munduan agertu ziranean be. Nekaturik, yñibel aurkitzen zan gizadia millaka ta millaka urte aurretik. Goiz-eguzkiaren izpi dirdaitsuak iduri, Ama ta Semea agertu ziranean, ostera, biotz illun, bizi bakoak indar-barritu ta edertasun zerutarrez jantzi. Ama ta Semea, Kristo ta Maria, geugaz dabil tza arrezkerio, ta euren bizkor-azo ta sendotzen gaitue gu bizi-burruak aulduak.

Geureak dira; eta guk ezin daikeguz alkarrégandik banandu: Maria dagoan lekuaren, entxe egon bear dau Kristok be; biok edertu, lurrunazo ta lilluraz bete daroe gu-re Kristau izatea. Mariak argi dagi Belen go arpe illunean; Nazaret ez litzake, Maria an ezpalego, Jesus-en bizileku; Kana'ko ezteguak ez leukake poz-lillurari, Andra Maria an ezaolitz; ezta G. lgota'k be daukan zoramendik Kristok berak, gurutz-oñean jaxkixex zelaietako lilia, bere ta gure Ama, graziaz betea, jarri ezpaleu.

Kristo da munduko argia, ta Maria dozu argi orren ama. Kristok bere argia ren ederrez ditziratu nai dau gizadi osoa, obeto, kosmos osoa; bere maitasunaren beroz indar-azo gura dauz gizasemeon bintz-barrenak. Kristoren ondoren, barriz, ez dago Maria baiño ezer aundiagorik. Itza gizon egin zan, eta Jainko betikoaren Semeak Mariagandik artu eban aragia.

Euskalerafiak olan ezagutu izan ditu beti: Andra Maria ta Jesus, beti alka-rregaz, Kristo, Jainko Semea, Espiritu Santuaren bitartez, Andra Mariz gizondua. Auxe dogu euskaldunok nainoz aldeztu izan doguna; gure eleizetan, erudietan olantxe agiri dira Ama ta Semea, Maria ta Kristo.

Andra Maria berari-bereriz ez da gurea smilki, erri ta errialde guztiena baiña; Gizon eta emakume, zaar eta ga-te, guztion Ama da. Enda, leiñu ta mota guztia, ak neurri bardinez maite ditu; amak ez dakar kontuan angoa ala emengoa zareanik, zelan mai te, dozun eta zelan dakizun bere jainkozko Semea maite izaten.

Ez da arritzeko, alan be, norbaitzuk naiz erri batzuk, norgeiagokoa yai bikiñean, gurtze ta eraspen-arlhan zeiniek gorago jo erakutsi nai izatea; ortan tematu ta auzitan jardun arren, Kristo ta Maria ez yukuz ezelan be bekaitzuko. Ezta Begoña'ko Ama be, gu bizkaitarrok, lugin, itxastar, langille ta abar, geure Ama txalotu, guretsi ta mai te izaten, beste inguruko erri guztia kaiñe leiatuago ikusiagaitik, ez yku egundo mu-zin geratuko.

Auxe da gure Ama, idazle ta olerkariak gogoz abestua. Eta Ama onek bere Seme Kristo erakusten dausku altzoan. Irudi zoragarria! Ementxe auspaztu dira bizkaitarrak gizaldiz luzeetan, ez dakigu noiñik; ementxe auspazten gara gu be, lorea eguzki aurrean legez. Daukagun onena oso dautsagu amari, ta opari orreik -itzak, oñitzak, korrhiak, Zaindaritzak- eskintzeko auspez jarten gara Begoña'ko Amaren aurrean. Guztioik jarri be, guztion Ama da-ta.

Gure erriak olantxe egin izan dau aspaldiko gizaldistatik. Itxasiko es-tualdi, izurrite, arimako oñaze ta gorputzeko sámiñetan, gure erriak Begoña'ra zuzendu izan ditu bere-biotz-adimenak. 1900'an, Begoña'ko Amaren Irudia buruntzi ederrez korra-tua izan zan; eta andik iru urtera, 1903'an, aurretik etorren gogo bizi bateri erantzun-ik, 1938'an Gernika'ko Batzar Nagusiak lez, oraingoan Errroma'k be Bizkaiko Zaindaritzat izentatzan dau Begoña'ko Ama.

Jazokun eta jai guztioik ospe aundiz egin ziran euren garaian; baita gero-

ago zidarrezko,urrezko ta antzekoak batez be. Igaz (1978) bete ziran 75 urte Begoña 'ko Ama Bizkaiko Zaindari Nausitzat izentatua izan zanetik. Urte-urren ori alik egokien osatzeko,jai bikaiñak eratu ziran,danok dakigunez. Begoña 'ko Amari,guztioin Amari,geure txe-ta ta maitasun-gar ez txepela adiberako hai izan geuntson.

Gizon argi batzuk aukeratu ziran jaiok antolatu ta aurrera ergateko.Eta guzurra niñoke euren zeregiña edertotxo bate ebela, autortuko ez ba-neu. Bero ta zabal osnatu ziran jaiak. Indoren,zerbait geratzen zan oindio burutu barik; zerbait geiago ber zan,jai orrein orriigarri lez,ondoren laga. Zer ete? Ez dakit hori eman eutsan buruak, baiña illunabar baten bilbontar apaiz bi istorri yatazan niri mesede eske,Begoña 'ko Amaren kanta liburu bat osotu bear nebala esanaz. Eta esku artean daukazuna dozu,

Lau atal ditu kanta liburu onek:1) Begoña 'ko Ama,Bizkaiko edestien zeair; 2) Begoña 'ko Amaren Irudia,koroatua; 3) Begoña 'ko Ama Bizkaiko Zaindari; eta(4) 75-garren Urte-urrena. Liburu au,beraz,ez da olerki-txorta bat bakarrik; Begoña 'ko Amaren euskerazko kondaira naiko zabal be ba-dozu. Idazleok,geure izatasunaren barnerik barnenean naiz-ta sarri bate bagarik geratu;asmo ta ames apartak izan oi ditugu; nirea bat auxe zan,a paldi dardar-loka ibillia: Begoña 'ko Amaren gorespenez zerbait osotu. Oha,bizitzaren arrats-berah, uzi guren ori beterik. Oha,gaiñera,olerkari talde bikaiña Andra Maria-ren niñetan kantari. Eder bekizu!

Aurten,Kandelarioz,Begoña 'ra jo neban itzaurre au burutzeko goi-argi billa.Olakuetan egin oi danez,santutegi ta inguruak aztertu ta miretsi ondoren, eleizearen sabelean egokitu nintzan. Gure Zaindaria,eder ta dirdeitsu,neukan aurrez-aurre. Ixil-une zabala. Ni be ixillik,ausnarrean; barne-mintzo gozotan. Luzaro oñan jardunik, "Orduen Liturgia". ziskutik atera ta Gorespenak esaten asi nintzan.

Gaurko Gorespénak bigarren salmua Oñaniel igarlearen liburutik (3,57-88) artutako kantika da. "Gores bezate Jauna izaki guztiak" deritxo. Ortik ekin neutson guztiz gozatsu. Oha:

Jaunak egindako guztiak,bedeinka ezazue Jauna;  
goretsi eta nspatu gizaldistan.

Jaunaren aingeruak, bedeinka ezazue Jauna;  
zeruak,bedeinka eaazue Jauna.

Zeru-gaiñeko ur guztiak,bedeinka ezazue Jauna;  
Jaunaren gudari guztiak,bedeinka ezazue Jauna;  
Eguzki eta illargi,bedeinka ezazue Jauna;  
zeruko izarrak, bedeinka ezazue Jauna.

Euri ta intz guztiak,bedeinka ezazue Jauna;  
aize guztiak,bedeinka ezazue Jauna.  
Su eta beroak,bedeinka ezazue Jauna;  
otz eta ntz-min,bedeinka ezazue Jauna.

Intz eta langar,bedeinka ezazue Jauna;  
izotz eta jelak,bedeinka ezazue Jauna.  
Aintziar eta elur,bedeinka ezazue Jauna;  
gauak eta egunak, bedeinka ezazue Jauna.

Argi eta illunpeak, bedeinka ezazue Jauna;  
tximist eta oideiak, bedeinka ezazue Jauna.  
Bedeinka beza Jauna lurrik;  
goretsi eta nspatu gizaldistan.

Berru-goztasunez gaiñezka, zati baten egonean egon ondoren,barriro asi nintzan kantika amaitu nairik:

Mendi eta muiño,bedeinka ezazue Maria;  
lur-gaiñean ernetzen diren guztiak,  
bedrinka ezazue Maria.

Iturriak,bedeinka ezazue Maria,  
itsaso eta ibaiak,bedeinka ezazue Maria;

Baleak eta uretan dabiltsan guztiak,  
bedeinka ezazue Maria;  
zeruko egaztiak, bedeinka ~~ezazue~~ ezazue Maria.  
Pizti eta abere guztiak, bedeinka ezazue Maria:  
goretsi eta ospatu gi, aldietetan.

Giza-semeak, bedeinka ezazue Jauna;  
~~ezazue~~ Bizkaitarrak, bedeinka ezazue Maria.  
Jaunaren apaizak, bedeinka ezazue Maria;  
Jaunaren morrbiak, bedeinka ezazue Maria.

Espíritu eta anima zintzoak, bedeinka ezazue Maria;  
santu eta biotz-apalak, bedeinka ezazue ~~ezazue~~ Maria.  
Ananias, Azarias, Misael, bedeinka ezazue Maria:  
goretsi eta ospatu gizaldietan.

Bedeinka ditzagun Aita eta Semea  
Espíritu Santuarekin:  
goretsi eta ospatu gizaldietan.  
Bedeinkatua Zu zeru-sapaian:  
aintza ta grespen Zuri gizaldietan.

Barriz be, zoramenaren mende, ausnar eta ausnar, ezer esateke. Ez nintzan konaturatu azkeneraiñ arte, "Jauna" esan bearrean "Maria" esaten nebala; ezta "israeldarrak"-en ordez "bizkaitarrak" esan nebanik be. Ez nintzan, baiña, origaitik artega; Semeal ez ebán, ez, txartzat artuko berari egokiona Amari esana.

Regoña'ko Ama laztan! Liburu ontan daukazuz Euskalerriko olerkari batzuen biozkadaz fraturiko lau poesi-txorta. Bedeinka egizuz zuk or gaitik! Sortzetik garbi zarean orrek, garbi egizuz kantari onein biotz-ezpanak! Sua zarean orrek, galda egizuz bizkaitar guztiak biotzak! Bedeinka egizu Bizkaia, bedeinka Bilbao, bedeinka Begoña!

Ama zaitugu, ta Erregiña! Gorde gagizuz etsaiengandik! Goresgarri zaitugu, ta gure miñak gau ta egun goretsikò zaitue! Ama: gorde zeure magalpean euskaldun jentea!

Larrea, 1979-2-5'an.

AITA ONAINDIA

LENENGO ATALA

BEGONA KO A M A

KONDAIRAN ZEAR

## BEGOÑA KO AMA KONDAIRAN ZEAR

Ezertara baiño len,azal-samarretik bada be,zuzen bekigu Begoña'ko Ama ta beronan eleizeaz zerbait esatea. Merezi dau,bizkaitarrontzat batez be garrantzi bekoez da-ta. Edo-ein bati gagokiozala,nai izan oihogoa oñakoaren bizitokia ta giroa eizatu ta zelaknak izan ziran jakitea. Lenen-lenen,beraz,Begoña'ko Amaren edestti pizkat.

### Jesus eta Maria

Jesus eta Maria alkarregandik banandu eziñak dira noznai ta nun-nai; zugatz-enbor bardinetik jagitako kimu bi,aten barik, bereizi eziñak diran letxe. Kristau erriak oñan ezagutu ditu,ta oñantxe maite izan ditu bere siñismen bero eztien; oñantxe kristiñautasunaren lenengo gizaldietatik asi ta gaur arte; eleiz-izlariak eurak ez dabez eundo be ikarregandik bananduten. Beti biok batera. Ama ta seme ez ete ditugu? Seme Kristo,Aita betikoak zerutik lurrera bialdutakoak,ez ete eban bera,Maria,beste emakume guztien artean,bere amatzat aukeratu? Onen errai garbietan ez ete eban artu gizaki izateko bear eban guztia? Ez,Ama ta Semea ezin daikeguz banandu; oñol-zatez bat diranak,gai-iera,ez ibilli ahoerrrik bereizi gurata. Begoz sekula ta beti alkarregaz.

Kristo daukagun lekuau,antxe daukagu María. Kristiñautasuna lurbiran barreia ta zabal-azpian zanean,gizaldiak zear,Kristoren besoetan ~~mar~~kigux Ma joian María; semeak ama errian,ez ondoren be,besoetan baiño. Kristautasuna sendo egiten zan lurraldetan,antxe ziran bi-biak,Kristo ta María. Kristiñau erriak,ba,bere siñiste,itxaropen eta maitasunean,ama ta semea siñistu,itxaron eta maitatu zituan. Aurki bat berean Ama ta Semea,bai eleizetan eta bai bintzetan.

Olan agertzen dira Euskalerriko eleizetan. Eta biotzetan,zetan esanik bere ez. Ez dakigu ziur noiz sartu zan kristutasuna,osorik beintzat,gure errian,gure zazpi Euskaldun zatietan; an arriñago,emen geroago,nunbait. Bizkaia izan ei yskun atzenengo kristautasuna osorik besarketzen. Ez dakigu oindiño,argi ta garbi beiñik-bein,Bizkaia'k noiz,zein gizalditan arlu eban Kristoren argia,Ebanjelioaren barria. Betoz gai oni buruzko ikerpen,uste ta suzmarka ugari,orrela bait da argitasuna egiten. Gaur agiriak,datuak, nai doguz zernaitarasko,baita eurok bida-ezpadakoak izanda be: datu izpirik ba'dogu,guk bai laster jasoten gaztelu garaiak!

Erriak,baiña,ez dautzu daturik eskatzen. Erris -lur,arnasa,edestigizaldien gizaldiz bizi yatzu; gurea,euskal lur aintzagarri onetan; igerri barik askotan, bere kondaира,edestia dagi, egunetik eguneko biziaren anezkan gertaerek ariñduz. Gertae-rrik geienez ez dira datu biurtuak; ixil-samar,ituraz,usadinz, aoz-an,idatzi bagako legez gurasoengandik sameetara datozenak dituzu. Datu billa ez joan orduan,ez bait dituzu idorrik.

### Bizkaia ta Andra Maria

Bizkaiko edestian era orretan dozu Mariagazko jaiera,debuziñoa. Gure erriak, kristautasuna ezagutu te beretzat artu ebanetik, Mariaren amatasuna ta Kristoren semetasuna ez ditu egundik be alkarrengandik banatu. Izan be,ama-seme gogoria dozu Ebanjeli-tik,iturritik ura iduri, berezko eragiñez datorrena. Maria,gaiñera,Erregiñaa da: "Agur, Erregiñaa",diñotsagu Salbea oguztean.Eta Ama dalako yatzu Erregiñaa,Ama ohea izateko,ain zuzen. Erregiñaa bida,beraz, ezin daikegu bide gogozko amatasunetik jaregin,ez askatu.Ama baar dau gizonak,eta Maria guretzat ama da,batez be.Indartsua dala,al-izatez jantzia? Ederto! Baiña guretzat Ama baitik bat. Belen'en eta Kalbarioa'n,Jesus eta María, biak alkarregaz. Gure Bizkaia'k be beukoz orrelaxe bere erri-maitasunean.

Kristautasunak dauen elbururik beiñena arimak zeruratzea.Kristo ortarako jatsi zan zerutik; ortarako sortu eban Eleizea ta ortarako jarri ebazan bere zazpi Sakramentuak,guri zerurako hidea errezagotegitearren. Goi-bizia oneik damoskue batez be. Eta Batikonn'ko II Batzarrak dirauskunez,Andra Mariak,fedetsu,esaneko,uste oneko ta goi-maitasunean gurtsu,tankera bereziz esku artu eban,Kristogaz batera,arimen goi-bizia barriztatzeke arlo ta egitekan. Esker mailian augaitik geuze Ama dogu; zeruetara jasoe izan ondoren ~~ba~~,ez eban bertanbera itxi gure salbamendu arazoa, andik be,betiko zorion-doaiak guretzat jaritxi ta Amari dagonkion bitartekotasun samurrez guri etenbage lagun eginik.

Gure erriak,noiztik ez dakigula,Kristoren ondhan jarri izan dau Andra Maria,Kristoren Ama ta gure Ama; edo-ta,bear bida obeto esanik, Andra Maria, margoztu,zi-

zelatu ta agertu izan dau, geienik beintzat, Jesus ijmea altzoan, bedoan edo alboan dauka-la. Euskalerriko Andra Maria, Ama Birjiñaren amatasunaren siñiskai-laburpen, eskema lez dngu, Aita J.A. Lizarralde'k idazten dauanez.

Entzun daigun Aita Frantziskotar argi oni, Euskaleriko Andra Mariai, Bizkaiko ta Gipuzkoako buruz batez be, ainbat eta ain ederto idatzi ebanari. Bizkai osoa Andra Mariari eskiñitako eleiza ta ermitaz beterik ikusita, onela iñoskun: "Gure lur gaiña Andra Mari irudiz auts zikkakiztxak kitztxatz ziorritzindurik aurkitu dot. Itxasaldean, Berak darioz gure eleiza ia geienen omeneak; lur barruan, Berak damotse i-zena mendi-egalak ederitzan dabeezan eleizatxo konta eziñai, arbide zar baztertuai naiz ezkutu-zentzunez jazten dabezan txikiai; orrezaz gaiñ, uria ta erri askotxori be, Berak emon dautse asiera. Itxas-ertz osoa daukazu Andra Mari'z beterik: urgain sámar Ondarroa'n; ondartzako platuak bigun ikutzen dabela Lekeitio'n, geldi ta baketsu; eskariz amaitzen diran uin-zurrumurruen artean, Izaro'n; Bermeo'n, Bakio'n, Portugalete'n... poema bat beraren aapaldi saillaren asi-izkiak lez..." Lur-barruan, bardin; Andra Mariaren goralpen azken bakoa dozu Jaunerrri osoa, Orduña, Durango, Zenarrutza, Gernika, Galdakano, Markiña, Begoña...

Zer diñotzue onek? Zergaitik, bear bada zuk itaua, ainbeste eleiza Andra Mariaren omenez? Bizkaia'k, izan dau zerbaite, euskal probintzi enoarauai ezertxo kenu du barik, bere lur bazterrak, Andra Maria goretsi naiean, ainbeste eleiza, basotxaun jaotitz-lekuz ornidu ta jazteko. Andra Maria'z ba-dau zer-ikusia Bizkaiko edestiaiak; otoitztegi guztiek Bizkaia'k Mariari izan dautson oneraspen bene-benetakoaren munarri ditugu, aspaldi bateko gure gurasoak euren fede, itxardopen eta maitasun sendoaren lekuko lez ipinitakoak. Euskaldun eleitzarrak ez ete eben noz-edo-noz alkarr artu, leia bizian, gaur be oraindiak ain eder, bipil ta gure daukaguzan santutegiok jasoteko? Orreila dirudi Gotzain, eleizgizon eta erritarra gure artuaz, biotzak su beroz galdan, eregitakoak dituzue, ziur asko. Zoaz erririk erri, so ta mirets eleiz moduz ta antzez landuriko oneik, eta mintza gero.

Noiztikoak ete dira eurok? Zail jakitea. Bizkaitarrak, haiz-ta mendi trinko ta ibar estuetan aurkitu garaia edesti-aurreko garaietan, errromarrakaren izan ebezan artu-emonak, eta Morga'ko Meakaur-Gerekiz'ko errumar arri-idazkuna ta J.M. Berandiaren jaunak Berritu'ko Goiko-lana khaban aurkituriko buztin-txarroko kristau-gurutzea giñarriztat artu barik be, errakuntza aundi bage esan gengike V'garren gizaldirako beintzat sartua zala Bizkaia'n kristautasuna. Au agirietara jo ezkerro, jakifia. Baiña, esan doguen, agirietara baiño naikoa lendifik gertatu oi da gauza sustraitzea. Aurrenik saloa landu bear da, bedar txarrak erauzi, azia erein, loratu daiten zaindu ta abar. Orreila ja zo zan nimbait bizkaitarren kristautasunaz.

Andra Mariaganeko eraspenaz bardin, ez izan zalantzak. Gauzen maimi-era jo ezkerro, olantxe doaz azalduz. Lenengo gizaldietan lez sartu zan kristautasuna beste probintzietan, Nafarroa'n, Araba'n eta mugaz andik batez be. Andra Mariarekin jaiera ta kultua be sustraiak egiañaz joian. Zergaitik ez Bizkaia'n? Bizkaia, eleiz-barrutiz, lenengotan Iruñea'gaz egongo zan, gero Armentia'ri itsatsia, geroago Kalaorra'ri lotua. Baiña ba-ziran Bizkaiko lurralte batzuk, Enkortaldeak, adibidez, Valpuesta'ko goterkikoak ziranak; 804'an, berrogetaz urteetan gotzain izan zan Juan'ek, goterkok moruak zirala-ta, Ika'ko goterkia laga ta Valpuesta'kna, Orduña'tik ur-samar, irasi ebanean, Andra Mariari eskiñitako eleiza bat aurkitu eban bertantxe.

Bizkaiko eleizarik zarrénak, gaur ezagun doguzanetatik, XI'garren gizaldikoak, Andra Mariaren izena darse, Mundaúna, Busturi-Axpe'n, Barrika'n eta abar. Garai aretako bost-sei gizaldiko eleizetatik asko berez jausi, erre, edo-ta barriak jasoteko, lurreratuak izango ziran; alan be, XII'garren gizaldi inguruau gure surretikoak belauniko jarri oí ziran askotan gu be, gaur, jarri geintekez Andra Mariari geure eskarriak zuzentzeko. A. Mariarikua'k diñoskunez, Andra Maria ñome Jesus altzoan daukala -amatasunaren ezaugarri eder-, aurkian jarrita agertzen yakun irudietatik lenenguetatikoak ditugu iru oneik: Galdakano'kna, Gastelu-Elexabeitia'kna ta Lekeitio'ko Antiguagoko-a.

#### Begiria'ko Ama

Gatozan mendez atzerago. XIII'garrenera, este baterako. Ba-dogu garai orlako agirirrik: Begiria'ko Andra Mariaren monastegia aitzatzén daben agiriak, datuak. Monastegiak ez eukien orduan, gaur dukiak ikerrik. eleiz-zaindaritzari egnakienak ziran kitzak orrelako tituluk.

Anz-añ ta tradiziñoz etorrera askoz aurreragoakoa zan; au dñ,Euskalerrian etn Bizkaia'n hñitik bat, uzkurtz katolikua errnak bota ta sendo jarri zanetik, Andra Mariari,pr-emen agertu-ala,eleizak eta jauretxeak eregi yakozala, ez gitxi. Erriari geiene-tan ez eutson ardurarik noiz agertu ~~zank~~ zan,agertu izan zala baiñ. Ager-t-kia,ostera, arretaz zaindu ta gordea izan zan.

Begonia'ko Ama Artagan'en agertu zan. Gaurko begona'n, gaurko Andra Maria-ren eleiza inguruan artadi giartsua zan antxiña,ta ementxe agertu zan Andra Maria,edo nbe-tz esateko,aren irudia ementxe arte baten gaiñean aurkitu eben. Noiz ori? Gizaldi askotxo dirala,ez ete? Erriterrak gerri ementxe ibilli ziran Andra Mariari egotz egoki bat,eleiza txairi bat jasñ bear yakola-ta. Lekua,alan be,ezin aukeratu,gorago ta beerago,aruntzago ta onuntzago,ezin bat etorri. Eta goiz batean Ama Birjiñak berak ebatzi eban auzia, " Emen-txe! Begon\_emen niña!" esanik. Ez ibil,ba,itzorkun bitxitan; ortixek datorkigu Begoña.

Taiu ontakoa da erriak aoz-añ,latsak ura lez, guganaiñ ekarri dasskuna. Alegiak alegi ta ipuinak inuin,baiñ berez ez dñ izan ni ezertxo be; gauzak,izateko,zer-bait bear dabe niñarri; ez, ezin izan oin-bakoak guganaiñ luzatu diran esan,leienda ta a-legiok; Eurok aztertu ta barrentzerakoan,askotan aurkitu ni dogu jazoera baten mamiñ,a- torri utsa; osorik ba-leitseke egia ez izatea,baiñ begirunez aztertu ta astum-ariñean ikus-tea merezi leukena,bai heintzat. Erriak aoz-añ dakarrena,egia esateko, ezin geinke beti fedatzat artu, baiñ begirunez agurtzea merezi dabe erritar tradiziñak; gure murretiko-en zera da,arnasa,gureri...; azal-jantziak ez dau askorik baliokò,gure erriaren ezpiritu-ak,orrek gure lntsa ta txaloak bear ditu. Ortxe bait daukagu,bost-lerroko baten doñua lez,dardar ezin-egonean,euskal erriaren arima.

Kondaira geuk dagigu,ta Begoña'k be berea egiañ dau gizaldiak zear. Zati aundi batzuk erdi-illunpe gordetakoak dira; ez dgoz ezagun,ezta ezagutuko be,zalantzik ez ortaz. Regoña'ko Andra Maririk ez da arrietañ agertzen XIV'garren gizaldirarte; ez dau,beraz,istori idatzirik,kondairarik. Alan eta guzti be,askoz aurreragotik, bizkaitarren mai-tasun-eraspenez,urtegi zabala lez,gaiñezka,jario aunditan daukagu; ementxe auspaztu ziran gure guraso,asaba ta aurretikak,ementxe Mariaren niñetan otoitz bero etenbagean. Pozalidietan orratxe jo sben,eta naigabeen be,ortxe aurkitu eben euren zaurientzat gantzukirik bik iniena. Bai,Begoña'ko Amak ba-dauko,papretan ezta be,bere aspaldidaniko kondaira za-bal eztia.

### Eleizea

Irudi ta eleiz,noznai izan yaku atsegin Begoña.Bizitzan nök ez dau ostera ixil edo lagun-aldrakoren bat Begoña'ra egin? Nik ezagutu nituan gerra aurretxoan Bilbao'ko kalestan asi ta Begoña'raiñ,mailladi gora, belaunbiko ignon dabenak be. Indoren,bai na-sai ta pñzik eleiz-barruan!

Eleiz nagusi onak izan ditu,mendez mendez,bere goraberak eta larrialdiak. Zein izan ete zan Begoña'ko Amari lenengo jasotakoa? Ez dogu olakoaren zer danik be. Gaurko XVI'garren gizaldikoa da,urteak joan urteak etorri izan dabezan aldaketa ez-aundi batzuk kendu ezkerro. Nein aurretik be izan genduan beste bat,naikoa ederra,eleizatxo apal bat g-iago zana,arlen zakarrez ta zurez eregitakoa,~~erremontakotik~~ aro areitan oitura zanez; lenengoi aren gidez eregi zan,XVI'garren mendean, gaurko eleiz eder aú. Altara nagusiko I-rudia,Andra Mariarena,ortan aituak ~~niñezkuesaz~~ diñoskuenez,aurreko eleizearen denporetan egiañ da.

Itxasnak bere ur-gora ta ur-berak daukoz. Orobak laborantza,etxegintza, industrigintza ta gaiñerako gintza guxtiak be, Gertakari bitxia dirudi,baiñ orrela dozu. Jazneren eskabidea ez ete? Dana dala,erriak erlejiñ zeretan be,izan ni ditu antzeko goraberak,gaur aberats ta biar beartsu.Euskalerriak ez dau iges olako azi-orrazi ta uts-bete-statik.

Bizkaiko eleiztarren fede bizieri dagokiozale,XV ta XVI'garren gizaldie-tun zear ni ez lakoxe loratze joria ikusten da. Garai ortaknak dira makiñ bat eleiza,batzuk lengo zarrak barri e;inda,beste batzuk lengo zarren lekuaren oso-osorik barriak jasotak: lugnak baiñ zabal,jagi ta apaiñagnak,ain zuzen. Nein artean zenbatu doroaz A.Mariariku-a'k: Portugalete'ko Andra Mari,Lekeitio'koa, Hernika'koa,Bilbao'ko San Anton,Durango'ko Andra Mari ta Santa Ana,Lexona'ko Juan Bautistarena, Bilbao'ko San Nikolas eta Juan Deunena,Mungia'ko San Pedro,Zenarrutzakoa'ko Andra Mari, ta besteak.

Bilbotarrak etziran azken fede-loratze ortan,eta Begoña'n euken Andra Mariari eski-itxiko txiki ta zarra eraktxirik,barri bar,zabal ta lardenagoa,jasotea erabagi eben. Murreko gizaldietan,gaiñak,bai bilbotarrak eta bai begoñarrak zenbatu ezin aiñ mese.

de izan ebezan Begoña<sup>ko</sup> Amagändik; ainbat mirari ta gitar jazokun bals-bala lengille, baserritar, itxastar, salerosle ta olakoen artean. Ama miraritsuak, bida, eleiza bikein-bikaina bear eban. Eta or argi ta garbi orduko bi-kaitar fedetsuen lana, or Begoña<sup>ko</sup> eleiza, ondorengoa gizaldiak zear garai aretako kristiñau zintzoen fedaera nabarmen itxiko eban Andra Mariari eregitako egoitz, jauretxe gurena; eleitzarren eskupeko ta limosnaz tajutsu ta printzeltasunez egiñikoa, inundikan be.

Eta gogo onekoien limosnaz jasoa zalako, bara-bara ta geldiro egiña i-an bear gaur dâu Kaguna. Daki junez, 1511<sup>an</sup> azpiko oñiarriak ipiniña eukozen; bertakoakaz batera ergin talde batek egian lana, eta ekiñaren ekiñez XVI<sup>garren</sup> mendean barruko erdi zabala, ezkerrekoia ta torrea amaituta egozsn, edo beintzat amaitu-agircean. Ezta arritzekoa be ta, olakonetan oi danez, sarri sortzen ziran eztabaidak janak atzeratu eroieza-nak; batzutan limosnak urritzen ziran, beste batzutan Patroi, dizuzain eta bertokoien artean jögiten ziran aitu-eziñak ebezan oztopo. Deabruaren azpi-joknok, ezmezik gabe. Baiña goitiko laguntzari esker koxa eta gizonen gogo onari, eragozpen eta koxtor guztiek pinoretatuak gelditzen ziran.

XVII<sup>garren</sup> gizaldirako, ia osorik, amaituta egnan Begoña<sup>ko</sup> eleiza, ta Andra Maria bere aurki ederrean. Pizkaka pizkaka jantzi zan dana, biotz-jario bereziz; barrutik, altara nagusiaz gaiñera, amar altara txikiagn eukazan alboetan, bakotxa bere lanparangiz ornidute; karipotik, torre galanta, kannai-pillo durundutsuz. XVII ta XVIII<sup>garren</sup> gizaldietan batez be, oso aberats aurkitzen zan Begoña<sup>ko</sup> eleiza, jantziz, argiz, irudiz, pinturaz, tailu ta zizel-lanez; aurrekaldea baitik hat, Begoña<sup>ko</sup> armarriaz eta g "goria" esaten yakon lanparargi aundi, ospetsu ta sekulakoaz, ikusgarri be ikusgarri aurkitzen zan. Aberastasun guztiek, alian be, urteak igaroz jasan bearko zituan gudaldietako lapurretaez eta triskantzaz alderandu ziran geienak; gaur olako bitxikeri barik, eleiza bearte tsuari dagnkionez, erin aintzagariago daukazu.

Eleiz-gizonetatik nortzuk ziran santutegi onen arduraadun? Edesti-osto artean galtzen diran egunetatik XIX<sup>garren</sup> gizaldirarte, Bilbao<sup>ko</sup> Santiago eleizako apai-z-batzak, kabilduak izan eban Begoña<sup>ko</sup> eleizan arimen ardurea. Kabildu ortako bat, Begoña<sup>ko</sup> elizaldeak aukeratua, Begoña<sup>n</sup> bertan bizi izaten zan, bertako arimazeaintza egiñik: eleizkizunetan, jai aundietan atan be, ainbat laguntzaile izan oi zituan. Patroi bat be, lenengo Jaunerriko jaunak eta gero sendi aundikiren bat, ba-eukan Begoña<sup>k</sup>. Kabi-lduak eta Patroia erabagi oi ebezan gauzak, eleiza zaindu ta jagoteko. Ba-ziran sindio serra batzuk be, eleiza jantzi ta tresneria garbi ta aratz iraen-azoteko. Maiordomo hatek, eleiztsarrak eurak aukeratutakoak, eukan diru-arazoa. 1833<sup>tik</sup> aurrera bere Kabildua euki izan dau Begoña<sup>k</sup>.

Orrez gaiñera, Kofradi bat eban santutegiak, guztiz ospetsua, bertako gauzeten, eleizkizunetan batez be, arduratzen zana. Antxiñakoa guztiz. Aspaldiko oitura zanez, eleiza ta ermita, gure artean anaidi bat izan oi zan, bere lege ta arauak eukazana. Begiñaknok, 1611<sup>an</sup> idatzita, labur-laburra eban bere legedia. Karguak urtero barritzatzen ziran, urtetan ziranak sartzen ziranai emoten eutsen euren egiñaren kontua, diruarena ta ahar. Maiordomuari egokion. Anaideko ondasunak, tresnak, ikerriñak eta beste zerak gorde ta zaintzea. Kofradikoen pentzura egoen limosnen goraberak, eleizan bear ziran jantzi, argizagi, orio ta olakoen gastuak ordaintzea. Bilboa<sup>n</sup> bertan izan zan beste antzeko Kofradi bat, Begoña<sup>ko</sup> Amaren izenekoa, gero 1803<sup>an</sup> Begiñknagaz alkartu zana. Kofradi au, 1941<sup>an</sup>, barritzua izan zan, eta 1949<sup>garren</sup>eruntz 6.000 famili eukazan bere magalean.

#### Iskillu-otsak inguruan

Bizkai kondairan irakurten danetik, auxe ateria leike erreza: amazortzi-garren gizaldiaren biran, hi kaitarren Jainko-zaletasuna ta orrekintz bat Andra Mariaganakoa gni-gniko bitsetan abizkizak ebillela; gorago ez ei da eldu bizkaitarren eraspen uinla. Zoritzarra, baiña, laster agertzen g izkin-adarrez: lengo-gauzetatik asko, triskantzaz ikaragarria egiñaz, beko leza-zuloraiño eratsita itxi euskuzan. Ondamendi onen abarrtsak Bizkai osoa dardarazi eban; baita Begoña<sup>ko</sup> santutegia. XVIII<sup>garren</sup> gizaldia-ren azkena ta XIX<sup>garrena</sup>, ia osorik, dhabakea izan yakon Begoña<sup>ri</sup>; garai aretako gerreta iskillu-it... zirula tarteko, gorriak ikusi zituen eleizeak eta inguruak.

Prantziko matxiñadeak ondoren txarrak ekarri eutsozan Euskalerriari, onik ezartariko errurik izan ezta be: euskaldunok ez doigu iñoziz iñoren lurrik, ez ondasunik ona izan, iñok sartu gaitu beti etenbako liskarretan. Frantsesak, 1794<sup>an</sup>, Bidasoa<sup>z</sup>

on nt, etorri yakuzsnak eta gipuzkoar-bizkaitarrak zer eroana izan genduan; 1795'an izenpetu zan Basilea (Suiza) 'ko urian bake-itunbena. Ez eban kalterik izan Begoña 'ko eleizerik,baiña gärsi ortako gudu-gastuak ordaintze, kutxetan eukazan zidarreritik moltzo ederrak atera bear izan ebazan, lanparargi ta beste olako bitxi ta eskintzariak saldu be bai

Andik laster barriro gudu-txinmartak. Napoleon-en goi-naiak ez eban mugarrak, eta Europa nsoaz jabetu ondoren, gure lurralteetara be zanart egin. Fernando VII garrenari, Espainia 'ko errege zanari, Gajona 'ra dei egüik, maltzurkeriz bere errege-koroia izteko agindu eutsin; baita lortu be; orituak dira maiatzaren 2' garrenean Madrid-en jasz ziran zaleparte ta ilketak. Mugaz emendik Euskalerri osak -Naparroa, Araba, Bizkaia ta Gipuzkoa- oldartsu eutsi eutsen aren gudarozteai. Bilbao zutik jarri zan aren aurka, ain zuzen, 1808'ko dagonillaren 6'an, baiña Merlin emen zan laster eta Bilbao, Abando, Deustu ta Begoña ederri zigorr-ezo ebazan, bai bertsonak eta bai etxeak: zortzi milloia errealeetik gorako galpena izan eban emengo ingurunk. Begoña guda-niñak gertatu zan, eta santutegia gaztelu. 1813'an am itu zan frontsesen agintarit-a; konta ezin ala lanurreta, trilla ta ausi-abartzaz, Begoña te birak ondo murri-tuta itxirik, aldendu ziran.

Frantses zilimala ta barraillak ixildu ta laster, 1814'an, barriro daukagu Fernando VII garrena Espainia 'ko errege-aurkian. A il zanean, 1833'an, zati biegin ziran espainiarrok, liberalak (isabeldarrak) eta karlistak. Liberalak Fernando-ren alaba Isabel nai eban erregiña, eta karlistak Fernando-ren anai Karlos Maria Isidro. Espainia 'n "Salitar" eritxon legez, emaztekiak ez euken ez lur-banaketan ez errege-aurkian esku artzeko eskubiderik; lege au Espainia 'n onartua zan Felipe V garrenaren garaitik, Begoña, baiña Fernando VII garrenak, semerik ez eukalakn, indargetu egin eban lege ori.

Eta ona nun, ostera be, euskaldunok nastauta: guri yoakun arazoa izan ez arrren, lenago Bizkaia 'n eta Gipuzkoa 'n Aide Nagusiak, eta Naparroa 'n beamontetarrak eta agramontetarrak lez, burruka zitalean nastauta. 1833-10-3'an jo eben karlistak turuta, gerrarako buruta; euskaldun gaztedi geienak karlatarren alde jokatu eben, alderdi au erlejiño ta foruzaleagn zala-ta. Alakrren arteko eroaldi latzak izan ziran; or Tomas Zumalakarregi ormaiztegitor azkarra, On Karlos 'en alderdikoa, Begoña karlatarrak Bilbao inguratuta eukieila, Begoña 'n zauritu ta Zegama 'n illa, 1835'an.

Sei urteko gerraz, lurra jota geratu zan Euskalerria; 1839'an Maroto karlatarrak eta Espartero isabeldarrak alkarrri emondako besarkada etoiaik amaika gazte ta ondasun itxi eratsita. Begoña gaur onen eta biar aren eskuetan egon zan 1835-36 bitartean; santutegiak, torre ta eleiza, bereak ikusi ebazan, berton egotez egon ziranak bada alboetako altara, azpiko ol, sakristiko kanbazko balda ta zizkuak, koruko organu ta gaiñerakoak ondatu situen eta. Azkenengo an aurkitu ziranak, Espartero 'n taldekoak, euren arrantxuak berotzeke, eleizan geratzen ziran altara ta irudiak oro erre ebezan. Andra Mariaren irudia, alan be, Santianón eleizara jatsia izan zan orduko.

Aurrera oraindik zoritzar bidez. On Karlos, Fernando VII garrenaren anaiaren billorbak, 1872-4-14'an Ginebra 'n egüiko idazki baten bitartez, beste zutitze bat iragarten eben; zutik ostera be liberaleten aurka egin bear zan gerrarako. Urte bereko maiatzean napar-lurralderetu zan On Karlos, Euskaldunak, asko ta askok, onen alde jokatu eben: Dorregarai, Lizarraga, Dorrondo, Belasko, Santa Krutz apaiza, Ollo jeneral, Inarragirre ta bestek. On Karlos VII garrena, ain zuzen be, euskaldunai poza emtearren, Gernikaraiño eldu zan 1873'an, foruak ontzat artzera nimbait..

Andik iru urtera, alan be, 1876-2-25'an Luzaide 'tik zeair erbestera joian jgesi. Olan amaitu zan bigarren karlistadakoa. Urte orretan galdu ebazan Euzkadi 'k bere eskubideak oso-nsorik. 1874'tik Alfonso XII garrena zan Espainia 'ko errege.

Bizkaia gerrate ontan, Bilbao ezik, karlistena zan guztiz, eta Bilbao be 1873'ko dagonilletik urrengoko urteko maiatzariñ, karlistak ipiñitako esi barruan aurkitzen zan. Begoña su biren artean; oraingoan be, txandaka, alderdi biak eukiezan santutegia ta ingurumariak: aldiakada baten Artagan 'en eukezan karlistak euren kañoiak eta liberalak eleiz-torrea. Erasoa bizi artean, sarri suak iruntsi ebazan eleizako teillatu ta alboetako etxeak. Satahas bere katepetik askatua, emen zeair igaro zala zirudian. Begoña ondatua, eioz, ta Bizkai osa hardin, seme, ondasun eta erakunde zarretan guztiz morritzua. Gudaldiaren ondorio ikaragarria! Or Begoña, euskal erriaren larrialdi ta oñazleen ziñaldari.

Azkenengo istilluetan Begoña 'k, alan be, ez eban zeair aundirik izan, neizta Artxanda 'k alkar-jonte setatiak ikusi. Gu be an giñan, eta Bilbo gaiñeko muiñon luzanga ori galdua, beerantza ejin genduanean, Begoña 'ko eleizan belarnek mukurtu geruak, Bizkai-ko Zaindari gozgorri geure ta geure erriaren biotz-pilpilka otoitz egiñik.

1936-37'ko guda ontan, santutegiko pitxi ta abar, Euzko-Jaurlaritzak

AURTXO BATEK MARIA RI

Lorezalea zera,  
ene Amatxo?  
Orra,bada,zuretzat  
iru sortatxo:  
iru sortatxo txuri,  
gorri ta ori...  
zuretzat bilku ditut...  
Amatxo, tori.

Zuretzat oiek biltzen  
zelaitik zelai  
ibilli naiz gaur,Ama,  
pozez eta alei:  
t'ederrrenak artuta  
nator Zugana...  
Beroikin artu nere  
muin ta laztana.

Loretxu oiek ortxen  
zuri begira  
beti egon,ta pozez  
ortxe ilko dira...  
Loretxo bat nai nuke  
izan nik ere,  
ez eiteko.Zugandik  
alde, beñere.

Gaizto asko omen dira  
bazter oietan...  
Beti maiteko zaitut  
nik bai benetan.  
Zurekin bizi beti,  
beti zu maite...  
Nere Ama kutuna  
beti izan zaite.  
Gaurtik,Ama,zuretzat  
nere bizitza,  
Zuretzat nere biotza  
et'eriotza.

L.Jauregi

MINEZ

Mendiak gora dioazenek  
zerua, dute atsegin:  
nerau berebat biotz barruen  
mendirik mendi noa arin.

Ta biotza dut min-zauritua  
zérura joan gurarik:  
Ene biotza! zeruragiño  
iraun zak min-zauriturik.

J.Zaitegi

B E G O I N A ! R A N T Z

Siniste-argiaren larre usaintsueta  
eresi=egoz dabil, euskaldunen fede.  
Beke-zaleen gogoak goi-adorez, bide,  
zeruko Amagana, pozezko ibilketa.

Asmu onen xedeak, barru-bultzaz, pozez,  
lurraren zikiñetik indar dagi, gora,  
maitasunez eskintzen, abesti ta lora:  
Biozkada guztiak Amaren omenez.

Zintzoen maitasunak malko, otoitz, abesti,  
Begoña'rantz urratzak buru, biotz, zentzun,  
Amari eskintzera, biotzez, maitasun:  
Olako jai-aldiak guztientzat ezti.

Maitasuna ez da itz uts, kristiñau onentzat:  
Arimak lotzen ditu goitar lokarriaz.  
Barrunbeak argitu itxaropen-zuziaz:  
Tokirik ez dau isten, pekatuarentzat.

Mundu nekatuaren zidor ausietaz  
illun ta motel dabil, gizarte urratua.  
Zelai ukakorretan galdua zentzua  
illun dakuste, oro, argi bako maldaz.

Artagan-tontorretik zuk, baiña, Ama, guri,  
zerutar bakea ta poza damoskuzuz.  
Beti zaukaguz adi, begi errukitsuz,  
erbeste ontan, gure urratsen zuzendari.

Aldi nastetsu onein bultzakadak-arren  
zeure gaituzu, Ama, leen eta orain be.  
(Belaunik-belaun eldu-oneraspen-jabe),  
Zu bage ez da, munduan, bakerik izanen.

Artu, ba, abegi onez, Ama laztan orrek,  
euskaldunen fedeak dagitsun opari.  
Ez itxi amilduten Euskalerria'ri:  
Genre izatea galdu ez dagizkun, ezek.

· B. Aurre-Apraiz

==== ♫ ♫ ♫ ====

MAIATZEKO LORAK

Ez dogu bizi gura  
 zugaz apartian;  
 bildur gara,bai bildur,  
 galdu ez gaitian.  
 Etsai deungakaz batian  
 sartu ez gaizan.lurpian  
     gorde gaizuz  
 zeure mantupian.

Maiatzeko il  
 dontsu onetan  
 dei eiten dausku  
     Mariak:  
     "Egizko biotz  
     lora-txortakin  
     erdua,pekatariak!"  
 Goazen,bada,  
 Ama onari  
 betetara guraria,  
 itxeroteko  
 zeruan gero  
 Amai biagako saria.

Jaungoikuak  
 gorde gaizala,  
 Miren Sorkundez  
     Garbia,  
 onoidadezko  
 lora guztien  
 baratza miragarria:  
 zeugana gatoz  
 mesede billa,  
 zeruko Andra Maria!

Agur,Josu'ren ta gure Ama,  
     eta Zaindari bakarra!  
 Agur, zeruko eguzki eder,  
     agur,goizeko Izarra!  
 Goi-beistako Erregiña ta  
     gure Jabola zeu zara:  
 zugana gatoz mesede billa,  
 zeruko Andra Maria.

Enbeita ♂tar Kepa

MARIAREN BIHOTZ

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
orizu betikotz / gure Herria.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
goizeko izarra / bezein argia,  
xora zazu xora / gure begia.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
lur huntan berriaren / zeruz betea,  
gure bihotzeten / finka bakesa.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
Jauna gizonzean / Jainkoz betea,  
azkar zazu, otoi, / gure fedea.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
~~armada oso bat / bezein beroa,~~  
~~pitz garbi egon gaiten / eman indarre.~~

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
uden iguzkia / bezein beroa,  
pitz guten Jaunaren / emodioe.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
Jesus'i musuka / gozoz urtua,  
emaguzu Jesus / eta zerua.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
zazpi atsegaben / ezpatak joa,  
erakuts-zaguza / gaitzen gozoa.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
gurutzeari so / odolztatua,  
entzun doakaben / auhen oive.

Mariaren bihotz / guzuz garbia,  
penen goxatzaire / goxo-goxoa,  
orotarat eda / bozkarioa.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
obendun beltzenen / iesolekuas,  
gutarik betikotz / ken bekatua.

Mariaren bihotz / guziz garbia,  
Ama bihotz ezti / eta zabala,  
il-eta zerurat / joan gaitzazula.

X. Iratzeder

## BEGOÑA KO AMA BIRJIÑA

### I

Zure Kondaira, Ama,  
gura neuke edestu,  
ta ortarako laguntza  
zuregandik lortu.

Aspaldidanik, bida,  
Artagan zeitugu...  
gizaldi illunak ziran,  
ezin geinkez aztu.

Mendeekaz batera  
maitale zintzoak  
aurkitzen doguz beti  
Begoña-zaleak.

Uga, maixuak lenen  
ta gero aita Granda'k  
zutzaz idatzi eben  
itzurazko lanak.

Au dogu Kondairea,  
benetan jatorra,  
itz lauz egileikoa  
lortzen goiko mailla.

Humboldt ibiltariak,  
Marcilla'k ondoren,  
inguru ta mirari  
dabez ondo abesten.

Beste askoren artean  
doguz Artiñano  
ta Mañarikua'tar  
Ander Eliseo.

Egungo egunean  
au dogu bai gaillen,  
danoi irabazirik  
gure Ama goresten.

Bere edesti apaíña,  
polito orniduta,  
urrezko eztaietan  
irabazi ebana.

### II

Irurogeitabost  
urteak betetzen  
Jaurerriaren Zaindari  
yatxula izendatzen.

Gariñlak ogetabat  
mende ontako iru  
egun zoragarriaz  
gara konturatu.

Ritoen Batzarrean  
zinduzen ospatu,  
Bizkai'ko Zaindaritzia  
guretzako lortu.

Olako zaindaritzak  
gaitu, Ama, postutene:  
gure zintzotasuna  
gagoz zuri eskeintzen.

Batasunaren Aita  
dozu zure Seme;  
batu euskal biotzak,  
Bera dogu Errege.

Triskaturik dakusgu  
gure anaitasuna...  
Izan zaitez, Amatxo,  
guztioan Ama.  
Gure arteko gudek  
gaitzezan amaitu,  
bear dogu dan-danok  
zuri erreputu.

Zure laguntasunaz  
etsaia Jaurtita  
gero erraza izango  
guztiok batuta.

Olan Euskal-Erria  
dozu gaizkatuko,  
zoriontasuna orain  
ta gero betiko.

Umetxoa nintzala  
naz hi gogoratzen,  
Zabalbide tik bera  
gizon bat etortzen.

Ez genkian izenik,  
ezta nyngoa zan  
Begoña ko Birjiña  
eu kan beti agoran.  
Aldien zurrubilloaz  
joan yakun betiko  
Begoña ko santua  
deitutzen urtako.

Uste dogu Birjiña,  
zuk artu zendobia,  
Ar gagizuz gu bera,  
ta eroan zerura.

Begoña'ko Birjiña,  
amaitzera noa  
bitzu euskal jentsa  
ta jabon Bizkaia.

Zure maitasunean  
gura geunke bizi,  
ta zure magalpean  
begiak, Amal, itxi.

Arregi'tar Josu

AGUR, AGUR, AMA!

Agur, agur, Ama!  
 Gure Amarik onena!  
 Gure erri dana  
 artu ta zaindu,  
 Amal

Zure Semean  
 eskerria iritxi figuzu;  
 danok zerura  
 joen gaitezen,  
 Ama, egizui

AMA BIRJINA EROITZEAN

Bi esposek zirenean  
 borda xarrean sartu,  
 ahalik obekiena  
 bazuten gerizatu.

Biharamunean baha  
 zaudezela tristerik,  
 erditzeke orena zen  
 erstu uste kaberik.

Illargiak zuenean  
 egin bide erdia,  
 seme ederraz erdi zen  
 Birjina Ama garbia.

Argatik etzuen galdu  
 Birjinan ohorea:  
 ezeñ mundantzarik gabe  
 egin zuen Semes.

Emagiñaren etzuen  
 niola ere beharrak:  
 zerengatik ez baitzuen  
 sentitu dolorerik.

Bularra zitzaison betan  
 mirakuluz istorri:  
 edoskitzera zioen  
 emen bere Aurrari.

Amak ase zuenean  
 eta ongi unatu,  
 denborak ,iotsan bezain  
 ungi zuen troxatu.

Manjaterean pausatu  
 zuen lo egiteko:  
 ezen bertze seaskarik  
 etzuen emateko.

J.Etxeberri

ERROMEGEN ERESERKIA

<sup>men</sup>  
 Era gatortzuz, Ama, urrungo semiak  
 igarorik itxaso ta mendi andiak,  
 Begoña'ren izena urrundik entzunik  
 zu erregututera lurrian etzunik.

- Pozik nere Semiak emen zakusaze,  
 euskaldun ta erdeldun, fededun neste.  
 Amai ondo batuak emen ikustiak  
 zelen poztutem ditu zerutar guztiak!

Nire neitasunak gaur ona zarakartze  
 leku urriñetatik jente zar ta ga, te,  
 adierazotera zuen siñispena  
 dala illezkorra ta sendo sutsuena.

### BEGOÑA KO ZERUTARRARI

Bizkai'ko mendi polit bateka  
artadi illuntsu ta zarran,  
gabesz illargi betia legez,  
agertu Andre Miren zan.

Uña, baso ta bazter guztioak  
bere arpegi ederrak  
betatan euzan zeruko argiz,  
danoi eskiñik eskerrak.

Ordutik ona, lior ta itxasoz,  
Miren-arpegi garbia,  
aldi guztitān, da, guztiontzat,  
goiko zorundun Izarra.

Atoz, atoz, ba, bizkaitar onak,  
Begoña'k daukan ~~azkena~~ Artera:  
zuen Ama ta Jaunguarena  
bertan dagona bera da.

Ama maitia, entzun eiguzu  
geure biotzen arrena:  
zeuk emon ezik argia geuri,  
oso itxutuko geu gara.

Gaurko Bizkai au, Ama lastana,  
ezta antziñeko lakuak:  
len ekandu ta lagia, ta gaur  
Abenda zerra galdua.

Zaindu gagizuz, geu bizkaiterrok...  
Erruki, Ama zakigui  
Eta estuntza gogor-gogorrok  
zeure semeoi azkatui

Arane-Goiri'tar Sabin

### ZAZPI, BAI, ZAZPII

Zazpi ezpataz/ikusi zaitut  
irudietan josita;  
bihotz zeurea,  
maite-atea,  
zauri aundiz edegita,  
gizonek anker jarrita.

Kaxkarrena dan / gizonek bere  
ez ete dauka amarik?  
ta amarik ba'dau,  
bat, bi, iru, lau  
eta zazpi ezpatarik  
Andra Oñari sarturik?

Kaxkarrena dan/gizonak bere,  
aita egiten danean,  
andratzu ona,  
semeen ama,  
ez ete dau bihotzean,  
bizi dirauan artean?

Ta alian bere, / zu, Ama gozo,  
Seme Bakarraren ama,  
zazpi ezpataz  
eiger zaiataz,  
errukior ta otzana:  
Zuk nire obenen zamal!

E. Erkiaga

MINEZKO EZPATA  
(Andre Mariaren zazpi minaldiak)

1. Simeonen berri txarrak

Simeon zaharrak Aurtxoa besarka  
 jaso du ta Amari Artaz mintzo zaiο:  
 berri mingarriek salatu dizkio,  
 aunitz etsai, gudu, erra ta jazarka.

"Anbat anbat jendek Seme uni aurka  
 eginen diote bizi den artio:  
 ta zerorri ere ezpata batek ja  
 ta josiko dizu arima zearka".

Oi Ama gixbal Ordutik beretik  
 egunez ta gaeze sartua darama  
 minezko ezpata biotz barrenean.  
 Seme ori guziz maite duzu, Amal  
 ta jkitun zaude alere surretik  
 gurutzean dela ilko azkenean.

2. Egitora ihes

Jesusi zer egin nai diοk, Herodes?  
 zer asmo darabilk, errege tzar maltzur?  
 -Bidegabεz dauken jaurgoa gal-beldur,  
 Aur jaio berria il nai luke oihes.

Alferrik, ordea! Josepek garaiez  
 (zeruko deiari jarraikirik zuhur)  
 Ama-Seme ciek artu ditu labur  
 ta badarametzi Egitora ihes.

Utzi bear beraz auzo, adiskide,  
 etxe ta lantegi ta erria, bide  
 neketsu luzean arat aldatzeko.

Goizik asi zera, Jesus Aur minbera,  
 zu ere, Maria, goizik asi zera  
 nekeak ikusten gu zeruratzeko!

3. Jesus Aurra galdurik

"Non nik nora zabiltz, ene Jesus eder?  
 iru egunotan etzare ageri:  
 ta ni, onik gabe, atsekabez eri,  
 bila nabilkizu or bazterrez bazter.

Bidetan, karrikan, plazan, eskuin ezker  
 galdegin dioret zutaz guzieri:  
 inork zure berri ez ematen neri,  
 ta nera urratsak orain arte alferi

Zure aurpegia, otsi erakustazu  
 ta zure mintzoa erantzun zadazu,  
 ez gorderik egon, ene Seme maite.

Zure aurpegia orren berregin da,  
 ta zure mintzoa orren atsegin da;  
 minez il ez nadin, Jesus, ager -aitε".

#### 4. Kalbari-bideen

"Gizonen obrnak zure gain jarririk,  
ene Seme Jesus, bazoaz iltzera:  
bazoaz guzirn zorría ordaintzera,  
naiz zerorrek egin eztuzun gaizkiri.

Ez Tomas, ez Petri, ez bertze bihirik  
etzaitzu ageri esku ematera;  
or banatu dira zein bere aldere,  
zu etsai gogorren menpean utzirik.

Deusen ere, beldur ez omen ziraden...  
zurekin iltzeko gertu omen zeuden...  
alere guziak ihes joan dira.

Ta zu bai, aiek ez, bazoazi mendi  
malda irtan gora, urkabe-tokira;  
ei ni zure ordez il ahal banendi!"

#### 5. Gurutze ondoan

Gurutze ondoan Ama xutik zagon  
Semea oinaze gaitzeten ikusten,  
anbat zauritatik ari odol-usten,  
itxura galdurik, ar bat ta ez gizon.

Amari malkoak usu zerizkion  
ta musuan beiti zurrustaka jeosten,  
barnean biotza darder inatxrausten:  
ez mihiz, bai begiz onela zintson:

"Gaizkile entzora il urren zagoñkit,  
ene Jesus ehti, ene Seme bakar,  
nere ume ta bai nere Jainko ta Jaun.

Zure laguntzeko ezer ezin dagit,  
ta nik neure begiz au ikusi bear...  
Aii nola dezaket nik bizirik iraun?"

#### 6. Semea il ondoan

Ama, besartean dauka zu tinkoa  
gorputz ori, orren urratu etena.  
Ori al da zure maiterik maitena?  
Ori al da zure Seme ta Jainkoa?

Ori al da noizpait Belen-en jaioa,  
ingeruek agur egin ziotena,  
artzain ta erregiek jauretsi zutena,  
zuk orren guriuki ahi ta jasoa?

~~Nola den aldatu lehen zen ertatik!~~  
Alderdi osorik eztu, oin-zolatik  
bururaino dena zauri, uspel, saki.

Gorputz ori gurroek dugu il-gogortu,  
ta guk Mariaren biotza ebaki;  
guk Ama-Semeoi orrenbat min sortu.

### 7. Bakartasunean

Garbitu ta usain onez igortzirik  
ilobira dute Jesus-en zurruna,  
Amaren biotza, oi biotz biguna!  
arekin batean lurpean ertsirik.

Orain Aren minek eztute neurririk:  
or dago aurgabe, zurtz eta alarguna,  
bere seme ta jaun ta bizi-laguna  
ezpaitu ikusten ilik ez bizirik.

Jesus gabe orren bakar zaude orain!  
Bai zure zarrazta itsasoa bezain  
andia da zinez, Ama maitaria.

Nik nai dizut bida gogoz lagun egin,  
gurutze ondoan egen or zurekin,  
negarretan jardun zurekin, Maria!

Irisarri

### IL-OBIA UTSIK

Añdra onak zioazen  
tristerik baratzera,  
ungendu onez Jaunaren  
gurputz-a gantzutzera.

Añgerua batu zarie  
tonbaren eskuñean,  
monroin gazte kortes baten  
iduri ederrean.

Ospiñak legez zioen  
argitzen bekokiak,  
eta tresnek ere onesten  
nola elur xuriak.

Sepulturarat andreak  
direnean urbildu,  
hitz kortes hautzaz bazaie  
aingerua mintzatu:

Andreak beatu zuten  
tonbaren barrenera,  
eta egiak aurkitu  
erranen aurauera.

"Andreak, norat zoazte?  
Zuek galde duzuena  
piztu da, ikus azue  
sepultura barrena.

Tonba-harri bera nahi  
darotzuet irauli;  
zatozte, ikus azue,  
etzaiztela izi.

Huma non den mihiisa,  
huna oraino lumatxa;  
ikus ezazue nola  
sepultura den hutsa.

Eztuzue ungenturik  
zerentzat gantzutzeko,  
ezen biztu da, ez nihaiz  
gehiago iltzeko".

J.Etxeberri

### OI AMA MAITEA!...

Oi Ama maitea,/ beha zuguzul  
Graziaz betea,/ entzun gait, atzu.

Sure bihotzeten/ dagola Jesus,  
gero zeretan / dezagun ikus!

Emozu aitari / fede beroa  
eta, lanen sari, / bozkarioa.

Ama urus, du:un / beira etxea  
emanez osasun / eta bakea.

Susta heritarren/ bihotz guziak;  
zerura ditezen / igor graziak.

Oi! bete Jesus'ez / Jaun erretora.  
Hauta hainitz epez / eta serora.

Ornatua maitaraz / Aita Saindua;  
zeruko bakeaz / argi mundua.

B I L B O

Ta, Bilbo , Zure oñetan ,  
 Bilbo , gure Bilbo , Bilbo ...  
 — Bilbo gar , Bilbo barria ,  
 Erbestekeriz iantzia — ,  
 Bilbo , gure Bilbo, Bilbo .

Zurw babes , magalpean ,  
 Auspez datza tximini zko  
 Kedar ta , dardaraz betea ,  
 Ainbat labek suturiko  
 Errri aundi , langillea ,  
 Bilbo zar , Bilbo guria ,  
 Burdiñakiz gorpuztua ,  
 Etorkizun iturria ,  
 Nerbion ibai arroaren  
 Alde bietan tinkotua .

Bilbo zar , Bilbo maitea ,  
 Burdiñazko egituraz  
 Ta, porlan suminduraz ,  
 Aurrerapen agirizko  
 Kutsutasunez errea .

Bizi billa , mendiz gora  
 Zoaz , edozein bizkarrera ,  
 Baita ontziz , itsasora ,  
 Ausarditsu ta , geraka ,  
 Munduz bizi izatera .

Ontzietañ zabaldu zara  
 Munduko alorretara ,  
 Eroanik zintzotasunez  
 Euzkal gogoi-egitura ,  
 Ikurriñdurik txapela .

Bilbo zar,Bilbo maitea ,  
Egungo zurrumbilloan  
Ez galdu zeure fodea  
Ta,~~gorde~~ maitasunexa.  
Ain gurea dan euzkarea .

Bilbo,Bilbo,gure Bilbo,  
Begoña'ko Amarenean  
Gura zaitugu gorengو ,  
Maitezko osasunean  
Eredugai izateko .

Bilbo,Bilbo,gure Bilbo ,  
Izan zentzu ederrean  
Begoña'ko Amarengو ,  
Ekintzazko gizartean  
Egi ta,zuzen aldeko .

Bilbo,Bilbo,gure Bilbo !!

---

Muniategi-tar Sabin

AMATXOREN MAGALEAN

Itsasoa urdin-urdin,  
ortziaren antza egin.  
Amatxo da Birjiña zin:  
aren aurruk galdu ezin.

Itsasoa orru dagi.  
Ontzitxoa galtzez larri.  
Amatxo nik babeslari.  
Bildurrik ez ekaitzari.

Itsasoa gozo dabil.  
Arraintxoak artan murgil.  
Amatxoren megal urbil:  
entxe nai nik bizi ta il.

Ataungo Bonipagi A.

AMAI

Aspalditik naukazu  
miñez beterik,  
biotzari odola  
dariolarik,  
lagunetan iñok ez  
ikusi barik.  
Ama, begira naizu,  
biotz samurrik.

Adiskide onenak  
ez dabe ulertzen  
nire miña. Poz-itzak  
birresan arren,  
ez dakite arantza  
nundik dagoen.  
Ama, begira naizu;  
begira: emeni!

Gau da nere ariman.  
Au gau illuna!  
Itzal bildurgarriak  
datoz nigana.  
Non ezkutatuko naz?  
Ama laztana,  
itzul zure begiak  
gaxo onengana.

Miñaren miñez nabil  
zoraturikan,  
bide erdian galdurik,  
noraezean.  
Bide-lagunik ez dot;  
norantz jaen?  
Ama, eroan naizu  
zure eskuetan.

J.A.Etxebarria

GABON-GABA

Ato**r**\_ba*i***r**to**r**,gabon-gaba-**a**ba...

Seaska zarra/kulunkaz darrai,  
aláz aurtxoak / begiñk ernai...  
Nork ito dio / lo-miña berai?  
Aiton-amonak/ orra billobai:

- Dantza, mutillaki! / Dantza, neskatal...  
Lurrak bere dik/bein-betirako  
egizko bide / bokarra!  
... Ontziok bete,/ barrunpe-eztal,  
intxaur zukulu,/ bakallo-ezpal...  
Gaztain errean / zirrara...

Gure baserri/ sukaldeetan,  
apal-orduko / irri-karkara;  
pozaren pozak / sendi bilduen,  
beteaz sabel-ijara...;

Orra Zeruak len-agindurik argi dizdira,  
bein-betirako giz-aro denep bigungarri,  
Dena lezaken J. Unan almenak utsa bailira,  
ain fizefuir doja, ezerzaren azumarrti,

Gau otz luzean, eta billotsik lasto gañean,  
seaska orde ganbela baten otzak dar-dar.  
Jeinkoa bera gure errukiz giza soñean,  
abere biren afnasa dula epel bakari...

AINTZA MIREN SORKUNDE GARBI-GARBIARI

Urrezko ate / Donokikuak  
 zabaliuk daukoz gaur/ gure Jainkuak  
 Irukoitz Deunak/ an egin daben  
 alatz andia / ospatziarren  
 Jainko-Alaba,  
 Goteun-Emazte, Josu'ren Ama,  
 beti garbirik izango dana.

Kistar guztiok / poztu gaitian  
 jazoten danagaz / gaur Donokian,  
 ume gyrgarri / ~~xertxexsakoa~~ bat sortu dabe  
 i,ango dana / goi-bein jabe,  
 Miren Donia,  
 ausirik Txarren/ suge deungia,  
 gu gaizkatzeko / Emakumia.

Itzik ez dago,/ nik dakidanez,  
 Miren goraltzeko / biar dan legez,  
 edertasunen/edertasuna  
 jakiturien / oxin sakona,  
 Izar argia,  
 bidegetuen / zuzenbidia,  
 ontasunian/ezin obia.

Ezin topau lei/bitartekorik.  
 Sorkundez garbia/ baño oberik,  
 onexen bian/gura esabak  
 eiten ebezan / euren batzarrak:  
 Euzko-Gastedi  
 Bilbokuak oin / eiten dau ori,  
 Miren dabela / beren zaindari.

Ben-benaz euren / zaindariaren  
 Sorkun-egun deuna / ospatziarren,  
 gaztadiako / bazkide gazte,  
 aizkide,lagun,/ sendi,emazte,  
 danak batera  
 duaz autortu/ta x jaunartzera,  
 gure asaba / zärren antzera.

Aintza goietan! Edonun aintza,  
 Sorkunde garbiko / Miren Neskutzai  
 Zeure laguntzaz/ Euzko-Gastdi  
 orrek gaizkatu / nai dau Euzkadi,  
 baltz,ori,gorri,  
 etsai guztiak kehduta garbi.  
 Aupa,mutillaki! ori,dok,ori!  
 (1916)

Enbeita'tar Kepa

GOGO-ELKARTEAN

Nerei nahiz eta gaberdia den.  
ezin dut lorik artu.  
Egia, gure hiru haurrak  
kanpoan dira, urrutti.  
Ongi dakizu.

Ikaskizunak,  
ogi-bideak,  
Munduko legea!  
Betiko leloa.

Bestetik, iñbiz baino bizikiago  
sumatzen zaitut neraan.  
Eta enago prest, gaur,  
gu bion gogo-elkartea una austeko.  
Ederki eman ere!

Ez, ez! Homela lilluretuak,  
bat bestarentzat,  
elkar-izketa giroan,  
bai gaudela ederkil!

Aizu; nola sumatzen dudan  
zure laguntza!

Jarrai honela, maite,  
beharrean nago ta.  
Ta eskatu beti Jaungoikoari,  
begiz-begi dezun Horri, gugatik.

Ni besterik ezean,  
Agur Maria!ka nabil.  
Eta egiazki ikasi dut esaten:  
"Egin bədi zure borondatea".

Bordari

ENARA!

Enara!  
Hegoen olatu  
haizearen itsasoan.

Enara!  
Abiadaren karabilka  
udaberriaren argitan.

Enara!  
Askatasunaren higidura  
gizonen ostatuan.

Enara!  
Egungentiko kantari  
gure etxeko atarian,  
momorroen ehiztari  
gure etxeko alorrean,...  
enara izan nahi nuke,  
enara bizkor eta trebe,  
gure Herriko atarian,  
gure Herriko alorrean.

Mikel Zarate

## A N D R A M A R I

Begoña'ko Ama , Andra Mari ,  
 Bizkai'ko goitizar ta, zaindari :  
 Ama laztan , Ama maitagarri ,  
 Zorionaren zerutar iturri !

Amatasunez soiñanzkiturik  
 Goiduram zagoz, eder-ederrrik  
 Artxanda lepoz, oiñarritua  
 Biotz-buruz, besoak zabalik ,  
 Errri-maitasunak goraldua .

Bazter guztietatik,bideak bide ,  
 Aldioro , goiz eta arratsetan ,  
 Barriz ez iausteko pekatuetan  
 Osasun edo , zerbaiten eskez ,  
 Erromesak zuganatzen dire  
 Zure grazi, laguntzaren pozez  
 Arrenka , otoiitzaldi beroetan .

Itxaropenez ta,biotz onez  
 Bai,bazter guztietatik datoze  
 Ta,arritzko armaillatan gora  
 Edota , berebilletan , Zure  
 Bozez ta,Zure bearrez igotzen ,  
 Urbiltzen dira ta, Zuganatzen  
 Ama , Zuri agur egitera  
 Barru-barrutiko eragiñez .

Nekazariak , arrantzalliaiak ,  
 Aberatsak eta , ezeukiak ,  
 Biotz arrunt aunitz asko dira  
 Beren gordinkeri ta , zauriak ,  
 Beren kezka, oiñaze , samiñak ,  
 Datozenak Zuri agertzera ;  
 Zure bitartezko mezedeak  
 Lorturiko zorion-iturriak  
 Zuri eskertzera datozenak .

Belen'go ESTALPIAN

Belen'go arkaitz/zulo batian  
 Ama dago urduri.  
 inguruko sorkari guztiak  
 ditu ixil-arazi.  
 Semetxo kutunaren zai dago;  
 noiz garaia etorri.  
 "Gauerdi beltz, ez geio illundu  
 - dio Amak emeki-;  
 zure illunpean iengoa da  
 laister, zeruko Argi.  
 Berak ekarriko du mundura  
 bearrezko dun egi".

"Negu-biotzaren gau otz-otza,  
 ez zaite minberatu.  
 Jainko-eguzki ditziratsua  
 emen artuko dezu.  
 Biotzen izotz, epelkeriak,  
 Berak urtuko ditu".

"Askatxo maite, lastoz betia,  
 bigundu zaite gero.  
 Goitik jetxi ta zure gañian  
 egingo du jaunak lo.  
 Zure oe gurian izango  
 ditu amets txitxoxo".

"Zeruko aingeru talde danak,  
 ego-lumak eragin.  
 Zoa, te laxterka mendi zebar,  
 betoz artzaiak arin.  
 Emen arkituko dute apal  
 Artzai on-onak etziny".

"Zeruko izarrik ederrena,  
 diz-diz argitsuekin,  
 argitu bide luze, illuna,  
 Erregeek ekarri.  
 Izarren Erregea laztandu  
 bitez, oso maiteki".

"Goi, eko eguzki-izpiekin,  
 urrin gozoz betetzen  
 zeraten lore spain ederrek,  
 zuek lez nago emen;  
 Zeruko Eguzki ederrena  
 leiatsu itxoiten".

Gauerdiko ixilla ta illumia  
 ziaro eten dira.  
 Aingeruek "Gloria" ozenez,  
 beta dure ortzia.  
 Belen'go estalpia arki de  
 argi izpiz betia.

Amak, pozez, alai, mitasunez,  
 laztantzen du Saria...

I Olabeaga

ALEGERA DADILA.

Alegera / dadila lur guztia,  
 ilunbeak / dire suntsituko:  
 ikusten dut,/ agertzen da argia  
 egunaren/guri emaiteko.

Lauda zاغun Maria,  
 Ama maitagarria,  
 Bihotzetik orok kanta zاغun:  
 Zuri,Ama,gaude oro egun.

Suntsi orai,/ bekatuen edoiak,  
 ager zaite,/ zu Izer ederra.  
 Pitz gaitzala / zure argi ibaiak,  
 zato,zato / gure laguntzera.

Aspaldian / ginauden nigarretan,  
 lur huntako / haur doakabeak;  
 bainan hau da / preserita: azkenean  
 eman dauku / Ama bat Zeruak.

Lehenago / Eva bekatorosak  
 ginituen / iltzekotzat saldu;  
 bainan Eva saindu maitagarriek  
 iltzalea / bera du bentzitu.

Uste zuen / guziak Suge beltzak  
 zituela/batekin galduko;  
 bainan andre/batek ditu guziak  
 Eva haren/heurrek salbatuko.

Di hauxe da / kreatura ederra  
 kontzebitu / den mement berean!  
 Zoin ederra / den goizeko izarra  
 ez da deusik hunen aintzinean.

X. Iratzeder

LORARIK ZURIENA

Ene Ama: almenen egon eziñā!  
 Zuregan biotzak naiko atsegia;  
 argi-ariz urrun doakit adiñā;  
 kanta-zale nozu, azka ene miñā..

Ozkorria bera bekokin dozula,  
 goizeko larrosa baizen zut-mardula,  
 oltzaren erdian ederrra zakustaz;  
 nire eder-miñaren asea zakidaz.

Errugea zara, oi Ama samurral  
 Sortzetik erruge, zuritan edurre,  
 laiñorik bako ortzi garbi ta oztiñā,  
 aingeru-begiak beste eder ta urdiñā.

Zure jantziaren gorrian dirdaika,  
 izarren antzera, liliak sundaka;  
 kutsu bage, aratz, eder, txukun guztiz,  
 useiñā dixurzu larrosena ibilliz.

Giza-biotzeten maitasun sugarra,  
 eguzki egunez ta gabaz izarra,  
 zelatan lorea sort deroan Urtzi  
 zeuk ekarri zendun,urre zurizko üntzi.

Izaki gaixoen poz ta gordet-leku,  
 biotza dardarez oiu ka naukañu:  
 zure kerizpera mator, uste osoz,  
 estali nagizu errukizko egoz.

Urratu ezkerro maitasun-katea  
 batez jalki ni da urrezko alea,  
 ta urre-ale gaiñez gora doa gogo  
 zure magalpeko itzal gozoraiño.

Bidea galduak eder dau argia,  
 nik zuregan daurkit itxaro eztia.  
 Bizitz-itxasoan uiñak arro zebaltzen?  
 Laztan amakorrez nozu inguratzen.

Oi zero-Erregiñ, Amatxo gozoa,  
 bost ori jaso ta zuridun maoa;  
 atsegia-jauregi, eskarren jatorri,  
 oñazien azkai, gaizten gozagarrir.

Barnean dabilkit Zureganako sua;  
 gaur, beintzat, edolan be entzun nagizu:  
 itun-itxas ontan zakidaz izarra,  
 etsaiak goitzeko egidazu indarra.

Ume zurtzen Ama, otoi gaur biotzak:  
 garbi, arren, niri gogoko lausoak.

Maite baizindidaz zor yatzun eraral  
 Ordun bai nengoke po-étan gogora!

BEGOÑA KO AMARI

Begoña'ko Amal  
 Ain zara pöhbit,  
 ain kutun zoregarria,  
 Euskaldunentzat  
 keirik onena,  
 babes-leku ta kabia.

Gure Bizkaia  
 gaixorik dogu  
 ta bardin Euskal-Erria;  
 illun daurkigu  
 gure geroa...  
 Zugandik yatorku argia.

Edertasunez  
 jantzirik zagoz.  
 Ludira, ordea, begira...  
 Gure eskariak  
 arnas estuan  
 zugana beti, joan dira.

Artagan goitik  
 Bilbotar danek  
 laztandu dozuz egiten.  
 Jarrai, Amatxo,  
 jarrai beti lez  
 zure kutunak laguntzen.

Zure Semea  
 besoan dozu.  
 Bera dogu guk Errege.  
 Bete bearrean  
 aurkitzen gara  
 bere agindu ta lege.

Gogora beti,  
 Ama Birjiña,  
 indarge ta aulek garala:  
 Zeruko ondasun,  
 bitxi ta doaien  
 iturri ta odi zarala.

Gure aulkери,  
 neke ta lorrek  
 eskeintzen dautzuguz, Amal  
 Txikiak gara,  
 ekatsez blaiblai...  
 Orrek garoaz gu Zugana.

Lotan bai dagoz  
 euskal biotzak  
 ludiko zurrumbilloan.  
 Itxartuko ete?  
 Or dogu koska!  
 Itsu bai dagoz argian...

Itxasotik be  
 mariñel onak,  
 gazte ta zarrak batera,  
 "Begoña'ko Amal"  
 -deika dabiltza-  
 eroan gaizuz kaiera".

Laburra dogu  
 gure bizitze...  
 Zu zara, baiña, Izarra!  
 Zugan ditxaro  
 Euskal-erriak!  
 Eroan eizu zerura.

Arregi'tar Josu

ZIRI-UNEAK

Iru izan zituan  
 zure Semeak  
 basamortu aretan  
 ziri-uneak.

Iru ditugu, Ama,  
 adin-buruak:  
 ume, gaztezero ta  
 zain-gogortuak.

Ez jakiñak giñan-ta,  
 umezaroan,  
 zero kutsuren bat guk  
 bular-lepoen.

Gaztez, gizontzenago  
 bihur-zidorrez...  
 norberak dakianaz,  
 beste iñok ez...

Azurrak ainbatean  
 zanak gogorrako,  
 maliziz Bete zana  
 okarren dago.

Gure basamortuan  
 egunak labur;  
 alan bere, alkarreri  
 min ta iruzur.

E. Erkiaga

O T O I T Z A

Ain biotzeko dodazan berbeta eta lurrez ... ,

Agur bero batez natorkizu mailtebera ,

Bizkaitar euzkaldun soil bat, ni naizen apurrez ,

Begoña'ko Ama kutun , biotzez eskatzerena :

Bizi izatezko poztasun eta bakea ,

Gure Aberri lastan,gure anai guztientzat

Gugandurik Zeure zeruzko begiradea

Nekepean ,ain errerik diardun erriarentzat .

Urreratu zaitez bai.erriaren abotsera ,

Zeure irribar ta,zabaltasunik gozoenez ,

Estualdietako samin, negarrak arintzera .


Ta,aintzirako fedez barriro .... bai,Begoña ,

Aintzalduko Zaitugu bai,biotzik sugartsuenez ,

Gourekoturik beti-betikoz Zure Oiña .

---

Muniategi 'tar Sabin .



1978 gto Bagillak 15

SALVE, REGINA

Agur,Maria, Ama guziz eztia,  
 gure bizia,gozo eta argia!  
 Entzun oihuak lurtiar doakabeak;  
 entzun hata-goraka,auhenez ta minez,  
 nigar-zelai huntakoak...  
 Ea,otoil gure beiralsa;  
 zure begi hoin urrikariz beteak,  
 beude guri beha.  
 Eta Jesus,zoragarri zure Seme hora  
 guri lur hunterik lekora erakute.  
 Oi zu,oi Amal  
 Oi zoin zaren eztial  
 Oi zoin goxo,zoin garbia!  
 Agur,Maria!

AGUR, GURE ERREGINA

Agur,gure Erregina,  
 Jesus-en eta gizonen Amal  
 Zure gerizan emana,  
 beti zurea da Eskualduna.

Sirjina guziz garbia,  
 hunea gu zurdineta.  
 Iku zazu zer lehia  
 guzien bihotzeta.

Zuk duzu Eskual-Herria  
 beti begiratuko,  
 eskualdunen sinestea  
 oraino azkartuko.

Eskualdun familiuetan  
 eskualdum fededunak;  
 beti zuk entzun ditutzu  
 haren oihu saminak.

Guk ere gure bizian  
 zaitugu maitatuko  
 il ondoan zurekilen  
 zeraue izaiteko.

Zurekin, oi Ama ona,  
 iltzeko tenorean,  
 lurreko azken orena  
 nahi dugu ereman.

Zurekin gare sartuko  
 egoitza zerukoan,  
 zurekin an izaiteko  
 bozkario osnan.

Borotra

ZATOZIE, MARIAREN AURHAK

Zatozte,Mariaren aurvak,  
 zatozte guziak betan  
 Mariaren laudorioak  
 kantatzeret errepikan.  
 Guziek ohora dezagun  
 zero lurren Erregina,  
 gure bozak altxa ditzagun  
 analik eta gorena.

Ar gaitzazu, oi Ama ona,  
 zure besoen artean  
 eta sar-aaz, Erregina,  
 otoi,zeruko iorian.

Entzun zatzu gure otoitzek,  
 Erregiña amultsua!  
 Begira zatzu zure aurvak,  
 oi Ama boteretsua!  
 Itsasoko Izar ederra,  
 gida gaitzatzu segurki,  
 el-eraz ditzagzon portura  
 zure aurvak doatsuki.

B E G O Ñ A

Begoña'n oña . Bizkai ezearen  
 Lur epel,gozatsu,ederrean ,  
 Maitasuneko santutegiaren  
 Zeruz menduriko lurraldean .

Ta,zein urrun nire gaztearoko  
 Praka motzekoz nekusaneko  
 Bizia ... Begiak arrimenezko  
 Ikusiz ziranean lekuko ... !!

Aldez-alde,orduko Bizkaia'n  
 Aritz tantaik,gaztañondoak  
 Zebiltzen aizearen igurtzian ,  
 Edertuz baso ta zokondoak .

Arto garatuak-eta dantzatzen  
 Ziran gariakaz erdi-batera  
 Ta,poxpoliñ kantu-otsetara  
 Egunak ederrik aizeratzen .

Begoña onen ingurumariz  
 Ta,eguna argitu baiño Ien  
 Andrazkoak,esnez ta ortuariz,  
 Arduratsu ziran uriratzen .

Igarotako ikus-molde ori  
 Gaurko abiadura,porlanpean ,  
 Ameskeri utsal bat dirudi  
 Atzerrizko egiturapean .

Bai mingarri,egungo zoria ,  
 Gaurko igidura lasterrean ...

Oi,Ama maite,Ama guria  
 Erdalduriko gizartapean !

---

Muniategi-tar Sabin .

AGUR, MAHLA, AMA ONA

Agur, Maria, Ama ona,  
ez gaitzazula,  
otoi, abandonat!

Zu zare zero goreneko  
Izar eder oistiranta,  
bertute ta justiziazko  
Birjina guziz puxanta.

Eiorri leparren erdian  
egertzen zaren lorea,  
Adam-en arraza guzian  
zu zare nota gabea.

Garbirik zinen kontzebitu,  
lore xuri bat iduri,  
bai eta beti emendatu  
fagore berezi hori.

Zeru goratik ikus-zkitzu,  
otoi, gure miseria.  
Gure Ama, lagun gaitzatzu:  
zureak gare guziak.

Ba-dakizu gure zortea  
nolakoa den lur huntan:  
mundu bat lanjerrez batea,  
ainbertzetsai orotan!...

Gure Ama zare, Maria,  
Jesus'ek berak erranik:  
emaguzu zure loria  
emengo penen ondoetik.

AMODIOZ BIHOTZA SUSTATURIK

Amodioz / bihotza sustaturik,  
Ama ona, / huma zure haurrek.  
Heda zatzu, / otoi, zure tronutik  
amultsuki / guganat begiek.

Alferretan / Suge amarrutsuak  
errabian / Hlaturen gaitu.  
O Maria, / zabaldurik besoak,  
amultsuki / arturen gaitutzu.

Bihotz onez / beti eginen dugu,  
O Birjine, / zuk nahi duzuna;  
ditugunak / kontsekratzen daitzugu  
amodioz, / gura Ama ona.

Bere Ama ( Jesus'ek eman dauku  
ararteko, / oi zer fagoreal  
Ama hura / ohoratzen badugu,  
maitatua / daiteke Semea.

Gutan orai / ez da bertze nahirik  
baizen beti / zure maitatzea;  
er gaitzatzu / eta iduk oraitik  
iltzeraino, / oi Ama maitea.

GAZTETXO ITZAK AMARI

---

Zuk entzun nagizun, nire itzak zorroztu egiten,  
mendigoizalearen gailur-minak nola bizitzen.

Eta itzoi begira naukazu, urrutiko bailirean.

Neureak eta neuregan sortuak <sup>barik</sup> ez ete zeureak eta kabi zeuregan?

Nire joran ta oinaze zaarrean goraka doakidaz untz-orriak bailirean.

Ba doakidaz goruntz labanka neure izatearen orma bustietatik.

Bor-borka ta igeska doakidaz ginezka zugaitik.

Igeska doakidaz nire iturburu ilun sakonetik.

Zeuk betetzen nozu osoro, asetuz noa zure betetik.

Zuk baino leen izan eben bizi-leku zuk artzen dozun bakartade;  
eta zu baino oituago dagoz nire iluntasunera, ez egidazu galde.

Orain zer nai dodan? Esan nai deutsudana esan deizuela,  
entzun nagizula nai dodan eran, itzok entzun deizuzala.

Kezkearen aizeak narrastatu oi ditu

ametsen ekaitzek noizbait etzun egin oi ditu.

Nire abots saminduan beste abots batzuk entzungo dituzu,  
ago zaartuen zotin sakona, aspaldiko erreguen odola zurrupatu.

Maite nagizu, Ama. Ez nagizu itzi. Lagun egidazu.

Lagun zakidaz, Ama, ez dot izan nai larri ta estura olatu.

Ba zatoz, ba zatorkidaz, nire itzak zure maitasunez igortzi dituzu,  
guzti au betetzen nozu zuk, osorik asebete nozu,  
zeure seme egin nozu, Itz Aragitu Bakarrez nozu barriztatu;  
itzok,-nire? zeure?- loezko koroe biurturik nozu besarkatu.

*Soratz. Zugarezpi*

AGUR,AMA, ERRUKIZ BETEA

Agur, Ama/errukiz betea,  
 Ama samur/ta ezin otea,  
 esker danen/iturri bizia,  
 gure poza/ta uste guztia,  
 o Maria!

Aintza zera/gizadiarena,  
 Birjiñetan/zu zera aundiiena,  
 zu lain ezta/goitar talde dena,  
 zeruetan/zu zaude gorena,  
 o Maria!

Birjin ta Ama/zorionekoa;  
 Aitearen/eskumaldekoa,  
 zero-Burren/Jabe ta Jainko,  
 zugan dezu/zorunez sortua,  
 o Maria!

Jainko Aitak/zaitu izateratu,  
 ta Semeak / itzalpean artu,  
 Gogo Deunak / mirariz amatu,  
 oso Jainkoz/ egiña zera Zu,  
 o Maria!

Jaunak egin / zaitu arritzeko,  
 zure lotsa / begiko izan yako,  
 ta autu zaitu / bere emaztetzako,  
 iñor eztu / egin zu añako,  
 o Maria!

Goian deunak / gora nai zaituzte,  
 baiña denak / aski ez dirade;  
 zure ederrik / asko ulertzen dute,  
 ulertzeko/ geiago daukate,  
 o Maria!

Izan,Ama,/ gure ez+igarri;  
 izan,arren,/ zu gure pozgarri,  
 erbeste au / zagunean utzi,  
 Zurekin or / alai gaiten bizi.  
 O Maria!

L.Akesolo

ALDIAREN AMAIAN

Lorä izan gura ta  
 usain gozorik ez,  
 galtzadako arriak  
 antzu dira berez.

Igonik ditut,igori,  
 Artaganeraiño  
 sundaz arrimaila,  
 eguzki te laiño.

Bideaz gora eta  
 andik onanzkoan,  
 orrelan nabileno  
 fedea gogosn.

Ibarreko kaltzadaz  
 soillik hoanean,  
 lurraldi deutsalako,  
 griñak barrenean.

Argi goikorik bage  
 bardin zoriontsu,  
 autua entzunik dot  
 sarritan oraintsu.

Esaera labur bat  
 -akuilluak ziki-  
 salba dediñak soillik,  
 orrek bai,ba-daki!

E.Erkiaga

BEGOÑA KO AMA EUSKALERRIAN ZEAR....

Eder artean ederrik bada  
zeru eta lur osuan,  
Gure Amatxo Begoñakoa  
zoragarria zeguan.  
Poz-atseginez, biotz-ukituz  
negar ta negar nenguan,  
Aldondu gabe egongo nintzen  
gau t`egun bere onduan,  
Lurrean aia ederra danean  
molako ote da zeruan.

Artagan muño-gañean zauden  
zeruetako izarra,  
Biotz barrenen sortu eiguzu  
maitasunaren su-garra.  
Zu zera gure zaindari eta  
agizko Ama bakarra,  
Zugan daukagu itxaropena  
badegu Zure bearra,  
Zaindu ta gordet gaitzatzu beti  
Birjiña Begoñatarra.

Zure lekutik irten da zabiltz  
erri batetik bestera,  
Eder tasunez apaindurikan  
uso txurien antzera.  
Bizkai mugatik barruruntz eta  
geroztik itxas aldera,  
Bilbo`ko uri aundienetik  
txiki bastertuenera,  
Zeruko Ama goratzearen  
euskaldu danok batera.

Badatorkigu gure Amatxo  
onuntza Bilbo aldetik,  
Atoz gugana, diote denak,  
alde bat eta bestetik.  
Gipuzku, Bizkai eta Araba  
baitare Naparroatik,  
Euskalerrian maitatzen degu  
Artagan sortu zanetik,  
Jarrai dezagun bida maitatzen  
gauza guzien gañetik.

Gora dezagun Bizkaiko Izar  
Ama Birjiña maitia,  
Andre guztitik aukeratua  
grasdi guziaz betia.  
Itzul itzatzu gugana Ama  
Zure begibitártia,  
Euskalerriak Zugan jarrita  
dauka gaur uste guztia,  
Ertbeste ontan gure zaindari  
Amatxo izan zaitia.

!O! !Begoñako Ama maitea  
Bizkai guztiko zaindari,  
Maitasun eta apaltasunez  
gatozkizu gaur kantari.  
Gora ditzagun gure biotzak  
Jesus Aurtxoen Amari,  
Zeru goitikan begira Ama  
Euskalerri guztiari,  
Emen lurrean izan dezagun  
pake zorion ugari.

NERE BIOTZARI ELE EDER DARIO

Nere biotzari ele eder dario,  
clerkia urregeri opa diot:  
nere mingainaz idazle azkarraren eztena,

Ederrena zaitugu gizasemeetan,  
eznaiñetatik zoramena darizu:  
Jainkoak betiko bedeinkatu bait zaitu.

Gerrira ezazu ezpata, gudari indartsu:  
edergarri eta apaingarri zaizu.  
Zintzo eta zuzenaren alde, igo ospez gurdira,  
zure eskuin orrek eragin bezaizkizü egintza aundiak.

Bai zorrotzek zure geziak!  
Zure mende dauzkazu erriak;  
biotzaul dabiltz erregeren etsaiak.

Zure aulkia, Jainkoarena bezala, menderen mendetan,  
zure errage-zigorra, zigorr zuzena.  
Zuzen dena duzu maite, eta oker dena gorroto,  
Jainkoak, zure Jainkoak, gantzutu bait zaitu,  
poz-olioz lagunen gaiñetik gantzutu.

Mirra, aloe ta kasi-usaia darie zure sainkoei,  
zurda-soiñuak alaitzen zaitu marfilezko jauregitik.  
Erregeen alabek bidera datozkizu,  
Erregiña, Ofir-ko urrez apaindurik,  
zure eskuinean dago zutik,

DNATX, ERLETXOAK

Muñorantza doa dosutxo, kantari,  
belarritan zintzil bi-iruna gerezi.

Mutil xalogorrik!... Zeren billa ote?  
Kilkerrak, marmari, agur dagiote..

Baño, oarl!: brko sultzaren burrunba!  
Erle danak, lñitsu, eger ixxutuka...

Zer gerta zaie, ba, Josefen etxeai?  
Lore bat ikusi muñora, poz-dirdai...

Egeldar zao bat: ezarri da ttentte  
ezpain-marrubian, -arrosa arek uste-.

Zizta du ta, ene! odol-ttantxa atera;  
kukuluan miztuta, berriaz egatu da.

Egun gutxi buru, Josef ezti billa...  
Baño... zer da an? Jesus! Euzltzeako iskanbillal...

Erle danak itsu, zoro, norebage,  
ninitik zerbaitsek euxtiko bailie.

Ta abéraska-urrean, izerño bezela,  
urrin-jerioka, mir-air, odol-ttantxa!

Arrigarri bai aui... ta artuz aberaska,  
poz-ttuttulu jo du Andra Mirengana.

Saña Andra Miren-en sen zorrotz, argiat  
Ikusi orduko barrendu guzki...

Josutxo deitu du; laztan dño gero  
ta aberaska bera jaten eman diò...

Sagara-muñoen, Josu gorde zaigu:  
Onatx, erletxoak, Lore ori miztui

Loramendi

### OI LURRA! OI BIZITZA!

Oi lurra! Oi bizitzal! Oi denporal!  
Nire ondoan dena ihesi ba doe,  
errekeas, eguzkia, zeruan laiñoa,  
eguna ta gaba, hireratgia, itsasoa,  
Ta zeuen mailaz-maila gorago  
ta urrunago, ni neu be ba noa.

Atzo nengoan lekuau gaur ipini deuste  
ornigarri triste bat, igar ta sikua,  
pena baten zapi baltzatan batua.  
Besterik ez dago. Haurtzaro galdua,  
gaztaroa... Dana dago zimelduma,  
hodei arteko hireratgi lez bigundua.

Nire bizitzan arantzak, ilunpeak,  
ta goizetik gaberañinoko negarra.  
Tristura triste baten belarra  
arimaren soloan, ta bularra  
kiskaltzen pekatuaren sugarra.  
Nire arima, arima ustel zantarra!

Oi lurra, oi urteak, oi pozak!  
Danak joan dira. Ta mundua  
ilun daukat. Busti nire ingurua.  
Non zarie amesak?... Ahaztua,  
bihotz ondoraino jausita damua.  
Penaren uretan kontzeintzia mindua  
barnean, ezin sofriturik pekatua.

Oi urtien pekatuak... Gure Aita betikoa,  
parka arren nire bizitza zoroa.  
Aita zara: parka semien semetza gaiztoe.  
Ta zuk, Jesus, gure Erosle gozoa,  
emostazu zeruan zure Amaren altzao.

Jose Azurmendi

### NOR OTE DOAKIGU?

Nor ote doakigu / d sterru hontarik?  
Zerurat nor doaku / loriaz jauntzirik?

Semea galduz geroz / triste zen lur huntan,  
bi zirik bere gogoz / baizik zeruetan.

Zaruan, oi Birjiña,/ zein zaren doatsu!  
Gu ere, Ama ona,/ el-arez ~~xixkoxka~~ gaitzatzu!

Zerutik Urrikalduz / beha gure alde,  
lur huntan zuri oihuz / ersturen baikaude.  
Maiteki gure beira,/ Ama, egon zaite  
etxean, etxean, etxean, etxean, etxean,

GURUTZ-PEAN

Oiuaz dago oraindik / oillar lazgarria,  
 Artxanda gaillurretik / didarka larria.  
 Gauaren sorburuak / adi dagoz, adi,  
 begi biak edegiz / eguzkia irudi.

Belak, ur-aingeru / antzekoak, ziur,  
 lur-ertzera dakaz / itxasoak biur.  
 Mendi ta uri, ail, zazpi / giltzez untzatua,  
 or odolestan Kristo, / Jainko Bizondua.

Andra Mariak, zapi / baltzez miñetan,  
 Golgota samiña dau, / uri-ertz, Artagan.  
 Odol bi, jarrioka, / gizona erosiz,  
 euskal semea nairik / onera ekarriz.

Amesezko basarte / ezkutuetatik,  
 istil-zuloetako ur / illa zurrut nairik,  
 ekaitzakak zaker mendeak / ezkurtu piztiak  
 ixil itxi oi dabez / euren gordegiaak.

Kristo, ail, bitartean, / gurutzean dago,  
 gugaitik odol-ibai / gu zeruratzeko.  
 Lurra, gariz jantzita, / igitai-zain, zirkin,  
 sutan dagon olatu / sort-eraziakin.

Ele-zarreko doiñuz / sorgin-durunduak  
 errekarantza amiltzen / osoz izütuak.  
 Oianeen sartu da, / mee, ipar-aizea,  
 basauntz-adar ta tantaiz / guraz jabetzea.

Ez illak, edo, bear / báda, zerraldoak,  
 bedarraren azpian / dabesa, saldoak.  
 Kristo, ail, bitartean, / gurutzean dago,  
 eta María, aren / gurutz-pean, tinko.

A. Dmaindia

OTOIDZA

Ama, Beñat'ek zuri  
 egiñiko otoia  
 izneurtuz agertzeko  
 emoidazu doia.

O Mari, guztiz garbi,  
 gomuta egizu  
 magalera yatzunik  
 iñor ez dala izu.

Apalik yatortzuna  
 lejuntasun eske,  
 bertanbera uzterik  
 ez dogu siñeste.

Itxaropen orretan  
 sendoturik nator;  
 garbien Ama garbi,  
 zaitez errukior.

Pekatari ziztríñau  
 auzpaztu naiatzu  
 arren egin gurarik,  
 zotin te negartsu.

Seme Jaungoikoaren  
 Ama semur ori,  
 entzun dei au, ta jaso  
 erruki-eskari.

E. Erkiaga

AGUR, AMA MAITEA

Agur, Ama maitea,  
agur zuri, aguri  
Agur, graziz betea,  
agur zuri, aguri

Jai-koak bere Amatzat  
zu begiz jo zinduzan:  
egizu Jaunak gu bere  
semetzat artu gaizan.

Baietza emon zeutsonez  
aingeruan itzari,  
guztioek egin gaitela  
Jaunaren zerbitzari.

AMA EUDI GARBI

Ama eder, garbi-garbi,  
Ama maite kutuna;  
zuretzat gure biotza  
ta gure maitasuna.

Zu maitez bizi nai dogu,  
zuri beti abesten:  
egizu, Ama, zureak  
beti izan gaitezen.

Begiratu egiguzu, ~~akixkietx~~  
ai!, eriotz orduan.  
Ama maite, beti-beti,  
zugaz nai dot zeruan.

Lagun egiguzu zerutik  
betiro, Ama ona!  
Orixe bai gutzat eder,  
orixe zorional!

AMA MAITE, MARIA

Ama maite, Maria, / egiguzu lagun,  
zura bitartez Jesus / ikusi dagigun.

Aingeruzko lirio / txitx edergarria,  
usain gozozko lore / zerutik jatsia:  
gorde gagizuz, Ama / guztiz maitatia,  
e, dagigun zikindu / onbide garbia.

Zure koroi ederrak / ugaritutzeko,  
arren, eskatzen dautzut / lagun egiteko.  
Zatoze, bai, gazteak, / zeruratutzeko;  
Birjina deiez dago / Agena joateko.

BEGOÑA KO AMA SAMUR

Begoña ko Ama/samur maitea,  
izan zaitez gutzat / zero-bidea.

Begoña ko Birjina, / Bizkai ko Erregiña,  
Jainkoaren Ama:  
Zuregana datorren/ erri oneri egin  
abegi onena.

Onaxe igon eben / gure gurasoak  
Ama ikustera;  
gure amak onaxe / guzumeten ekarriz  
zuri eskeintzera.

ZERU GOI+GOITIK

Zeru goi-goitik Karmen'go Amak  
beti bereak zaindu ditu;  
berak zaintza gura ba'dozu,  
zintzo maitalu egikezu.

Karmen'go mendirantza  
itxaso barrutik  
odei zuri, urtsu bat  
etorri zan goitik.

Jaunak bialdua zan  
Amaren aurretik,  
an biurtuko zalako  
errukiz gugaitik.

OI KARMELEKO LOREA

Maria, oi Ama ona,  
otoi, gu ez abandonal  
Maria, oi Ama ona,  
Maria, Maria, otoi, gu ez abandonal

Oi Karmeleko lorea,  
oi lora pare gabea,  
gözotasunez betea,  
zure usaina senditurik  
nor daiteke urrunt zuganik?

Gaiten beraz gaiten bezti  
erropa untaz sainduki,  
jarraiki Ama onari;  
esperantza, konfiantzla,  
gure indarre da Maria.

Maria, zure parerik  
ez da zeruan saindurik  
ez eta arkanjelurik.  
Oi nola duzun distiratzen!  
Zu nork etzaitu ederresten?

Oi Ama guziz maitea,  
Ama graziaz betea,  
ez ehantz zure semeak!  
Eda zatzu zure besoak,  
urrunt ene-ganik etsaiak.

Zure abitu seindua,  
oi Ama poderetsua,  
da ene ies-lekuia;  
untaz naizeno beztiturik,  
ez dut ez etsaien beldurrik.

EGIZU ZUK,MARIA

Egizu zuk, Maria,/gugaitik errengu,  
eriotzako orduan/ez gaitezzen galdu.

Pekatariok, Ame/Birjiña zaitugu:  
zugan geure biotza/guk ipinten dogu.

Zure izen santuak/lagundu bekigu;  
zure biotz onean/itxaroten dogu.

Pekatarien Ama/ samurra zara zu,  
arren,zure semetzat,/ Ama, ar gaizuz gu.

I  
Aldi suminduaren eragin deseginkorroz  
oldartu diran asarrearen semeak dira ;  
odol irakindurik , etorkizun begira ,  
bizi izaera lasterrak deskaien lasterrez .

Mundu barri bati doika,karraxi bizian  
maillu ta izkilluz,dana autsi ta,apurtuz ,  
gizartea erretxin,ika-mika gorrian ,  
egungo bizi-lazdura gordiña azalduz .

Gaur pekatu da bigunkeriz itz egitea :  
ez larrosa ez ur garden,ez izar bitxirik ...  
Oro baitago giza-piztien orruz betea !

Oi,Begoñako Ama ! Egungo garrazkeriz  
erotzen, itotzen ari gara kutsuturik ,  
maitasunezko argi bizigarria itzaliz .

2

Ereintza Gaiztoa

Gorroto azia ugari erein ta zabalduz ,  
indarrari indarrez grantzunik ... Oi,biotz !  
arako "begi ordain begi ta,ortz ordain ortz" ,  
oiñarri estu ori gogor aldarrikatuz ...


Asarrez irakindurik,abere basatisk  
bezala eriotzea ciukatzen dogunean  
ta,alkarbidezko izar eder dizdiratiak  
itzali ta suntsitu nai ditugunean ....

Zer ondorio itxaro dagikegu,zer argi  
ta,ze bide barri gizartearen onerako,  
zer atseden-estalpe ta,ze bizi-oiñarri ?

Zergaitik odolezko bide baltzak iriki  
garrazkeripean beti mindurik bizitzeko ,  
illunkor beti,ez eguzki ta ez illargi ?

---

Muniategi-tar Sabin .



JAINKOAREN AMA

Jainkoaren Ama, Ama guztiz ona:  
 zaitugu maite beti,beti,  
 zaitugu maite beti,betil

Gure esker gaiztoak zure biotza  
 dabe erdiratzen,samurra baita.  
 Gutzaz izan eizu beti errukia,  
 beti,beti!

Gugandik etsaiak bialdu egizuz,  
 gugana begiak itzul egizuz.  
 Ama guztiz ona,zeure-zeureak gozuz,  
 beti,beti!

Zeureak betiko izan nai dogu,  
 zure biotz onak artuko gaitu.  
 Ama guztiz ona,maitatzan zaitugu,  
 beti, beti!

ZERU ETA MUNDUAK

Zeru eta mundua/zurekin pozturik,  
 kanta-kantari dagoz / biotzak suturik.  
 Agur,agur,agur,Maria:  
 agur,agur,guztiz garbia.

Maria,sortu ziñan / orban bagekoa,  
 donetasun guztiaz / epaindutakoa.

Oiñ-azpian lertutik / Luzbel'i burua,  
 gareitu dozu,Ama,/ betiko inpernua.

Zeru eta munduen/poz eta atsegina,  
 zara biotz guztien / jaube ta erregina.

Gure etsaiak dabiltz / gu galdu naiean,  
 baiña Maria'k ditu / lertuko oiñ-azpian.

ZERUKO AMA

Zeruko Ama,izar argia,  
 zugana gatoz poz-pozik.  
 Geure biotzak artu eigozuz,  
 zaindu gagizuz zerutik.

Somutau zaitez,Ama on-onia,  
 iñoz be entzun ez dala  
 zuri deitu ta laguntza barik  
 iñortxo itxi dozula,  
 jñortxo itxi dozula.

BIGARREN ATALA

KORBATZEA

BEGOÑA KOCAMARIA IRUDIABEGOÑA KOCAMARIAIRUDIA.KORROKUIrudi bikain

Begoña'ko eleiza zarra botarik, XVI'garren gizaldian, barria egiten asi ziragnetikoa da, gaur be, altara nagusian daukagun irudia. Ez dakigu, esan dogunez, noizkoa danik; baiña guztiz ederra da, ta antxiña-antxiñakoa. Azaletik ixan ditu aldakuntzak; aldi-kada luzeetan jantzirik egin da, mantu ederrez apainduta; beste aldiakada batzuk, egilleak asmatu ta ederrtu eban lez, mantu ta ostantzeko bitxikeri barik.

Andres Mañarikuak onela margotzen dausku irudia, jator ta bizi: "Bardingotea da irudiaren ghibea (1,17 m.), gure Birjiñetan situra zanen artekoa. Bizkar begako aurki txikian ezarrita, Umea dauko altzoan. Ule-adatsaren lauki barruan geratzen yako irudiari arpegi arrautz-antzeko biribilla; ule-adatsa zati bi egiña da ta beko ki zabala agirian izten dautsola, sorbalda gaiñeraiño jausten yako belarri atzetik, gero bizkar-gaiñean dindil ia nkorik estaltzen dauen zaparen toloztura artean gordeaz. Eder narea dau betarte-a; begi aundi zabal bik eta ezpanen irribarre doi-doi asiak, arpegikera maitagarri ta atsegina ezerten dautsoe".

Eta arpegiaren neurri ta taiuan ditu beste atalak be. Onela darra idazleak: "Arpegiaren betetasunari erantzuten dautse irudiaren beste zer guztiak be. ~~Señor xix bas~~ ~~tekkixxteaxdankos~~ Tunika ta mantua jazten ditu Ama Birjiñak. Bearri batek izten dautso svingaiñeknaren ertz-ozka eratsua ta loki batek estutzen gerrian, soin-enbor osoari olako lerdentasuna emon eta bular-azkarria zerbait agert-erazten itxirik. Txirikin (tunika) gaiñean mantua doroa, ta onen iduna bular gaiñean tolésten da ia gorputz guzia beregan batuaz, eta, belaun-gaiñez izur askotan jausten dala, eskumako oññeraiño jatsi ta ezkerreko belaun gaiñera jagiten da zearka, berton loturik aren ertz-mendelak. Oin jantzi biak tunika azpian aqiri dira, onek arein artean egiñik bere azken izur edo tolosa".

Onan amaitzen dau, azkenik, Begoña'ko irudi eder onen itxura antzetsua: "Birjiñaren ezkerrekó eskua, leun-leun landitakoa, Umearen bizkar gaiñean kokatzen da; iñiz eskumako eskuan lora eukí izan dau, bere birjintasun garbiaren ikurra. Bekoz beko, ezkerrekó oññerantza jarrita, baiña Amaren ia-ia magal erdian, Umea datza. Onek be txirikiñ ta mantua jazten ditu; betarte atsegina dau, argi ta txeratsua guztiz. Bere berne bien ezkerreantza zirkin ariñak, liraintasunez beteten dau irudi dana. Eskumaz bedeinkatzen dau, ta ezkerrean liburu edegi bat dauko. Bizantiar edo errromar irudien gogor-éra gañdurik, Umeago egiñez, maixu dala jarraitzen dau, bere Barri ona, egiaren iturri, erakusten diarduala irudi, ~~x~~ bere egunean, bizi ta illen epaille izango dala adierazoz" (Santa María de Begoña en la Historia espiritual de Vizcaya, Bilbao, 1950, 104 orf.).

Bakearen Ama

Irudi mota au ez da noizik beiñean baiño aurkitzen ez dana. Dirudienez, gure eleizetsko Andra Mari artean sarri samar aurkitzen da; Ama-Semeak alkarrekin osotzen daben talde edo bikote atsegiañari, euren zirkin, jarrera, zazpi-egal, bular gaiñeko bitxi ta beste zeaztasun askori begiratu ezkero, orrela dala esan daikegu. Garai aretan egin-fredu lez eukien tankera berezia dogu, ziur asko. Egikera ontakoa dira beintzat Bizkaian berton Gatzaga'ko Birjiñak Zaldibarén, Arantzazu'ko Justo ta Pastor deunak, Fika ta Lamindano'koak, Gainko'koa Arrieta'n, Busturi'ko San Kristobal, Derio'koak, ta abar.

Begi emen, esanaren siñisgarritzat, Aita Lizarraldeak oni buruz diñoskuna. Begoñako Amaren irudia ~~da~~ "da -diñ- XIV'garren mendeko irudi-lan bikain-bikain bat, Jaunerriko beste aizta askoren aizta biki ta adiñeko, baiña edertasunez eta apaindura abetsez, baita leentasun-eskubidez eta eleizterren eraspen zeletasunez be, guzti orrein gaiñetik dajana; gaur arte bera izan da, gaiñera, aldiari gagokin zala, bere aizta aundi ta txiki guztien ordezko, Ama Birjiñaren irudiai buruzko ikas ta ikerlanen laterri arteko kogn-kurtso ta leiaketetan" (La Imagen escultórica: Andra Mari, "La Gaceta del Norte", 1932-17-9'an, 1-2 orf.).

Eder ta bizi Ama-Semeak, bikote begiragarriari; ama ez da zahar ez gazte irudian, bai bien arteko; gure surretikoai Eder yakēñitxura denez amāddin eldukoia begi aurrean jartea. Orrela, egia esan, obeto jakintza ulertuko ditu gure kezka ta bear-izanak. A. Mañarikua k didaz: "Gure bizitza... Erdi Arrokako bizkaitarratz arein bizitza, alderditar zakar areina, egundo ase gabe zelatan, beti apen eta bengantza kirets lazarrikarako arin, euren errikideaen bakearen lapur... Burrukaz jausita, Begoñako eleizatxora urreratzen ziran, ezpatea odol-jario ta arimea gorrotoz, edo eta barne-kezka bizitan bear bada, Andra Mariaren aurrean auspezm jarten ziran... Euren Birjinak Artagan gaiñean eurak aulkitu ebe-nak, arein torre ta bizi nasañ iskanbiltsuak azpian zitula, biditz-taupada ñabar barik, irri-barretsu ta maitagarri bere eskerrez betearén zabaltasunear, altzoan eukan Semea éskifí-rik, bakeaz mintzatzen yaken. Jainkoeren Ama, Begoñeko Andra Mari, Bakearen Ama dàgu" (Ntra. Sra. de Begoña y su Santuario, Bilbao, 1950, 33 or.).

### Bilbao'ra jasteak

Ona Begoña ta berton daukagun Amaren irudia. An inguruoko arte ta zugatziak lenengo karlatar gudan, 1835'an egin-egiñean be, Bilboko liberal agintariak, karlistak andik erosoko ebelakoan, ebagi ta erre egiezalá agindu eben. Ainbat gizaldiko arte guren areik eratsi ta suntsituak izan ziran; ez, osterá, arte artean agertu zan. Andra Mari, ezta onen irudi ederra be, ez eben eratsi. Geugaz daukagu oraindik, gure Zaindari zerutan Bizkaitarrak, eta bilbotarrak baitikatz bat, asko-askotan, eta aldraka, belaunak makurtu izan dabez aren begi aurrean. Ezbear, legorte, uiol, izurrite ta antzekoetan, ez eta ebezan Heragandik artu konta ezin ala mesede, ta oni-egite ta poz-alaitasun? Maite eben itxasta-rak, eta Amek galzori ta estuasunetatik onik aterea ebazalako, esker onez gaiñezka; Begoña igoñ si ziran. Zenbat malko legortu, zenbat biotz, neigabetu arindu ta zenbat arima kezkat, ez eta ditu gizaldia xek Begoñako Amak pozterazo ta zerurako bidean ipiñi, gizaldian zear?

Atseden bakoa izan da, ta gaur be ba-dozu, ona elizten diranen lerro lu-zea, ciñez ta belbillez; meza entzutera, bederatzi-urrena egitera, egiñiko agintzariak bete-tera datoak asko tam asko; itxastarrak, baserritarra, bertakoak eta arratzak, sal-erosleak, dendariak, gudari doazanak, langille lauak, umek, zarrak, ezkongaiak... Erromeriz datozenak ez dira gitxi, ezkont-era, eleizkizun ederretara... Bizkaitarrén zintzotásuna ta esker ona itzali eziñak noski!

Maite doguna ur-ur euki nai izaten da ta Begoñako Ama Bilbora jatsia izan da, iñbizko estuadietan, uioletan, izurrietai. Lau-bost bider beintzet, Begoñako Ama-ren irudia aundikiro Bilbao'ra jatsia izan da te bertako kaleetan zein ospe aunditan era-billia, bilbotarren eraspeneri ase-bete ederra emonik. Dekigurlez, lenengo urten ebah Begoñatik, 1651-9-8'an, uiol izugarri bat zela-ta. Urteira ongazjurak laster biurtu ziran eu-ren esketara, ta bilbotarrak pozik be pozik geratu. Yakuzen, beste bein be; 1737-en, beste ainbeste egin zan, bigarren uiol ikaxtagaztia ikaragarrria zela-ta. 1855-9-8'an, irugarrenez jatsi eben, lenengo Bizkaiko erriak eta gero Bilbao beazun-mihez batzen gu, tiak kutsutu-rik aurkitu ziranean. Jasteaz bat, laster agi-zan, izurria baratu ta gitxitseen.

### Irddia andik ona

Zerbait sittatu dogunez, Begoñako eleizatea inguruak, gorriak ikusi bear izan ebezan gerra ta erasoldiakaitik. Batet baték, beraiz, itandu daiket! Santutegiak o-rrenbeste ezbear izanik, XVIII ta XIX garren gizaldietan batez be, zelan onik aterea zan. Andra Mariaren irudi ederra? Bein baiñ gelegotan, egia, larri ibillitako dogo. Zulo galantez beteak izan ziran, ez gitxitan, eleizako teilatu, orma, ganga ta alboak; baita su ta kez ederto baltzituak be; eleizak eukazan ondesunak, bitxi, zidarien, Urrylan, edergaillu-barik garri geratu zan. Begoñako Santutegia, irudia, ala/ba, ekaitz artean ontzi ariñaren pareko, beti agertu izan yekum txairó ta irripartsu.

1808'an, Napoleon'en gerratean, orduko frantsés soldaduak salgei ipiñi ebezan beko kaleetan eleiz-jantziak, kalizak eta abar. 1836'an, Begoña'ko eleizatea oso-ro erantzi ta morritzua izan zan, esan dogunez, altara, zapiko ol, erretauia edd altara buru ta beste zer askorik sutan erre ta kaskaliaz. Sute orretan mirariz etzan jausi Andra Mari'ren irudi bikaiñia: biotz-aundikoa giza-talde betekizer jazoten zan jakiñik, artu ta Santiago eleizara jatsi eben; bost Urtegerroago, 184-8-1-en, eleiz-barrua, torrea ta inguruokoak, erbeit apaindu ebezanean, barrirro Begoñaratuia izan zan, jentetza aundiak atze-tik ebala.

Azkenengo karlistadan, erasaldi gogor baten ondorean, ots, 1873-12-31'an, liberalak jahetu ziran santutegiaz. Bertako apaizeriak, eleizako ondasunetan aurreko gudal-dietan eginiko ~~ez~~bear eta triskatzarik egin ez egien, gau-arik baliotsuenak atera egin ebez-an eta tokiko ziurrean gorde. Andra Mariaren Irduia be, "Refugio" deritxon ondoko komentura aldatu eben. Baiña karlistak, liberalak Bilbora jatsi gura ebela jakin ebenean, ariñeketari artu ta arrisku bako lekuak jarteko alegiñak egin ebez-an. Lekeitio'ra eroan nai izan eben aurrena, baiña Begoña'ko eleiz-gizoneen errenguz, Santa Marina'ko Justo ta Pastor Deunen ermitan gorde eben; geroago, toki a be guda-oiñetik urtxu egoala-ta, Kastor Andetxaga karlatar jeneralaren aginduz, Zornotza'ra aldatua izan eta Larrea'ko karmeldarren eleizan zeindu ta eukia. Gerra amaitu ostean, 1876'an, ~~baixka~~ Begoña'ko bere eleiza ta aurkira eroan eben a-tzera.

#### Barriztatzeak

Lorak ekaitzaren ostean, illak ezpa-dira beintzat, euren buruak goratu oihabez; bardin erriak, semiaiak, pertsonak be: lanari lotu ta apurtua osotu. Bizkaitar kemen-tsuak orrelaxe jokatu nai izan eben geraldzi latz aren ostean; Begoñako eleiza, abadetxe ta birak garbitu ta barri egin b'ar ziran, eta ortaroko, guda amaituaz bat asi ziran lanak, Migel Garrastatxu bilbotar etxegillea zuzndari zala: arresi, lueban-aska ta karkabak bete, eleizako ta torreko sakar, nusketa ta ondarrak kendu, eleizeari teillatu ta azpi barriak bo-ta, zortzi bat illabetean inguruak naikoa garbi geratu ziran. Urriengo urtean, au da, 1877'an, egin ziran zeru-ganga barria, atxurdiñezko altara-maia, zidar matelezko irudi-uztaia ta abar.

Denpore geiago eskatzen eben torreak, oso zarteatuta bait egoan. Baiña au be 1881'rako azkena, emonik ~~ez~~ aurkitzen zan, aurrekoaren antzekoa gitxi gorabera: berrogetamar metro lez eukazan gorantza; gero jarri ziran kanpaiak. Bernabe Garamendi'k, bere kontura, egin ebaian atxurdiñezko maia, irakastegia, Apostoluaren irudiak eta eleizearen aurrekaldea kanpotik. 1884'an ipiñi zan organua, Cavaille-Coll etxe ospetsuak egiña.

Edu orretan, makiña bat begoñar eta bilbotar zintzok lagunduta, burutu ziran azkenik be barriztatze lanak. Torrea, alian be, etzan ondo aurkitzen, errez jausteko arriskuan baiña. Gotzaiñak, ain zuzen be, 1894-10-30'an, arrakalatua ta jausi-agin egoan zatia bontateko baimena emon eben.

Geroago, diru-mordo bat batu ta Kasilda Iturrizar andreak ilburukoan itxikako ortaroko itxitakoaz batez be, J.K. Uztzeta jaunak bertako txaunburu zalarik, 1901'an asita, Jose Maria Basterra'k bere kontura artu ta burutu eben gaur daukagun torre lerdena. 1923'an, Bizkaiko Bankuaren pentzutan, jarri zan txillinteri edo karilloia.

#### 1880'an, Begoña'ra erromes

Jazoera gozoak oroitzea eder. Gorago esandako jazokuna, eu da, 1885'ka-a etzan txikiena izan; izurrite arek zigorpe eukan Bilbao osoa, ta Andra Mariaren bitartez, Begoñako Amaren mesedez urten zan estualdi latz orretatik. Jazoera gogoengarri orren 25' garren urte-urrena etorren. Bene-benetako abagunea, beraz, 1880-9-8'garrena, Bizkai ta Bilbao osoa, andik eta emendik pregríñaziño beroetan, Begoñako Amaren oiñetan auspeza-teko. Ta orrila egin zan. Ezetzak eta baietzak izan ziran, ez gitxi; batzuk, liberalak baitik bat, politikazko indar-erakusketa lez, karlatarrena jakiña, artu eben, euren Irurac-bat izparringi-aren bitartez, aurkako turuta ederto jozik.

Eragozpen guztiak gaindituz, jai ederrak ospatu ziran. Illunak ala argiak ete indar geiago? Iraillaren 4'tik 8'ra, Bizkaiko erri guztietatik urreratu ziran Begoña'ra, erromesak eta erromesak: Markiña, Durango, Gernika, Lekitzio, Karrantza, Orduña, Mundaka, Portugalete, Luiu, Mungia, Zeberio, Balmaseda, Arratia... nundik ez? Erromes-egun zoragarriek danak, baiña azkenengoa ~~baixka~~ batez be; egun aundi onetan, barruan eta kanpoan esan ziran meñak, ixillak eta abestuak, euskerazko ta erderazko itzaldia-kaz. Ogei ta bostgarren urte betete bikaiña, bene-benetan, Bizkai osoak bere fedearen eta maitasunaren ezaugarri gozoa, sakona, seme leialena Begoñako Amari emon eutsonekoa.

Jaiak amaitutakoan, ~~E.M.~~ E.J. Labairu'k au idatzi eben: "Amaitu da zorio-nez Begoña'ra eginiko eleiz-erromesa. Irurtegi bat milla erromes, etorri dira bidezti Jainkoaren Amaren aurrera, berau ondendo guraz... Bilbao'tik Begoña'ra egiteko zan ibil-txangoa debekatua izan zan; Uriak, alian be, millaka ta millaka hente on eta autatu emon dautsa egunokaz Begoña'ri, Bizkaiko uriburuak Bizkaiko beste edozein erritakoak eta euskaldun edozein lurraldekoak lekoxe sentimentuz sutatuta dagnala, sitzet emonaz" (Boletín de la Peregrinación, 12 zenbakia, 1. zt.).

### Koroatzea

Zein eguneroeko lan-kezketan, zein arima aldetiko zeregrietan, nekaturik, erdi porrot eginda gelditu ez gaitezan, bult-ada gozo batzuk egoki datorkiguz noiz-ean bein: izatezko legeak eskatua dozu, ez besterik. Hardintsu jazo ni da, eritxi baten, Andra Mariagazko erasoenetan be; bai, egoki da, noiz edo bein zugatzari iñausketa batzuk egitea, olaño ezten-zizta frabiltea, artutako bidean aurrera egin dagigun. Onako zerbait izan zan biskaitar guztientzat, 1900'garrenean Begoña'n ospatu zan Andra Mariaren koroatzea.

Zio bat bear zan ortarako. Eta, ain zuzen be, urte orretan etorren fetxa egoki-egoki bat ospakizunori gertatu ta aurrera eroatzen al izateko: Haro'ko Diego Lo-nez'ek, Bilbao irasi ta, Begoña'tik azke, uri legeztu ebanetik seigarren eun-urtebeteara zan. Beraz, jazoera onez baliaturik, bere biziko eretia iruditu yaken Aristides Artiñano ta orduan Begoña'n txaunburu zan Juan Krutz Untzeta jaunai, aurretik be tonki askotan oitura zanez, Begoña'ko Amari, Bizkaiari ainbeste mesede egiñari, buruan Ama ta Erregiña lez korreri eder bat jarteko. Ortik, bada, 1900-3-19'an, Batikano'ra eskatu zan ortarako baime-na, maiatzaren 3'an Errroma'k emonaz eskatzen zan baiezkoa. Ari ta oni iragarri yakon, bai-ta sail askotariko batzordeak eratu be, meza, itzaldi, ereserki, peregrinaziño ta abar, alik indioen gertatu al izateko. Luis Anduiza'k, Maria Agirre andreak duban emondako pitxiakaz, oso datore osotu eban koroia.

Bizkai osoak jakin egian, lau aizetara zabal-azo zan asmoaren barri-a, euskeraz ta erderaz. Beioa emen euskerazkoia, merezi dau-ta. Onela diño: "Biskaitarrai: Andra Maria-ren izen gozoa, sinizmenaren indarrak erakarrita, zeuen bizitzako egikera andi-enetan beti erakutsi izan dzuei ta zuen aurretikoa, lurrezko ta lurreko ondasun andi-rik zuei, geienoi baintzat, itsi ezarren, eurakandiko ondasun zindu iraunkor zeru-usainetako bitzuk zuen arteko etzerik geienetan agiri dira: Andra Mariari zuen aurretikoa eta zuen aurretikoi Mariak alkarrri izan deutsen maitetasuna. Alkar-maite izate onetan, bera geure zorionean izan iaku garailari: gizonen biotza mesede-eske izan dan baiño zabalagoa izan da Mariaren eskua mesede-egiten.

"Esker ona erakusteko era ezin obea laster iatortzue; bada Begoña-ko beren agintaulki edo tronuan buruntsi eder bat opa izateko uste ta gogoa zabaldu da. Aita Santuagandik, geure obispo jauna bitarteko dala, iaritsi da Begoñako Ama Andra Maria buruntsitua edo koroetua izateko baimena. Onetarako ia batzuk, iñoz ikusi eztaguzen gisako ia ospetsu, eder, zeru-lurren pozgarri izateko iaiak egin nai litzateskez. Erdue bada, aurretiaz izentauko iatzuezan egunetan, erdue zeuen Amagana, gorputz da arima, gogo beroz, zintzutasunez.

"Lagundu eginezue iai onei bidea egiteko arazoa daukan Batzarrari. Zuen eskintsarietan luzatu ezin badazadize, Mariak ezteutso begiratuten emoten iakan gauzeari, emoten deutsan bintzari baiño. Ase daigun bere guraso-bintza geure eskintsari ta eskariz, ariguri ta gurariz; eta berak aspaldiko gizaldietan Begoña'ko zeru-etse onetan erakutsi deuskun samurtasuna samurragotuta beragandu gaizala.

"Andra Mariagaitik eta Andra Mariarentzat! Andra Mariagana biotz guztiak! Begoña-ko Andra Mariaganal Urrezko buruntsi bana Ama-semeai bekokian ezarririk, aurretikoa zuei baiño bere zuek zeuen ondorengoa argiroago erakutsiko deutsezue Maria dogula Bizkaiko jaunerri onetako Andra Erregiña.

"Bilbon 1900 garren urteko Maiatzean. Batzarrekak: Estanislao Jaime Labairu, burua.-Juan J. Lekanda.-Jose Garzia Galdecano.-Frantzisko Iturribarria.-Resurrekzioen Maria Azkue.-Aristides Artiñano.-Manuel Goikoetxea".

### Bederatzi-urrena

Eurrez zabaldu zanen egitarau, dei ta iragarkiai jarraituz, bederatzi urren eder bat ospatuko zan dagonillaren 31'tik iraillaren 8'ra, koroatua izango zan Begoña'ko Amaren dedu ta omenez. Onela egiaz egingo zan egun guztietan, goiz eta arrasti: Goizeko bostetan meza ixilla ta ta erderazko bederatzi-urrena; goizeko seiretan meza ixilla, itzaldia ta euskerazko bederatzi-urrena. Euskerazko itzaldiak onan: Dagonillaren 31'an, Julian Arana, Yurreta'ko txaunburuak; iraillaren 1'an, Aita Clemente, pasiotarrak; 2'an, Aita Dabiel Baertel, Fantziskotarrak; 3'an, Aita Esteban Maria Laskibar, josulagunak; 4'an, Iñazim Gorbea, Berritu'ko txaunburuak; 5'an, Juan G. Kalle, Elantxobe'ko txaunburuak; 6'an, Kandido Iranga, Deba'ko txaunburuak; 7'an, Erramon Pagnaga, kapellauak; eta 8'an, Txomin Agirre, Zumaiako karmeldar lekaileen kapellauak.

Goizeko amarretan, eleizkizun aundiak gure Jauna agirian zala, bedera-

tzi-urrena ta aber; abesti ta itzaldiak egunero, erderaz. Arratsaldeko bostetan ornatbat, gure Jauna agirian zala, Agurtza, bederatzi-urrena, itzaldia ta besteak. Begoña'ra igoñ eziñik aurkitzen ziranentzako, Bilbao'ko eleiza guztietan be, illuntzeko errosoario ostean, bederatzi-urrena egin zan, zortzi egun orreitan.

Zortziurren orretan, gaiñera, ainbat peregrinaziño egin zan Bizkaiko erri guztietatik: Markina'tik, Karrantza ta Balmaseda'tik, Barakaldo ta Portugalete'tik, Orduñá'tik, Durango ta Areatza'tik, Gernika, Bermeo ta Lekeitio'tik, Mungia, Zeberio ta Orozko'tik, Bilbao'tik. Iraillaren 2'an, igandez, Bilbao'ko emekumena ospatu zan, gazte ta zar, dñanak auspeztu nai izan eben, gogo beroz ta eratsu, aldatz-gora egiñiko ibideun ederra-ren ondoren, Begoña'ko Ama eztiaaren niñetan.

#### Zoramenezko eguna

Eta azkenetan eldu zan eguna, egun zoragarria, Begoña'ko Ama koroi dizditsuz jaiztekn eguna. Aurreko egunean, arratsaldeko lauretan, bezperak abestu ziran eta ondoren egunean-eguneango elizkizunak. Illaren 8'an, goizean goizetik asi ziran Begoña, Bilbao ta inguruetaiko kanpai ta txilin guztiak zaratnska; leio ta balkoiak zapiz ta ikurriñez apainduta agertu ziran; or-emen, bide-kurutze ta ertzetan ainbat buruntza, lore-ustai ta kolordzko zubi... Ez, ez zeitela ezer falta omenaldi egunean!

Kaletar, baserritar, itxastar, millaka ta millaka ziran Bizkai osotik Begoña'ra etorriak; eleizea ta inguruak geiago eziñean bete ziran jente fedetsuz. Gazteiz'ko Gotzain ta Koroatzerako Aita Santuaren ordezkarri Erramon Fernandez Pierola'k, goizeko bederatzieta, asi eben bere artzain-meza, beste amar gotzain eta erri-agintariak inguru-an ebazalarik. Meza ospetsu ta bikaiña, millaka abotsek abestua: Jaime Kardona gotzaiñak itzaldia. Berton bedeinkatu ziran koroia eta jaur-makilla.

Meza eleizkizuna amaitutakoan, Andra Mariaren Irudia eleizako ate nagusira, korpura eroan eben, apain eta eder jantzita. Ementxe, munduñ guztiaren begi aurrean izango zan koroatua; ta ementxe, ain zuzen be, Gazteiz'ko Gotzaiñak, Aita Santu Leon XIII garrenaren ordezkoak, gotzain, apaiz, eleitzar, erri-agintari ta jentetza ikaragarriak inguratuta egoala, koroatu eben Irudi agurgarria, Bizkaia orren maite eben Irudia. Zelan dardar egin eben an aurkitzen ziran biotz guztiek oizko itz oneik zerura igoñ ziranen: "Esku onein bitartez lurrean koroatua zarean lez, guk be zeruan zureen bitartez koroatuak iñatea merezi izan daigula". Begoñako Ama samurraren baitza ta bere bizkaitar seme-alaba zintzoen barre-zuri gozoak txil egin eben, zoramendu eztian, inguru ta gaiñeko biotz-berotasunazken alkartze bizi etenbakoan!

Ondoren, ortarako atondu zan ereserkia abestu zan: Buenabentura Zapirain-en musika ta R.M. Azkue'ren izkia, Jarraian, Te Deum, Jainkoari eskerrak egiteko. Eta azkenik, Aita Santuaren ~~Amarrak~~, ~~ez~~pirituz ementxe izango zala agindu eben Leon XIII garrenaren onespina. Ezin daikagu adierazo jentearen txalo, poz ta alaitasuna. Or geratzen zan, bai, zeremoni ta eleizkizun bero ta aintzagarri orrein ondoren, Begoña'ko Ama koroatuta, Bizkaiko begirale, Erregiñia, Ama!

Oraindik be, jenteak aukera geiago izan egian, amarrstan beste meza bat e-~~zera~~ san zan eleiz barruan, Aita Jeronimo karmeldarrak euskeraz egindako itzaldi bero ta guzti.

#### Ibilkunde ta ondorengoa

Etzen egindakoaz dana amaitu. Egun berean, 8'an, arratsaldeko iruretan bezperak esan eta Aita Andres Ozerinjauregi frantziskotarraren itzaldi ostean, Begoñako Andra Mariaren Irudia, koroatua, Bilbao'ra jatsia izan zan ibildeun aundiñzabal, errimean. Kale ta bideak guztiz dotoreturik egnzala, Zabalbide'tik, San Anton'dik, San Frantzisko kalelik, Hurtado Ametzaga, Areatza ta Bidebarrieta'tik zear, Santiago eleiz nagusira eroan izan. Ibilkunde gogoangarria! Bilbao osorak esku artu eben Begoñako Amaren ikustaldi oneitan. Gau osorak gau-bela egin yakon Santiago eleizan, eta urrengo egunean, eleizkizun ederrrez an agur-egin, eta ostera be ~~Begoñako~~ Begoña'rako bidean jarri zan, Andra Mariari agur-esan eziñik lez, jentetza azi, bete ta eraspentsua.

Aita Santuak be jai onditan parte artu nai izan eben ezkerro, urte aretan, jaiak ospatu ta laster, azillaren ihurria, Begoña'ra eldu zan, arek bialduta, Rikardo Sanz ~~Amarrak~~ Samper jauna: Aita Santuak Begoñako Amarentzat emon eutsan urrezko errosoario dizditsua ekarren, au iñan domiña batekin: "Leon XIII. Begoña'ko Ama eleiz-arauz Koroatua, 1900".

Orrelaxe amaira zanen, urrezko kate-orratz txanbeliñez itxirik, Begoñako Amaren Koroatze jaiak.

AMA BIRJINA BEGOÑAKOARI

(Bere koroi imintxe egunian)

Zeru eta lurren Egilláaren  
 Ama doatsu garbia,  
 zugana dator Begoña aldera  
 Bizkai'ko jente guztia.

Itxas-gizonek eta lurtarrak,  
 nekezale ta aberatsak,  
 zure oñetara gaur danak datoaz  
 opaten euren biotzak.

Jaungoiko altsuak egin zenduzan  
 zeru-lurraren Erregein.  
 Oi Zure oñetan bizkaitar onak  
 gaur zeinbet dogun atsegini!

Eguzki, illargi eta izerrezko  
 koroia dozu zeruan;  
 gaur pozik gatoz zuri imintera  
 beste koroi bat munduan.

Oi Zeinbat bider neke artian  
 ikusi gozuz zerutik,  
 eta zuk beti gure nekiak  
 aldendu dozuz bertatik.

Zuk beti, beti gorde izan dozu  
 Euskal-erriko jentia;  
 aurrerantzian zeuk gorde gaizuz,  
 Ama Birjina maitia.

Ama maitia,  
 gaur zugana  
 gatoz guztiok  
 Begoña'rak

XAGUR, XAGUR, XEN XAMA  
AZKEN-AGURRA AMA BIRJINARI

Agur, Jesus'en Ama,  
 Birjina maitia!  
 Agur, itxasoko izer  
 diñtziatzailia!  
 Agur, zeruko eguzki  
 pozkidaz betia!  
 Agur, pekatarien  
 kaiat ta estalpia!...

Águr, gizonen Ama,  
 zeruko Erregiña,  
 Ama ~~txit~~ gozo txit maite,  
 amorezko piñai!  
 Zugengandik juatea  
 gauza da samiña...  
 Agur, nere biotzeko  
 pozta atsegia!

Agur, gure poza ta  
 atsegia guztia,  
 atsekabe danetan  
 gozakai eztia!  
 Agur, Birjina eder  
 txit zoragarria!  
 Ar zazu biotza ta  
 torizu bizia!...

Baina  
Zugengandik alde  
 bintzak ezin du;  
 zuregana dijoa,  
 zugan bizi nai du.  
 Birjina pare-gabea,  
 bedeinka nazazu...  
 Agur, Ama nerea,  
 agur, agur, aguri!...

AGUR, AMA JESUS MAITEARENA

Agur, Ama Jesus maitearena,  
ametan zu zare eztiena.  
Zer zorion zurea izaitael  
Zer loria zure meitatzeal

Birjina Maria,  
noiz bada ni zure  
Inrian,  
Zeruan?

Haur gaixo bat, nahigabez artua,  
nola doan amaren alderat,  
oi Maria, gu, bihotza urtua,  
eldu gare zure dinetara.

Ilunpetik bidean doazinak  
ilargiak baititu argitzen:  
arimetan penarik ilumenak  
ola tutzu eztiki suntsitzen.

Ez da deusik barnea darotanik  
anbat ere pizten eta bozten,  
ez atsegin ez eta ontasunik  
nola nauzun zuk bozkariatzan.

Izan zaite gorarik eipetua,  
zeru-lurrez beti laudatua,  
zu baitzare gure ies-lekua,  
beti-danik gure kontseilua.

El daba el, zu, gure esperanza,  
el baba el, oi gure laguntza,  
Ama, zatoi! Bertzenaz ifernua  
laster daite gutaz nausitua.

Zaude beraz, oi Birjina Maria,  
zeruetan beti atzarria.  
Egiguzu Jesus'gandik grazia  
dugun səgi guk zure bizia.

EGIN DA GURE AMA...

Egun da gure Ama / zerurat aldatu.  
Gora du bere gana / Semeak altxatu.

Arat el dezagun / ororen galdera;  
Amak dezagula / gozaraz Semea.

Zeru-lur bazterretan / nor zaiku agertu  
egungo goresmen hau / baitu merezitu?

Haste-nastetik zuen / Jainko-k apaindu doain baliosenez, / bertutez loretu.	Semearekin baitu / bortizki pairatu, Ama da lorioski / egun zeruratu.
--	--

Haren ganat guziak / nahi gira bildu;  
ormit,bear qirela / ortarat bermatu.

ESKARIA  
(Larrinaga 'ko espetxeen egina)

Sortzez garbia  
 zaran Amatxu,  
 Amatxu maite samurral  
 Zeure aurrean  
 auzpeztzen naz,ni,  
 eskatzen laguntasuna.  
 Biotz-biotzez  
 dasketzut, Ama,  
 soin ta gogoko osasuna;  
 espetxe ontako  
 neke samiñak  
 jasateko eroapena.

Etzaitez aztu,  
 arren, Amatxu,  
 etxeko, lagun ta senideekin;  
 jagon gagizuz  
 guzti-guztiok,  
 zeure esku altsuekin.

Baita, Amatxu,  
 eskatzen dautzut  
 Aberrri-askatasuna,  
 bizi gaitezen  
 guzti-guztiok  
 goraltzen goiko Jaun ona.

B.Aurre-Apraiz

TORI, AMATXU!

Loratxu bat eta malko bi,  
 -beste emokairik ez daukat eta-  
 ar, Amatxu, nire opari.

Maiatzeko arrats-bera aratzean,  
 zeuk baiño atera ezin zeinkedan  
 arantza zorrotz bat daukat barruan...

Mendi--wendian artu dot  
 loratxu urdin au,  
 garbitasun-ikur;  
 ta biotzaren barruan,  
 malko gardenok,  
 maitetasun zigur...

Loratxu bat eta malko bi...  
 -maitasuna ta damua-, emen  
 nire biotzaren iturri.

Tori...!

B.Aurre-Apraiz

AGUR,ERRU GABEKO

Agur, erru gabeko  
 Birjiña Maria!  
 Agur, zeruko Izar  
 lausorik gabia!  
 "Guztiz zera ederra"  
 zenduen aditu, ~~zamragandik~~  
 Jaunagandik mundura  
 ziñanean sortu;  
 ez det, bida, errurik  
 zuregan arkitu.

Adan' en pekatuan  
 etzera kutsatu.  
 Bertatik eguzkiak  
 zinduen apaindu,  
 illargia oiñetan  
 zitzaizun geratu.  
 Zure burua izarrak  
 zuten koroatu,  
 zeru-lurreko galak  
 zugan ziran bildu.

MARIA,GURE OIUAK

Maria,gure oiuak  
 maitaz entzuten dituzu;  
 eskean getozkizunoi,  
 arren, lagun egiguzu.

Pekatupean bagaude,  
 lagundu kateak asuten;  
 lagundu, gure biotzen  
 lotura txarrak eteten.

Lagundi, munduak iñoziz  
 bagauzka lilluraturik,  
 erima gal ez dezagun  
 zeru-bidea utzirik.

Eman esku,gorputzeko  
 geitzik datorkigunean;  
 pake-egunak ditzagula  
 betiko argira artean.

Ez utzi eriotzean  
 semeok laguntza gabé,  
 zurekin egin gaitezen  
 betiko sarien jabe.

Aintza Aitari,Semeari,  
 aintza Espirituari,  
 graziaz jantzi zaituen  
 Irutasun santuari.

AGUR,AMA,ERRUKIZ BETEA

Agur,Ama,/ errukiz betea,  
 Jainkoaren / grazizko lorea,  
 itxaropen / ustelik gabea,  
 Ama pozez / Jainkoak asea,  
 zu,Maria!

Gizedian / aurrik ederrena,  
 neskatzetan / agurgarriena,  
 birjiñetan/ garbiz garbiena,  
 ta gorago zeruan zaudena,  
 zu,Maria!

Egin zaitu / Jaunak miragarri;  
 autu zaitu / mirabetzat,Maria,  
 aukeratu / andre zoregarri,  
 zeruko ta/lurreko mirari,  
 zu,Maria!

Nai zeitugu / doatsu aitortu,  
 egiñalez / ezin dugu lortu,  
 esen,jardun,/ itzetan agortu,  
 zu goratzen / geldi gera mutu,  
 zu,Maria!

Zakigu,Ama/bizian atsegin,  
 gauden beti/pozetan zurekin,  
 atzerritik / irteñearekin,  
 bil zeruan / gu aingeruekin,

MAIAIZA DA

Maiatza da urteko / sasoin aderrena,  
 Amaren laudatzeko / autatzen duguna,  
 autatzən duguna.

Lore berezienak / eskainiz Amari,  
 zatozkiots denak / bihotza kantari,  
 bihotza kantari.

Uda berrian oro / dire miresgarri:  
 lurrek loretuz dio:/ ospe Mariari!  
 ospe Mariari!

Eder da iguzkia./ agertzen zeruan...  
 Eoerrago Maria / Erregin munduan,  
 Erregin munduan.

Denak ditu xoratzen /goizeko izarrak...  
 Zeru-lurrak argitzetan xigurixaz  
 Zeru-lurrak argitzen / Mariaren Aurrik,  
 mariaren Aurrik.

Irriz lili xuria /dago aransen,  
 Ama zein den garbia / guri nahiz erran,  
 guri nahiz erran.

Arrosa mudatzen du / galerna gogorrak...  
 Amodioa ez du / nihoi galtzen Amak,  
 nihoi galtzen Amak.

Gutarik urrun zatzu / atsegina galkorrak,  
 garbi beira gaitzatzu / zuri dauden aurrek,  
 zuri dauden aurrik.

Il-eta zerustan / ar gaitzatzu denak,  
 datzagun beti kanta / zure ontasunak,  
 zure ontasunak.

Iratzedera

JAINKOAREN AMA GUZIZ GARBIA

Jainkoaren / Ama guziz garbia,  
 Jesus Jaunak /zuri nau eman ni.  
 Zute aurra / naizen geroz,Maria,  
 oro zuri / nahi naiz eskeini.

Ama eztia,  
 otoi,ar nezazu!  
 Naizen guzia,  
 emaiten nitzaizu.

Ikus zazu / Satan'en malezia,  
 el zekizkit / lanjerren artean!  
 Ar nezazu,/ nere Ama eztia,  
 betikotzat / zure gerizean.

Lekukotzat / arturik Jaun andia  
 zinez dautzut / egun itz emaiten  
 mundu huntas / nere bihotz guzia  
 dela beti / zurea izanen.

**AMA URRUTI MINEAN**

Atsegin zaiataz  
ixilik zagozanean,  
ezpazengoz lez  
zakusdazanean.

Urrundik nozu entzuten  
eta nire abotsak ez zaitu ikutzen.  
Alan ere atsegin zaiataz,  
- egaran bezala-  
begia, gäldäa? zuria,  
agoa, mosu batez ertsia.

Atsegin zaiataz  
ixilik zagozanean,  
ixiltasun betea  
zugan somatzean.

Nire abotsak ezin zaitu iritxi  
baina entzun egiten nozu;  
izlari zaitut ixiltasun geldi,  
zeure ixiltasunez ixildu nagizu.

Zeure ixiltasunez nai nintzakizu mintzatu,  
lurbira, iñaso ta eguzkiak lez itz-jario ixil sortu.  
Gaua bezala zaitut, itz-gabe, geldi, sakon, izartsu;  
Zure itzik ezak izarrena dirudi, urrutiko ta gozatsu.

Atsegin zaiataz  
geldi ta ixilik,  
zure itsas-begiak  
sakon ta zabalik.

Atsegin zaiataz ixilik zagozanean,  
urrun eta min, ilda bait zengokez;  
zure begiradak poza eiotzen barnean,  
zeuganako min, urrutiko maitez.

Lorenzo Zugataga

A M A !

Itz bakar bataz esango dantzut  
 Andera Mari, apal, gogo-zut:  
 Zu goresteko itzik ederreña,  
 auxē niretzat, benetan: Ama!

Itz onetantxe aurki daroat,  
 neure esangureen gorespen aratz.  
 Aratuarren neure bilduma,  
 onentzat auxē niretzat: Ama!

Mundu zabalez olerkariak,  
 gizaldi-zeak, itz bikaiñenak  
 amaitu dabez... Esanai dana  
 esateko nik, aski dot; Ama!

Esan dautzuez Goizeko Izarra,  
Kai, Estalpe ta Andera Samurra...  
 Baiña nitzako itz ustetsu-urena,  
 esanai oro dituana: Ama!

Eguna askeran agurtzeko ta  
 illuntze oro, onez eskertuta,  
 Zeugan jarririk itxaropena,  
 biotzez esan oi dantzut: Ama!

Gabetau loak begiak estal  
 -unean bere ezin neure tamal  
 -barrusk ertsí, azken-irauna  
 soz esan bage, sakondik: Ama!

Lor eta nekez soin ta gogoa aul  
 dodazenean Zeuregana iraul  
 oi naz, ta adore emole onena,  
 agobeteko itz ongillea: Ama!

*W.W.*

Grinā zitalen eraso gogor  
ta illunean trok-ertzean eskor  
nagoengam, leren edena  
uxatzeko indar daben itza: Ama!

Zeure garbian auzpezik, apal,  
Ama itzak dakast, zeure goitar aal.  
Ta Andera aratza, azken-asperena  
oguzikeran, esan beit: Ama!

Galtzoriestan gaizkale: Ama!  
Erruki, Samur ta Itxaroa: Ama!  
Atsekabe ta pozetan: Ama!  
Oro diñon itz bikaiñena: AMA!

b. Aune-Apaziz

==== + + + ==>

ERREGINA, ANDRE DNA

Erregina,  
Andre ona,  
\*\*\* gure laguntza,  
gure esperantza  
zutan dugu.

Etsaietik,  
bekatutik,  
ume galduak  
doakabeak  
libra zatzu.

Auhenetan,  
nigarretan  
gaude, Andreea,  
orko atea  
zebal zazu.

Zato hunat  
gure ganat,  
o amultsua,  
eda eskua,  
ar gaitzatzu.

Al guretzat,  
guzientzat,  
Salbatzailea,  
zure Semea,  
otoitz zazul

LAUDA MARIA

Lauda Maria  
zeru lurren Erregina.  
Lauda Maria  
Andre ona.  
Diozagun eman gure bizi guzia  
betikot, at orai danik.  
Dezagun kanta,  
gure bozak baltsaturik,  
dezagun maita  
bihotzetik.

Zu maitazea,  
Erregina guzizkoa,  
zu maitatzea  
zer gozoai!  
Maite zaituenak, o graziaz betea,  
egiazki bihotzetik,  
bake maitea  
gozatzen du orai-danik,  
beldur tristea  
urrundurik.

Eda zagutzu,  
Maria, zure besoak.  
Begira zatzu  
zure aurrrak.

Gure esperantza zutan emana dugu:  
zatozkigu laguntzera.

Gida gaitzatzu,  
o itsasoko Izarra,  
zeruko portu  
doatsura.

Mundu gaixtoak  
berekin nahi nau galdu,  
ifernu beltzak  
enganatu.

Bainan bentzturen tutzu nere etsaiak.

Erregina puxantena,  
behar orduna  
eginen dut zure-gana  
laster lehian,  
Ama ona.

Mundu guzian  
zaitez beti laudatu  
mundu guzian  
maitatua.

Nahi zeitur beti iduki  
(bihotzeen,

Ama ona, ain eztie!  
bainan ordainez  
ardiets niri grazie  
\*\*\*\*\*x\*\*\*\*\*x\*\*\*\*\*  
xkiltzeko kariez,  
oxibakoak o Maria!

Mundu guzian

BEGONIA KO ANDRA MARIARI  
(Beren Buruntzialdian)

Jetsi zaitezze or goitik gugana  
ederto apaiñik,aingeruak;  
geutar egiñik,Mariarentzat,  
alkartu daiguzen biuak.

Nok ustu deutzue gaur zerua?  
Zeiñek zerutu deusku lurre?  
Zeu zauguz zerutzaila,Maria:  
zeuretzat gure eskeragurra.

Eztau lurtarrek Bizkaia'n artu  
eginpeneko buruntzia.  
"Erregiña beti izan daigula  
Begoña'ko Andra Maria".

Iñoz biotzglurrun loigarririk,  
gugandik orra baleica,  
egapean garbi gordeizue  
guk operiko doetxoa.

Maria,gure Ama,  
Andra ta Erregiña.  
Ai beti geure artean  
egon al baziña!

Luzaro záukez goian  
zerua edertuten;

goian bego irudia,  
zagoz zeurori emen.

Gora bear badozu  
laztan orrek igo,  
gora gure biotza;  
gorputza,emen bego.

Aingeru lagun kirmen zintzoak  
gure malkoen giltzedunak,  
udarik uda elaeak legez  
zeru-lurrétan zabilzának:  
egun eu egun illen artetik  
egaz beicoa zeuen aldran,  
gure eguzkia itzaldu ezkero  
zeuen eguzkia dakusan.

Urrezko itzakaz ezarrizue  
zeruan Begoña'n izena,  
beren aurrean makurtu daiten  
Serafiñak buru lerdenea.

Gaurko egunaren urrezko ogean  
etzun daiñean eguzkia,  
goi ta beatarrrok goretsei daigun  
Begoña'ko Andra Maria.

R.M.Azkue

ANGELUS

- 1) Aingeru batek Mariari  
diñotso:"Graziz betea,  
Jaungikoaren Semeari  
emon dautsazu sortzea".  
  
Goiz, arrats eta eguerdutan,  
Ama, goresten zaitugu;  
aingeruaren itzak eurak  
guk ber-esaten ditugu.
- 2) Jaungikoaren nai santua  
nigan dedilla egiña;  
izan nadin bai bere Ama,  
baiña geldituz birjiña.  
  
Goiz, arrats...
- 3) Jaungikoaren Seme mai ea  
gizatasunez da jazten:  
oi ontasun egiazkoa,  
Jauna gurekin egiteni  
Goiz, arrats...

AMA BIRJINA MAITEA

Ama Birjina maitea,  
zeruetako atea,  
Parabisuko lorea,  
zu zare Ama gurea.

Aurrek beren amandako,  
eta amak surrentako.  
Bakotxak badu berea,  
bainan,zu,Ama gurea.

Izar ororen Izarra,  
zure zare gure bakarra,  
Jesus Aurra da zurea,  
bainan,zu,Ama gurea.

Bego ura arrainari,  
desertuak leoinari,  
sgaztinari airea,  
zu,Ama,zaude gurea.

Nigar toki hau utzirik,  
storriren zaukularik  
airatzeko tenorea,  
zu,Ama,zaude gurea.

J.Barbier

UHOLDE BATEN PARE

Uhonde baten pare /orai bekatuak  
gaindiz bazter guziak /ditu ondatuak,  
Nun dire fededunak,/ nun dire justuak?  
Azken eguna urbil / ote du munduak?

Nor da gure artean / erran dezakenik:  
"Ez naiz ni deusen baldur,/ nik ez dut obenik".  
Zuk dirozu,Maria,/ ain garbi izanak  
gure grazia ardiets / Jainkoaren ganik.

Gizonen arbuiotek / aserik Jainkoz,  
bere azotearen / igitzera doa.  
Nork orai itxik liro / Jaunaren besoa?  
Zu zare zu,Maria,/ indar artakoa.

Jaunaren justiziaz / ikaretan zeude...  
Otoi,Ama,jar.-aite / zure aurren alde,  
Haren gana nor urbil,/ nor eger zu gabe?  
Zu zaitugu zu haren / bihotzaren jabe.

Jauna,aitorzen dugu:/gutarik ainitzi  
zuri zer zor dautzugun / zitzaikun ehantzi.  
Gure fedea dugu / apaltzerat utzi...  
Eskualdunaren ganik / hori zaitzu gaitzi!...

Lehengo feda hura / berritz pitz dakigun,  
o fededunen Ama,/ zuk gaitzatzu lagun.  
Bai,Eskualdunek emen/ hitz-emean dezagun  
beti zinez izanen / garela fededun.

Elizaren argia / Errroma'n ain handi,  
gaixtaginen nahia / laite il baladi...  
Zuri gabe,Maria,/ denek oihuz ari...  
Emozu bitoria / Aita Sainduari.

Zaldubi

B E G O N A` K O A M A O N D A R R O A N

62

1

Zar eta gazte, neska ta mütil  
zeru ederren azpian,  
elkartu giñan pozez beterik  
Ondarroako errián.

Uste genuen bagendozala  
zeruen erdi-erdian,  
toki oberik ez zan egongo  
ludiko leoor ouztian.

11

Izarrak zoli, zerua garbi  
illargi bete-betia,  
edertasunez inguratu zan  
Begoñako Ama maitia.  
  
Eliz kampai ta itxas-ontz  
burrundaren zaratia,  
!Gora! ta !Gora! deadarre  
zenon Andarru gatzia.

111

Ixil ta tānko geunden guztiok  
gau argi izarratuan,  
arrigarritzko argitasun bat  
inguratu zan orduan.  
Koroi ederrak diz-diz zerion  
argiro bere búruan,  
Zoragarrizko Ama maitsea  
agertu zan Ondarruan.

14

Kalean zear ibilkundian  
bakoitza bere lekuau,  
abots ederrez abestuz denok  
geure Amaren onduan.  
  
Biotz-ikaraz guztiz artega  
lillurrik nenguan,  
arriturikan non ote nengon  
zeruan edo munduan.

3

Edertasunez guzia txuri  
koroi ederra buruan,  
zerutar Ama ondo jantzita  
oso ederki zeguan.  
  
Ama Antigua`ko irri-parrezka  
poz-pozik bere albuauan,  
bi edertasun berdingabeko  
bata-bastien onduan.

v1

Begoña`ko Ama ta Antiguakoa  
dabiltza biak batera,  
zapi txuriaz estaldurikan  
bi aispatxoren antzera.  
  
Bizkai guztitik inguraturik  
denak Ondarry aldera,  
Zeruetaiko Izar Ederra  
biotz-guztiz goratzera.

VII

Txoriak bezin alai ta bixkor  
gaztien ibilketa,  
gelditu gabe igaro zuten  
lanean asteguztia.  
Itxas-bazter ta orma guztiak,  
kale bat eta bestia,  
edertasunez apaindu zuten  
Ondarru arri maitia.

V 111

!Boga! bai !Boga!... Ondarrutarrak  
itzas sakon zabalera,  
!Boga! ta !boga! arraunlaritan  
egin zenuten antzera.  
!Boga! bai !boga! beldurrik gabe  
Andre Mariaz batera,  
Zerustako ikurriña ta  
lonen-saria artzera.

AGUR AMA URRIKALMENDUZKOA

Agur Ama urrikalmenduzkoai  
 Agur, agur Ama zerukoai  
 Behadazu, esperantza bakarra:  
 zuri kontra eldu zautzu haurra.  
 Zure bihotz besoak zabalzkitzu,  
 besarkatuz tinki atxik zazu.

Lur gaineen ez da nigarrik baizen,  
 nigar hoiek ez zauzku atertzen,  
 Desterruan, herratuak goazi,  
 egun oroz iltzen ariz... bizi!  
 Hinka hortan, norat egin, arima?  
 Zure ganat bakarrik, oi, Ama!

Zure ganat urbildu naizeneako  
 goibeldurek egin dute uko.  
 Iguzkiak ez du hala argitzen  
 nola niri baitzare agertzen.  
 Orai-danik ez naiz ikaraturen  
 zeren, Ama, niri urbil zaren.

Begi onez beha diezaguzu,  
 makurretik geriza gaitzatzu.  
 Jainkoaren ondoan ararteko  
 zauzku, Ama, zu baliatuko.  
 Zure Jesus daukuzu hil orduan,  
 Ama ona, emanen zeruan.

J. Barbier

IKUSIREN ZAITUT...

Ikusiren zaitut, / Andre dene Maria,  
 Jesus-en aldean/ zeruan jerria.

Zeru gorenean / ikusiren zaitut!  
 Zeru gorenean / ikusiren zaitut!

Ikusiren zaitut / amultsuki onesten  
 agur bat lurretik / zaitzunean elten.

Ikusiren zaitut / fededunen artean  
 bihotzak beiratzen / garbitasunean.

Ikusiren zaitut / zeruan, Ama ona,  
 ikusiren zaitut, / oi zer zorional

## M A R I A R I   B E R E   A T S E K A B E A N

&amp;

!Zeruko Ama! !Ama maitea!  
 nai dizut Zuri lagundu,  
 Zure neke ta atsekabeak  
 !ei! nork lezaken arindu.  
 Negar erriko bizitz onetan  
 naiz lo-zorruan egondu,  
 Len egindako oker guziak  
 nai ditut orain zuzendu.

Pekatu larriz nere anima  
 !zenbat aldiz det zikindu!  
 Nere bira o nazkagarriak  
 Zure biotza samindu.  
 Erruki zaitez Ama laztana  
 nereak damu ta min du,  
 Otoitz egimaz nai nuke Ama  
 biotz-min ori arindu.

Ar na zu Ama, Zure semetzat  
 Larren Amatxo! agindu,  
 Zorigaiztoko seme zital au  
 gärbitasunez apaindu.  
 Zureganako maitasunean  
 aingeruakin berdindu,  
 !Zer zoriona Ama nereak  
 zeruratuko banindu!

Zenbat negar ta malko samiñak  
 nigaitik dezun ixuri,  
 Atsekabeszko gaxo illunak  
 ezin poztu biotz ori.  
 Gizzadi danen Ama zoranez  
 bidezko dala diruri,  
 Biotsez elkar nai izatea  
 Zuk neri ainbat nik Zuri.

Nere bizi ta itxaropena  
 jarria dadukat Zugan,  
 Gau eta egun, une guzitan,  
 berdiñ negu eta udan.  
 Bené-benetan esaten dizut  
 egon gabetanik dudan,  
 Badakizula Ama nerea  
 nik zenbat maite zaitudan.

Ama Birjiña Begoñakoa  
 ederra dela &nork uka?  
 Bere zerutar edertasunak  
 guztiz arriturik nauka.  
 Bere goratz ta aunditasunak  
 Orra orain emen buka,  
 Agur!...Agur...Agur Maria,  
 biotz-biotsez kantuzka.

ANDONEGI`tar ZIRIAKO

KANTA ZAGUN GUZIEK

Kanta zagun guziek / ahalik gorena.  
 Lauda zagun Maria / andre handiena.  
 - Makin zuen zerutik / zer zen gertaturen:  
 Birjina gelditurik / zela amaturen.

Gure salbamenduez / errazu,Maria,  
 nork ekarri zarotzun zerutik berria? -  
 - Gabriel aingeruak / etxeen serturik,  
 Jainkoari zeruan / gu urrikaldurik.

Aita Eternalak zer / zuen gaztiatu?  
 Gabriel aingeruak / agurxazkizketa? nola zen mintzatu? -  
 - Galilea'n nindagon,/ herri ederrean,  
 grazia da zurekin / eta jaun handia.

Zein lekutan zinauden / hitz hauk aditzean,  
 Gabriel aingeruak / agur erraitean? -  
 - Galilea'n nindagon,/ herri ederrean,  
 ene gelan bakarrik/ ari otxitzean.

Gabriel aingeruak, / zu salutaturik,  
 eman izan zarotzun / deus bertze berririk? -  
 - Kontzebiñuko duzu,/ zioen,sainduki:  
 Seme izanen duzu / Jainko bat segurki.

Maria,ote zinen / zure-baitan laztu  
 hitz horiez zenean Gabriel mintzatu? -  
 - Bail Ez bainuen nahi / sekulan ezkondu,  
 ez eta birjinaren / ohorea galdu.

Aingeruak zer erran / zarotzun,Maria,  
 ikusirik zinela / ala nahasia? -  
 - Izpiritu Saindua / da seinalatuko:  
 mirakuilu hori du / berak obratuko.

Maria, aingerua / zinduen s̄netsai?  
 Eta nola zinior / hari ihardetsi? -  
 - Zeruetako Jauma / dela adoratu,  
 Haren nahi saindua / osoki konplitu!

Gaztekuzar

MALKOEN USAIÑA

Kabitik uxatua  
lenengo gizona,  
oian zear ebillan  
ara eta ona.

Argi-odeiak eben  
izü-dardar jarten,  
arrats-beran osertzak  
eban txit samintzen.

Bide-ertzeko iklorak  
eutsoen ~~ezkeren~~, begira,  
emon oi poz-lekuko  
gomuta dirdira.

Ta lemengo gizonak,  
ibildaun zurrian,  
malkoak arintzen, ez,  
gaixola; ez ekian.

Ta bein, udabarrian,  
ergiz txukatua,  
autsean erori zan  
aur-gogoz auldua:

—"Aita, erauz begiak,  
edo, al ba'dozu,  
jaso euron gaiñean  
il-miesa itsu.

Lorarik ez dot gura  
ikusi geiago;  
argi-ugold onek  
bear nau, ai!, ito".

Errukizko une atan  
errukiz Jainkoak  
begietan ezarri  
eutsozan malkoak.

Arrezkero, gizonak  
malkoz édirazi  
oi däu ~~mañak~~ damotsan  
barruko intziri.

Geuk legez, Mariak be,  
begiak sarritan  
erakutsi izan ditu  
naigane-malkotan.

Giza-malkoak, aurki,  
Amaranez batxo,  
zerutar uzta dira  
zoragarri goxo.

A. Onaindia

SORTZEZ GARBIA

Ama maitea, / Sortzez garbia,  
gure Atizar/ bardingabea,  
gutzat itxaro / gozotasuna,  
bintz-samiñen / zorun-zoruna».

Ez jakimontzat / jakituria,  
obendiontzat / goi-errukia,  
zu etsai káltez / poz eta indarra, "Amatxo laztan, / nik maite zaitut!"  
gizadiaren / Ama bakarra.

Zure deuntasun/ guren-gurena  
Jaun altsuáren / ezkutapena  
dá ta jarleku / zóriontsuay

Jainko asmotan / lenengokoa,  
goi-gotzonaren / gañetikoa,  
ezin neike ba, / iñoz ulertu,  
neurgea danik / ezin lei neurtu.

Biotzez daurtat, / apal-apalik:  
"Zure gañetik / Jauna bakarrik".  
Ta seme-usteáez / pozez diñotzut:  
"Amatxo laztan, / nik maite zaitut!"

Goiz-arrats bakoitzean

Goiz-arrats bakoitzean, itxaroz ta laztanki  
baikorkiro irikiz ametsen iturria ....  
Ze lazgarri ta ituna, au, gure bizia ,  
gauzaon arimaz begiratzen ez bagenki !

Bultziz goazenean zuaitz, mendi, soro, etxeak  
atzean gelditzen dira arinka, lasterrez ,  
baiña, zero zabal ta goiko izarbideak  
urbillagotzen datozte gau aro ederrez .

Oi, gau-alorretako izargune dizdiratik ,  
zidarrezko zabaldi aundi, azkengabearen  
munduteri eder , argontzi zoragarriok !

Lurra oñetan dogularik, gogoa argituz ,  
oi, Begoña'ko Ama ! Lagun eiguren arron ,  
bidea igaroten, zeure biotza zabalduz .

Muniategi-tar Sabin .

AGUR,IZAR EDER

Agur,Izar eder,  
Birjiña maitea;  
Agur,Ama gozo,  
zeruko asteal.

Aingeruak zuri  
berri-on emanik,  
etorri zitzagun  
pakea zerutik.

Lotuak askatu,  
itsuak argitu;  
on guztiak eman,  
gaitz guztiak kendu.

Guretzako Ama  
zaite bigun izan,  
gure otoi-deiak  
Jaunak entzun ditzen.

Bizibide on bat  
dizugu eskat,en,  
Jesus ikusteko  
zurekin gozatzen.

GOAZEN,GOAZEN GUZIIOK

Goazen,goazen guztiook  
Mariarengana,  
goazen bai eskeintzera  
biotz eder bana.

Zu zera gure Ama,  
Birjiña Maria,  
izar eta eguzki  
guztien argia.  
Aingeruen Erregin  
egiz gurgarria,  
izan zaite euskaldun  
danen Zaindarie.

Zure semeak pozez  
gera gaur elkartzen,  
ta dizkitzugu gure  
biotzak elkartzen.  
Ongi dakizu,Ama,  
zukan dana etortzen,  
zure mantupe ortan  
dezula jasotzen.

Argi guztien argi  
sutsua zu zera;  
argatik zure bear  
gu arkitzen gera.  
Printza bat bana zazu  
gure biotzera,  
seme leialak izan  
gaitean aurrera.

Gaur errukia izan  
zazu guretzako,  
zure seme-alabe  
guztioentzako.  
Zeruan lekutxo bat  
eiguzu geroko,  
ilda zure ondora  
gu joan ordureko.

AGUR,AMA MARIA

Agur,Ama Maria,  
agur,agur,agur!  
Agur,sortzez garbia,  
agur,agur,agur!

Sirjin eder Maria,  
Jeinkoaren Ama:  
entzun zazu zerutik  
nere azken kanta.

Ama biotzekoa,  
ezin det aldegin;  
emen bizi nai nuke  
betiko zurekin.

Gera zaite,Maria,  
aldare onetan,  
maitez urtutzen beti  
Amaren oñietan.

Ara,Ama maitea,  
nere azken kanta:  
zura begi ederrak  
itzuli bigana.

Z E R U K O A M A R I P O Z A B R E N

Zeure ostinean auspezik,  
 argi bat dakust, argi, Ama,  
 neure obenak zearkatuz,  
 goibelak astintzen leunkiro.

Damuari kendu-malkoen  
 mintzo gardena ixuri dautzut  
 oinietan, ta Zure samurrik  
 askatu egin daust errua.

Legor izan dot, Ba, gogoa,  
 ta Zeure begitze leunaren  
 leiarrak girotu daust neure  
 tamalen ixil durduxtua.

Laprastaden txirripistadak  
 goi-anotsen ego ozenetan  
 suntzitu yataz. Orain poza  
 daukat barne-urrakaden gantzu.

Ta udabarriko ulluntzearen  
 entza garbian Zeu goretsiz  
 galdu naz, gogo-zelaietan,  
 kanta baten biguna eguts.

S. Aurre-Apreira

==== + + + ===

MARIA, GUZTIZ DONTSUA

Maria, guztiz dontsua,  
pnoimenez épeindua,  
ontartez aberastua:  
zugandik Zeru-emaillea  
sortu da, Ama Maria!

Izar argiak bezela  
gaur distiatzen dutela  
daude, bai, ezin kont-ala  
dontsuak zero zabalat  
Erregintzat zaituztela.

Erregin eder aundia,  
zerala gure argia,  
ikusten zaitut, Maria,  
txit zero goian jarria,  
izar sin errigarria.

Sortzetik zera garbia,  
goizeko izar ergia,  
gidari maitagarria...  
Nago, bai, zuri begira,  
ezin aspertuz, Maria.

ZERURA GAITZATZU, AMA

Zerura gaitzatzu, Ama,  
zeruratu gaitzatzu.  
Gure itxaropen osoa,  
Ama, zugan daukagu.

Bidez nago mundu ontan,  
ez naiz emen betiko;  
emen beti iltzen nago-ta,  
zeruen naiz biziko,  
antxe beti biziko.

BIRJINA GUZTIZ ONA

Birjiña guztiz ona,  
zeruko Erregiña:  
ertu zaiguzu koroi  
guk lorez egiña.

Lore guztiek dute  
edertasun berena,  
baiña zu zera iore  
danetan ederreña.

Nola zero urdiña  
apaindurik izarréz,  
ala zera, Maria,  
ederraren ederreza.

Eguzkia baiño-re  
zera ederrago;  
zuri begira ezin  
asperturik nago.

Zu bezin ederrikan  
ez da iñor besterik:  
zero-lurrak dauzkatzu  
danak argiz beterik.

AMA, SAMINEZ BETEA

Ama, saminez betea,  
Ama maitagarria!  
Begiak guri biurtu,  
Ama zoragarria!

Zu lagun zaitudala,  
Birjiña prestua,  
uste det iristea  
nok barkazioa.

Ezpata zurea da  
arma zorroztua:  
nik ori sartu dizut  
biotz gogortua!

!A G U R M A R I A!

71

&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&&

Goi-aingeru bat zerutik dator  
Zugana, Ama Maria,  
Jaungoikoaren aginduz dizu  
esaten: AGUR MARIA.

Aingeru onek nai dizuna da  
berri on bat ematea,  
orregatikan berak esaten  
dizu: GRAZIAZ BETEA.

Jaungoikoaren borondatza  
guziro dezazun jakin,  
begira nola esaten ere  
dizun: JAUNA DA ZUREKIN.

Oraindik ere Goi-aingerua  
zurz aurrean daukazu,  
adi zaiuzu zer dion berak:  
BEDEINKATUA ZERA ZU.

Bedeinkatua zerala dio  
berak aoa betean,  
bedeinkatua Zu bai Maria:  
ANDRE GUZTIEN ARTEAN.

Bedeinkatua zera Zerori,  
bai: ETA BEDEINKATUA,  
guzion zorionerako: DA  
ZURE SABELKO FRUTUA.

Jainkoa zure sabel garbian  
aragiz jantzia dezu,  
zeruratzera gizonaz dator  
izna duala: JESUS.

Premian beti Zugana dator  
pozikan pekataria,  
asten da Zuri erregututzen  
esanzaz: SANTA MARIA.

Pekataria sinismen onak  
zurz aurrera darama,  
bait-daki berak ondo zerala  
Zu:JAUNGOIKOAREN AMA.

Adi itzatzu gure erregu  
argalak zeruetatik,  
baitare: ERREGUTU EZAZU  
GU PEKATARIOKGATIK.

Ondo dakizu pekataria  
zer laguntza bear duan,  
erruki zaite: ORAIN TA GURE  
ERIOTZAKO ORDUAN.

Zu nai zaitugu gure Amatzat  
bizița guzian emen,  
Izan zaitzagun ere betiko  
Zeruko glorian: AMEN.

ANOONEGI`tar ZIRIAKO

72

AMA SIRIÑA BEGOÑAKUARI

Kantaurrea

Andra Maria, Begoñakua,  
Euskal-erriko gloria,  
zur egaean artu egizu  
eusklaldun jente guztia.

Kantartea

Zeru altsuan/Goiaingeruak,  
Koroe eder bat dabe landu,  
manto urdin bat,/ zider ta perlaz,  
Orfin'ko urrez epaindu:  
Ama dontzeilla/Begoñakuari  
ule albiñak orra, tu,  
aro ederraz/nai dabelako  
Aita eternuak arotu.

Ama dontzeilla / Begoñakua,  
jarrirrik aurki eregian,  
adu onskua / izango zara  
agorrillaren zortzian;  
ez da negarrik,/ ez zisipururik  
izango Artango mendian,  
koroe ederraz/ zarielako  
jantziko Euskal-errian.

Egun orretan / dozuž eukiko  
Goiaingeruak albuan,  
kantu ederrak zuri kantetan  
ospatsu arpa soñuan;  
guk be orduan / kantauko dogu  
jarrirrik euren onduan,  
eta Begoña/biurtuko da  
zeru eztitsu abauzkuau.

Urra,Maria! -diño Bizkaia'k-  
Urra,dontzeillen loria!  
Urra, padurak,/ ibar-zelaiek.  
Urra,lurraren jaubea!  
Urra, gañezka/ zagozalako,  
zeruko doezi betia;  
gaurtik aurrrera / izan dedilla  
Bizkai guztia zuria.

Agurra

Agur,zeru-lurraren  
Erregin maitia,  
Jakob'en izar barri,  
Dabid'en torria,  
sortua orban barik,  
graziaz betia.  
Zu munduko osasun,  
bake emoillia;  
zu euskaldun guztien  
Ama ongillia.

Agur,agur,Maria!,  
zeruko atia,  
egun-sentiko izar  
bizița guria:  
samin da Begoña'tik  
alde egitia:  
gure guraria da  
zugaz egotia.  
Emen izten deutzuguz  
biotz ta animia.

LORE GARBIA

Lore garbia,  
kantu gozuek  
zuri pozik eskeintzean,  
artu, o' Amal,  
biotz nerea,  
gorde zure biotzean.

Mendi gaiñetik  
eguzki argia  
gozoro dator goizean;  
gozoroago  
gniko dozia  
gure animan sortzean.

Argi gaitzatzu,  
izar,Maria!,  
zeruetako bidean;  
ibil gaitezen  
Jesukristoren  
sinismen arji batean.

BEGOÑA KO ANDRA MARIARI

Bizkaitarrik Bizkaia'n  
dan goiz-erratsetan,  
eguzki-estai epelen  
giro samurrestan.

Aritz orritsuaren  
aber aizetsutan  
Begoña'ko Andreea  
izango'gu laztan.

Itxas-zabaleko urak  
legorreratean  
iñoz gelditu bega  
oi dabizanean,  
geure arimen irudi  
loi bekoak dira:  
zeugana gatoz,Ama,  
zagokuz begira.

Itxasoa ibaiturik  
lotsor darabiltzu,  
odei baltzak indarga,  
gaisoak indartsu;  
zure oinpean dakustaz,  
Ama,goibeturik  
ezten berik sugoa  
Selbea il eziñik.

Eta ni,Ama,  
ez il bai ilgo,  
nok esan seme nozula!  
Munduko bagak  
ia ondaturik  
nauke inderrez ul-ulá.  
Nire begiak  
egun argitan  
dakuse gau motz itzala:  
zeruetako  
argi-ontzia  
ez eaztu,Ama,zareala.

Eba'ren erbestetuok  
dedarrez gatoz zugana:  
ez gortu gure eskari omi,  
Begoña'ko Ama laztana.

"Ama,orra or zura  
gerozko semea".  
Au esanda,Maria,  
il yakun zeurea:  
ta udako egunen ate  
laban zabalkorrek  
legez zabaldu ziren  
zeruko ate sorrak.

Goietan ots eginda  
Eraspen-orduak  
Golgota'ren buruan  
zeugandik sortuak,  
ega biko txoriak  
abiati urtenik  
gabiz,zeure egapean  
zerutartu nairik.

Tikitxu bana,  
Ama laztana,  
or goion gertu bageuko,  
danok pozarren  
goretzearen  
gengokez noznai ilteko.  
Eliz-ke zuri  
ederra zeuri  
joatzun bide birean,  
ega, beioa  
biotz gaisoa  
zeuganaiñotu artean.

R.M.Azkue

BIRJIÑA MAITE

Birjiñea maite,/ lotan dago / zure Seme laztana;  
seaskatxoan/ipiñi eizu / gure biotzen kutuna.

Ongi bai ongi / igeru daizan / gabek eta egunak;  
poliki poliki / eragiozu / egin daian lo ona.

Zeru goi-goitik / gugana dator / gure Jesus laztana.  
Lasterka lasterka / goa-en,kristauok,/ gure jaunerengana.

ZURI GAUDE

Zuri gaudé, Ama ona,  
ameten zare eztiena.  
Zato, zato laguntzera,  
etsaietarik beiratzera.

Ditzazu senda eriak,  
kontsola biholtz penatuak;  
bekatoreek duten sendi  
zu méitatzea zoin den ezti.

Zuk galdatzen ditutzenak,  
ditu onartzen Seme Jaunak;  
zure aurruk egalpean  
zatzu eman denek batean.

Emazu dener bakea,  
azkar arimetan fedea,  
zain Eliza ertsatua,  
shortz etsai ain nausitua.

Zutan dugu esperantza;  
zurea da gure bihotza;  
zu zare gure izarra,  
zu-baitan da gure indarra.

Iltzeko oren beltzean,  
gorde gaitzatzu bihotzean;  
bedi izen azken hitza  
eta azken gure oñitzta.

ESKUALDUNEK, O BIRJINA MARIA

Eskualdunek, o Birjina Maria,  
amodio, ohore dautzugu.  
Zein zaren on, puxant, miragarria,  
nork sekulan aski erranan du?

Gure Ama zarela oroit zaite,  
Gurutzatik Seméak emana.  
Zure aurruk ain gaitutza ~~ezizatzearren~~ gu maite,  
zu baitzara Jainko baten Ama.

Eskualdunei fedea kendu nahiz,  
etsai gaitzek gaitutze ertsatzen.  
O Maria, zu gure alde jarri,  
deusek ere ez gaitu lotsatzen.

Gure zuzen lurrekoak galdurik,  
oso dugu bederen fedea.  
Eskualduntzat ez da ezaguturik  
gutartean sineste gabea.

Otoi, lagun gaitzatzu, o María,  
gure behar ordu guztietan,  
osagarri, ontasun, familia,  
zerurako gure urratsetan.

Zaldubi.

BEGOÑA KO ANDRA MARI

Begoña'ko Andra Mari,/ Bizkai'ko Zaindari:  
zure seme maitaleak / zugana kantari.

Itxas-gizon siñestunak/ zugan dabe kabi,  
artzain gaixo menditarrak/ zugan euren begi.

Lugin eta langilleak / zuri otoiari,  
aberatsak ta txiroak / zaituela argi..

Amá maite biotzeko,/ bigun eta garbi:  
Bizkai'ko seme-alabak / artu ta zain beti!

Gure lanak eta amesak / zerutik onetsi;  
zuzenbide ta bakea / danontzat jedetsi.

Eriotsan gure alde / otoi ta erruki,  
zure ondoan zibriona / izan daigun beti.

Ama maite biotzeko,/ bigun eta garbi:  
Bizkai'ko seme-alabak / artu ta zain beti!

EDERTASUN GUZTIAZ

Edertasun guztiaz / ziñalako sortu,  
lurbira ta zeroak / goratuten zaitu.  
Jatorrizko erruak / etzinduan loitu:  
sortzez ain garbi-eder,/ bakarrik zara zu.

Zeru garbi Urdiña / da zure irudie,  
izar eder-ederreñ / bizirgo josia.  
Ainbat donetasunez / zaozala jantzia,  
sortze bertatik,Ama,/ osoro garbia.

Agur,agur,agur,Maria:  
agur,agur,guztiz garbia!

EUSKALDUNOK

Euskaldunok, o Birjiña Maria,  
maitasunez goratzen zaitugu.  
Ain zara on, altsu,miragarria...  
ezin esan zein eder zaran zul

Euskaldunon Erregiña,  
zu zaitugu, Ama ona!  
Gure alde otoi Jauna  
eta emon zorional!

Arte zet sendoaren gañean  
oroitzent zaitu erriak,  
maitasunez, ernai, zgoz Ama,  
errirantza %%% adi begiak.

Eskutuz bizi da sinismena,  
gizonen arrigarria,  
Zuri deitu eutsun Jaungoikoak,  
maite dau Euskalerria.

Begoñan daukazu oin garbia,  
Bizkaian biotz guztia,  
Amaren biotz sakontasunak  
erioten dau eztia.

Ama, zure edertasun maitia,  
gizonen itz ilkorretan,  
nola adierazi ez dakit  
euskaldu onen mintzaian.

Itxaso zabel zara gizonentzat  
eskar urez erioten,  
gizon arteko izar argiena  
maite biotzez garretan.

Amaren indarre emon eutsun  
Jaungoikoak Nazareten,  
munduko negarrak ikuستeko,  
semea sortu ondoren.

Gurutzeko eriotz orduan  
amatzañitzi zinduzan  
Jainkoak sorturiko gizonei  
ZUK laguntzeko bizitzan.

Mendian il eutsuen Ama,  
irain ta ezpata gorriz,  
Aren odole, gure itxaropen,  
Amaren maitasun biziz.

Kristaua gizon ta itxaropen da.  
Gorputza, gogoa, bizi...  
Pertsobaren mortasun garbia  
iñola, ezin leike itzi.

Zeure izerdiz landuko dozu  
oinpean daukazun lurra,  
lur aundia, zure maitasunez  
ogi biurtzen da larra.

Euskaldunak, gogoz, maite ditu  
jatorrizko lur sendoak,  
arkaitz, mendi eta arri-burdinak  
sortzeako duin lakoak.

Jatorrizko egia maite dau.  
Odoiez luwra geiago.  
Maitasuna da eusko izadia  
itzak baño egiago.

Bizitz legez arturiko lurra,  
otoitz ta izerdiz maite dau,  
egunezko neke ta izerdiak  
otoitzean biurtu gau.

Kristau piñak lana eskatzen dau  
lurreko mokil artean,  
sinismenak goi-arnasaz lortzen  
bakea biotz barnean.

Lurreko ogia janari da  
iturri ura ~~gutxi~~ edari,  
Jaungoiko itza betiko bizia  
gizonentzat asegarri.

Ama ta semeak elkarrekin  
bizitza giro ederrean,  
erleak eztia xurgatzen letz  
lorearen babesean.

Eguzkiak zero urdiñean  
argizko printzak zabaltzen,  
Bizkaitarrak Amaren ~~eztia~~ altzoan  
izar gori biurtutzen.

Amak giza eztia dario  
gizon nekiен pozgarri,  
semeak maitasuna xurgatzen  
amaren biotz garrari.

Jakituria dizdizka dabil  
amaren itz ziurretan,  
lureean eguzkia bezela  
sattzen gizon buruetan.

Bizia pozgarria da berez,  
geroko itxaropenetan,  
Bizkaitarrak koroia jarri nai  
smari eskar onetan.

Gizon etsaiak agertu ziran  
ama ukatzen karraziz,  
leoi amorratuен antzera  
burruka gorroto bizi.

Maitasuna eta naigabea,  
~~eztia~~ ots, amaren egunean,  
kristauak koroia jarri eutsen  
erregin buru gañean.

Andra Maria Begotxen dago  
Jesusen agindupean,  
orra or, zure semeak zaindu  
Bizkaiko arantz artean.

Arte ganean zagoz Andrea,  
amatxo urretxindorra,  
eta eritz batek dauka Bizkaian  
euskalduñen Lagi Zerra.

Euskaldunen Leggi ta bizia,  
betiko erramuzkoa,  
ogi ta larroz biurtu bediz  
lurra eta gerokoa.

"Gurutza Deuna dogu goi-buru."  
Andrea, zure semea,  
kurutzaren frutuak nai doguz  
maite fore biurtzea.

Ama deitzen deutsaga semeak,  
Kristok, ala, nai kurutzan,  
Eguzkia, nun, zagoz, nekeak  
larrosa biur daitezan....?

Andre bat dabil, gure Maria,  
euskal baratza guztian,,,  
zitori ta larrosa billa  
gizonen biotz gorian.

Egi zurra da Andre Maria,  
kristea sendiko arris,  
fedez artu dau Euskalerrisk  
Mariaren oiharria.

## o t o i t z

Euskaldun seme zintzob, Ama,  
 antziz begira ~~Mañan~~ daukazuz,  
 Nazaret ta Begoñako lurrik  
 maitasunez bete dozuz.

Bizkaiko eusko seme laialak  
 lur ta gizon maite ditu,  
 baña fedez bizi da lurrian  
 kateiak nai ditu kendu.

Fedearen zuzentasuneeen  
 egiaren laguntzagaz,  
 landu nai dem euskaldun lurra  
 eusko gizontasunagaz.

Aurrean daukazuz seme onek,  
 barruak lertzen arduraz,  
 kaltzairuzko egia nai dabe,  
 guzurrak ausi mintzairaz.

Euskalduna ez da guda zale,  
 gerra ez da Kristorena,  
 suagak ez dira euskoenak,  
 maitasuna da onena.

Zuzentasunaren espillua  
 deitzen deutsu<sup>ñ</sup>zure erriak,  
 otoitz Euskalerriaren aldez  
 salbau daitezen egiak.

Egia, erriaren bizia,  
 gizon ta fedez jantzia,  
 euskaldunak begira daukazuz,  
 Bizkaiko Andra Maria.

## i t x a s t a r

Itxas zabaletik zeар doa  
 Egilearen gogos,  
 jakiturie ta maitasuna  
 ta zidarrezko olatoa.

Itxasoa urdin urdin dago  
 gabaren ostin surrean,  
 millinoi izarrak dizdizetan  
 maite suaren garreen.

Euskaldunak bizi billa doaz  
 itxaso aundietara,  
 zenbat bidar begiratu ete  
 dabe emaren etxera....!

Euskotarrak zuri deitzen  
 itxasoko Ama-izarra,  
 argi ta maitasuna nai ditu  
 ta zure Zaindari indarra.

Zenbatek deitu deutsue ; Ama...;  
 itxas gogor aldietaн,  
 zenbat szti goxo jarri dozu  
 itxastarrsen biotzeten...;

Itxasoan gizonak lertutzen,  
 emazteak otóitzeten,  
 Begoñako Andra Mari, gogoz,  
 Semeari arrenetan.

Zaindu egizuz Euskalerria  
 itxaso eta gizonek,  
 itxasoko izarra %%% zara, Andres,  
 entzun eskari oenak.

Sinismena ez da lur ta arri  
sinismena ez da burdin,  
larrosa gorriak ezin leikez  
kaltzairuagaz bat egin.

Ederra da kaltzairu bizia  
gizonaren eskuetan,  
maitasuna goxoagoa da  
biotzaren odoletan.

Sinismenak argia dixuri  
gizonak onartukeran,  
loreak usain goxo dario  
eguzkia etorkeran.

Iturria ur gärdenetan dago,  
egarrien asegarri,  
Begoñako Amaren biotza  
~~maitasunaren~~ iturri.  
*mai*

Eguzkia, iturri, itxasoa  
eta amaren maitasuna  
zugatz tantaiaik bezela dira  
ta gizonen osasuna.

Gazte ta nagusi Urtetsuak  
otoitzera doakizuz,  
baita udabarriko loreak  
seme eta alaba dozuz.

Bizkaitar askok egiten deutsu  
otoitz piñen bat barnean,  
ama bar zentzundun umeak  
munduko egi artean.  
*pear*

Euskalerriko basetxe maite,  
gizon sendoen kabia,  
buru ta biotz & jarri zenduzan  
zuretzat lortzen bizia;  
naiz %%% dela mendi, naiz dela aldapa  
naiz erbera ta zelaia,  
jakituriz ta izerdi %%% bidez  
atera zendun loria.

Lur eder onen errai aldetan  
bat egin ziñen pozetan,  
lurraren mamin zure lanagaz  
edertzen bizi miñetan;  
bosoek solo, sasiak %%% landa  
fruturik ederrenetan,  
es eusko gizonak atera eban  
bizia era orretan.

Fedeak euken biotz barnean  
larrosa gorri gorria,  
ene arbaso erri zaliak  
arantz arteko loria;  
atxurra eskuz mokil apurtzen,  
gogoz, maiteki, otoiak,  
egunez lurrez indarrak lertzen,  
gabaz, eskatzen bizia.

Andra Maria Begoña %%% goitik  
baserritara begira,  
gogoz ikusten lugin bearrak  
arto ta gari danera;  
bereko gogoz gure %%% esabak  
makurtzen emarenera,  
lurraren gatza, gizoneen grezi,  
eztiz sartzen biotzera.

Lurraren %%% frutu = ogi ta erdauak,= maiasunaren loreak, lurrik laiatu,mokillak ausi, landetan bedar berdeak, baserritarrak eguzki galda zegiten egiñaleak, zelaien dabiltz eztia batzen urregorrizko erleak.

Ogia ez da jeneri bakar, gizonea eztia piztia, azurrak,odol eta mamina gizonen erdi-izatia; danez gañetik jentzi zuria, gogoaren indar miia, sinismen, itxaropen,maitasun gizonareurre gorria.

Baserritarrak otoi egian lurreko neke artian, Andra Maria otoi artzen maitasunez biotzian; lugin minduak aldraka doaz Begoñara zuzenian, Andra Maria,errukiorra, intz eriotan lanian.

Ama semiak,fede,maitasun, alkartu dira,gaur goizez, neke latzak eta eskariak gora doaz maitasunez; Zerua edegi da ta Andrea agertzen da goi eskarrez, fedearren inderra poztutzen itxaropen ezilkorrez.

Bizkai tximini sündiak ketan,  
 labagoriak suagaz,  
 arri burdiñak miñez urtutzen  
 garraren indar goriaz;  
 giz. eragia ez da ein gogorra,  
 ez arri eta burdiñez,  
 izerdisagaz lertutzen doa  
 beroaren eragiñez.

Nundik zakerrez arri-burdiña  
 nun, ete da zure mua...  
 Bizkaiko burdiña zuloetan  
 gizonei urtzen bizia;  
 dirukeria baño geiago  
 ez ete bizieria;  
 samiñak eta negarrak dira  
 gorroto etorpidia.

Begoñatik begira aurrez aurre,  
 artaganeko Andrea,  
 semeak goikeriz zapalduta,  
 ai Amaren naigabea...; i  
 semeei begira dago negarrez  
 miñez ikusten Semea;  
 errieten miñez ~~eguzkiak~~ gosez  
dagoalako dagoelako jendea.

Mia alde orretatik ba-ditu  
 zintzoehetarikoak,  
 leoiak bezelako gizonak  
 indartsuenetaikoak;  
 Ama alderdi guztietara adi:  
 eupa langille kristauak:  
 burdin kaltzairuz baño, beti, izam  
 fedeaz sendoagoak!

*Sotomayor Paulin*

IRUGARREN ATALA  
BISARREN ATALA

BIZKAIKO ZAINDARIA

Z A I N D A R I T Z A

Geure gai-eza ikusiaz,norbaiten babesnean jarten gara. Eta ol koaren itzala kerengarri izan ni yatzu. Ezker-eskri begiraturik, eguneroako gauzeten ori bearrezko lez baldin ba'digu,askozaz,geñago arimako egitekoetan; arrisku artean gabiltzanean batez be,beti nai i-aten da zerutar laguntza. Andra Mariaren begitu samurrak,esate baterako,adorez indartzen gaitu asitako lanari amaiak emoten jarduteko. Fedez ta uste onez jokatu dargan gizasomeak eurrez izan oia dau gniko babesaren gozotasuna.

Mirariak

Gaitz dira zenbatzeko,gizaldi zear,eskariak eta erreguak egiñaz Begoñako auskraztuak. Oria bera esan daikagu,guztiz zail yakula Andra Mariak beretik bere mai-tulsen onetan egin dituan mirari ta alatzak bat-banatzea. Ixil-ixillak izan dira oneitatis batzuk,ixilnetik argitara jalgiak beste batzuk; batzuk idatzita liburuetan agiri dinenak,beste batzuk aoz-ao guganaiñon elduak. Areik naiz oneik,jakiña, biotzaren testigantza ederak eta Andra Mariaren bitartekotasuna iragarten dauskuen egiazko autorrak.

Ots aundikoa izan dira beti Begoñako Amak ari ta oni egindako mesede ez txikiak. Begoñako irudia beti euki izan dau gure erriak mirarigille aunditzat; ioniz esan da,Begoñako Amaren mirariak zenbatzea baiño errezagorako litzaketela itxasoko urak neurteza. Gaur-egunerako geiegi bear bada,baiña asko ta asko asko dirana ezin daikagu uka.

Liburuetan datzabak doguz,batzuk aitatzeko,oneik: 1576'an,Bernabe eritxon Pinan (Arreba)ko gazte baten miiña osatzea; 1584'an,Juan Revilla'ren semea,biotzetik txarto ebillena,Begoñako Amaren bitartez,ondo geratzea; bardin;1593'an,Abando'ko Txomin Larraskitu; Juan Irureta umekoa,1619'an; Aita Krisostomo,Kalagorra'ko gotzaiña, 1625'an; Berangoñako ume bat karabian jausi ta bizirik urtena; flamencar margolaria,Andra Mariaren irudiari neurriak artzerakoan itsutu ta gero,egindako pefkatuak autortu ta Andra Mariak berak barrien barri ikuimena emon eutsona. Ez dago ostera zertan aitaturik, gorago esanda geratu diran uiol,izurrite ta olakoetan artutako mesedek.

Bego emen Aita Henao'ren gai oni buru ko autorra be. "Andra Mariak bera da -diño- Bilbao'k daukon nasaipide ta fedearren entzungarri,beronen estukuntza ta oker-bideet..."; bera da Bizkaiko Jaunerriaren gordeleku,jenteak bertora jo oia dabe errones lekurik urriñenatik be,bertako eleiz-barruan gau-bela luzeak egiñaz. Etxeak Samur-bera erantzuten dautse Birjiñak eleiztarren eskariai, baita ainbat mesede euroi egin be. Eta au ez Bizkaia'an bakarrik, baita beste eskualde ta erreñuetan be,Indietara raiño,ur ta lur,lhrtu oia dabez bizkaitarrak,Begoñako Irudi onen aurrean otoitz egiñaz, gipitikoa dhai ta mesede guztiz bakkaiñak"( Avériguaciones,I,245 nñ.).

Mirari ta gauza arrigarri oneitaz emaiak emonteko, eurok jazo ziran garaian eta girañan lekutu bearra dugu; gizaseme fedetsuak genduzan areik. Eta Kristok diñoskunez,fedesz eskatzen dan edozer lortzen: baita mabaratzu edo eragozki yakun mendia eragin be. Olakjrik siñistu nai ez dala-ta,guzurtzat jo? Zeure ergelkeria zuritzeko, joko polita. Kristau siñismenerako,egia esan,Testamentu Zarreko ta Barriko mirariak onartuz gero, beste guztiai buruz gu aske gara siñistu nai siñistu ez. Santu aundiak be oso siñisngorrak izan yakuz sarri,mistikara emonak batzak be. Eleizeak herak ardura aundi jokatu oia dau,jazokun bat izatez gaiñeko izan dala autortzeko. Guk geure adimen-argia giz ulertu eziñak diran jazokunak,alan be, ez dugu beste barik txarretsi ta nardatu bear.

Begoñako Amaganako erasprena

On egiñak erantzuna berez.Ainbeste mesedek legezko eban ordañña. Ta Birkaiñko eleiztarrak gogaitu barikjoiazan Andra Mariari artu mesedeakaitik eskerrak emotera; ez,bizkaitarrak ez yatzuz izan nagi,ez atzerakor mesedeai erantzuten. Or orren testigua ta ziñaldari santutegiko eskintzari ta gauzak; ortan guztiz aberatsa izan da beti Begoñako eleiza; bertakoak eta ur ta lur kanpotik ebiltzanak,euren esku-zabaletasuna indo erakutsi izan eben gizaldietan zear.

Nai beste ziñ-ormigarri (ex-voto) daukagu Begoñako eleizan antxiña-an txinatik: 1513'garren urteko gauza-zerrendak ba'dira. Urrezko ta zidarrezko gauzarik ba-zan ugari,baita jantzi ta manturik be,eleiz-altarak eta Andra Maria apaintzeko.Sarri

egunkitu ziren oñako zerrendak, eta miresgarria da batez be 1643'an osotu zana; ainbat kustodi, kalitz, kopoi ta Agnus Dei, oneak eta arek adiguri ta oparitan emoneak; ainbat kurutze, argontzi, zidarrezko lanparargi, intzentsu-ontzi ta usain-emogaillu; ainbat urrezko kapa, sningai-eko, kasulla ta iruko; altaretarako aibeste zapi, urrezko mendelekaz; aibeste knori, katei, errosario, zidarrezko zinta ta galartzu; Andra Mariaren aibeste jantzi, soñeko, errezel, miñ-azoniko, erreliki, meza-liburu, ikurrin, eta abar.

Geienik barne-errengu bat zan, esker ona erakustea, ez gauzaki-emona. Ezin uka leitake eleizara egiten yakon joan-etorria irabazi ta meritu geiagoko zanik. Naiz goiko bideetatik naiz becko kaletik mailladian gorra, edozein ariko jentetzak etozan atertu barik; zarrak eta gazteak, aberatsak eta zer aundirik ez eukenak joiazen Amaren etxera, agur esaten, eskerrak biurtzen, goratzare ta ziñ-egiten. Bederatzi-urrenak ospatzen ziran, lenengo meza bariak, Jaunartzeak, Ezkontzak, lei-kizun ots mundikoak. Eraspen-viola, ziñez! Eta aziago egin zan hundiñgo, 1738'ko bagillaren 18'an, Gernika'ko Batzarrak, Zugatz santuaren azpian, berau, Begona'ko Ama Jaunerrriaren Zaindari autu ebanetik.

#### Itxastarrak

Itxaster dugu Bizkaia, ur-ertzean kokatua; guztiz arrantzale, ta itxasoaak barrean ditun ezkutu zoragarrien griñatix: ur ta urruti, itxas-bizkarra uratzea eder izan yku biskaitarroi. Munduan oso ezagun izan gara gizaldiak zear, eta ez gure aurretikoak Terrenoba'ra ta, baletan ibilli ziralako, baita bertoko mariñel, txo, aieneko, itxas-mutil, lemarri, pilotu, ontzi-maisu ta bestek ~~ba~~, munduko ur-bazterrak etenbako txangoetan zearkatu da-bezalako be. Oneik; n iz itxasoratzean naiz etxeratzean, Begona'ra jaso eroiezan euren begiak, eta mirek be, ez gitxitan, ara zuzendu ni ebezan Mariaren irudi aurrera: arriskuan sartuz, Amaren esku nai.

Ontzigintzan Bizkaia ez da atzenengoa izan. Ondarru, Lekeitio, Murueta, Plentzi ta Bilbao ingurua batez be, guztiz trebeak eta aurreratuak ikusi dugu beti. Ontzi-tegi orreitatik urteniko barku askori Begona'ko Amaren izena ipini izan yake. Asnaldiko satura noski: 1599'an Kartagena'tik Oran artzera joan ziranen artean, Begona'ko Amaren izenekoak jniazen; 1599'an Alonso Eraso'k frantses itxas-lapurren aurka ~~ezkox~~ Antillás'era eran ebanak, bardin; ~~Intzidi~~ azpira-eziña eritxonean be ontzi bi ziran Begona izenekoak; 1694'an Bilbao'ko Konsuladuak frantses itxas-lapurrei gogor egiteko gertatu eban intzidiko ~~batexke~~ bati be, Begona'ko Ama eritxon. Orrelaxe len eta orain; 1911'an, Bilbao'ko Nautika-eskolaKoak praktikak edo saioak <sup>ditugu</sup> egiteko erabilien korbet-ontziari "Ama Begona'ko" eritxon, euskerez. Batzuk besterik ez ~~ezgau~~ aitatu, baiña erakusburu lez naikoa.

#### Ikustaldia

Millonika dira, ta izango be bai, Begona'da poz-eske ta argi-billa ignak: Andra Maria maite izan daben guztiak. Gizaseme ospetsuetatik be aitatu geinkez banaka batzuk, euren arazonetarako laguntza eske, muiñ gaintxo berderaiñ ~~eñdu~~ yakuzanak.

1626'an, adibidez, gorago aitatu dogun Aita Krisostomo Carletto, kalaorrako gotzain laguntzaillea. Gaixorik aurkit, en zana, bere eritxiz, Begona'ko Amak osatu eban, eta eskerrak emotera Begona'ra etorri yakum; berton berak esandako gotzain-meza ostean, sendotza sakramentua emon eta mezari batzuk eta kanpai bat sagaratu zituan.

Loiola'ko same Iñaki Deunak be, naikoa ar-emon izan eban Begona'gaz. Juan Bernal Luko'k 1545'an artu eban Kalaorrako gotzaintza; euskalduna zan odolez. Argia zan ~~os~~, Trento'ko Eleiz-Batzarrean esku artu ebenetarikoa; artzain zintzò agertu zan beti. Añoriz ta lekaide euskaldunak, arek orrela naita, gøgoz lagundu eutsoen euskerez mintzaten ziranak Kristoren irakatsian eskolatzen baitik bat. Iñaki Deunari bere semeetatik batzuk eskatzen eutsozan lan ortarako: Luko'k gura ebanez, jesuitak artu bear eban Begona'ko santi tegiaren ardurea, bertotik Bzikai osa Jaiako-zaletasunean ixint-eko. Iñaki Deunak Aita bi, Frantzisko Borja ta Araoz bialdu eutsozan; baiña, an-or-emen ainbat ate jorrik be, ez eban Ez Luko'k ez Iñaki'k nai ebena lortu, ango patroia, kabildua ta gaiñerakoak batez be, eragozpenak jarri ebezalako. Au da, Luko'ren asmoa, naiz-ta arek jesuitai emon gura izan Begona'ko arazoa, porrot eginda geratu zan.

1900'garreneko azillaren 4'an, Begona'ko Amaren Koronatzea ~~zakaxzimxxk~~ zio zalarik, Rikardo Sanz Samper jauna eldu zan Begona'ra, Errroma'ko Aita Santuaren ordezko, Aita Santuak Begona'ko egitson bezuza edo erregelua ekarrena. Melia ihuan Leon XIII'garrenak bere eskuz idatzita bialtzen eban idazkiak, Samper'ek meza erdian irakurri ebanak: "Gey re Aitsantutza bitartean sarriru emon izan dugu Begona'ko Amari dautsojan eraspenaren aitarrak. Eta onzetan dnt gngoa euskal probintzietan gure seme-alaba maiteakeuren zerutar ~~zai~~

Zaindariari deutsuen jaiera gero ta geiago indar-azteko daukagun gurariari ederroto erantsela ikusia. Gu batez be, joandako illean, Begoña'sko Irudi mirarigillea aundkiro Korntzea dala-ta, arazo ori gogotsu ta bintz-gar beroz artu izan dabela jakiteak atseginez jorten gaitu. Zeruko Erregiña gureñari, ~~gazteleraren xabardarikoa zehatzetxoz erregiñak~~ Santutegi orretan bere esker-leku berezia daukonari deutsogun erasprena oindiño be sendoago egitarren, ba, geure doe berezia bialdu gura izan dautsogu..." Esana denez, urezko Agurtza eder bat zan eskupeko au.

Arrezkeren be, lera bardinak bultz-eraginda beti, konta ezin ala izan doguz Begoña igor eta Andra Mariaren niñetan makurtu diranak; aundiki, txiro, errege, erregeña, agintari ospetsu, gitzain, lege-qizón eta gaiñerkoak. Dan ik dakigunez, Roncalli kardenala be, nts, Juan XXIII'garrena, Aita Santu autatua izan aurretitik, Begoña'n egin zan.

#### Bizkaitarren Erregiña

Ez da arritzeko. Bintza, maitasunaren gezi-ziztadak somatzerakoan, berrez zabalazten da, poz-atsegiñaren gozntasuna geiago ta geiago edoski ta muxka dagian. Arimeari be ez ete yako bardin gertatzen, Begoña'sko Erregiña altsuaren begi aurrean belaunbikontzen? Ama maitagarriak ara doan edonor artu daroa irrinar bigunez, eta arimea, pentimentu te oldozkai joritan, gorantz doa zero-miñez; biotza be orrotat, maite bafadaka asirik, adimen ta biotz alkarreren leian kantu gozntan urtzen yatzuz igarri barik. Izarrak beste nira au jaso yakenak Begoña'sko muiñó gaiñean, Andra Mariaren irudi aurrean.

Bizkaitarrak jakin dau, gaur atzo lez, Erregiña goienari esker ona zelan erakutsi; onik sei-zazpi gizalditan beintzat zaindu ta babestu izan dau Bilbao, aren niñetan mirabe zintzo lez etzana. Bizkai osnari begira be ori bera autortu bear. Meatz-zul lo ta industri-ola, baserri ta itxas-ertz, probintzi langille porrokatu au beti izan yatzu María'rena; Mariak, ostera, amak seme-alabak lez, bere magalpe gozjan artu izan dau beti Bizkaia. Ortik, ba, Mariari buruzko edozein jazoñun ospatu nai izan danean, bizkaitar semeak or egin yatzuz gertu Amdra Maria goretsei ta txalitzeko. Gure Erregiñari korre diz-ditsue buru-gai jarri yákkonean, esate baterako, Maria maite-maite dauen erri zintzo lez agertu zan Bilbao mundu osnaren aurrean: Kristiñau zindo ta jator lez, izate-bárne ondo erantsia daraman siñismenaren zaindari bipil lez, aurki.

Rizkaia'sk aurreko mendeetan legez, gaur be, arnasa kementsua bear dau. Niñerri tinker ta gogneta garbiz indarturiko erriak, egin be, asko egin dagik; beraz, ez lanegietak zaratek, ez fabriketako keak, ez bultzi-ntsak, ez berebil ta tarranta iskanbillak, e- egazkin burrundadak, ez yakoz naikoa bárnean zut dergan giza-zori ta ituari gogor egiteko. Aurrera jo bear dabe erriak, baiña zatartu ta dñillor egin barik; egunean egunaren pizkat aurrerago, baiña Jainko-legeari lotsa izanik. Beioz, ba, Bilbao ta Bizkai-a be aurrera, baiña Begoña'sko Amaren begipe samurrean betien beti.

#### Gernika ta Zaindaritza

Esandako zeaztasunak aztertu ondoren, arilletik aria lez datorkigu Andra Mariaren Zaindaritza. Bai, Bizkaia'sk gogotsu maite eban Andra Maria, amaseigarren mendetik aparteko garrez maite izan be. Bizkaitarrak asuertu bage joiazan Begoña'sra, Irudi zerutarraren aurrean biotz-pilpilka makurturik. Eraspen orren adierazgarri lez, or eukan Andra Mariak bere niñetan, Jaunerriak bere Amari, 1672'an, jarri eutsen lamiña, Bizkaiko ikurdi ta armarriaz. T. Granga'sk diñoskunez, maitasunezko agergarri ori errianetik Begoñako zaletasuna be geiagotu egin zan (Historia\_y\_Milagros\_de\_la\_prodigiosa\_Imagen\_de\_Nuestra\_Señora\_de\_Begoña, Bilbao, 1698, 12 nñ.).

Erriak eta agintariak Begoña'sko Amari eutsuen begiramen, erauskunde ta jaiera onik biziago bilakatu ziren Gernika'sko Batzarrak, 1738'ko bagillaren 18'an, Begoña'sko Andra Maria bere Zaindaritzat artu ebanetik. Onela iñorak ortarako idatziak: "Jaun-erri prestu onik beti ta noznaí Begoña'sko Amari agertu ta adierazo izan dautson erasoen bizi ta begirune sakonari erantzunet, bere Zaindaritzat (Patrñitzat) artzen dau; eta Diputaciñ\_y\_Juntas\_Generales, 33'garren alea, 1736-8, 120 nñ.). Alkar aurkitze okerrik ez izatearren, alen be, batzarreko lez izango ebezan eleizkizun orraitan ez eben esku artu nai izan batzarkideak; lenago be, ba, Begoña'sko patroiaaren eta Bilbao'sko agintarien artean eztetxbaida ta istilluak izanak ziran. Ir egnan, orreitiñ, bizkaitarren ongo leiala Gernika'sko Batzarrak garbi asko ulertzen emondat.

Ainbat agiri daukaz Gernikaiko Batzarrak Bizkaia'k Andra Mariari izan dau-tson, eta ba-deutsan, egiazko maitasuna egiztatzen abenak. Gure gerutar Erregiaren Garbitasuna ta Amatasuna ezin obetoago azaltzen dira agiri orreitan. 1736'an osoturiko dokumentuk argi dakar Bizkaia'k Mariaren Sortzea Garbiari buruz eukan eritxia. Pio IX'garrenak, uste ta eritxi orri fedeko egin aurretik erritarai eskatu eutsen aburu agertzean, Bizkaia etzan zabar ibilli: aspalditik eginda eukon zin-itza gngoratuz, beingoan adierazo ebantzea ustekunde leiala. Aita Yantu berberak, 1854ko abenduaren 8'an, sinis-bearreko egiten artean jarri euskunetik, Bizkaia biztuago egin bere Zaindariaganako maitasunean; ainbat bider ospatu ebaian eleikizun bikaiñak Begoña'n eta Gernikaiko Andra Mari eleizan. Baita Aita Santuari, Pio IX'garrenari, bere ondo-naia ta bintzetiko esker ona erakusteagaitik, Sofkunde Garbiaren bula-idatzia, Eneffabilis Deus eretxona, Europa'ko izkuntza bizi guztiak ebantzez, Bizkaia'k be, Nafarroa'k, Gipuzkoa'k eta Araba'k lez, Aita Antonio Uriarte frantziskotik tarrak eginiko itzulpene, garbi, dntore ta txukun idatzita, Batikano'n gordeko zan, "Poliglota" bildumarako, bialdu eban; bilduma onek gaur, munduko ia izkera guztietara biurtua, 20 ale lodi osztzen ditu.

Zertzelada oniek eta gaiñeraknak dirala-ta, joan mende osoan be, Zaindaritzat, autortua ta eukia izan zan Begoña'ko Ama, Bizkaiko Erregiña; ez gero erri soillak bekarrak, gntzain eta agintariak be bardin; beraz, Eleizeak itz-egitea bakarrik palta zan.

#### Lenengo urratsak

Gizonak nai dauana agertzen jakin bear. Bizkaia'k maite eban Ama; orrela inoan bertako istoriak; eta istori-osto orreik inoena batu ta beari, an lekura jo, ori zan gizonek, bizkaitarrak egin bear ebena: 1900'an Begoña'ko Irudi garbala burestundua izan zanetik, Bizkaia'k bizi-bizi erabilen gurari ori bere barrenean. Andra Mariaren Zaindaritzapean bizi gura eban Bizkaia'k.

Eta erriaren naia jaso ta mamin biurteko, Andra Mariak berak erne ta sustatu ni ditu seme-alaba zintzo, adoretsu ta langilleak. Olakoentzakoak izan yakuzan, e-gia esateko, egun areitako Koratzea zala karia ainbat eleikizun eder ospatu ta Eleizea berria, Kristoren Emazte bikian, orren esku-zabal ta aurrelari agertu yakunari jarraituz, Begoña'ko Amarentzat Bizkaiko Zaindari titulua eskatzeko lanean astek egozanak, ots, Karlos M. Orue, Begoña'ko alkatea, Juan Krutz Unzeta, Santutegiko txaunburua, ta Tomás Maurika, Kofradiko maior domua. Irurrik, alker arturik, idazki bat zuzendu eutsen Bizkaiko Diputaziñoari 1901ko urriaren 2'an, berak, "Prohibitzi onetako ordezketza legezko" zanez, Errroma'ra eska egiala Begoña'ko Ama Birjilarentzat Jaynerriko Zaindari titulua, erregutuaz.

Andik egun gitxi barruan egiña zan eskabidea, Enrike Aresti'k, irduan Diputaziñoko buru zanak izennetuta. Bardintsu egin eban Begoña'ko erri-agintariak eta Bizkaiko apaiz-buruak be. Beaztora batzuk izan ziran, Urbano VIII'garrenearen aginsu-lege bat zala-ta batez be. Baiña ontzat artu eban Errroma'n Aldundiak eta apaiz-buruak egiñiko eskabidea, eta agiriak legez egozala-ta, Eleiz-situretako Bazkun Gurenak, 1903ko jerraillaren 21ko batzarrean, Begoña'ko Ama Bizkaiko Zaindari iragarri eban. Urrengo egunean Aita Santuak be ontzat emon eban Bazkunaren eragia, Liturgi-otritzitarako lelo ta irakurgai bereziak emnik. Ohi guzti origaitik, eskerrak biurtu eutsozan Bizkaiko Aldundiak Leon XIII'garen Aita Santuari.

#### Izterbegiak ernai

Ez dira lau-bost besteak zer ~~zakia~~ ete dahien zelatan egon oi diranak. Gaitza ta ona beti auzirako zain. Atzinezko burruka zelaian, ostera, argia baiño zoliago, yaku illuna. Eta olako zerbait gertatu zan Bilbao aldean be Begoña'ko Amaren Zaindaritzta jaietan be. Iragarri zanez, aldundiak izango ziran oniek: Iraillaren 6'an, Begoña'tik Diputaziñora jatsia izango zan Andra Mariaren Irudia; urrengo egunean Meza nagusia bertako atadi zabal-jagiaren, ondoren Irudia barriro be Begoña'ko egitz ederrera biurturik. Orixo zan jai-eratzailleen asmoa; baiña zur egoan etsaia...

Aldundiak laguntasuna eskatu eutsan Bilbao'ko Udaletxeari be jaiok allik eta ospetuen aurrera eroan al izateko; onek, elan be, ez eban ezertan partetik artu nai izan. Argi berba egin eban Perezagua ziñegotziak: "Olako jaien aurka ei egoan erria, askatasunaren kontra egozanen aiupada barria zala-ta. Ospatu gura dabezan apaiz-jai orreik beti lez zirkatzaile dira, ta daitzena da, errri zindoa olako egizakaitik aurka ateratzea, kontrako agertze bat sort-rezirk". Udalak esku ez artzekoa läster zabaldu eben berriko emunetako ezkerdiarrak.

Diputaziñmak irduan, udaletxearen aldetik ez eukala laguntasunik i-

Kusinaz, aldatu egin eban bere gosmoa dagonmillaren 27<sup>na</sup> garreneko batzarraldian. Jaiak onela osoatuko ziran: Eleiz-jaia**k** Begoña<sup>en</sup> egindo ziran bakar-bakarrik; beste jairik etzan izango gastu aundikorik batez be; euskal jaiak Durango<sup>n</sup> osoatuko ziran, pelota jokuak Markina<sup>n</sup>, s zko txirringa ta gau-argi zirrimirriak Balmatseda<sup>n</sup>, eresbatz eta orfenien norgeiagokak Gernika<sup>n</sup>; Diputaziñoa bera be ara joango da Zaindaritza aldarrikatzearen agiria antxe jartera.

Jaiak osoatzeko gertaketa lez, irurren bat egin zan a lenen, iraillaren 6<sup>etik</sup> B<sup>ra</sup>. Azkenengo egun onetan <sup>ne</sup>peza negusi eitzungurria, Diputaziñoa ta Begoña<sup>Ko</sup> Udaletxeknak aurrean zirala. Arratsaldeko ospakizunean, Fernando Karrantza<sup>k</sup>, Aldundiko buru zanak, Zaindaritza eguna gogoratzen eban idazkun-arria eskiñi ~~e~~ eutsan eleizeari Aldundiaren izanean. Biaramonean, gaihera, jai-egitamuaren egnanez, Diputaziñoa Gernika<sup>ra</sup> aldatu ta an Zugatz sagaratuaren azpian, Begoña<sup>Ko</sup> Amaren Zaindaritza autortu ta ontzat eban, egingo onen agiria Jaunerriko artxibu orokorrean ezarririk.

Ondoren asi ziran Begoña<sup>Ko</sup> santutegira, Andra Mariaren omenez, ia illabete iraun ebin joan-estorri, bidezkunde ta errromeriak. Gora ta bera atertu barik, aspergaitz ebiltzan. Bizkaiko eleiztarrak; ez bid ak dakarren neke-lorrok, ez euri ta denoora gordiñak, ez arserioaren esanak ez ebezan atzeratzetan euren Zaindari zan Amaganako lera ta ondo-naien. Itxastarrak iraillaren 13<sup>an</sup> burutu eben, gizaldietan lez, barriren barri Begoña<sup>Ko</sup> zelai-an; elorriotarrak Begoniaratu ziran 20<sup>an</sup> aldra aunditan, eurak egiñik lenengoz euren joan-estorria Arotamonasterio<sup>n</sup> asi-barri zan tenean; 27<sup>an</sup>, Bermeotik, Lekeitiotik eta Gernika aldetik; urrillaren 3<sup>an</sup>, Mungiatik, Arrankudiaga<sup>tik</sup>, Zaratañotik eta Arrigorriaga<sup>tik</sup>; Orduña ta Portugalete<sup>koak</sup> bardin. Bidezkundeetatik jantzieta auxe izan zan, guztiz 12.000 bat pertsona Begoña<sup>n</sup> alkarturik; Bilbao<sup>Ko</sup> kaleetatik gora Agurtza esanez igon ziran. Urrillaren 8<sup>an</sup>, Plentzi, Ondarreta ta Asua ibarrekoad egin eben euren jaialdia; 9<sup>an</sup>, barri, Arrati<sup>koak</sup>; 10<sup>an</sup>, Uga, Zeberio ta Orozko<sup>koak</sup>; eta, azkenean, 11<sup>an</sup>, goizean, Larrabetzu, Galdakano ta Basauri<sup>koak</sup>. Ainbat egunez, jentetza ezin beteagoa Begoña<sup>rako</sup> bideetan!

#### Azkenengo ibildeuna

Urrillaren 11<sup>an</sup>, arrastian, bilbotarrak goizean errietatik estorriakaz batera, eleiz-txango éder bat egingo eben Bilbao<sup>tik</sup> Begoña<sup>ra</sup>. Ba-zan ortarako surik, gogo bizi-rik katolikuen artean! Baiña etsiak be, egia esan, ez egozan lo: zezen-olazan mitin bat euki ondoren, su ta ke aurkitzen ziran eurak be. Laguntasuna eskatu yaken agintariai erro-mesak arrisku bage ibiliem eitezan, baiña ez eben jaramonik egin. San Nikolas eleizan eta Arenalean ibildeuna asi zanean, tirn batzuk entzun ziran; Markos Marañon, Deustu<sup>Ko</sup> Ikastetxe naudiko baratzaiña jausi zan ilda; katolikuak be jakin eben erantzuten, eta "gora" ta "bera" batzuen ostean deabruak sizatuzko zalaparta itorik, ibildeunak bere bidea artu te askao kalean zein eta Maillafietatik gora, 20.000 bat mila pertsona batu ziran Begoña<sup>n</sup>.

Nekez eskuratzeten dana, ederrago izaten. Arratsalde aretan nekez -~~mañ~~ odo-lez- irabazi zela esan daikagu Begoña muiñoa, etsaiak baltzez estaldu nai izan ebana. Bizkaitsr itzilariak ziran muiñ dirdiratsuaren jabe; eleizea, enparantza, zelaia ta iniguruak jente iurduriz gaiñezka aurkitzen zan; eleiz barruan erderaz Aita Zugasti jesulaguna zan izleri, ta kanpoko zelaian Aita Laskibar, euskeraz. Biotzak erdibitzen zituan une ika-regarria! Belarriak zoli, begiak malkoz! Mundu guztia Begoña<sup>Ko</sup> Amari, Bizkaiko Zaindarierri eskari beroz! Gaizkilleentzat be parkamena ta maitasuna! Naiko zorritxar dau ~~itz~~ itzak itsuak: ikus dagiala plakoen be!(1)

Jai zurragarriak amaitutakoen, euren etxeetara ziran erromesak. Bilbao<sup>ra</sup> jatsi ziranai be, iñok ez eutsen alamenik egin; itsuak, alan be, Begoña<sup>tik</sup> beeria jatsi ziranak ikusi eikeenez, euren okerrak egiñak zituen: jenteari ezin erasota, kaleetako irudi, zintzilikako ta ap- in- zapietan ixuri eben euren aserre-kutsua. Alan naiz oñan gizonak utsitu egin bear barruan darran lria.

Zuk ez gaitzetsi, Ama, gizonen txarkeriak; zer dagien ez dakie-ta. Itsuak dozuz zeinbatetan, baiña biotz-berak, zeure antzera. Biotzen gaztelu zara, ta gu, txarrean mai naiz onean, gaztelu orren orma barnean gorde ni gara. Doe zara zu Maitasunarena; itxaropen, si-istu dagianarentzat. Argia zara zu, dizdizka dagonea, mrima barryun azten d-un goigroziarena. Bizia zara zu, ta azkor ~~egiaz~~ gagizuz maitasun sutsuan! Ener zara, gudarozte baten pareko, zeure seme-alabak babesten dozuzanean. Zeureak dozuz Bizkaiko seme-alabak: gords ta zindu, Ama, gure Ama! Zeurea beite beti Bizkaia osorik!

(1) Gaixorik egoan Arana-Goiri Sukarrieta<sup>n</sup>; alan be, jazo zana jakinik, telegrama bat bi ldu eban Centro Vasco<sup>ra</sup>: "Irain, zigor, arri ta tiro artean, Kristo Jainkoa autortutz ta Herri Amari murtza em nez, et-irik eta errepentsu, Begoña<sup>raiñ</sup> iañ dozuen aber-

AMA BEGOÑAKUARI

Bertso polit batzuek/nai neukez atera,  
 Baiña duintasunik ez/ askoren antzera;  
 mesede billa nua / Zeruko atera,  
 kristau guztien Ama/Maria'z batera.

Sortu giñian bizkor / ezer-ezetatik,  
 baiña geixotu giñan / uts-egin batetik;  
 sugeari jaramon / Eba'k egiñaitik,  
 gu aldendu genduzan / Zeruko bidetik.

Sugeak eukan guzur / edo eredua,  
 galdu nairik Eba ta / bere jatorria,  
 baita bere urrenago / jarraipen guztia;  
 au da liburuetañ / daukagun egia.

Jaunak zirautsan suge / inpernutarrari:  
 "Zer ein deutsazu Eba / lenengo Amari?  
 Guzurraz erain arren / pekatu oneri,  
 beste batek burua/ ausikotzu zeuri".

Jaunak beste Ama bat / ein eban argitu,  
 zeñen bitartez giñan / guztioek garbitu:  
 Eba'k galdu genduzan,/Maria'k aurkitu,  
 sugeari egiñaz / burua zatitu.

Mille urte ta geiau / igeroak dira,  
 Maria agertu zala / Bizkai'ko errira,  
 Begoña'ko Artagan / edo artadira,  
 iñok egingo aintzat / ez eukan tokira.

Jaunak bialdu eban/ bere graziakin,  
 Beijoña'ko errira maitetasunakin,  
 Bizkaia'n izateko / gozotasunakin,  
 Asuntzioko izar / eta jantziakin.

Nundik eta ez zelan / iñok etzekian,  
 zeruko Ama an zelan / aurkitu zeikian;  
 baiña gogoratu zan / guztien artian,  
 etorrako zala gu / galdu ezkeitian.

Agertu zan ta geiau / Begoña'n dau beti;  
 iñor galdu ez dedin / Bizkai'ko lurreti,  
 mesediak ugari / Jaunaren aurretxik  
 ekartzen daukuzala / gu ez galtziaiti.

Maria'k egin ditu / ainbeste mirari  
 biotzetikan Bera / maite dabenari:  
 itxasnetan larri / ibil Hirenari,  
 orlako mesediak / ein deutsez ugari.

Ez dau mirari gitxi / ein itxasnetan  
 Ama Begoña'koak/ ontzi galduetan:  
 berai deitut deutsanik / estutasunetan,  
 ez dau bakarrik itxi / azken orduetan.

Untzitikan jausirik / bein Andres Maidana,  
 ordu bian uraren / barruan on zana,  
 untzia amar leguan / surrera juana,  
 zan Maria'n bitartez / alkantzau ebana.

Gregorio Zoparta/barrizx, bost orduan,  
 sarturik pelota artzen/ karobi beruan,  
 gizoneri zirautsen / billa asitorduan%  
 "Kontuz ibilli, zerren / bizirik naguan".

Naiz dala itxasoz ta / naiz dala leorrez,  
 izaten gara beti / amaren biarrez:  
 gū ikusi ezkero / berari didarrez,  
 guri laguntzen dator / zeruko indarrez.

Ama Begoña'koek / dau aibat meritu:  
 zenbat mirati berak / egin ete ditu!  
 Mutuai itz eragin,/ itsuak argitu...  
 Zenbatu ezin beste/ Berak egin ditu!

Adoredun ipiñi / adore bakuak;  
 zenbateri zuzendu / berna okertuak!  
 Eta zenbat osatu / geixo txarrekuak!  
 peste edo kolera / eta orlakuak.

Uraz ia itoan / ta suaz erretzen,  
 ziranek zenbat Amek / zituan libratzen!  
 Bein bere ez dau Maria'k / iñor itxi galtzen,  
 biotz onagaz ba'da / Beragana eltzen.

Zenbat esker, mesede / maitetasunagaz  
 eiñ ete dauz, gomutau/gaitian Beragazi  
 Zordun aurkitzen giñan / Ama ain onagaz,  
 ipinteko Begoña'n / koroi ederragaz.

Eun da amazapí txingar / brillantedunetan,  
 eta ojeta zortzi / txingar artañetan,  
 ta larogeta amasei/ txikizkotietan,  
 ta zenbat-nai txikigaz/adornaturiken.

Maria'ri ipiñi / eutsen burestuna,  
 zidarrezkua bere,/ gañe oriduna,  
 beraren izeneko/Agirre'k emona.  
 Ai, ze osnatsua ţan / orduko eguna!

Larogeta amazortzi/ milla laurleko  
 eta bosteun generoa/ balioa dauko:  
 Agirre'k emon eben,/ jakiñik norako,  
 bizkaitarren Zeindari / danen bururako.

Eleizia bete zen, / baita inguruak;  
 dana estaltzen eben/ kristiñau buruak,  
 auznezturik Amari / eiten erreguak;  
 Beragan ipiñita / uste seguruak.

Aberats ta ezeuki,/ andi ta txikiak,  
 ugazaba ta ntsein,/ zar eta gaztiak,  
 eleiz-buru hausi ta / erromes maitiak,  
 bere aurrian ziran/ auzpeztu guztiak.

Aita Santu zan Leon / Amairugarrena,  
 onetako baimena / bialdu ebana:  
 koroiaz ipinteko/ Begoña'ko Ama,  
 Berak zaindu egian / Euzkal-erri dana.

Begoña'n sarri izan / dira erromesak  
 betetan Maria'ri/ eindeko promesak...  
 Amurraturik ona,/ ikusi nai-ezak,  
 suge deungak bialdu / dituz Satanas'ak.

Igezko urriaren / amaiagarrena,  
 Bilbo'ra suge deungak/ agertu zirana,  
 zapaltzeko ustian/ Begoña'ko ama,  
 oker jazo ez ba'litz / euren uste dana.

Alperrik egin eben / eurak alegiña,  
 erromesari kentzen / Jesus'en dotriña;  
 Maria ni ikusi,/ bai eta Begoña:  
 dana jad tsi eben,/ kostal yaken baña.

Jesus'ek autu eban / Maria Amatzat,  
 baita dau eskiñirik / munduko danentzat;  
 guztien goitik, barriz,/ gaur bizkaitarentzat,  
 ipiñi dabelako / euren Zaindaritzat.

Biotzian sartu yat / poztasun endia,  
 Bizkaia'n ipintiaz / Zaindari barria,  
 doik eta birtute / danen jatorria,  
 zein dan Jesus'en Ama,/ Birjiña Maria.

Gua, en Begoña'ra / euzkeldun antzian,  
 Bizkai'ko Patronaren / sariak artzian;  
 bere maitetasunaz / ba'gara eltzian,  
 gure Amak ezkaitu / itxiko utsian.

Bizi bedi Maria,/ baita euzkeldunak!  
 Bizi bedi Bizkaia / ta beren lagunak!  
 Onez igarorikan / muniluko egunak,  
 danok izan gaitian / zeruan zorunak.

(1906)  
 Enbeita'tar Kepa

OI BIRJINA, ONTASUNEZ BETEA

Oi Birjina,/ ontasunez betea,  
 behadazu/ zeru gozenetik.  
 Ba-dakizu / nere behar aodia  
 zeren ez naiz / rlakezia baizik.

Ama maitea,  
 behadazul  
 Otoi,Maria,  
 saiba zazu!

Ifernua /eta mundu galdua  
 ene kontra/ altxaturik ere  
 zu bazaitut / alde,Ama maitea,  
 ez dut heien / beldurrik batera.

Bainan ein dut / fede guti,Maria,  
 lotsaz nago,/ bai lotsaz ikaran,  
 zure-ganik /duket indar andia  
 bizi nadin/ jaunaren grazian.

Bai,Maria,/ drsterru triste huntas  
 niagozu /beti asperenez,  
 zeren naizen /galtzeko lanjerretan  
 edireiten /memento guziez.

Noiz zaitut noiz,/idortorik nigarrak,  
 ikusiren /ene Ama ona!  
 Igaramik /ene lanjer guziak,  
 noiz ote naiz/ bilduren zugana!

Oi Maria,/ zuk omtsa badakizu  
 lehia nek / zenbat kartsu diren.  
 Otoi,Ama,/ zukanat deit nezazun  
 oainan,otoi,,/ lehen baino lehen.

AGUR,IZAR EDEK

Agur,Izar eder,/ Birjina maitea,  
 Agur Ama gozo,/ zeruko atea!

Zuri Aingeruek /berri on emanik  
 etorri zitzaiun /bakea zerutik.

Otoi! auto estekak// el gaisten argira,  
 onera gaitza zu,/gaizkitik begira.

Izan gure Ama,/gure deiek entzun  
 zure Semeraino /el-araz ditzatzun.

Agur,Ama ona / emodiozkoal  
 zeruko Erragin / eta lurrekoal

Agur graziazko / gure esperant-al  
 Azken ornean /guzien laguntza.

IZAR EDER EDER

Izar eder eder  
 zoragarria!  
 zeruetan,zeruetan  
 zira,Maria!  
 Izar eder zoragarria  
 zira, Maria!  
 zira,Maria!

Zoin da izarra,  
 zoin ain ederra  
 nola den Ama  
 nola den zure sortzea.  
 Guziz ederra  
 zira, Maria,  
 sortzetik zira  
 garbi garbia.

Ez da izarrik  
 ez iguzkirk  
 zu bezein argi,  
 zu bezein zeruz beterik.  
 Gu lur huntarik  
 gaude zuri so  
 lilluraturik:  
 ain zira gozo!

Zoratzen gira  
 zuri begira  
 ikusiz hantxet  
 ikusiz zure dirdira.  
 mundu guzgira  
 ixur gozoa:  
 Ama,zu zira  
 bozkarioa.

Zeruan scinum  
 lurrean kantu,  
 haste hastetik  
 munduak goresten zaitu,  
 zu-ganik sortu  
 Jesus Jainkoak  
 piztu baititu  
 gizon gaixoak.

Orok zaituzte  
 biotzez maite:  
 begirazkitzu  
 begira ta garbiz bete.  
 Oi egon zaite  
 beti aldean  
 gu sartu arte  
 zorionean.

X.Iratzedder

MARIAREN BIHOTZA...

Mariaren bihotza/ denek lauda zugun!  
 Bihotz ein aberatsa/ beti maita zugun!

Bekatore tristea,/ oiz nago zuri;  
 mitaz,bihotz maitea,/ izan urikari.

Zuk duzu bekatua /bihotzetik kentzen,  
 arima penatua / duzu kontsolatzen.

Zuk duzu ifernua / garaitzen osoki,  
 se-uretzen zerua / giristinoari.

Mariñelen tepestan / izer gidaria,  
 arimaren gudutan / zare sokorria.

Zután bere egoitza / Jaunak du moldatu,  
 bai eta zure-beitan / templo bat autatu.

Bihotz guziz puxanta,/ nola zu noreki.

### LOIRIK BAGA SORTU ZAN MARIA

Txori batek bein / kontu au kantuz / kontau eustan,  
 zer lorategi / baten antxiña/ gertatu zan,  
 ta txori arek / zelan onaren / antza eukan,  
 sinistu neutsan / esan eustana / bertsoetan.

"Nazareteko / lorategia / moteldurik  
 aurkitzen zan da,/ lorak zimeltzen / abiaurik,  
 edertasuna / eukielako / maluskaurik,  
 etzen aurkitzen / euren artean / poztasunik.

Au zan andia,/ baña lora bat / Zerutarra  
 neguan sortu/an egiten da / uste baga;  
 bera usaiñez, / bera kolorez / zan bakarra,  
 iru mueta / usain beragen / eukazana.

Oi legez lorak / goxean ziran / iratzarri,  
 baita buruak / eguzkiagaz / goruntz jagi,  
 eta begiak ebezanean / zabal jarri,  
 laster zuzendu / eutsezan sortu / barriari.

Bera zan bade / moduren baten / larrosea,  
 lirio zuri / ta bioleta / umildea;  
 bera zan lora / iñoz ikusi / ein bagea,  
 bat izen eta / ainbeste loren / itxurea".

Nik esan neutsan / orduan:"Txotí/ kantaria,  
 esan eidazu / baña benetan / gaur egia;  
 zelan deitzen zan / alako lora zurgarria?"  
 Diñost:"Loi baga / sortu ta jaio / zan Maria".

J. Arreaga Heita

### BIZKAIKO JAGOLEARI BERE EGUNLEAN

O zeruko soñuzale / Serafin egalariak,  
 dontsutegi zabaletan / urre gorrizko arpaz  
 zeuen Erregiñeari / orain euskerez kantetan  
 zabiltzanak pozen pozaz / atsegíñak emonaz.

Kantaritzako dozuen / aduaren izpitxo bat  
 betor eta sartu bikit / barrura garaunetan;  
 betorkit tximistatxo bat,/ erraietara eldurik,  
 biotz au ipiñi daistan / sotu eta garretan.

Garrez garbi gardendurik / gaur ene espiritu  
 uts urdiñetan dakidan / eregi nora gura,  
 idarginik Eguzkira / ta izarrez arutzago,  
 Bizkaiko Jagoleak an / daukan bizilekura.

Izar-erritik arago / fedeagaz ikusten dot;  
 sollik izar arro danak / baño da argiago;  
 dontsutegiñan bera da/Jesukristogaz ostean,  
 ikusteko danak baño / ikusgarri geiago.

Zer da gure Eguzkia?/ Zer da barriz Idargia?  
 Gaurik urdin onenean,/ zertzuk dira izarrek?

Kardintxak erramen puntan/ txistueta zoliakaz  
 Jaunaren gloriak pozet / kantauagaz batera,  
 kantau daian kantau nai dot / txorrotxiozko kantakaz,  
 kantageien kantagei dan / Ama Begoñatarra.

Mitxeleta jira zale / urregorri antzezoak  
 terziopelo ta granaz egotxoak jantzirik,  
 agurtu ta bedeinkatu begi/ Jagola ain dontsua,  
 Jagola onek daulkblako / Sortitza zoraturik.

Jagola oni emon beio / zuritasuna azuzenak,  
 jireuzkiak opa eta / eskiñi modestia;  
 tulipan zarden zuzenak / eguzkiaren islea,  
 binleta umiltxoak / gozotasun eztia.

Lirioak Jagola oni / emon begio lurruna,  
 errurik eza begio / aleliak saritu:  
 nardoak,krabeliak,/ platanu ta larroseak,  
 altarea apaindurik,/ Jagola euxe goratu,

Iparrak Jagola oni / bekartsaz loren usañak,  
 palma ta iiak eskiñi / zizpuru arintxoak;  
 aizeak putz ots biguna,/ mendiak edur batunak,  
 emon beioez korala,nakar / ta perlak itxasoak.

Izar-erriak begio/bere petik jira egin,  
 edertu beioz galanto / matrallak goiz gorriek;  
 oideiak ein jarlekua,/ Idargiak oñiak jantzi,  
 Jaunak koroia atondu,/ pabelloia Eguzkiak.

Kantau bei danak Jagolau,/ bedeinka beie Jaunaren  
 eskuetatik atera / ziren egun guztiak,  
 zeruetan aingeruak,/ lurrean zuzen justuak,  
 bero,ihontz,ur,txingoxox eguzki,/ izar ta idargiak.

Bedeinka beie irestu,/ oñeztarri ta lañoak,  
 lanbro,justuri,indriska,/ truju eta ekatzak,  
 lei,karraldo,euri,Txingor,/ bisuts otz ta zaparradak,  
 argi,illun,arrats,egun,/ osgarbi ta ein bagak.

Bedeinka gure Jagola / Bizkaiko mendi ta atxak,  
 baso,solo ta landarak / erneagaz batera,  
 itxaso, ibai, erreka,/ iturri,patin,aintzirak,  
 iber,landa,aldats,larrak,/ gure Jagola ederra.

Abere otzanak eta/gonga sor bizi uzuak,  
 egazti,arrañak jaso / Begoña'ko Ama Maria;  
 goi-goietan Serafiñen/sõñu X kantak entzun bitez,  
 zeruetan izan bedi / Santuen gain jarria.

Bedeinkatu bei seaskan / ume zurtzak kurrikak,  
 itxas-gizonak begetan,/ alargunitzan zotinak,  
 aterik ate dabillan / eskekoak ogi billa,  
 nekazariak solnan,/ mendietan artzañak.

Gexo danak deitu beio / mindunen osatzallea,  
 katiñu aurkitzen danak,/ itxien erospena,  
 atsekabez dagoanak,/ bere izar pozgarria,

Zure māntu zabalean / ed rgarritzat jartean,  
azkenenguok esan lei / direala txitarrak.

Zuretzat pabelloe bat / geienez Eguzkia,  
oñen atseden lekua / bakarrik Idargia,  
aingeru egalariak;/ andiak eta txikiak,  
danak dozuz ,erbitzari,/ esaneko, guztiak.

Zugan Egilleak berak / berariz jarri zituzan  
edergaien iturriko / edergarritasunak,  
eguzkizko gorritasun;/ edurrezko zuriera,  
zeruaren urdin antza,/ loren loratasunak.

Bera zoratzeko duin dan / daukazun galantatasunak  
ainbestean intsigitu/ eban Jaunak zugana.  
Zeu galantuteagaitik / osoro agortu eban  
bere jakituriaren / itxaso sekon dana.

Zugan berak jarri eban / sukan al izate dana,  
apaindura guztiakaz / egin arte apaindu;  
askok esan leien legez,/ zu bagarik Jaungoikoa  
ezin al izango zala / aurrerantzean dontsu.

Zuregan beti-betitik / Jaunak begiak ipiñi  
ebazan ta egin eban / bertatik irri-barre;  
egintza danak eukiko / ebaian edertasunak  
ekutsazen zugan danak / ta askoz geiago bere.

Zu zara ein ornidua / besterik ez lakoxea,  
al izatez aren altsu / guk ezin neurria;  
esan gengi ezpaganki,/ beste bat badagoala,  
Bizkaiko Jagolea da / Zeruko Jaungoikoa.

Ze zoriona daukazun / Sorterri maite maitea!  
Gure Jaun Jaungoikoaren / Ama gaur Jagolatzat;  
Jaungoikoa euskal berba / dan legetxe,izan zakte  
euskaldun beti,beti,/ Ama andi orrentzat.

Euskalduna da Artagan,/ euskaldun garbi Begoña  
ta gure Jagolsaren / menpeko dan Bizkaia;  
euskaldun da Artagañi / azpitik zein doakon,  
itxasnen sartu arte,/ Ibaizabal andia.

Beraz nik euskeraz kantau / beariko deutsat gaur egin,  
alan eskatuteneabe / zerzeridade danak;  
baña,zelen enezan duin,/ bear legez kantetako  
cantau bere gauza diran/ egitade den-danak.

Ez dodalako kantau nai / mundutarren gloriariik,  
kantau bai,baña,ez kantau / beko anditasuna:  
kantau baña, ez lurreko/ azaña ta kondairariik,  
zerrn onelako kantak / uts daben goitasuna.

E, dot gure nire kantok/ jardun daitezzen lorakez,  
lorak kantau daien nai dot / kantau gura dodana;  
danak kantau daien nai dot / kantarik erregiena,  
ondraurik gure Jagola / kantagarrien dana.

ots egin pekatariak, / non dauken parkamena.

Begiraunez dalako / usatxaren antzera,  
aingeruak baño duka / obea arpegia,  
eguna jaiotzen baño / askoz da ederrago,  
baña duin pozgarri ez da / goxetan Eguzkia.

Txito eder dan Dontzellau / jaso daigun gogo gora,  
~~benetan guztizko dontsu / Bizkaiak egun onetan~~  
~~benetan guztizko dontsu / Berboaren Ama da:~~  
mututu mundu guztia,/ Bizkaiak egun onetan  
eregi daien beraren / Jagola ain laztana.

### BEGONA KO AMARI

Zuek eta gu / bizkaitar danik,  
emen gara gaur pozetan.  
Bure Amaren / jairik onena  
ospatu nairik aintzatan.  
Gibra biotzak,/ gora besoak  
Zaindariaren ooretan;  
guzti-guztiok / gaur biotz batez  
Ama dagigun kantutan.

Eguzkiak gaur / dizdiz dagisku  
izpi bizi ta ederrik;  
gure barrenok / begoz olantxe  
pozaren egoz egazik.  
Egunak oro / ez dira bardin;  
ba-da bizitzan illunik!  
Baiña gaurkoa / bedi alaia,  
poz-argi-litsez bildurik.

Gernika-alde,/ Muxika, Iburri,  
Abadiño ta / Durango,  
Arratia ta / Bedia bere,  
dira gaur denak emengo;  
Galdako eta Larrabetzua,  
Lezama eta Derio,  
geure Amari / kantuz ditugu.  
biotzak eztiz jario.

Txalogarriak/zarie zuok,  
emen alkartu guztiak;  
asmo ta neke / bardiñak jota  
zakuse Ama eztia.  
Nik neuk oraintxe,/ bertso gartsutan,  
-maitasunaren Ezpiak-  
Amarengana / jasoten ditut  
esker onetan begiak.

Euskalerria / miñetan dago,  
Iñendi-kaleak odolez...  
Zure erria, / euskal erria,  
negr-malkoz ta oiñazez.  
Biurtu,Ama// zeure begiak  
gugana irripar leenez,  
ta emociuzu grazizko ura

Bizkaia,bere,/ langille utsa,  
fabrika eta oletan,  
lan-eztabaidaz / gogor daukazu  
porrot egim arriskutan.  
Gazte ta zarrok,/ alkar arturik,  
gabiltzan senez lanetan;  
orrela gure / erria daigun  
gorantza jaso benetan.

Politikazko / arazotan be  
naste ba-de ugari,  
geure burua / nunnai ta noznai  
goi guk ikus-nai pantzari.  
Ainbat zatitan gabiltza estu,  
ziriak sartzen bikerri,  
baiña indarra / batasunetik  
etorri oi da pozgarri.

Madrid-en dabiltz / eztabaidaka  
gure gizonak azkarki  
geure erria / atondu nairik  
antxina legez, geureki.  
Jainko eta Lege Zarra zan  
gure asabén ikurdi:  
orixe gaur be,/ opa doguna,  
Ai eskuratu baledi!

Doai askoren / artean dogu  
doai bat eder: Euskera!  
Geure mintzoa, / geure arnasa...  
Au galduz ezer ez gera!  
Guztiok badia / euskaldun legez,  
saiets itxirik erdera  
mintza gaitezan / etxe ta kale,  
euskeraz, gizoh antzera.

Amargarrena / bertso au dogu,  
emen zagozen meitsoki  
Zuen biotzak / alaitu pairik  
nik urkuldu dodezanak.  
Egu eder bat / izan eizue  
etxeko eta bestek  
alai biotza / miña litzontzi,  
osasunetan guztiok.

Gora Maria,/ eta bereak  
jai zoriontu onetan!  
Gora biotzak / pozez gaiñezka,  
zelai ontan/gaur behetan!  
Gora Bizkai / ta euskaldunek,  
dinogu danok kantetan.  
Gure Amatxok gaizai batu  
gu-ti-guztiok goietan!

A.Dnaindia

Lau aizta ditut nigan eder,  
Eurak barik enintzan ezer.  
Zelan ~~ba?~~ Neurez utsean, zer?  
Gizon makala,  
—ondozale, kaskarin ta alper—  
Biotz argala!

•••••.  
Lau aitzok, bizitza bidean,  
Aur, ikast, gastaro, lanean,  
Naiz maitemiñez gizontzean  
Lagun ta babes,  
Giar-garunok indartzean  
Nere lanabes.

•••••.  
Lau aitzok —alai, zoragafi—  
Makur-aldirik ba'neu safi,  
Gaixomindu onen euskari,  
Jafai ~~dagoda~~ daikedan,  
Lan gogofa, sendi, abefi,  
Ziñesgeen kidan.

•••••.  
Lau aizta, baina Ama bakafa,  
Goitik zaintzen Euzkadi zafa,  
Euzkoen biotzeko gafa  
Ta Azkatasuna!  
Beragan ~~doqu~~ gure indafa:  
Zuzentasuna!.

•••••. *zaindarid.*  
Pagoz inguratuta Afate'n, gure aurtzaroko Aizta ~~■■■■■~~.

Andixe, Donizeto'ren zakeleau izan ei-nintza ekafia,  
beste eibartafok lez, etxera: Umetako *jakin gafia* *gogobeteko*.  
Lenengo oinkadak, lenengo euzkerea, lenengo otoiak, lenengo  
okerkeriak; ofa umetxo aren lenengo opariak. *■■■■■*  
Etxeko amatxo maite neurka, ta menditar Ama zeruko lorea, ume  
arentzat gogo-iñude, Olaxe, olerkariakin onenbeste gogortzen  
asi naiz neu be:

➤ "Gero, gauaren erdian,  
Oar neban ama zutik,  
Bigun neri begiratzen  
Begi eder argitatik...."

➤ Efebalian mutil koskortzen. Granuja sendo ta geldi-eziñak  
gu. Kale-mutiko ernai, bizi ta ipurlokak, etxean ezik edonun.  
➤ "Goitikberan gabixak Musatei kalian,  
Burdidunik ba'letok, muti<sup>T</sup>ok gaiñean!"

2) Lau aizta).....

192

Ibiltari ta mendizalea, ezinbestez da Eibar'ko semea.

Matxari'ko gaztaiñadi illuneko maldan gora, nora?.

Zenbat bidar Afate'ra, astiro naiz arin, azpiko ibar  
maite ari, atseden-geldiuneetan, begira; Ama agurtzeko  
bideak zein, ~~gure~~ mendiræ:

"Onela safi, afats barean,

Latseko itufi aldamenean,

Etzin izan ~~naiz~~ liñizko oean,

Lasai, eskuok garondo pean;

Begiak pozik, jolas alaian

Ibai urtzan, saran, zelaian,

Etxerik-etxe, muiñorik-muiño..."

Ofa ba:

Lau aizta, ta lenena ~~ta~~ Afate'n,

Landaratxo ~~mentzat~~ txorten,

Zufut egian lufetik sen

Abertzalea,

Ta izan edin egunen baten

Efi-euslea.

Gazteak gizontzerako gertaera ona bear. Ofetarako  
ego aldera jakintza bila, lurbarriak zein:

Lau aizta, jakitura itufi.

Ikasgurea gure ~~gure~~, egari,

Naiz gazzeleraz izan ufi

Gazteiz aldean.

Bost urte luze, ~~esta~~ ta lafi

Lekaide pean!.

Lau aizta; emen Estibalitz;

Amesetan: euskeldun ba'litz,

Ta piñu ordez, pago ta aritz

Muiño gaiñetan;

Jakitura! zurekin genbiltz,

Euzko lufetan.

Baiña, ikastaro lafia. Izkuntza bafia, asiera baltza.

Gipuzkoar gazteentzat aldatz-gora latza. Ala ta be, aufera,  
ikasi nai-ta, sutsu biotza.

Jai egunetan, osterak oñez; mutiko mendizale gazteok  
gogo-poiez. Lizafa'rako burdinbidetik, muiño jaiki aretara  
adorez. Lau-une luzea; gero, nor-lenagoko aldatz-gorea,  
ta olerkariakin bafiz, ames-lorea:

"Ara eldu naiz mendi gaiñera,

Beko edefak nauka ikusberai

Ez da odeirik, luñun ez laiño,

Ikuskin zabal alaia baiño;

Urtzi'k egiña dakust danetan

Ta emen, Arabafen zaindaria agurtzean, bafu-bafutik 103

laguntza eskean, ikastaldi gañatz au bigundu dagidan:

Estibalitz'ko Ama. Zuk ba-dakizu, nik ez, lagun, afen,  
lagun...Amen!....

Ikastaroa bete ondoren, etxera, lanerako joereak emen  
dau asiera; lanean asi ta... lanean ikasi; ikaskizunik zai-  
Tena; gizon izatera eltzeko, baiña, onena!.

Gazte urduriak, Abefiarénganako kezka maitea. Eitzari  
bizkor, dantzari azkar, baiña danofeen gaiñetik mendigoi-  
zalea.

Itziar'en txoriak ugari; Eibar'en ta Elgeta'n ufi.

Aruntz ba joerea, Itziarko Ama'renera, mendirik-mendi  
ibiltari:

"Margozte ugariz, zenbatu gaitzak,

Edefez eder beko zugaitzak:

Lef betiluna, Eltzun urdiña,

Pago beilegi, baltzez Agiña,

Kukila zofotz Izai zapalak,

Aritz sendoak zabal madalak..."

Emen, ura ta legofa laztanka. Afaiñak an, Kulixkak  
ondartzan. Uñaren erasoari arkaitzak musiñ.

Iibili dabil ontzia, uñiñ, Andutz zutinik zejetan, ikusmiñ.

Lo dago eria, ta lanerako bidean nekazaria; goizabafa ozkarbi.

Ama, zure elixa eder ofi, begira ni:

Lau aizta; emen itxastafa,

Ala ta be maite dau lafa.

Ortitxik gazi-geza gafa

Gazte onentzat,

Ta itxas-mendi alskartze zafa.

Jafaibidetzat!

Ufi La Itziar'en, ibiltarion garai. Igaliak elduta, Izadia  
mukuruz ~~blai-blai~~. Asmaketea, ostera, zofotz; ta maitemindua  
maitea barik, amots:

"Udazkenean zerbait ba-dabil,

Odolean da sortzen jatofiz,

Ereak zifiz, oldeak jaulkiz:

Eta biotza dantzan olertiz,

Ori, laru ta gofixken neufiz".

Milla bederatzireun ta ogeitamaseian, maitasuna ta odola  
datorkoz nastean. Andregaiia ta Abefia, gudea tartean, nora  
joko gazteak bere noraezean... .

(1) Lau ta

Lau aizta, ta Begoña tarte,

Burutaldi lagun Afate,

Bien artean asmau dauste

Emaztegai.

Neuk igafi barik, txolarte

Dob Matxaria!.

Maitemiñean, gudan, Lafinaga'tik be, z... otoi ta eske,

Begoña izan dat afezkero babeste. Ihoiz alai, baita estu ./. .

104

4) Lau aizta).....

ortxe

naiz igesiana Begoña, ezkon toki, gorde leku, aterpe...

Emen ugatzatu ditugu alaba biak. Emazteak Begoña jafi nai;

nik Afate... Bakea izan gendin, Itziar au, Estibalitz a.

Ezan onela izango batera jaio ... ba'litzza...

Gau'be, olerkariakin, Begoña'ko ezkil ori ozen datorkit:

"Entr'un ezta ei kil ots,

Ufe ots!

Atsegina ugarien aufesanaren aots!"

Begoña, Itziar, Estibalitz, Afate, lau muiño zoragafi ludian; zurubirik onenak Donoki bidean:

Lau aizta, laurok bat danean,

Ama bakar bat Donokian,

Afate'tik Begoña... arteen

Nre bizitza.

Ta Ama Deunaren babesean

Euzkel-ekintza!

Agur esan bear-ta, amaitzera, <sup>moa</sup>: Ama'ren esanekin jantzi nai ... gogoa, bete ezin izan ba'dot neu fi osoa, neure makaltasuna bitarte, Baiña Shakespeare'kin nik au beti gogoan, il arte;

"Zein bulaf-oskol ete biotz zur bat aiña?

Iru bidar da indartsu auzi bidezkoa;

Ta naiz galtzairuz jantzi... nafustuta doa

Bafena bidegabez usteldu dauana."

Beiztegi'tar Jon

1978'gafengo Begiak 12/21.

Aita Santia, Luzea ba'da, ehagi; labufa ba'da, sartu argazkiren bat, gure muiñook politak dira-ta, baiña txara ba'da, beta)

Beiztegi

MAGNIFICAT

Aundiesteren du nere animak jauna,  
pozaren pozet daukat nere barrune;  
Jainko bait da nere salbamena,  
ikusi bait du mirabe onen ezereztasuna.

Uoatsu deituko naute gaurdanik gizaldi guztiek,  
aundiak egin bait dizkit Aalguztidunak:  
Santua da Aren izena,  
eta Aren errukia gizaldi, gizaldi,  
beldur diotenengana.

Bere besoare indarra erabilli du,  
buru-arroak suntsitu ditu;  
bota ditu beren aulkitik aundizkiak,  
eta gora jaso ditu ezerezak;  
ondasunez bete ditu gose zeudenak,  
eta esku-utsik bidali asko zutenak.

Bere gain artu du Israel, bere morroia,  
errukia gogora zaiola;  
gure gurasoei ala ziñen itzemana,  
Abrahan-i eta ondorengoei betiko esana.

Aintza Aitari, eta Semeari,  
eta Eupiritu Santuari.  
Asieran zen bezala, orain eta beti,  
gizaldi eta gizaldietan. Amen.

AMAIKAGARREN EGOTALDIA

Eskuak eta oñak / iltzez egurrari  
josita, gurutzean / Jesukristo dager:  
aurrez-aurre, neketan / lagun, Andre Mari  
du, minstan lertuta, / lengo Ama eder.

Jesu iltzatuaren / oñaze azkarra,  
ta beraren Amaren / atsekabe minei  
Belauniko nagozu, / gogoan negarra,  
auznarka gizonaren / ogenen samina.

Iltzez josita zauden / Jaungoiko-Semea,  
zurekin gurutzean / josita be'nendil  
Zure maitasun-iltzez/ jo nere barneak,  
zakizkit zeru-bide, / Golgota'ko mendil

Gurutzean errege / agurtzen zeitugun  
Jesu, zur(e) inguruau/ txerrenak birao:  
gauden damuz apalik, / otoi gau ta egun,  
gizonak biur-nairik / zeruko abao.

Irakasle altsu ta / zeruko Artzaina,  
zerroren babesera / gizadia betor:  
Zuregan baitaukagu / ogenen ~~xxixma~~ ordaina,  
eta Jungsikoaren/ biotz errukior.

= G O M U T E A =

Lili-arteko bidexkak...

Joandako zoriona!

Larre ezeetako bedartzak...

Txikitako oroi gardena!

Elizaldetxu zuria...

Gaztetxutako jolasak!

Zeruko Amaren deia,

Maiatz'eko kampai-otsak.

Baso-zalai orlegiak...

Kanta samurren anotsa!

Umetako basetxeak...

Ames gozoen izkuntza!

Ludi-bide zabaletaz

obenen txirripistadak.

Bizitzako ituntasunaz

samin, zorion joanak.

Gaizko zaraten astunak

siñistea, ötz, menpean.

Erruge nintzan egunak

laztan samur biotzean.

B. Aurre-Apraiz

==== +++ ===

SORTZEZ GARBICO AMARI

Baratz erdiko / lili usaintsu  
urrezko orriz jantzia,  
zure moduan / orni goxoa  
eztigai billa erlia.  
Biotz barruko / maitasunaren  
antzikur zaran loria,  
zure eztiaz/ idatzi nai dot  
Aman sorrera garbia.

Sortzez garbia / bere sorrera,  
garbi dizdiraz jaiotza,  
Jesus Jaunaren / sorreran bardin  
garbirik bere gorputza.  
Garbi dalarik/Semea jaio,  
gero be garbi bizitza,  
sortzez garbiko / Ama on ori,  
au de Jaunaren alatzai

Ama Birjiña / ixilik dago  
munduko eztabaidakaz,  
sortzez garbia / dala ta eztala  
dabizen zalapartakez.  
Lenengo nai dau / geuk autortzea  
egizko siñismenagaz,  
gero Lurdosen / esan dagiskun  
"Sortzez garbiko Ama naz".

Paris Sorbina'n/ Juan Duns Eskoto'k  
itz onek zituau esan:  
"Al izan eban,/ al izan eban,  
beretzat egokia zan;  
Jaunak nai eban,/ al izan eban,  
eta bearreko zuan;  
Ama Birjiñak / nei izanda be  
obenik ezin lei izan".

Gauza gaitzikan / baldin ez bada  
gure Jaungoikoarentzat,  
nola aukeratu / obendun Ama  
Jaunak bere Semearentzat?  
Ezkutapen au / illuna baizan  
gizonen argiarentzat,  
ainbat urtean/ez autortzeko  
Ama Birjiña garbitzat.

Sortzez garbia / zala ta etzala  
mundu dana eztabaidan,  
ez al du, Ama,/ gizadi onek  
Jaunagan Federik izan?  
Alguztiduna / bera izanda  
nola egingo ez eban,  
bere sabelean / Jesus Jainkoa  
sortu ta jaio bear bazan?

Benetan Sortzez / Garbia zara,  
emen ez dago dudarik,  
Jaunak onela / nai eban eta  
Zugan ez dago obenik;  
gorputz ta arimez / igoñ zenduan  
zerura oso-osorik,  
garbitasuna ezaugarriztat  
aingeru-loraz j ntzirik.

Edurra baizen / zuria zara,  
eguzki baizen argia,  
garbitasunen/iturburua,  
lora guztien loria.  
Ama ederrik/Jaunak ein badau,  
Zu zara, Andra Maria,  
Jaungoikaren / alatz gurena  
zure Sorrera Garbia.

Balendin Enbeita

MATER DOLOROSA

Ama biotz-kementsu / naigabetsua  
 zutik, negarrez dago / gurutz-ondoan...  
 Etsaiak deadarka / bera ondoan...  
 Illun ta ikaraz dar-dar / dago mundua.

Illunpean sartu da / lotsez euzkia,  
 negarrez daude izarrak / goiko illunpetan,  
 otoi-pean negarrez / dago illargia,  
 ta aingeruak negarrez / zeru-goiatan.

Zerutik bera jetxi,/ singerutxoak,  
 ta urrezko ontzirik eder / ederrenetan,  
 bildu gure Amaren / negar-malkoak,  
 muiñ-egin, eta jaso / zeru-kutxetan.

Andre Biotz-kementsu,/ Ama samiña,  
 itxaso antzekoa / da zure miña:  
 zazpi ezpata zorrotz / biotz-muñean,  
 ta alare,zutik zaude / gurutz aurrean.

Semeari geiago,/ aii ez begira:  
 bere begi ederrak / itzali dira:  
 ez,aial bere kolkoan / jarri burua,  
 itzali da-ta bere / barrengò sua.

Ez, aii! bere ezpañetan / jarri zureak,  
 zimeldurik dauzka-ta / ezpaiñ-loreak:  
 ez laztandu geiago / gorputz-illotza,  
 geitu ez dedin zure / miñ latz-zorrotza.

Neri begira orain,/ Ama maitea,  
 ni bai naiz orain,Ama,/ zure semea.  
 Nere kolkoan jarri / zure burua,  
 piztu dedin nereen / maitasun-sua.

Zure ezpañak ezarri / nere ezpañetan,  
 gurutzea maitatu / dezan benetan:  
 Ama,laztandu nere / korputz ergela,  
 beti maite zaitzen nik / Ama bezela.

L.Jauregi

EBANJELARI DEIA

Ebanjelari deia  
 adarrak aldarri:  
 "Gñian dago portua  
 atseden ta aberri.  
 Jarri oñok arrian,  
 eskuok ekárrri;  
 urten gorako ontzira  
 bizkór eta aláiki.

Irrigar, abigi,  
 bideko pozgarri,  
 Erregeren ontzian  
 Erregin bidari:  
 Andra eder Mari,  
 zuzen-orratz argi,  
 arrizko ontzi santuko  
 lema-zain ta begi".

B.Gandiaga

AMA ZERA TA BIRJIÑA

Ama zera ta Birjiña,  
Jesus'en Ama María;  
agur zuri, agur ta erdi,  
sortzetik garbi-garbia.

Egillearen alaba,  
ama zaitu Egillearak:  
zure sabela izan du  
sorleku Jainko-Semeak.

Espíritu Santuaren  
égitel sortu zenduan:  
geroztik dago gurekin  
Jainko-Semea munduan.

Jesus sortzean, Arekin  
gu ere sortu gintuzun:  
ama zaitugu; Jesus'ek  
gurutzetik esan zigun.

zaitzagun mundu beltzean  
gure begientzat izar;  
zaitzagun mundu gaiztoan  
gure biotzentzat inder.

Aintza Jaungoiko Aitari,  
aintza Seme Jainkoari,  
aintza, biokin batean,  
Espíritu Santuari.

AGUR, ZERUKO ERREGIÑA

Agur, zeruko Erregiña,  
agur, aingeru en andre;  
gora zu, austrai,  
gora zu, ate:  
zu bait zaitu munduak  
argiaren sortzaille.

Poztu zaitez, Birjiña eder,  
orotarik ederren;  
agur zuri, guztiz paregabe,  
egiozu otoitz Kristori  
gure alde.

AGUR, JAINKOAREN AMA

Agur, Jainkoaren Ama  
Ama maite ederra,  
zeruko ate,  
itxasoko izarra.

Gabriel'en aoz  
"Ave" pozgarria;  
geroztik zaitugu.  
zu "Eva" berria.

Eva'ren izena  
aldatua duzu,  
eta Jaunarekin.  
paketu gaituzu.

Pekatu-kateak  
autsi, arren, guri,  
gaitzak kendu eta  
grazia ixuri.

Erakus ezazu  
ama zaitugula;  
Semeak zugatik  
entzun dezaigula.

Birjiña ta ama  
denen gain eztia:  
emaiguzu biotz  
apal ta garbia.

Jesus bedi gure  
bizi ta bidea,  
azken-poza dedin  
Ura ikustea.

Aintza Aitari ta  
aintza Semeari,  
aintza bera bien  
Espírituari.

ZURE BABESERA GATOZ

Zure babesera gatoz  
iesi, Jainkoaren Ama;  
gure otoi zei ez eman  
esker txarrak;  
bear-ördu estuan;  
arrisku guztietatik  
onez atera gaitzazu,  
Birjiña eder.

MARIA GUZIZ SAINDUA

Maria guziz saindua,  
 bertutez baregindua,  
 graziez aberastua:  
 zureganik / Salbatzailea  
 sortu zaikü, / Ama maitea.

Oi Erregiña handia,  
 zein zaren miragarriai  
 Ikusten zaitut jarria  
 Seme maite / baten aldean,  
 urre alkī / argienean.

Sainduek izarren pare  
 zeruan argitzen dute:  
 zu distirantago zare,  
 kreatura / pare gabea,  
 Jainkoaren / lore garbia.

Inguratua boterez,  
 betea eztitasunez,  
 amodiozko su-karrez,  
 gure Ama,/hoi emultsua,  
 zu zaitugu / ies-lekua.

Zure izenak,Maria,  
 bozten daut bihotz guzia,  
 emaiten konfidentzia;  
 ifernua / dut ikaratzen  
 zu doi-doi /asiz aipatzan.

Graziaren iturria,  
 goizeko izar argia,  
 gidari miragarria,  
 zure ganat / beti begiak  
 idukiren / tut zabalduak.

Sekulan ez da galduren  
 zuk duzuna fagoratzen,  
 emultsuki begiratzen:  
 †otzi,beraz, / oi Ama ona,  
 ez nazazu / ni abandona.

M A I T A S U N A

Giza-biotzaren atsegisingarri  
ta,berarizko emai pozgarriz  
ixuririk beren gozotasuna ,  
udabarritar goidura biziz  
loratu bedi bai,maitasuna ,  
larrosa antzera,ikusgarri,  
ederturik izatearen guna .

Usain gozoz eta,margoz apain,  
iziotu bedi bai,gizonaren  
biotzean,gizonaren eskuan  
loratu bedi bai,gizartearen  
biotzean,egizko maitasuna ,  
ederrik ta sendoro,gaiñik gain ,  
mundu obeago ta barri baten  
bitzitzako gogai ta,zentzuna .

Bizitzako garraztasunean  
ezeren siniste,argi barik,  
zer da gizona bere deusean  
itxaro zimelez,errotonrik  
aurkitzen bada azolatasunean ?  
Zer,ederrezko Iainko izpirik  
eta,ezpadu maitetasunik  
bitzitan oi dan bakartadean ?

Itxaropen lorratzak galdurik  
zer egin leike,biotz-eskuren  
bat edo beste surkitu ezik  
zer egin,egoera illunean  
ezpadu Maitasunik,Federik,  
ezpadu Amatxu kutun baten  
laztan gozozko besarkaderik ,  
ezpadu bere aldamenean  
ezer aintzakotzat artzekorik ?

Muniategi-tar Sabin

~~1978-VI-16~~

NERE AMA ON-LAZTANA

Nere Ama on-laztana;/ zuretzat artu naizu:  
lagundu te gorde beti,/ -eruratu nagizu.

Ama batek ezin ba'dau / semea txarto ikusi,  
zelan amarik onenak /al izango nau itxi!

Negarrezko erbestean / asko igaroten dogu:  
gure malko samintsuak,/ arren,Ama,legortu!

Nai ba'dozu -diño Amak- Jesus'egaz bizi,  
pekaturako bideak / bene-benetan itxi.

IZAR EDER

Izar eder-eder,zoragarria,  
zeru goian -zeru goian<sup>2</sup>,zara,Maria.  
Izar eder,zoragarria,  
zara Maria, zara Maria!

Goizeko izarra ez da ein ederra,  
Ama,dan legez -dan legez-,zure sorrera,  
Guztiz ederra zara,Maria,  
snrtzetik zara garbi-garbia!

GOAZEN,GOAZEN

Goazen, goazen guztioik  
Birjiña Amagana,  
eskint<sup>2</sup>era biotsez  
loratxo eder bana.

Lora mota guztiaik  
lurraren gaiñean  
zure antzeko dira  
edertasunean.

Bardiñik ez dozula  
garbitasunean  
lirio ederrak diño  
arantza tartean.

MAITE ZAITUGUN AMA

Maite zaitugun Ama,/ Birjiña María:  
izan eizu gurekin / beti errukia.  
Zu zara gure nekeen / poz-asetzaillea,  
gure biotzarentzat / izer pozgarria.

Kanta dagigun alai / biotz-biotzetzik  
María'ren izena / gloriaz baterik,  
ez dala guretzako / maigabe ta miñik  
lagunduten ba'dausku / Birjiñak zerutik.

S E N D A T U I    A M A I    E U S K A L E R R I    N E K A T U A

Gogai okertu eta  
siñiste lorrinduaren  
zidor naasietaz,  
Zeugana natorkizu, Ama,  
deadar, abesti, zotin eta arren:  
Baso garbien zelai bakartsuetatik  
dakartsudazan eskabideak  
entzun egidazuz, ba, biotz onez.

Itxaropen galduen aro goibelean,  
eskuratu esindako zorion-billa, urreuri,  
dabil gizarte larritua;  
zeruen seme zurtz eta  
gaikerien laiño-artean itsutua.  
Egizu, Ama, ez dakigula eten  
asabakandiko siñismen-lókarri itxaropentsua.

Zaratatsu dabil gaztediaren  
arrakasta urduria,  
osertzik bagako bide illunetan,  
siñiste bagakoen garraxi etsigarrieta amildurik.  
Eta gogo ustuen billa diarduan gorrotoak  
Ierrenak dagiz, igarri bagarik,  
errukiaren destaiñaz-,  
biotz-urrien bular makalduetan.  
Argitu egizuz, Ama, otoi,  
gure zelai, kale ta bide ertzak,  
tokirik izan ez daiten gorrotoarentzat,

Leen Zeure gorezmenez,  
pozezko kantuz,  
alkartzen ziran erriak,  
goiz, eberdi ta arrats,  
zoriontsu bizi izan giñan  
siñismenezko aldi garbietan.

Orain, Jainko bagakoen gerizeteak  
gorriña ta lorriña edatu ditu,  
gutzia ondatu guraz,  
biotzetara.  
Goibel zankaguz, Ama,..  
tamaltasunez begiak, bidekatueri begira...

Bizikera narrazen asmu erkin  
 eta gurari zitalakaz  
 illundu egin da ortzia  
 eta tramankulu ta lanabesen otsez,  
 gogo-entzumenak konkor,  
 bultza ta larrapastada,  
 itsumustuan dabizenai,  
 Argitu egiozuez, Ama,  
 zentzun-begiak,  
 ikusi aal izan dagien  
 zeruen itxaropenezko argi urdiña.

Asko dira, barriz,  
 urrearen disdirak biotz-begiak, lausotuak  
 eta, euren urre-gosea ase ezidik,  
 urkoen bearrizanak ikusteko ez dira.  
 Eta igartzeke doaz  
 maitetasun bagakoen amillera.  
 Argitu egiozuez, Amatxu, olakoeri be  
 illundutako zentzu-begiak,  
 ikusi ta nabari aal dagiezan  
 ezeuki ta baztertueng lor eta nekeak.

Zuzendu egizuz, Ama,  
 egiazko sinistera euzkgtar bidékatuak,  
 erakutsi, maratu ta urrundueri,  
 pozezko bide baketsuak,  
 izan dagien itxaropenezko adua.

Betor, ba, Ama, gugana,  
 zeure errukiaaren indarra,  
 Bizkai'ko zaindari zaitugu-ta.  
 Osatu ta sendatu egiguzu, arren,  
 Artagan-bizkarretik,  
 Bizkaitaren biotzetik,  
 Euskalerri nekatuaren  
 samin odoldua;  
 urrundu daiten, betiko, gugandik,  
 gogai ta xede lorriñen erasoa.

*f. Aurre-Afraiz*

====

OLATU SETATIAK

Olatu setatiak  
 aitzaz txil eitean,  
 aitzari bota eutsan  
 erremin leumean:  
 - Zergaitik, eten baga,  
 zu troska bidean?

Eta arkaitzak erantzun:  
 - Ez nik zaurituko,  
 leun bañozu mosutzen;  
 baiña zapuztuko  
 txuka bañetorkidaz,  
 bits zakar jario.

Zuk be, Ama Maria,  
 arkaitzaren antzo,  
 apalari eskeiñi  
 oi dautsazu altzo.

Burugoiak, ostera,  
 txulut dagi noiznai:  
 gatorkioz Amari  
 buru menera-gai.

A. OmaIndia

BESTEREN ESANERA BETI

Askatasuna  
 asmoetan,  
 itzetan,  
 egitadetan.  
 Askatasuna  
 gizon,  
 abere,  
 landaretan.  
 Ask. tasuna  
 lehen,  
 orain,  
 geroetan.

Dixe gaurko irritsa,  
 gitonaren itza.

Ez kate, ez langa;  
 gorputza bere, billoiz  
 askatasun -ardaua edanda.  
 Ez lotura,  
 ez muga...  
 beti billoizik ibilteko,  
 betor ameibako uda.

Ez dau gura  
 munduak, ura  
 ta ogia;  
 nahiago, arean,  
 ardau ta aragia.  
 Belaunaldi gazteena  
 Birjiñatasunagan  
 siñesgogor da.  
 Ta ez d'au maite Artagan.

Ama errukibera,  
 besteen esanera  
 bizi izandako ori,  
 jatsi zaitez noizik beiñean  
 eta ibilli, maitez,  
 gure artean...  
 Zorionaren zori!

E. Erkiaga

SORTZEZ GARBIA

Curramus in odorem  
unguentorum tuorum  
 (Cant.I,3)

Nere begi goibelduak  
 zuzendurik zugana,  
 zekoi zein garbi, zein ederra  
 zakustan, ene Ama!  
 Ez da zuregan ogenik,  
 guztiz garbia zera,  
 zero goiko Izar argi,  
 Ama laztan, maiteal!

Eguzki biziz jantzirik  
 agertzen zakizkigu;  
 illargia oioñ azpian  
 apal-apalik dezu;  
 eta izar ditziratsuak  
 dagizute inguru...  
 Guk lurtar errukarriok  
 gure Ama zaitugu.

Jainkoas Bera jetsi  
 zitzaizun biotzera;  
 bertan, loretegian lez,  
 jarriz bizilckua.  
 Biotz txukuna bai dezu,  
 biotz maitagarria!  
 Jainkoaren diñakoa,  
 guztiz aratz garbia.

Izaki orok zaituzte  
 egun, Ama, goratzen;  
 negarrezko oberretik  
 dagonkizu maitatzen  
 gizonez, zure edermenez  
 dalarik lilluratzen:  
 SORTZEZ GARBIA zerala  
 aspertu baga abesten.

Erruki zakizkit, otoi!  
 Ama errukiorra;  
 zeure biñetan naukazu  
 otoitz beroz eskeka,  
 neure biotza apaintzeko  
 zeurearen entzera.  
 Ni, bai dala geldituko  
 ziñez eder-ederrail!

Yurreta Julian A.

ANDRE MARIARI

(Kristobel Cabrera)

Zer nintzake zu gabe,  
 ene Andre?  
 Ni zu gabe zer nintzake?

Ene Erregin, ustekari,  
 poz beteal  
 Orok zuri elesari,  
 gorestea.  
 Zuri begira naiz bizi,  
 Egunalde.  
 Ni zu gabe zer nintzake?

Zu zagozkit biotz ontaz  
 jabeturik,  
 zure eztiaz nadukazu  
 gozaturik.  
 Zuregan dut itsalditan  
 pozemaille.  
 Ni zu gabe zer nintzake?

Ikusirik nere baitan  
 zorra larri  
 zu zaitutnik ezinean,  
 ordainlari.

On berriak leia berri,  
 geigozale  
 Ni zu gabe zer nintzake?  
 Ataungo Bonipagi A.

MULTI SUNT VOCATI...

Berba guztietaz  
sarkorrenak orra  
durunduz barruan;  
askoak ei dira  
dei egindakoak,  
garaiz ta orduan.

Autatuak, ostera,  
urriago izanik,  
ba-darabilt kezkarik  
nik neure barruan.

Aita, aita da beti  
oiturearen mugaz;  
ama, urrago gugaz  
egunen arloan.

Orretxegaitik, Ama,  
Ama Begoñakoa,  
zuregan nik gogoa  
une esturazkoen.

Berba ~~sarkorrenak~~ guztietaz  
sarkorrenak dira:  
Autetsietan... ni?"  
Lagun niri, Ama,  
zirimolen ganez  
Aberrira nadin.

## E. Erkiaga

GURE IZAR ARGIA

(Mikel gudariari eskutitza)

Agur, berriro,/ Mikel, biotzez:

osasun eta biotz on!

Nere agurrak / poztu auala?

Ori neretzat zorion.

Guziz garbiro / agertu didak  
ire gogoan zer dagon.EZ etsi, arren;/ uste on izan:  
galdu-kezkatan ez egin.

Andre Variren/ iruditxoia

or dabillek sgiñean;

egun geienez "Agur, Maria"

esaten diok benetan.

Ire burua / ezarri wan

Ama on orren zaipean...

Eta ez el au/gaur arteraiño  
berak babestu lurrean?

Lore illean/ Andre Mariaz

bear diagu itzegin.

Eukotar onak / autetsi zien

Zaindari eta Erregin.

Bere elizetan,/ zenbat alditan  
Mariak digun otsegin!

Arrenganako / mait tasunak.

irauz dezalea zurkin.

Gogora, Mikel,/ etxe aistean  
ik egindako otsitzak.  
Zeñen kartsuki / garbitasuna  
eskatzen zion biotzak!  
EZ ote au ba / zaindu Mariak  
bota ez entzen illotzak,  
ire fedea / galdu etzezan  
lihburkerien izotzak?  
Andre Mari dek / gure izarra,  
illun beltzetan argia;  
griña arteko/zurrubillotan  
ematen ziguk egia.  
Aren ondoren / abillelarik,  
ire bidea garbia.  
Mende ontako / ekaitz artsan  
ez dek galduko "bizia".

Andre Mariak dek/lagun zintzoa,  
aul-aldietan kemena;  
etsaialdian,/ uste on gozo,  
burukaldian euspena;  
erorieren / eskuemaille,  
min gozatzaille onena.  
Maite dezagun / biotz-biotzez  
jaungoikoaren urrena.

ANDRA MARIA EGONAKOARI

Zugana gatoz, Ama maitea,  
erregutaten guztiok;  
egizuzala biurtu gugana  
zeure errukizko begiok.

Nazaretiko alaba eder,  
zeruko Jaunaren Ama,  
pekatuaren orban bagarik  
lurrean sortu ziñena:  
emen gaukazu, zeure oïstan  
auspaz, Euzkal-erri dana,  
ta egizuz bâda biurtu, Ama,  
zeure begiok gugana.

Guztiok gagoz pozet beterik,  
Birjiña miragarria,  
ifinteagaz geuri beingoan  
zeuk arpegi ain argia.  
Merezi baga egin deuskuzu  
mesede guztiz andia,  
ta orain mesede orren trukean...  
zer gura dozu, Maria?

Ondo dakigu zer gura dozun  
zuk mesede orren truke.  
Geure arimak ainbat laisterren  
garbituko ba gendukez,  
beti ementxe, geure oondoan  
bizi gurako zenduke.  
Eta... orduan demoniña  
azpiratuko genduke!

Geure arimak garbitutea  
ez da mirari andia,  
geure onduan eukitearren  
beti Birjiña Maria.  
Ea, bâda, gaur guazen guztiok!  
Etorri, pekateriat  
Bâda Mariak emango deusku  
geuk bear dogun grazia..

Bai, Ama, maite, pare bageal.  
Oraintxe goaz benetan  
Egin deuskuzun mesede ori  
ainbat laisterren pagetan;  
zeure onduan bizitekotzat  
lenengo mundu onetan,  
ta gero, barriz, beti-betiko  
danok Zeru ederretan.

Agur, Birjiña Begoñakoal  
Agur, Maria Birjiñal  
Agur, zeruko Izar ederra!,  
maiatzeko krabeliña.  
Agur, Maria, guztiz garbial,  
amodiozko Kutx fiña,  
pekatarien errukiorra,  
Aingeruen Erregiña.

Bonifazio Latxa eta Agirre

AINGEHU BATEK DIÑO

Aingeru batek diño  
goi-gora bâsoan  
Aurtxo bat jaio dala  
bart gure auzoan.

Berari zoriona  
daigun eskatu;  
danok bear dautsagu  
ederto abestu.

Ez ete zen, Maria,  
orduan artzaiñik,  
Jesus agurtutzera  
leiatuko zanik?

Bai, artzaiñak nebazan  
orduan ikusi,  
ta euren biotz onak  
nebazan onetsi.

Esaiguzu, Maria,  
ba-zan erregerik  
zure Seme Jainko  
ikusi ebanik?

- Iru errege ziran  
urrundik etorri  
eta beren emoitzez  
eben ederretsi.

L e m o t i k B e g i r a t u z

---

"Naiz euzkiz jantzita egon .  
 naiz odehyez izukor ,  
 naiz illargi goltsuz edo  
 naiz izarrez dizdikor.  
 mintzo gozoz poztutzen du  
 ncre gogo gaxua ...  
 ! eta bero mintzo eșke  
 zabaltzen det leyua !

—+— ( Tene ).

Zabaldu bai leioa ta, so. urbil-urrunez ,  
 ogun-barruz datorrigun anots bakoitzari .  
 eguzki, euri, edur, naiz laiñope illunez ,  
 gizartean bizi dugun mundu sunitzari .


Oro da lasterketazko ibilli azkarra .  
 izan naiaren, iritzi naiaren samiña ;  
 goiago bearrezko zalantza ta sugarra ,  
 oro da urduritasunezko bizi-miña .

Egazkin, berobil, etxeko langaillu ta abar ,  
 oro da soiñu durundi, oro motor otsa ,  
 ezin bizizko egunsenti ta illunabar .

Baiñia so daigun ortzia goizero begiztatz  
 edota arratsero irikiz leioa ta, biotza ,  
 be-aldeko zaratetatik gogoa baztertuz .

---

Muniategi-tar Sabin .



GABON AMESAK

Elur zuria mara-mara mendi goian.  
Elur zuria mara-mara gau guzian.

Aita San Jose'k estalpetxo bat nai luke.  
Andre Maria, aren lagun atez-ate.

- Etxe onetan txokorik bai al dezute?  
- Toki guziak bete zaizkigu. Zoa,te.

José doneek bere biotza erdi bi.  
Aridre María'k begi biak melko-iturri.

Senar-emazte doneak mendi aldera.  
Aingeru onak arrituta aien begira.

Mendi aldean, aitzulo zar irikia.  
Jainkoarentzat, ze nolako jauregia!

Askatxo bat du Jesus'ek bere seaska.  
Asto ta idia aldamenean arnaska.

Elur zuria mara-mara mendi goian.  
Elur zuria mara-mara gau guzian.

Ta Jesus onak seaskatzat arri otza?  
Oge bigunen zale geronok, au lotsa!!

N. Etxaniz

AMA, ENTZUN, ARHENI

Eskari mator,/ Ama Maria,  
entzun zaidazu,bai,arren...  
Entzun,Amatxoi!/ Nik zer nai dedan  
aditu aalik azkarren.

Meitasunezko/sugar bizian  
daukazun biotz-labeak,  
esker gaitoko / oni zabald  
biotz ortako ateak.

Biotz ortatik / ez al didazu  
sugar pixkabat emango?  
Ba-dakit ziur / ez naizela nor  
zure grazien artzeko.

Pekatari naiz,/ ezagutzen det,  
lotsakor zait eitortzea.  
Gai zto arroak/ nola iritxi  
biotz orretan sartzea?

Zabaldu aazu / biotz-labeko  
sugar-ateak,erren,bai...!  
Zugan erre ta / kiskaldu nai det  
zure babespean jarrai.

Ikusten nauzu;/ Ama maitea,  
erbeste onetan larri.  
Zabal zazu,bai,/ Ama laztana!  
izan ez nadin galgarri.

Esan zaidazu,/ Am kutuna,  
pekatuz ote naiz ilko?  
Erruki,Ama / Beñoñakoe:  
ez utzi galtzen betiko!

Andonegi'tar Ziriako

BEGOÑAKO AMARI

Bizkaiko estalpei / urdiñez jantzia,  
Beg ţako izarra / ta lora garbia,  
argitu,gordetu/zeruko bidean  
euskotarren lurra,/ lur zoragarria.

Aingeruk Begoña'n/ mendi maitetsuan,  
eleiz bat zuretzat /urrez egin eben.  
Jauregi orretan / Euskaldun garbiak  
eskeintzen dituzte/ biotzak Ameri.

Or dagon lurgaña/ estaltzén dabena  
atxurdin guriak,/ euskotar semeak  
iñoi ez dabe lurfautsagaz zikindu,  
ba igesten ditubetz / usok lez lokatzak.

Itxas aldeko izar / argi-legun ori,  
igon illuntzean/mendi tontorrera  
Bizkaiko lurrean/bidazti gelduei  
argitzeko zero/aldeko Hidea.

Negu gogorrean / arrantzaleari  
emon estalpea / ortzia urdindurik,  
eta zeure janzki / euskotar alabak  
eundukoaz egin/aize-dial on bat.

Laster ur-ontziek / lurra dakusaten,  
ta gero bernutsik / Begoña'n aldapa  
igon ~~dixm~~ daien itxas / erdian negarrez  
eskeutako itza / pozik betetzena.

Euskal amak zure / jauregira seme  
onak eskeintzera / eroan oi dabez,  
neu ere amatxok/ gaztea nintzela  
zure magalpera / ekarria naiz-ta.

Zu izango zara bai/ gure Bakalduna  
urre-zigor legez / gurutze deuniagaz,  
zurekin betiko / azkatasunera  
jaioterrigaz / eramango gaizuz.

Jainkoaren ema:/ gure mendietan,  
artalde zuriak / ugaritu beti.  
Eta udabarrian / zugatz tantaetan  
poza urretxindorrak / abestu deiela.

Baserri aldetan / ixuri alaia,  
solostan emaitz / ederrak azirik.  
Semetxo dánakin / guraso laztanak  
sukalde beroan / batuizuz neguan.

Iñion muga barik / gentz zoragarria  
itxaso ta mendi / gañetan zabaldu;  
uri andietan / anai-maitasuna,  
taki guztietan / donokiko poza.

Nire neurtitzari / zure gizkarbia  
goratzeko beti gogo goi-zalea.  
Ta jausi daitela / jauregi ortatik  
ondasun-euria / euskal-erritara.

Ez diela iñoi be / lañoak ezkutau  
argi ori,Ama,/ eta gure errian  
bintzean zildu/danx iturri ori  
jario ditela/ danentzat azkenge.

Bizkaiko estalpei / urdiñez jantzia,  
Begoñako izarra/ ta lora garbia,  
argitu,gordetu zeruko bidean  
euskotarren lurra, lur zoragarria.

(1925)

Lauaxeta

Aldatuz ta barrituz,betiko igiduran ,  
biziak ots dagi gau-egunen etormenez ;  
batzutan asti aundiz,bestetan abiaduran,  
betiko etsipendura ta ameskizunec .

Ta,biarko olerkariek abostuko dabo  
gaurkuok ozin dogun doiñu barri baten,  
baiña gu bezin itun ta,alai edo aise .  
ibilliko dira goiko izarrak begitzen .

Argi-itzalezk urtenbide latz ta otza ,  
betiko zadorpe estalkari ta,utsalez ,  
ospin ta zorion apurrez taupatuz biotza.

Bai. Gure bertsoa ezetsi,baztertuko dabe  
baiña,alambe,abesti zarraen auts-artez  
ez ete dira ibilko aztarnik bai etc ?

Muniategi-tar Sabin

#### I k a s k u n t z a

Oi,bagenki egun minduratiak zearkatzen  
ekaitzaldi gogorrari aurpegi emoten ;  
burua zentzuz argiturik odola baretzen;  
bagenkiai eraso gaiztoari erantzuten .

Ugiñak gogor ba'datoz itzi igarotzen ,  
zaratasu,ozen,arkaitzetan erasotzen ;  
ikasi maitez,eskuak,egoki biziratzen ,  
ta,gizontasunez,tinko,buru zut ibiltzen .

Etengabeko ekintzaz,bizirotz saiatuz ,  
monporatuko ditugu eragozpen oro ,  
egiazki begiak ta biotzak argiratuz .

Bizitzako itsasoak bere ugiñak ditu  
ta,arretaz ibilli bear dogu,zintzoro,  
bizi-ontzia ez dadin betiko ondatsu .

Muniategi-tar Sabin

BIZIATZETZEAGITZALDIAKONDAZTUTIKI.



BARATZEKO AMARI

Zergatik zaude, Ama,  
baratze atean,  
ain meitarri jantzi  
zuri urdinean,  
esku biak batuak  
Jaunari eskean,  
ta bi odol larrosa  
zure oin gañean?

Zergatik zaude, Ama,  
baratze atean,  
lau nekosten itzala  
dezula atzean,  
(lau kandelargi musker  
zure omenean),  
babesten zaituztela  
aldare antzean?

Nere zai zeunden, Ama,  
baratze atean,  
Agurtza erakutsiz  
otoitz ixilisan,  
Nere zai zeunden, ta nik  
nere itxumenean,  
ez nekin ,er zero nun  
zure magalean.

Oraintxe ba-dakit, Ama,  
baratze atean,  
zergatik zauden zutik  
beti otoitzean;  
ta gaur naigabez Zuri  
agur egitean,  
ba-dakit nora etorri  
gaixo nadinean.

N. Etxaniz

"EGARRI NAIZ"

Entzun zenduzen, bai,  
berba bi orreek;  
gurutzean Kristo  
ta oñean zuek,  
Amai

Ni andik urrundu  
nintzan, eta ez  
urreratu zugana.  
Zergaitik  
nintzan  
urrundai?

Errudun nintzalako  
nintzalako,  
ziur asko;  
bazter illuna  
nahiago  
neure burua  
sartzeko.

Errudun  
neizelako  
ez naiz zure  
gelako  
gelari,  
nahiz eta zuk  
dei gozo  
egin sarri.

Entzun nahi nituke,  
gortu arte, berbok:  
"Egarri aiz, eta  
nun aurkituko dok  
asé-iturrik  
au baiño oberik?

Ona emen Kristo, zain,  
biotza zabalik..."

E. Erkiaga

EZTI ITSÁ

Miren! Izen eztii uts, olerkí iturri;  
jainkozko msesu baten gizaz jantzi antza.  
Nok, bear aña, zure izena goretsia!  
Zure Ama-biotzan samurtesuna aipitza!

~~der sortu-ezárén iduri ergia,  
gaikoaren itxaro, maitasun eredu;  
gogoz Jainkozantza gal, soñez ozkarbia,  
betikoa ezkero, Zeu edorrren zaitugu.~~

ILLARGITARA

Pulchra ut luna...

Nolaz uiteken, nongo gertari  
iges dagio adimenari...

Ta alaz ta ere,  
egirik bada,  
eskutu auxe  
erraiñukada...

Sortzetik, Miren, Erruge zera,  
Ama ta Birjin biak batera!

Kopet-mamia gotargiz arro,  
sakona dazaut, naizenez txarro...

Zenbat dagidan  
ega gorago,  
ainbat, zalantzian,  
dakust'arago.

Ta ala badere, Erruge zera,  
Ama ta Birjin biak batera.

Arrats-zoriak illuna dakar,  
esna-eraziz ontz ta xaguxar...

Oro geldi da.  
Otsik iñun ez...  
Sorgin-egada  
guzion gaiñez...

Sorgiñak, barak txistua jo du  
ta illargi-izarrak izeki ditu.

Izarrak lagun, illuna etsai,  
itxas-ertzean nago egi zai.

Illargi bete,  
adar urdiña,  
lurrun irule,  
zillar-joskiña...

Itxas-aurpoak darakat zikor...  
ta izar erdian spurka dator.

Illargitara... oro geldi da,  
marmarka itxaso... neurriz taupada!

Pizti-txirrike  
ulu eziñik...  
Buru-ausika  
gogait egiñik,  
barren-odeiak noiz ta beltzago,  
itxas-orpoan nasturik nago.

Illargi meak dagit musuka,  
ugin-gezalak aitz-atzimurka...

Ta itxas altzoan  
musu borobil...!  
Noruntz digoan  
aruntz darabil...

Nondik dan ori... asege nago.../  
!retan izan geroz geiago!

Ugin-barrenak argiz josiak

itxas-osiñan par illargiak,

Itxas-erraiian

par illargiak,

jira nasian

kiñu pitxiak...!

Garden azala, ditziz ondarra,

garbi ezpia, gaña leiarra...!

Illargiaren biko bizia,

izar txurien kiñu berria...!

Ugin-agala

urratu barik,

barren-itzala

urrez jantzirik...!

be-bean dabiltz parre ta mugiz,

legor-bustian batera biziz...

O Miren eder! Erruge zera,

Ama ta Birjin izar antzera!

Irudi dezu

itsas-kolkoe...

Ta askatu degu

korapilloa...!

Nondik ta nolan, argitara da,

ezkutua gaúr erraiñukada...!

Itsas-errota kanta-kantari,

ta izar-ugiñak elkar-dantzari...

Loramendi

#### AINGERUARENIA

Mendi axala / goiz-argiz ziller  
egun atari denean;  
lotan zegoen / boso itzala  
txori soiñuz esnatzean;  
mendi gaillurra / eguzkiaren  
laztan beroz gorritzean...  
nere gogoan / zeitudala, Ama,  
asten naiz ni otoitzean.

Eguzki jaunak, / urre ta sutan,  
galda jaia duanean;  
zeru gaillurra / argi bizitan  
irabazi ondorean;  
egun erdian, / lana utzita,  
itzal gose naizenean...  
kanpai otsera, Ama laztana,  
berriz zaitut biotzean.

Arratsaldera, / egun argia  
logaletzen zaigunean;  
eguzki jaunak / argi opilla  
lotara daramanean;  
illunesbarra, / Ama Maria,  
laño gorritan galtzen...  
nere lanari / agur egiñaz,  
otoi dagizut pakean.

Gau amak lurra / maindira beltzez,  
izketatzen digunean;  
sasi ta lore, / illunpe bildur  
kuxkurtzen zaizkigunean;  
txori soiñurik // Ama Maria,  
bosoak ez duanean...  
Zuri otoiaka / lo artzen det nik,  
Ama, zure magalean.

## I.

Ainbeste odol-iturri, ainbeste eriotza ...  
 oi, Begoñako Ama ! Ekaitz izu, gogorrez  
 odolezturiko irakintasun minkorrez  
 mundua, itzalduriko negarpean datza .

Sugarrez, izkillupean, bizia deseztuz ,  
 indarkeriaren eskubidez burutzen dira ,  
 gizonaren nortasun ta, ustek zapalduz ,  
 gitxi batzuon aundikeriaren irabazira .

Ez geiago gudarik, eriotzazko goraberaz .  
 Ez Ama ! Ez geiago odolik, ilketarik ,  
 ezinbizi zko biurrikeri ta, eztenkadaz .

Ez gaitezan izan ez, gorrotoaren meneko  
 erriaren kaltetan gizona lokarriturik,  
 bizia ospindu ta zakarkiro ondatzeko .

---

2

## O n d a m e n a

Ez geiago orrelako izotz begiradarik ,  
 orrelako oiú itzaltsu, ez orrelako  
 odeiburu aztun, bizitzearen onerako  
 egun argi berogarririk ez dakarrenik .

Ez geiago gaua, negar-malkoetan bildua ,  
 gaitzoagotuz gizadiaren izaera ituna ,  
 baizik, eguzkiaren dirdira eterritsua ,  
 anai arteratuz argi-ondasun biguna .

Ez geiago gorrotorik, biziitzá sustraiak  
 ta, gorputz gazteak moztutzen ditun aize baltzik,  
 odola dixuriten negarrezko iturriak .

Ez geiago biziaren aurkako eromena ,  
 ez sortuazi, ez eroin gaitzerako azirik,  
 aski dezabatuz gizartearon ondarena .

---

Muniategi-tar Sabin ♫


LAUGARREN ATALA

75 GARREN URTE-URRENA

### JURTE-URRENAK

Zaindari dugu Begoña<sup>ko</sup> Ama; Zaindaritza au,baiña,ez da gabetik gnizera lortutakoa,Bizkaiko seme-alaba sinestedunak Andra Mariari beti izan dautsoen maitasunetik erne.Irratua ta umoturiko fede bizi ta maitasun-enbor sendotik etorri zana baiño. Azkenez be,urteetan nona izan zana,Begoña<sup>ko</sup> Ama miraritsua,bizkaitarren Erregiña burestuna ta Zaindari bikaiña zan.Isoilla bat geunkan guztioak,begien aurrean; zer eskatzen dausku onek? -mak gu zaindu ta guk Aren birtuteak geugandu; nik eta zuk,guztioak,maitasunean eta gozo-tasunean batez be,Aren antzeko izaten saia bearra dugu. Izan beitez,bai,ingurukoak eta ondorengoeak,gure ikasbide onari esker,Maria'renak osa-osorik.

#### Begoña,arrezkero

Koroatze ta Zaindaritza egunetatik, eleizea ta torre -Jose Maria Basterra etxegilleak egiña da gaue daukagun lez- ornidu ta ederrtu ez-ezik, Andra Mariaganako jaiera be geitu ta geituz joan izan da,dudarik bage.Ortarako akulu lez iru zerok beintzat sitatu gelnkez: lenengo,Pio X<sup>ko</sup> epailaren 27'an basilika txikien titulua emon eutsan; gero,Konratzetzik 25 urte zirala-ta,jai aundiak ospatu ziran,1925<sup>ko</sup> urrillaren 11<sup>tik</sup> 13<sup>ra</sup> bitartean; eta azkenetik,1928<sup>ko</sup> urrillaren 11'an,Mateo Muxika Urrestarazu jaunak,Gazteiz<sup>ko</sup> gotzain zalarik, sagaratu egin eban Begoña<sup>ko</sup> Andra Mariaren eleiza.

"Este jazoera oniek be gogoratzen dauskuz A.Mañarikua edestigari argiak: jaunerak batzuk pozgarri yakuz,beste batzuk illun ta its.Munduko len-gerra ostean,esaterako,grise gogor hategi zigortu eban gure uriburua,Bilbao,ta 1918<sup>ko</sup> urrillaren 27'an, beira jatsi bear izan eben Begoña<sup>ko</sup> Amaren Irdia,izurri galgarri arretutik onik alera egizan gaixkutxuak; Aita Zakarias Martinez<sup>ek</sup>,Gaiteiz<sup>ko</sup> gotzaiñak,ainbat abade ta praille sagaratu zituan 1923<sup>ko</sup> gabonillaren 22'an; Garellano Gudaroztekoak, Afrika<sup>ko</sup> burrukaldiak amaitu ta etxera etorri ziranetan,aundiak ospatu eben euren sukaldeetara biurtzeori,Begoña<sup>ko</sup> Amaren aurrean, 1926<sup>ko</sup> azaroaren 27'an; 1928<sup>ko</sup> urrillaren 18'an,ainbat mexikotar apaizgai sagaratuak izan ziran bertron,Calles aingo buruzagiaren jazarpenetik igeska onratu ta Bilbao'n ikastetxe bat zabaldu ebenean; gogora baita, Mariaren Sintze Garbia siiskai autortu zanetik 75<sup>garren</sup> urte-urrena zala-ta, 1929<sup>ko</sup> abenduaren 14'an eta 15'an,Bilbao<sup>ko</sup> kaleetan zeair Begoña<sup>ko</sup> Amaren irudiaz egin zan biki ibildeun osoetsua be.

Bego emen aitatura beste jazoera illun au,Errepublika garaian gertatu zana. Bilbao<sup>ko</sup> Udalak,beinola erritarren naiez ete eskupekoz Jesus<sup>en</sup> Biltzari Gran Via<sup>an</sup> jaso ian yakon Iroitzerrria erastea,erabagi eben autarkizko alde txikiz.Bilbotarren biotzak onek ondo-hondoraiñ samindu zituan, eta 1933<sup>ko</sup> otsaillaren 31'an,orren irain aundiagaitik ordainotzitak eta eskariak egiten 25.000 milletik gora batu ziran Begona<sup>ko</sup> Amaren aurrean. Eratsi ta bea jo eragin nai eutsoen Irudiak zutik dirau oindiño. Eta zutik iraungo dabilera gizaldistan,bilbotar guztien poz-naigabeen ziñaldari ta gantzugaillu!

#### Konratzearen urrezko ezteguak

Sizitz-gurpillean urteak aurrerantzi. Laster etorren 50<sup>garren</sup> urtea Begoña<sup>ko</sup> Ama burestundua izan zanetik. Beraz,jaiak eta ospakizunak gertatu bearko. Olaxe, 1947<sup>ko</sup> maiatzaren lenengoan,Gazteiz<sup>ko</sup> gotzain zan Karmelo Ballester jaunak idazki bat zabaldu eben aida baten izango ziran jaien dei ta aldarrri legez. Deiaren atal batetik onela iñan:"Bilbaok,beronen Kontsuladu zarra ospetsu egin eben komertzio-lera ta bearrok eroango dautsoz Andra Mariari; Bermen<sup>ek</sup>, bere arrantale zangaren ontzidi indartsua; Karrantza<sup>ek</sup>, Ameriketara zori-billa joan yakozañ semeen yoranak,bere mendien bakeari eratsita; Zeberiñ<sup>ek</sup>, bere landa ta soloetako lan ixilla; Durango<sup>ek</sup>, bere etxe leiñargi ta prestuen jauntasuna; Gernika<sup>ek</sup>,bere tradiziño sagaratuuen betitasuna,bere Zugatzean eta Batzar Etxean irudituak; Lekeitio<sup>ek</sup>, lur ta ur kementsu egin davan giziburuaren aundi-miña; Markiña<sup>ek</sup>,berre semeen kemenetextu klasikuak diñanez adorez ta giza-betez erraldoi-errazakoak ziran"eta;Mungia<sup>ek</sup>,bakea alderdikeri ospetsuen gaiñ; Orduña<sup>ek</sup>, uritar jaunen tradiziñoa; "Galmatseda<sup>ek</sup>, bere tradiziño argia,foruz,nituraz ta ekanduz gaiñezka; Areataz<sup>ek</sup>,eleiz-dei-dunen loratze bikaiña, Arrati araneko eleizaldeen bereizgarri; eta Bizkai osak,-näiz-ta arin sámar,gaük ikusi bait ditugu apaizburu-mendeak-, bere landa,solo,zelai, mendi, itxas-alde ta ibaien inritisun aberatza,munduko lur-zatirik urriñeneraiño bere izena ezagun-azn dauenak nimbait"(Circular... sobre las bandas de oro de Coronación de Ntra.Sra.de Ma-

dre de Dios de Begoña, Gazteiz, 1947).

Era oñetan gozatsu egiñaz joian giroa. Eta zaberkeri barik,urrengo urteko maiatzaren 37'en,eun milletik gora bilbotar igoñ ziran,erromes-txango zoragarrian,Begoña'ko Amari oñitz egitera,bintz-maitasuna erakustera. An ziran,aurretik joanda,Bizkaiko mendi-gizaleak,torrea ta inguruak lopez beteten; an Bilbao'ko Atletik be,urteroko meza ostean,norgeiagoko leialean irabazitako ainbat kopa Andra Mariari eskintzen, Bai,Bilbao'k eta Bixkaia'sk maite eban Ama Birjiña,ta Bizkaia'sk -urte orretan Gernika,Lekeitio ta Markina-tik eratu ziran erromes-txangoak testigu- maite eban bere Zaindari kornatua. Gertaketa bikaiñak nimbait urrezko ezteguetarako.

#### 1950: Urrezko ezteguak

##### 1949-1950ko jorrailuetako eleizeak

1949'ko jorrailletik 1950'ko iraillerarte, bizkaitarrak urez ta legorrez e-ten bariak igoñ ziran erromes Artagan mendixkara,Begoña'ko zelai zabaletara. Beste aldetik,seme-alabak ezeze,Ama bera be,ibiltari izan yakun erririk erri,larogei ta bost egunez: jorrailaren 24'an Begoña'tik urtenik,Bizkaiko 171 parrokian eta ainbat komentu, ikastetxe,lantegi ta geixntegitan egon yakun; bi mila kilometrotik gora egin zituan kamin-burdi apaiñean ara ta ona,bere semeen lepo-gaiñ edo-ta itxas-ibaiak zear. Gernika, Lekeitio,Markiña,Durango,Areatza,Zeberio,Orduña,Balmaseda,Karrantza,Portugalete,Bermeo, Munjia,12 apaizburutako eleizeak izan eban Andra Mariaren ikustaldia. Mañarikua'k onela:"Erriñ,Amaren omenezko garaipen leraz,azaletik trumilka irauli ba'ziran, oraindik aundiagoa izan zan arimen barrutiko begirune ta omenaldia; ikaragarria izan zan ezpirituen dardara,erreskeda luzean autirtegi aurretan,millaka Jaunartze,bakea Jainkoaz eta,gi-zasemedakaz ez gitxitam,Amaren etorrera frutua zan"(Nta.Sra.de Begoña\_y\_su santuario, Bilbao,1950,194 pñ.).

Amaren mandatuak,bere itura eldurik,bete eban eukan xedea,asmoa.Egun aundi-rako deika ibilli zan hidez,mendiz,kalez; makiña bat uztai,aro ta lili-txortanetik igaro zan,aundiki ta erri xearen amaibako negar ta mosu artean. Azkenik,Ondarreta'tik eta Portugalete'tik zear etxerantza etorren,itxas-ontzi pilloa atzetik ebala; eta Begoña'ko Amek gure arrantzale,itxasgizon,baserritar,meatz-langille ta abar,labur,Bizkaia ta onen uriburua,Bilbao,bertoko industri ta salerosketa osoa bedeinkatzen zituan Ama-esku atseginingarri, urez etorren bitartean.

Idazle aipatuak oñera be:" "1949.garagarrillak 17. Andra Mariaren imajina ibiltaria. Bizkai guztian bakea ta maitasuna zabaltzen erririk erri ibilli ondoren,Begoñera biurtu da. Mantua euriak maiztuta ta arpegia eguzkiak zurbilduta dator Ama. Baiña Bizkaiko bazterrik ezkutuenetako gogoaizte usaintsuz baterik dator,bizkaitar guztiak Santu tegiko irudiaren aurrean batu direalako, gure asabak ikusi ta maite izan eban Irudi oñexen aurrean. Ezin esan zenbat kristiñau batu dan Amaren ondoan,gogo-biotzak su ta gar. Eta jendetza bintz-bero orren erditik deadar bat entzun zan -eztarri bakar batek egin, baiña erri oñak erantzuna emon-; erri baten miña ta maitasuna,gurari bizia ta otoitz batera ekazan deadar auxe:Begoña Andra Mari,guztion Ama!"(Begoñako Andra Mari,guztion Ama,1738-1903 liburuxka,Bilbao,1978).

Egun eundian gagoz:1950'ko iraillaren 8'an. Urrezko ezteguetan,ain zuzen be. Bizkuiko semeen bintz-garrak ez dau azkenik. Jentez beterik Begoña'rako bideak oro:txi-surreritegia dirudie angio injuruak. Amar t'erdieta,Gotzain-meza nagusia,Burgos'ko González Perez Plutiñ jauna erdiko dela,ta Leon M.Martinez ta Bilbao'ko beste txanburuak deduzko ta zerbitzuko laguntzaille dirala. Mezatan dira beste iru gotzainok be:Bizkarra jauna,Ereso'koa; Jaurregi basiotarra,Peru'ko San Gabriel de Marucon 'g'; eta Anbartsi Abasolo karmeldar agurgarria,Vijayapuram (India)'koa. Bertan ziran baita,bilbo-ter Udaletxe ta Aldundegiko aq nteriak,bertako Kofradikoak eta bizkaitar erria,aundi ta txiki,eleizea artu-alan beteten ebelarik. Reffice'ren "Missa Choralis" abestu eban Bilbao Ko eberbatz eta Koralekak; beste zati aldakorrak,oñera, Begoña'ko karmeldar gazteen ardura egin ziran,Aita Jose Domingo Ugartetxea'ren zaindaripean. Elezkizun eder-ederra!

#### Ibilkunde zoragarria

Lespikizunetako egitamuan iragarrita egnanetz, meza nagusi oñean, amabiak jia-ala,Begoña'ko Jainko-Amaren Iruddi kornatua Bilbao'ra jatsi zan,erromes-txangoen bideetik: Zumal-karregi'ren ibildea,Sendeja,Epaltza,Arenala,Bidebarrieta,Santiago eleizea. Asma-esinela jente etorren atzetik,kantari ta erreuz. Gezi-zorrotz antzera ziztatzen eban eguzkiak: leio ta balkoetatik more ta txalnak eter parik,dana zan kantu ta biotz-ni-

u alai. Santiago-ren eleizako altara aurrean dago Irudi ibiltaria, bidez bide lagundu dauen jentetza aundi-aundi begioean davelarik. Erriak bai gogoz "Agur, Erregiña" abestu! Ordu biak dira, egurdi ostean. Ur Begonía-kó Ama Jaurerriaren uriburuan, urrezko eztegu-jaietan zabal baizen dirdaitsu.

#### Begoña-ra itzuliz

Bizitzan ba-dira une zoragarriak! Bi-kai guztia ez ste egnan Bilbao'n? Iruillaren 9'an be, surreko egunen lez, biotz-ikutu ta zurrara biziz jíoak, bizkaitar laguntzalde izugarriak ebiltzan kalerik kale, Arenalean eta Bidebarrieta inguruuetan batez be:munden gu-tia zain Andra Mariaren Irudia noiz agertuko. Bostak eta laurenetañ ñunbait, igarrri eben Mariaren aqerrena kantuz ta, otoitzez millaka ta millaka eztarrik; agurka ta zorionka nun-naitik esku-zapiak; malikoak eta mosu emon naiak aidean zear... Ildar aundiko platuza zan, bene-benetan, Amari zerbaite adierazo gurarik.

Erria ona da, iñök gaiztotu ezik. Maitasunezko itxaso betea zárən egun joftan bizkaitarren biotzak. Erriberan zear ba-dabil ibildeuna, kanta ta otoitz; eskumatik zubia igaro ta Ernani kalean gora San Frantzisko'ra ignaz dna, astiro ta otoizlari; Mariaren Bintzaren eleiz ateetan "Salbea" abestu ondoren, ezkerrerantz Bilbain Zarretik zear San Anton itxirik, Zabalbide da kantu, ete otoitzez dardarazten... Seme-alabek eztarri zoli ta biotz berroz lagunduta, aldatz-gora doa Irudia, Begonía-kó Amaren Irudie. Amakatxu aberautsi ta lora-txorte azpitik igaro da, bere aunditasunezko ibilli neurtuan. Zortziretan eldu da bere eleizaurreko zabal-unera. Emen dira, alkarri bultzaka ta, biderik egin ezinik, errita eta eleiz-nagusi, gotzain, agintari ta besteak. Dizditsu geratu da Begonía-kó Ama argizuritan, bere egüitz bikaiñaren ate aurrean, araiño gar bizitan lagun izan yakozen bizkaitar zindnak, millaka ta millaka, bere begine samurrean ebazalarik.

Eta bertatik, agur egiten lez, Bilbainko lenengo Gotzainak, bezperan Burgo'stik etorrria ta arratsaldeko zazpiretain, sarrera iduri, Santiago eleizan, Begonía-kó Amaren irudi aurrean otoitz egin eben. Kasimiro Morzillo'k, onela: "Ene seme maitoak, Begonía-kó Amagan: Berrogei ta amar urte dira aspaldi bateko irudi au Bizkaiko Andra ta Erregiña lez burestundua izan zala; Erregiña danez, ba-dau al-izatea Bizkaia'n, baita legeak emon teko be. Andra Mariak emon dautsoz legeak Bizkaia'ri. Ba al dakizue, seme-alabok, zein dan Andra Mariak Bizkaia'ri emonako legerik bein eta nagusiena? Maitasun-legea, Kristok berak iragarrri euskuna. Orixo nai dau Andra Mariak be, Bizkaiko Erregiña; eta Bizkaia'k be gaur, Aren Korjat-etiko berrongei ja amägarren urte-betete ontan onartu ta sendo dagian guraria. Begonía-kó Ama nai dozue ama ta erregintzat; ar egizue, beraz, Berak damotzuen maitasunezko lege hori, ta maite egi-ue alkar guzti-guztiok... Auxa da menederdi-buru onetan Amak eskatzen dautzuena. Labur: maitasuna, maitasuna guztiion artean, guztiok bait gara bardin Amaren begietan eta biotzean. Berak bedeinka gagizala!" (Boletín Oficial del Obispado de Bilbao, I urte, 1957-58, 1961, 96 nr.).

Ondoren, etxerako bidean eta egean, bakotxak ixillik, astiro, miazkatu eban jaialdi sarein eztia.

#### Andra Maria'ren urtea

Andra Mariaren Srotze Garbia oraintsuko siñiskaia dugu Eleizan. Aita Santu Pio IX'garrenak, 1854'ko gabonillaren 8'an, siñis-bearreko egitzat autortu eben Amarijón, Ana bere amaren sábelean ernea izan zan une beretik, graziak aurretik artu ebalko, pekatuaren orban barik sortua zala, jatorrizkorik be ez ebala izan. Guretzat, alan be, etzan gauza barria: Euskalerrian, esanda itxi digunez, gure eleizak eta Gernika'ko Batzarrak testigu, misterio orri buruzko sinistea guztiz antxiñekoa genduan.

Pio XII'garrenak, jazoera au merezi ebanez ospatzearrien, Andra Mariaren urtea iragarri eben, 1953'ko irailaren 8'tik 1954'ko abenduaren 31'ra bitartean xps ospatu-ko zana. Bizkaia'n, barriz, Aita Santuaren gurari au ziñarritzat arturik, gertari bi jaituk genduzan: Gortez garbiaren súñikra siñiskai, eun-urte urrena ta Begonía-kó Amaren Bizkai g-iñeko Zaindaritzaurrezko ezteguak. Olan erabagi eben bertoko eleizgizonak eta agintarink, Goterkiko Gotzain Kasimiro Morzillo jaunarekin batean.

Jaiok alik egnkien egiteko, lenen, 1953'ko irailaren 8'an, goizeko amarreran, meza nagusia Begonía'n; bertan irakurri zan, Jose Arbelo'ren itzaldi ostean, Bizkai gaiñeko Zaindaritza erabagiz Errroma'tik beiñola etorri zan ariñea. Arrastian, Eukaristi ospakizun, itzaldi, Te Deum ta Salbeaz. Gero, urrillaren 2'an asiz 19'An amaitu, hederatziurren bat, egin zan, legorriak Amaren omenez, giz eta arratsalde, Jose M. Zirrda jaunak itz-egiñik. Azkenengo egnuneko gabean, Bizkaiko Gau-gurtzaille guztirik, Gran Via'ko Jesus'en Bio-

tzaren Oroitarri indien alkartu ta kantari Begoña'ra urreratu ziran, emen gau-bela egiñaz.

Irrillaren 11. Begona'ko Amaren jai nagusia, Amrretan, eleizea artu-alan jentez betarik eguna, Gotzain-meza Morzillo jaunak berak esanda; itzaldia bē, Bilbao Irratiz zaboldua, berak egin eben. Erriak, fede t uste beroz, "Angelis" mezea abestu eben. Arratsaldean, bostetan, Bilbao'ko Udaletxe aurrean asi ta Begona'ra ibillaldia, gotzain, eliz-gizon, aqintari ta erri osoak parte arturik. Andra Mariaren aurki aurrean amaitu zan lenago be sarrí samar burulu izan ziranen Antzeko Orreziō aintzagaria.

50'garren urte au ta Sortze Garniaren 100'garrena zirala-ta, zerbait geiago egin oñi izan zan sindiño: Nerbin'ko Mixiñoa. Jazokun zorragarri bi nimbait. Andra Maria, izan bē, ezta sendia edertzen davan irudi bat; geiago da, askoz geiago: Jainko gizon egiñaren Ama da: orixegaitik, dainkoaren eta gizonen arteko zubia. Gure betetasunaren ispilla, mundua argiz, onzez, itxaronenez, samurtasunez bete deroan Erregiña.

Andra Mariaren urte santua. Zer egingo? Mixiño eder bat, gure itxartu ta Berak fedez, goi-argiz ta maitasunez ase-bete dagian. Irureun bat mixinlarik orten jardun eben, Bilbao langilleari ta ingurkoai, lareun bat eleitzarri, Kristoren fedea ta maitasuna iragari ta Andra Marigandik oñia ta jantzia, lamaren poza lortzen. Begona'ko Ama bera mixinlarri izan genduan aste bitan; bere aurkitik jatska izan zan izlari ta mixinlarikaz parte artu egian. Kana'ko ezteguetan, ezkonbarriek arda barik aurkitu ziranean, Kristok, amaren esanez, egin eben bere lenengo miraria. Orain be ez eutsen entzungor egingo Semeak amari. Mixiñaren ameikeren, Pio XII'garrenak irrati-mezua bialdu eben Bizkai oñarentzat, eta berre bedeinkapen berezia. "Eta zuk, Begona'ko Ama txit deuna, zeure "Bizkai jaureeriko aurki guren" orratik, zeure seme on orrein zintzotasuna ta jaiera pozarren begira zagozan orrek.

"Eske egiozu zeure Seme maiteari euron alde, jarrai dagien beti eñren izaera ta istoria duinkirn eratzen" (Buletin Oficial del Obispado de Bilbao, 1953, gabonilla, 5'11 of.).

XII'garren Aita Santuak Andra Mari urterako otoitz berezi bat egin eben. Oña zatiño au: "Siñiste-iturri garbi oñi, gure adimenak betiko egien urez ase egizuz! Santutasun osoaren lora usaintsu orrek, goza gure biotzak ~~oñi~~ goi-usaiñez! Gaiztakeria ta eriotza azpiratzen dozuzan orrek, Jainkoaren begietan gorrotagarri egin daroan pekatu-iguin bizia sor-azo egizu gure arimetan! Jainkoaren maite orrek, zeuri eskinako urte oñetan biotz guztietatik jasoz doazan dei sutsuak entzun, arren! Gure zauriak oña ta gaiztoak oñdu egizuz; mingostuta, larri bizi diranen negarrak liortu; txiro ta apalak azkartu, gorronteak ito, oitura latzak leundai, ga, teen garbitasun-lorea jagon. Babestu egizuz Eleiza santua: ezagutu dagieila gizon-emakume guztiak kristau-bizitzaren edertasuna. Zerusten, zeure izen prezgarria entzuteak anaiak dirala ta erriak bake oñi zintzo batek betiko arri egitetako lortu leiken sendi bakar ~~oñi~~ bat baiño ez dirala, igarri beine".

#### Begoña'ko Ama Bizkaiako Zaindari, 1903-1978

##### 75'garren urteko ospakizunak

Urteak, goitik beerako uraren antzera, aurrera doaz beti. Gizaldi baten ogei ta oñsteko igaroak dira Begoña'ko Andra Maria Bizkaiako bere Zaindaritzat artu ebanetik. Igarrri bage txirristatu dira egunak, illak eta urteak. Beraz, ospakizun barri batzuen atarian aurkitzen gara. Irtarako Batzorde bat eratu zan Begoña'n, 75'garen urtebetetzea alik eta ondoren jaituteko ardurea eukiko ebana.

Batzorde edo Komisiño orre~~1978~~ maiatzean aurkeztu eben liburuxken azaltzen zituan jai etozan jaiak huruzko bere asmoak. "Danok dakigu -iñan- Andra Maria-gazko debozinoa gaur Eleizan alako barriztatze ene baten aurkitzen dala, Satikano'ko II' garren Batzarraren qurari ta asmoa danez; au da, albora laga bear dala arduraz sasi-geiekari guztia, baita gogo-zekentasun geiegia, Jaungoikoaren Amaren duintasun bereziari iku-tzerakoen. Ez geiegi, ez gitxiegi, dagonkiñ lekuak: kristau guztiok osotzen dugun Eleizan Kristo dugu sartzailea ta buru, ta Andra Maria Eleizearen Ama, Eleiz-Batzarrak diñoskunez (Lumen Gentium, 63-64).

Artu bideari jarraituz, asmoak eta alegríaak alkarganatu nai izan ebezan arretaz, Bizkaiko eleiz-barrutian baitik bat, Andra Mariarenkiko jaiera ta debozinok mila guztiai buruzko irakatsiak barri ta gaurko ~~egina~~ egin al iateka. Elburu oñek eraginda, egitarau bete bat osotu zan.

##### Iru abotsak: txartel baten esanaia

Izenburu oñek edertuta asi zan liburuxka aitatura. Maiarrikuatar Ander E-k lumatik urtena zan lantxo au; onela iñan zati batek: "Gernikako Arbolapean, Bi-kaiko

Jaurerriko Patzar Nausiak, 17'81ko garagarrillaren 18'an, "Jaurerri Prestu onek Begoñako Andra Mariari beti ta aldiore agertu izan deutsongorengoa oneraisnena ta maitetasun sako-na" gogoko izanik, bere Zaindaritzat artzea erabagiten dau. Urte ta gizaldi askotako jokabidea hantzetat artuen eban Bizkaia erabagi onegaz. Begoñako Amatzu ganako onerasoena bizkaitarren biotz-biotzean sartuta egnan, eta euren kondairako gorrabera guztiek Santutegiko bizitzan anertuko hira: antxiñako alderdikeri-burruak eta oraintsuagoa anai-arteko gerrek; bake-egunetako ugaritasun eta aberastasuna, eta baita ezbear ta mendamendi-orduetako ezereza bere. Erdi Arko antxiñatean asita, Begoñako Andra Mariaren irudiak, Artagan'e-ki bere eleizan, irribarrez artu izan ditu bere oñietara etorritako seme-alabak, bizkaitarrei bere Seme Jesus erakutsiaz: Salbagillea, Bakearen eta Ratasunaren Aita".

Bizkaia, ba, egnki ta zuzen zalako, Zainsaritzat artu bearra eban Begoñako Ama gozoa. Idazleak darrailo: "Bizkaiko haunak izan zirean Begoñako patroietak zarrenak; bizkaitar gu tien ama zan Ama Birjiña Begoñako; eta, orregaitik, Begoñako Andra Maria Bizkaiko Zindaritzat artzea Bizkai osnak egin bear eban: Bizkai foruzale zarrak, Aide Zarrak eta ola-gizamen Bizkaian, itxasgizon eta mixiglarien Bizkaia. Ori iragarteko, leku egunki bat bai io ez Bizkaian: "Gernikako Arbolapea". Eta abots bakar bat: eleizate ta uru guzien, Lurralde Lau, Durangalde ta Einkartalde osparen ordezkariana, Bizkaiaaren abotsa".

Bigarren abotsa zan Errroma'k, 1973ko apirilaren 21an, Begoñako Ama Bizkaiko Zindari Nausiat i-entatu ebanekoa. Irugarrena, ostera, 1949an, Begoñako Amaren Irudia Bi-kai guztian bakaera maitasuna zabaltzen ibilli ta, 1957an, Koronatze 57garren urteurrena zala-ta, ospatu ziran jaietakoa. Laugarren bat falta zan: igaz, Zaindaritzatik 75garren urtean egin ziran ospakizunena. Abots alkartze samurra, benetan!

#### Jai-egitaraua

Erriak beti, arima ta gorputz danez, aurrrera jo bear dau. Jakitunak ba-dabe orretan lanik, aurrerakuntza bidean gidari izan daitezan. Begoñako Amaren omenezko jai eratzaillek onela idatzi eben: "Gure asko ta erabagia, izan be, ez da besterik, geune indar-neurri harruan, Jainkoaren erriaren kristau balioak zuzendu, indarrazo ta laguntzea bai. Eta erlejiño balio orreitatik bat, euskal erri onetan, Andra Mariaganako erasprena, jaiera izan da: gogora zeuk zenbat izen eta deikun, zenbat ermita ta santutegi... Beraz, Jainkoaren erriari egiten yakon zerbitzu on bat legez, Andra Mariari buruzko irakatsi ta jaietako gaurkotu nai ditugu."

Eta ortarako, zientzi-gaiez gaiñezkako liburu lodiak bai, siñismen argia zabaldu ta indar-azteko ongi, obagoak izango zirala-ta, ikastaldi batzuk eratu ziran. Gure erriaren gaurko gizaseme ta gizartera baldintzak gogotan izanik, auxe egin nai zan: 1) gaurkotu Andra Mariari buruzko Bibli-siñiskaizko irakatsiak; 2) barriatu maitasuna ta beronen indierazmenak, gaurko jaietako jantzirik; 3) jarrai-azo gure erri fededunean Andra Mariaganako maitasun-sua; 4) zerbitzuz onizan maila guztietan, Andra Mariakiko ikasbide ta irakatsi egokiakaz. Fededun guztiek esku artu bearrez dagoz lan onetan.

Zati bi zituan lan-árloak. Lenengo zatia iraillaren 25'tik 29'ra beteko zan, egun biok barru zirala; eta batez be, itzaldia izango ziran, Bilbao Eleiz-barrutiko Itzaldi-aretxan (Henao, 5, 3' garrenean), Pastoral ardurredun, abade, lekaide-lekeime, ezlari ta Kristoren Barri Ona zabaltzen diarduenak esku artuta. Itzaldiok, Juan Mari Uriarte, Bilbao'ko Gotzain laguntzalleak aurkeztu ta Jose Luis Urrutia'ren zuzendaritzapean, onela izan ziran: Jose Goitia frantziskotarrak, "Maria, aurtzaro Ebanjelioetan" eta 26'an, "Jesus en Sorkunde"; & 27'an, Dinnisio Borobio'k "Andra Maria Eleizako ospakizunetan"; 28'an, Alkorta'tar Fernando'k "Gizadiaren bideak Andra Maria gurtzean", eta 29'an, Xabier Goitia'k "Maria, lenengo kristiñaua".

Ikastaldietara jniazanei egun bakotxeko gaien txosten zeatz bat eskura tzen yaken. Gai bakotxaren azalena etzan luzea izaten, eta orren ostean alkar-izketa iza-tan zan, duda-muak argi eitezan. Gotzain jaunak amaitzen zituan itzaldia.

Bigarren zatia urrillaren 9'tik 11'ra, Begoñako Eleizan bertan ospatu zan, erri osoarentzat zan-eta. Agurtza ta abar ondoren, 9'an, astelenez, Maizuriak "Begoñako Andra Maria Bizkaiko barne-kondairan" itzaldia; 10'an, astearte, Iñazio Goikuriak itzaldia, "Andra Mariaren eraspnetan bide barriak: Jainkoaren Ama ta Jesus'en Eleizan lenengo siñesle" gaiez; 11'an, eguastenez, Begoñako Amaren liturgi-jaiak, Bi-kaiak bere Zaindarriaren aurrean, beste ospakizun askoren artean, illuntzea meza nagusia. Onen ostean, Amaren Irddia Eleiz-aurrera jatsirik, "Shilbea" ta "Agur, Jesus'en Amar" abestu ziran. Egunero a-bestietan "Gitz Ala" abesbatzak, "Deustotarrak" eta "Sestaoko Orfeoia"-k parte artu eben kinta txukun samurrik abestuaz. Agurtza Deuna ta Angelus egunero esan ziran.

Lanaldi ta eleiz-ospakizun, jardun ederrak nurbait 75garren urtebetetako hiruatzeko, gora Begoñako Ama-bizkaitarren Zaindarri!

JAINKOAREN AMA

Jainkoaren Ama,  
 Ama guziz ona,  
 zaitzagun maite,  
 beti,beti.

Gure goresmenak / onets ditzazu,  
 gaitz guzieta bik / beira gaitzazu:  
 Jesus'ek beti zu / entzuten baitzaitu  
 beti,beti.

Zoin garbia zaren / errepikatzen,  
 lur guzia neodiz / ez da baratzen.  
 Gu-ganik eskerrak / ditutzu segurak  
 beti,beti.

Buk gure Amatzat / artzen zaitugu,  
 zu maitatuz bizi / nahi baitugu.  
 Azken itaera ino / kantatuko digu  
 beti,beti.

Emengo ersturak / ikusten tutzu,  
 guzien bearrok / badakizkitzu.  
 Beraz zure haurrek / emen Beira-zkitzu  
 beti,beti.

Beti berdin ahul / gaizki gabiltza,  
 Hoin meiz erdiratuz / zure bihotza...  
 Gutaz izan zazu / oii urrikalmendu  
 beti,beti.

O MARIA,IGAN ZARE...

O Maria,/ igan zare zerura,  
 ni nola naiz / oraino lurrean?  
 Ikusten dut/Ama doatsu hura  
 bere Seme / Jesus'en aldean.

Goazen,goezen zerura ..  
 egaldaka egun:  
 en Ama maite hura  
 zerbitza dezagun.

Oi Birjina,/ nahi zeitut segitu,  
 ez dut nahi / bizi mundu huntas.  
 Zeruraino / nahi naiz egaldatu  
 amadio egal zabaletan.

Aira bedi / gure bihotza,aира.  
 Ez dagola / lurrari josia.  
 Goazen denak / zeruaz gozatzera.  
 Goazen,goazen!/ An dugu Maria.

MARIA PEKATU BAGARIK SORTIARI

Arrigarritzko / edertasundun / Andra andiak,  
 Sare, Judit ta / Rakel eta zu / bere, Diña;  
 Benus da Palas / eta Pandora / zoragarria,  
 zein ederrago / gaur daizezue / alegría;  
 zein ederreña / zaren zuekan / ikusi daigun,  
 zeñek dozuen / galantasunez / artzen gauzak gaiña;  
 beña jakin bei / zuen artean / galanten danak,  
 beste bat dala / aren artean / gaur bikaiña.

Ausaz bazare / izarren gisan / erraňutsuak,  
 beste au jaku / gitxienetik / Iratargi,  
 eta bazare / Iratargia / benturaz bardin,  
 gaur sortu jakun / neskatile au / da Eguzki;  
 enparau Andra / guxtiak baño / baldin bazare  
 galantasunez / mundu onetan ikuagarri,  
 beste au jaku / gizon ta andra, / singeru eta  
 bere Egilla / danaren berr zoregarri.

Gi, aldi danak / baño lenago / berau egoan,  
 Jaungoikoaren / gogamenean / ikusirik;  
 izango zala / lenendaria / egin danetan,  
 bera añako / miragarri dan / bat bagarik;  
 lur, itxasoak, / mendi-errekak / egiterako,  
 aurkietan zan / Jauna beragaz / itsuturik,  
 danak guztia / baño lenago / zergaitik laztan  
 eban Dontzella / ain ederra dan / au bakarrik.

Ain da galanta, / ain da ederra, / dontzella ori,  
 dirudiala / Kades'en azi / dan palmea;  
 bere mosuak / begitanduten / deusku biziro,  
 larrosa eta / jazmintegiko / baratzea;  
 bere begiak / egun sentiko / izarrak dira,  
 karminezkoak / ezpanak, bata / zein bestea;  
 ume orregan / garbi dakusgu, / Jaungoiko batek  
 bota dabela / bere eskuaz / arraiea.

Bera dälako / utsik bagea / gauza danetan,  
 garbi ta argi, / illuntasunik / iñon baga;  
 berak gizondu / nai eban gorputz / aragizkoa,  
 garbia izan / bear zan nai ta / maiz ez bada,  
 izan bear zan / iturri urdun / berarizkoa,  
 bere bizian / loirik ikusi / ez ebana;  
 izango bazan / bertako ura / Jeungoiko oso  
 garbiak eta / guztizko Santuak / edana.

Zelan ez eban / bida egingo / orban bagarik  
 bere Amatzat / izango zana / bakarrik duin?  
 Zelan ez eban / beste danetan / baño geiagat,  
 begiratuko / akatz-bagea / izan zedin?  
 Bestela, zelan / garbitasuna / berbera zanak,  
 soñeko loiaz / gurako eban / jantzi egim?  
 Jaungoiko batek / ori egingo / ebala uste  
 dabenak, dauka / fede txarra ta / burua arin.

Eldu zan, bida, / eldu zan nozbait, / nai zan eguna,  
 Jaungoiko baten / Ama duin zana / sortuteko;  
 eldu zan, bida, / bein bere gertau / etzan gauza bat

gizonerentzat / zorionean / jazoteko;  
 eldu zan,bada,/ errua edo / grazia goian,  
 burruka garratz / baten ostean / ikusteko,  
 Oi Ze garaitza / baña graziak / jaritsi eban&,  
 arerioa / a-piratuta/ itxiteko!

Orrexegaitik / garailariak / bandera eban  
 inkau Dabit'en/ Gazteluaren / gallurrean;  
 ez ebalako/ sugeak topau / sartu-lekurik,  
 alako Torre / galanta sortu / izateko;  
 zeñek eukazan / jagola zintzo/ arduratsuek,  
 surrez jarrita/ bere inguru / dan-danean,  
 agaitik e,ín / arterik topau / al izén eban,  
 barruratzeko / Paradisura / zan antzean.

Mirari guztiz / arrigarri bat / bene-benetan,  
 une atan da / egiaztu ta / gertatua;  
 mirarigña / barriz bakigu,/ nai dabenean,  
 izan oi dala / gure Jaun eta / Jauhgoikua;  
 dakialako / bide eder bat / laster sortutu,  
 alde bitara / atzeraturik itxasoa;  
 dakialako / amatau baga / suari kentzen  
 erre egiteko / berez dakarren/ amorrua.

Oneik ta asko / geiago egin dituan Aitak,  
 ezin eikean itxitutenean itxi / alabea;  
 beste ainbeste / al daben Seme / arduratsuak  
 ezta ezaintzen / jarein Ama on,/ ain maitea;  
 bataz legetxe bestea, bardin / dan Espiritu  
 Santuak nastzen / ain gitxi largau / emaztea;  
 Irutasunak / ezin eikean / zabalik itxi  
 txerren sartzeko,/ beretzako zan / Eleizea.

Bere injuru / eta urretik/ bere kanpora  
 bicoa loia,/ baita beraren / kerizea;  
 bera bai,bera,/ infernuraño / Luzbel guztyrti  
 ainbeste gatxen / eta okerron / ekarlea;  
 armada andi / itzalgarri bat / norentzako dan,  
 orain sortu dan / ume graziaz / txit betea;  
 zeñek oñagaz / ari burua / triskau eginn,  
 sortu da sortu / itxaroten zan Dontzellea.

Au alan dala,/ zintzoro danok / siñisten dogu,  
 Pio andiek / fedetzet euskun iragarri;  
 beretzat daukan / irakastegi'/ gorenengotik,  
 adierazo / eutsan garbirib / munduari;  
 Gloria,bada,/ emowdaiogun/ al dan bestean!  
 Garaitzk kantau,/ gaur sortu jakun / umeari!  
 ez eutsalako / erruak iñon / bere ikuru,  
 sortu zanean / zorioneko / Mariari.

Felipe Arrese Britia

ILLUNTE EKO OTZOITZA BASEERRIAN

Eguzkiak gorde dau urrea arrats-kolkoan;  
guztia dago bare illuntzeako bakean.  
Ixillaren sakonak ots mendi-ganean:  
ots bako eresiak samur biotzean.

Iruntzaren laztanaz basoak lotara.  
Izadi-altzoan lok artu dauz eun lora.  
Gabari deig leenengo izarren disdisera:  
Biotz garbiak, ames gozoz, bakez dira.

Larrain ezean artzain mutikoak, samur  
diardu txistu-joten, zeru zabalak ur.  
-Ardi otzanak, entzuz, aldamenera zuur-.  
Bere eresiak galdu da urdinetan, zigur.

Neskatzen maite-kantak nozik-beinka, zoli;  
maiteminduek ezin entzumen estali.  
Dunboska, ardi galduak, ibilli ta ibilli,  
ezin dira, beingoan, besteekana itzuli.

Egunaren nekeak suntzi dira, larri.  
-Gau-egun bitartea gogo-laztangarri-.  
Mundu-atsegijetan barne-pozak urri:  
Illuntze kadena ames garbien sorgarri.

Eliz-kampaien otsak garden eldu dira,  
otoits-billa arru-zear, biotz-barneetara.  
Eskaritxu bat nekeen amaian onura:  
Eun gogok batera iru Agur Mari gora.

Baso, mendi, solo ta landetatik, sutsu  
illuntzeako otoitz leuna, zerurantz, ixiltsu.  
Gogo onen ordain, beera, bakea gozatsu:  
Baserriko illuntzea zeru-sundaz kutsu.

B.Aurre-Aprailz

MAITE ZAITUT...

Maite zaitut, Birjina Maria,  
 eta beti zaitut maitatuko.  
 Ama maite garbia,  
 nere bihotz guzia  
 izan bedi zuretzat betiko.

Nor liteke bihotz bat izan eta  
 zu maitatu gabe lagokenik?  
 Nik zu nola ez maita?  
 Ene baitan ez baita  
 zu maitatuz baizen zorionik.

Beinanene bihotzaren ahala  
 ain da ahul eta ain da guti!  
 Ai nik ere, oxala!  
 eingeruak bezala,  
 Ama, zure maitatzen banaki!

O Maria, zure bihotz barnetik  
 salta bekit pindar bat nitara.  
 Zure amodioxtik,  
 han su lotuz geroztik,  
 erretzetik ez nadien bara.

Zu baitarik pizturikako garraz  
 maita niro Jesus gehiago:  
 nere bihotz bakarraz  
 edo nere indarraz,  
 deus ez dirot, Ama, zuri nago.

Ez banauzu ni zuk beti laguntzen,  
 zein erorkor naizen badakizu.  
 Arren zeren ez naizen  
 bekatoros bat baizen,  
 zure haurra urrikal bekizu.

Zaldubi

AGUR, JESUS EN AMA...

Agur, Jesus en Ama, / Birjina Maria!  
 Agur, itsaso izar / distiratzailga!  
 Agur, denen iguzki / boz-argiz betea;  
 Agur, bekatorosen / leior pizgarria!

Agur gizonen Ama / eta Erreginal!  
 Ama gozo amultsu / oberik ezina!  
 Zu-genik urruntza / gauza da samina.  
 Agur bihotz barneko / nere atsegina!

Agur gure boz eta / atsegina guzia,  
 atsegabe ordutan / gozagai eztia!  
 Agur, Birjina eder / ein zoregarria!  
 Ar zazu bihotza, ta / orizu bizia!

S A M U R R A

(Atzerrian)

Nekeek arintzen  
 aldu natxatzu,  
 Amatxu, egun,  
 oin-oñetara.  
 Negar ta negar  
 naukazu, tamal,  
 malkoen samur  
 gardena lira.

Negar-erbeste  
 Bikoitz onetan  
 Zeu nire miñen  
 itxaropide.  
 Malko bakoitza  
 artu eidazu  
 neure eskabide  
 samien alde.

Atsekabetsu  
 nabil, Amatxu,  
 urrun itzelen  
 bakartadean.  
 Zeure laztanak  
 nire poz bakar  
 Barne-zaurien  
 larri ixillean.

Urrunetako	Malkozko otoitza
elizatxuon	Amari eder:
biotz-taupadak	Atsekabeak
dantzudaz uts-uts.	uxetau niri...
Malko leiarren	Uurrengorarte!
tamal garbiak	Zeu nire poza,
apain dautzue	an eta emen,
urrezko buruntz.	baso naiz uri.

S.Aurre-Aprailz

GUZTIZ EDERRA

Gau-erdia zan... Ezeren txintik  
 etzan entzuten; noizka bakarrik  
 pizti gautarren ulua...  
 Ito zituzten baztar guziak  
 illunpe lodi, nazkagerriak.  
 Bildur damaidan ordual  
 Kezka beltzaren osin aundia  
 zirudin ziñez erri-aldia  
 nagiz korapillatua...  
 Argi motelak dir-dir zegiten...,  
 sapai neurgean aldiz zematen  
 ontzaren begi galdua...  
 Ta illunpe orren egadapean  
 gogo gaxo bat iller gañean  
 zegoan loak artua.  
 Aldi-aldiska, geldi zetorren  
 mendi-ostean negar zerien  
 ezkillatxoen soñua...  
 Goit-ots garbia, goit-ots leguna,  
 ezkillatxoen eztitasuna!...  
 Esnatu zuten gogoa!...  
 Ordu berman jetxi zitzaison  
 anitz biziro argi zerion  
 Jaunaren goiaingerua...  
 Mugitu zuen esku ariñez...  
 Ezarri zion ezpain oztiñez  
 laztan sendo ta estua...  
 Ta aurkeztu zion lili txuria,  
 bere onaren antz-irudia,  
 aukeraz Jaunak sortua.

Gogoak: Nor zaitut, gaztetxoa, nor, zoragarria?...  
(Arriturik bezela) Zeren billa zatozkit?... Zein da zure naia,  
 oñetik bururaño zillarrez jantzia?...  
Nora zoazi gaztea, nora ain zolia?...

Goiaingeruak: Atoz, atoz lenbailen; atozkit gaxoa!...  
(Zaleki) Donokitik dakartzut gaur berri gozoa!...  
 Atozi!... Alaitu zaitez... Igitu, gogoai!...  
Ara zuri begira goian Izartxoal!...

Gognak: Zer diozu, gaztea, zer, nere kutuna?...  
Begira zeñen beltza or illuntasuna!...

Goiaingeruak: Pizkortu zaitez lasteri!... Astindu losuna!...  
 Nekin deramat beti nik argitasuna!...  
 . . .

Ego lirañez ~~x~~ estali zuen  
 ezkenik gogoa,  
 ta gaindu zuten ega luzean  
 mendiren lepoa.

Gogoak: Zeñen aratza, zeñen txuria  
(Tontorrean, Izartxoaren dirdira!...  
orpo puntatan, Zeñen maiteki begiratzen dit  
Izarrari begi- zero ortatik ludira!...  
ra)

Goiaingeruak: Laztandu nairik zugana datozi  
Izartxoaren izpiak.  
Dirdir dagizu... Lilluratuak  
damaie zure niniak.

Gogoak: Izar ederra, zoragarria,  
biotz erien zoruna!...

Goiaingeruak: Geitu zazula zure goraltza  
ziñez zaio-ta leguna!...

Gogoak: "Guztiz Ederra zera, Maria. (Biak aldiak)

Goiaingeruak: Guztiz Ederra, sartzeko garbia. "Tota pulchra  
es")

Gogoak: Zu zera Jerusalengo ospea.

Goiaingeruak: Zu, Israeleko pozkillea.

Gogoak: Zu, gure errien omen osoa.

Goiaingeruak: Zu, obendien bitartekoa.

Gogoak: O Maria!

Goiaingeruak: Birjin oarkorra!

Gogoak: O Maria!

Goiaingeruak: Ama Errukorra!"

### Loramendi

#### ZERU-LURREN ERREGIÑA...

Zeru-lurren Erregiña,  
bozkariol, bozkario!  
Piztu dela Seme Jauna  
egia dario.

Jainkoak graziaz apaindurik  
Gerbi zinauden;  
Jesus-en amatzat gaiagorik  
nehor etziteken.

Zu-ganik atera Seme Jainko,  
Gizon egina,  
itz eman bezela bizi dago,  
oi zer atsegina!

Urrikal, oi Ama Jainkoaren  
ain bihotzpera!  
Guziak gaitzatzu gaizkiaren  
obitik aterat!

Irekats urratsa beti artzen  
kristau atzean,  
orobat pizturik ser gaitezen  
ospetsu zeruan.

Zer atsegina gaur bihotzeten  
Kristo pizturik!  
Betiko loria dugun izan,  
Ama, zuk emanik!

AMODIO, OHORE

Amodio, ohore  
Ama Birjinari,  
Maria nota gabe  
kontzebituari.

Agur, agur, Maria!  
Agur, aguri  
Agur, agur, Maria!  
Agur, aguri

Bekatu gabekorik  
Adamen arrazan  
ez zu bezalakorik  
ez da nihoiz izan.

Maria zu ain garbi,  
ain saindu sortua,  
zuk duzu Sugeari  
leertu burua.

Jounak zu beti-danik  
zintuen beiratzen:  
zure Seme zuganik  
sortzekoa baitzen.

Jainkoaren eskutik  
ez da ateratu  
obrarik ain ederrik  
nola baitzare zu.

O Birjina Maria,  
zer konpara zuri?  
Elur egin berria  
ez zeit aski xuri.

Zure baitan, Maria,  
bertutea dago  
menidiko iturria  
baino garbiago.

Zutan gauza handiak  
jaunak egin ditu,  
eta haren graziak  
zaizkitzu gainditu.

Emažte pare-gabe  
Jainkoak egina,  
amatuz geroz zare  
gelditu Berjina.

Oi zu, Birjina saindu,  
Jainkoaren Ama,  
amatzat guri zaitu  
Semeak emana.

Oi zen puxanta zaren,  
Birjina Maria!  
Zeruko lormaren  
erdian jarria!

Zure haurren otoiota,  
otoi, entzun zazul  
Ama, zure leguntza  
zerutik iguzu!

Gure Ama maitea,  
zuk, otoi, zerutik  
eskualdunen fedea  
idukazu xutik.

Zaldubi

IZAR DISTIRANTA

Izar distiranta,  
Jaunaren lilia,  
dugun orok kanta:  
Agur, Maria!

Zu zinen hastetik  
berex ezarria,  
lehen bekatutik  
garbi-garbia.

Sainduen arteen  
denstan gorena,  
Jaunaren gortean  
zare lehena.

Zu zare Jésus-en  
Ama doatsua,  
zu bekatorosen  
ies-lekua.

Zu zare sainduen  
zeruko gozoa,  
eta Aingeruen  
bozkarioa.

Zeruko grazien  
ardietsailea,  
zu zare guzien  
laguntzialea.

Munduan engana  
eta gal ez gaitzan,  
er gaitzazu, Ama,  
zure gerizan.

Oren lazgarria  
eltzen zaikunen,  
zaude, o María,  
gure aldean.

Zaldubi

NORA?... GORAI

Ai, al bainfi  
tximista izan  
beekoaz gorai  
ibar motel  
onetako miñak  
izteko albora.

Narrastien  
antzera gabiltz  
lurraren ganean,  
egaz egin  
gurarik iñciz  
baiña eziñean.

Salbamena  
preamiña bizia  
edozein gizonek,  
bestelarik  
alperrik galduak  
emen egun oneek.

Ez da emen  
aziteko iñor  
geratuko, ausaz;  
ibil nadin erne,  
ta ez nadin galdu  
gizakiko lotsaz.

Goi-goirrantza  
joateko ba-de  
gaillu zoragarri:  
jaurti egidazu  
gorabidegille  
-lokarria, Mari!

E. Erkiaga

NERE AMA KUTUNARI

Eguzki-sartalde dir-dir dana...  
Ugarte arkaitzaz esitua...  
Zillar ari garden berritxua...  
Danok zerate Jaunaren lana.

Soro loretsu erdi-erdian,  
ager zérán zitori liraña,  
Jaunak makurtu da zure gaña,  
ta jantzi zaitu eder berrian.

Illunabarrian piztu zitum  
urrezkö begik itxu zeudenak;  
luzatu eten gabeko uiñak...  
buru zurikin ikusi nitun.

Jainkosa ed r zalia beti,  
arrats kezkatsu ikusi nuen,  
eder guztiek gallendu naieng  
zerekin ziaro zoratu ni.

Ordun egin zun, Ama kutuna,  
zure biotza ona xamurra;  
edozer baiño ederragua,  
m itasun sua indarra duna.

I.Olabaga

BETI ZINDUN BEREÀ

Beti zindun berea Jaunak, Andra Mari,  
 Jaunaren asmoetan lore ziñan beti;  
 lore, iratargi eta Egubarri-senti.

Bion Semeagaitik egingo zinduzen  
 Jaungoikoak zitorri, leiar ta lurrinkai.  
 Intasun betearen atsegin ziñean,  
 atsegin eta poza, poza ta ezkongai.

Irutan Bakar Arek amesti zenkusun  
 -bere Emazte, Alaba ta Ama bai zintzazan-,  
 oraindik ezer etzan aintxiña-ertzean.

Betidanik beregan  
 alkar-zale bizi dan  
 Irutasun Santuak,  
 kanpotiko maitasun oso baten pozeten,  
 Seme-Jainkoa Jainko-  
 Gizon egin zedilla erabagi eban.

Eta izan eitekezan izaki danetan,  
 bere diñak zirean agürtza eskeinketan  
 Aitak, Seme laztana, mende-burueta,  
 giza-jantziz ekusen begitu aretan,  
 zeu artu zindun gogoz asmo bikaiñetan  
 alako Semearen Ama zinteketan.

Emaztetzat autatu zindun Gogo Deunak;  
 Amatzat Seme-Jainko gizonduko zanak.  
 Kutunki zerabiltzan Iruten Bat danak.

Iturri, leize, muñio, mendirik,  
 iegor ez ibai, ez lur orporik  
 etzan, zu, Urtziren onu deunetan,  
 argitsu jaio aurretik.

Ezer etzan oraindik:  
 eguzki ez izarrik.  
 Baiñà zu ba-ziñan.

Aintxe zenbiltzan Jainko-asmotan  
 ago-ezpanez leize sakonak,  
 arau jakiez, Ardura Zaarrak  
 inguratzean; aintxe lur-gaiña,  
 zeruak landuz, txori kantuz ta  
 egurats argiz mamindutean;  
 iturri-begi gozoz iegorra  
 naro ezotu t'oiñarriz lurre  
 tinkatutean.

Aintxe ziñean  
 Indar-Aitaren ames eta arno,  
 itxas-gelgaitzen uin gogorrak  
 are ta arkaitzen barru bilduta  
 ibai uberkak

ur ariñentzat edegi zitun solas unean.

Garbi ta megatx, beti jostari  
zenbiltzan aintxe. Atsegin beti,  
betiraun sartu arren ziargi.

Garbia bandintz zure argia  
lausotu barik erabilteko.  
Aur banintz beintzat edo aingeru  
zure izen ori agoz artzeko!

Zuzi zarean mirari orrek,  
xautu nagizu ainbat argitan.  
Zu zaren leiar, zu zaren edur,  
zuri darrizun dizditan!

Izar-izpia, segail, zolirik,  
gau itzalean odoi artetik  
zabela poztuz azaltzen dan lez,  
ager ziñan zu - nekatu baltzez  
illun egoan  
mundu onetan-  
gizadiaren Erospen-senti.  
Eder. Euria ez ainbat garbi.

Ako sarrera, Orban gabea,  
munduan egin zenduan sarrera.  
Ako ditzira, oben-legea  
urratu eban, zure ditzira.

Egin zinduzan!...  
maiteki egin;  
zitorri egin eta izpi.  
Olerkaria ames leñnari  
lotu si dan lez lotu zan gero Jainkoa zuri.  
Zu zindun apar eta iretargi!...

Buru goibeldu-minduarentzat  
erlus itxaro-pentsamentua.  
Zer ete ziñan lur baltzarentzat,  
izarren izar aukeratua?

Zelan estali al izan zitun  
Ana deunaren ama-erraiak  
errugabeko zure soin orren  
printza zurien zidar-dirdaiak?

Zelan etziran argiz itxutu  
beitu eutsuen giza begiak?  
Zenbat erraiñu eben ikusi  
zugan aingeru begi-garbiak...

Zer argia goi,  
Ama, zu baiño?  
Zer zuriago?

Zuria goiak zearka doian  
ipar-odeien lits meia.  
Ondar gorrian itxas lukeak.

esne bitsezko ertz zeia.  
Ames uzitan zakusdien, Andre,  
soin ori baiña garbia:  
Ar-zurizkoe zure gorputza,  
arima babil argia.

Zentzuari zuk ez dirrotsazu  
garbitasuna ez bada.  
Samurtasunik gozoeneko  
neskatx leunena zeu zara.  
Irudi guren, iili-adaska,  
grazi-ontziá, lillura...,  
zeure gosetan jasoten doguz  
begi zimelok zerura.

Oi, sugar zaren jaseko Birjin,  
bular zirtazko zerua!  
Usaiñez ortxe beratu zendun  
abots-kirola soiñua.  
Maitetasuna maite dozuna,  
larrosa-buru biztua...,  
"Magnificat"-en bertso bakoitza  
afoiñu marra darua.

Betiraunean egiña dabe  
oztiña zure begiak.  
Arpegi izeki orretan dozuz  
Jaunaren musu aundiak.  
Ule bigunok sorbaldan beera  
urre ta ezti áriak,  
ezpan emeek goizaldez daukaz  
gaiñez darizun irriak.

Zein eder ditu zure koraiak  
amabi izarto brintzatul  
Adimen orrek gogamenezko  
argi obeek ba-ditu.  
Zuk esandako berba gitxiak,  
zazpirak dire jakintsu,  
jario ernaiz diraute ozen  
bulko guren non ixpillu.

Agur, garbia, beti garbia,  
zitorri, miro, garia.  
Jaungoikoaaren amesik leunen,  
Erospen egun sentia.  
Lore zeitugu, diranetako  
loretan, lore garaia.  
Zeu zara gure zorion-sustrai,  
abaro-abea ta argia.

Ezpan gozuk gernasa doguz,  
begi barrick izar bi,  
esku samurrok kabirrik epel,  
beso altsugok erruki.  
Zeu zara frutu bedeinkatuaz  
gure naikunen pozkari.  
Agur, Maria, Birjiñen gara,  
ames altu ta iretargi.

B. Gaudiaga

#### AURRAREN IPUIÑA

Amatxo josten ari da  
Aurraren soinekoia.  
Zuri-gorri-orlegia,  
aren eder margoa.

Urre gorri du aria,  
urre zuri orratza.  
maitasunak darebiltza  
aren esku-beatzak.

Urbillean dabilkio  
biotzaren zetia.  
Amarren gozotasuna,  
Aurraren pozkaria.

- Norantzako da, Amatxo,  
orren jantzi polita?  
- Zuretzat, eñe kutunxo,  
Amak ongi josita.

- Amatxo, ipuin polita  
ez al dezu esango?  
- Bai, eñe maite kutuna,  
ederra zuretzako.

Zeruetan singeruak  
ejaldaka zebiltzan:  
sietako ederrenea  
etxe ontan sartu zan.

- Nun dn,bada,aingerua?  
Amatxo,nun dan esan.

- Zu zera aingerutxoa,  
bai,maitea,benetan.

- Ama,nik ere badakit  
ipuin polit-polita.  
Nai al dezu esatea,  
magalean jarrita?

- Jhinko aundia zerutik  
ame billa jatxi zen,  
eta Betelenen Jain  
Aur txiki egindian.

Andre Mari,Ama onak,  
besoetan artu-ta,  
legunki zuen gozatzen...  
Amatxo,ekatzu pa!

Ataungo Bonipagi A.

### LEGEA BETE DAU

Zeiñek bete dau legea?  
itaune ezin obea;  
munduko egun urriak laster  
akaburako bidea.

Euskal-mendian irrintzi,  
gizonek bakez goraintzi;  
oiartzun zoli anaikorretan  
kalte-jantziak erantzi.

Aldapea dan nekatsu,  
urteen urte urtetsu;  
udazkenera eldu naiz,Ama,  
zeru-eskerrez beartsu.

Legea eusten agertu,  
zenbat bider nik lehertu;  
legerik eta lorrik ez gura...  
birtutez antzu,zahartu.

Urak joan eta gero,  
orma belu eta ero;  
une egokia iragarririk  
zakidaz Izar,zeruko.

E. Erkiaga

### ZUREERRAIETAN

Lore-begian  
goizeko intza.  
Zure erraietan  
Jaingiko-Itza.

O Birjin-lore  
lurrezkoa!  
O Birjin-errai  
Jainkozkoa!

Zeru ta lurra  
alkartzeko  
zu zaitu Aitak  
bitarteko.

Zure fiat bai  
miragarri!  
Neju ondoren  
udabarri.

Loratu dira  
giza-aienak,  
zuk erraietan  
eramanak.

Jainko-Itzarekin  
anai gera.  
Eskerrak,Ama,  
biotz-bera!  
Lorategia  
zure erraiak:  
Kristo lore ta  
gu anaiak.

- 0 -

Lore-begian  
goizeko intza  
poz-dirdiraz.  
Zure erraietan  
aien ta Itza  
poz-dardaraz!

Arteaga'tar L.

GABON ABESTIAK1-Izarren galdera

Zeruetako Jaun ta Jabea  
 jaio da Gabon gabeab,  
 asto ta idia lagun ditula,  
 estalpetxo xar batean.  
 - "Zerugoietañ kabitzen ez dan  
 Jaungoikoa estalpean?!"  
 Millaka izarño galdetzen daude  
 ori nola ditekean.  
 - "Zerugoietañ kabitzen ez dan  
 Jaungoikoa estalpean?!"  
 Millaka izarño galdezen daude,  
 galdetzen Gabon gabean.

2-Festa Belenen

Ostarte txulotik inbiriz dagon  
 izar bakar ~~maixa~~ arek ara zer dion:  
 - "Zerua ustu da gaurmílurra zerutu,  
 Jainkoa gizondu: dana aldrebestu!".  
 Ta emborru ziktak bertan artuta,  
 buruz bera amilduz lañotan il da.

Ez atertu, baña, Benelen festa.  
 Jesus dala iguzki, an egun baita.  
 Milla ta berrein ta bi aingerutxo  
 dantza sokan ari, txairo ta bero,  
 Anglo txilibitú ta tuntunero!...

Aurreeskua astean San Gabrielek,  
 zortzikoa kopla anei mingañek,  
 txalo otso arrotuz ortzirañoxe,  
 izar bekaitzia salatuz are:

- "Zeru osoa gaur gera Belenen,  
 Jaioberriari festak egiten.  
 Muxinka dagona ez sartu emen.  
 Aupa, zeru lurralki!, segi dantzatzen".

3-Eskaintza onena

Belengo berriona dakargu poz-pozik, nola Jesus jaio dan aúrtxo biurturik.	Badoaz artzaitzxoak aurtxoaerengana eskeintzen diotela arkumetxo bana.
- "Zergatikan, enetxo, negarrez oraindik?"	Jesusek esan die: - "Eskerrikan asko,
Ta aurtxoak erantzun du:	baña arkumeak baño biotzak naiago,
- "EZ da otzagatik. Meite, ez hautelako gizonak oraindik".	arkumetxoak baño biotzak naiago."

Zabaldu, aingeruak,  
 munduan barrena  
 maitetasuna dala  
 eskeintza onena;  
 ez dula nai Jesusek

biotzen maitasuna,  
maitasuna baizik.  
Maita dezagun, bida,  
guziok gogotik.

#### 4-Aterpe billa

Aterpe billa dabiltz  
Joxe ta Mari.  
Jesus jaioko baida  
aurki-aurki.  
Ezin, ordea, iñum  
estalpe txar bat arki...  
Emaoigun gureai!  
Tori! Tori!

Azkeniktopa dute,  
topa Belenaren;  
eta jaio da Jesus  
antxen-antxen.  
Etzen leku obea  
negarrez du eskatzen...  
Sartu gure biotzen!  
Emen! Emen!

#### 5-Belengo Amal

Mirari paregabea,  
Belengo Amal, zurea.  
Sortu diguzu, sortu zinduan  
guziz Goraren Semea.

Jesu bezin seme ta ume  
altzo ortan nai dut nik ere,  
eden ta edan bular ortatik  
zerurako azi arte.

Bederatzi illabetean  
azi zenün sabelean,  
t'urak besotan loxintzen duzu  
kabitze ez dana izartean.

Geroko ostiral batean  
Jesu ori ilko danean  
ta Ura gaberik zure magala  
uts-utsik, ai! galditzean,

Leztan, urruma ta musu,  
bular ematen diozu...  
Oi Amatxoren bera goxoak  
nola pozten duan Jesu!

Jesu bezin seme ta ume  
artuko nazu bai... ortxel,  
ta edango dut bular ortatik  
zerurako azi arte.

#### 6-Auxe mutikoa

Auxe mutikoa,  
Belengo aurtxoa!,  
urtetik ortera  
xaloagna.  
Lo dago, lo-lo.  
Ix, ba, ixo.  
Atek ideki  
pa emateko.  
  
Ona, ona  
Mariaren aurtxoa.  
Gora, gora  
Belenen jaioa.

Jainko ta gizona  
- gure zibrional-  
Relendik ostuta  
dakargu ona.  
Ene ba, enel  
Auxe da, auxel  
Orrelakoxe bat  
nork nai ez luke?

Ona, ona  
Mariaren aurtxoa.  
Gora, gora  
Belenen jaioa.

Txenpori batzun eske  
atarian gaude,  
Gabon abestia  
eskeñiz truke.  
Belengo poza  
nai dumak goza,  
etxekotzat artu  
aurtxo panpoxa.

Ona, ona  
Mariaren aurtxoa.  
Gora, gora  
Belenen jaioa.

Salbatore itxelena

EZII UTGA

Miren! Izen ehti uts, olerki iturri;  
jainkozko mosu baten gizaz jantzi antza.  
Nok,bear aiña, zure izena goretsi?  
Zure Ama-biotzan samurtasuna sintza?

Eper sortu-ezaren iduri argia,  
gaixoaren itxero, maitasun eredu;  
gogoz Jainkoantzat gai,soiñez ozkarbia,  
betikoa ezkerro, Zeu ederren zaitugu.

Itzalpe atsegia, Ama biotz-bera,  
sarriro entzun oi nik zure eztidun mintzo;  
ots dagistazu bigun barrengoa muiñera,  
goiz-arora dabelsan urretxindor antzo.

Begi-lauso,gogo-min,elorriz biotza,  
ludi-itxasoz ibil naz izu-lauorrian;  
zure kaia,atzenez,iku,izar aratza:  
ankilla dot egotzi ditxo bare-mian.

Maite-altxot aurki dot magal ehti ontan,  
poz-untzi ertzik bako,samin-aringarri;  
ta,zurea izan naiez, maukazu miñetan.  
Zakidaz aldi oro Ama maitagarri.

A.Dnaindia

SURTZAPI TXURI ONEKIN

Surtzapi txuri onekin  
jolasten gera:  
orain alde batera,  
gero bestera.  
Zapi txuria lurrera,  
zapi txuria eskura.  
Zapi txuri onekin,  
noan aurrera.

Nekatxeten politena,  
gure Elena:  
ortz bat du oso erteña,  
bbotz zekena.  
Zapi txuria lurrera,  
zapi txuria eskura,  
Arpegian du legena,  
oiña erreña.

Izarretan ederreña,  
Ama Birjiña:  
besoetan du Semea.  
Nor Ura aña?  
Zapi txuria lurrera,  
zapi txuria eskura.  
Gora dezagun Maria,  
gure Erreñia!

N.Etxaniz

## IOSU'REN OROITZAPENEZ

I

## A r g i a

"Ni Naiz Argia". Begiak goiturik,aizearen ondar-auts xea zerorkion buru gaiñera ta, arrats-usaizko leen izar,itzalaren ixiltasun ituna , gau-ontzakin batera ....

Oliondozko bidartez Aren giza-irudia itzalean ostendutzen zan,bakartadean ; bizi-ots ezbaiaren geldura goibeltia nabaitzen zalarik gaueratze ixillean ....

"Ni Naiz Argia". Ni Naiz ... Au lozorroa ! Ni Naiz BIZIA... BIDEA... ( Olibadia ta Zerua ... )

Bitartean , arako dei ezti,maitagarriz ,

Giza-bideak eratu ta,abots bedeinkatuz bein ta barri z oikatarik bare mezua gurutz-bidez zetorren aizea,erio-doñuz .

2

I Z A N S I Ñ I Z T E


BIZITZA,burrukatze etengabea izanik , ez utzi etzaten soin nekaldu aulari ; ez utzi bide erdian geratzen gogoari bildurrik ta,kokil, ai!,"mik ezin dot"esanik.

Izan siñizte,izan kemen,izan adore ta,IOSU uraren gaiñez zutik ta,artezik ibilli baldin bazan tinkelci ta,dotore , ez izan ez,surrera iarraitzeko bildurrik .

Ez izan arako orri utsezko pikoondoa bezala ezertako gatzik ta berakatzik ez duan gogo antzuzko giza-lapikoa . Izan argi,izan bai,bizi-ale ongarri; zerbaiten omura,zerbait eder aurkezturik izan munduaren,gizartearen aberasgarri !

---

Muniategi-tar Sabin



NEKEZ / MINEZ GUREKIN

Artaganeko Ama  
 tinko, sendo, gogor,  
 ezbear-ekaitzen zama  
 jasoz: samin, zigor,  
 neguz naiz udaz  
 sen batean, iraunkor.

Ama,  
 gure preminak ulertzeko gai,  
 lan, neke, txirotasun, erbesteko,  
 baztertu, ta zapalkuntzen menpeko,  
 naigabez, ezeukien oinazez, gure zai.

Maria,  
 guzurrezko susmo ilunen menpe,  
 ixileko ausnar, zotinen kate.

Joseren begirada larri, oinazetsuaren aurrean,  
 Maria mirabe zan, itsaropena bizi eban  
 izkutuko susmo zorrotzen mailupe ta artazipean.

Senar... lankide... zaar... gazte... auzo...  
 irudimen ausarti ta baltzak sorturiko susmo,  
 ezpata mee, luze, sarkor ta sakon arrazoibageko.

Susmo ibilkariak egaran  
 biotz-ausle mutu trixturan  
 ar gosekil errai samurrean  
 ixileko ausnar bakarrean.

Joan dira urteak  
 bukatu Joseren egunak  
 Jesusek bizileku biurtu bideak,  
 utsune sakonak ditu Mariak  
 bakartade otzoko ama alargunak  
 aragi gorritan jira-biraka barne-muinak  
 ezten gorriek janak maite-erraiak.

Etxe utsa  
 biotz zanpatzaile  
 gogo itotzaile.

Bakartade ixil, utsa,  
 esturaz larri biotza  
 leize sakon otza.

Bakartadeko Ama,  
eriotzera arteko zama  
zulo ilun sakona darama.

Zeuk ulertu gaikezuz bakar ta baztertuok,  
naigabe, samin, sumin mingotsak ondatzen gaitunok.

Maria  
saminduen pozkile  
zagoz gurekin  
lagun egiguzu  
ken gure bakartade-samin.

Ikus gure erri neketsu  
zenbat alkarrizketa agor eta antzu!  
Zain gure burdin gori gartsu,  
jagon gure itsas bizi uintsu!

--ff00ff--

Gure bizi-uin:  
gora-bera samin  
ifar baltz eta ego urdin  
ezaren gorri  
pozaren atsegin.

Ama baten samin, goraka,  
sabeletik gora gainik gain,  
betezka, ler-min, azken-agin,  
bere semearen mina ikusi ta jakin.

Jesus, jendeak liluraturik, mintzo ta mirari,  
bereala, baina, kritikak eta uler-ezaren zauri.  
Zer da nire semeataz dinoena? Jatun, edatun,  
publikano ta pekatarien lagun,  
deabruak artua, birao-esale, guzurti,  
il egitea ere askok -jauntxoek- nai.

Eta Maria an,  
auzoen begirada, esan eta ekinen zanpadapean.  
Jesus lotua, zigortua, eriotzeratua;  
erria oiuka: Gurutzera ori! gizalde axatua.  
Eriotz-aginean, iltzean, Maria an, gurutze ondoan.

Bai, ulertu gaikez berak,  
jasan bait ditu oihaze, zorigaitzak!

Geure diran kezka ta ardurak, mingarri,  
maite ditugunen zauriak, sumin ta samingarri.

3)

Zenbat gurasok negar, arnas-estuz bular, seme-alabak gogoan,  
ekaitz-bizitzaren olatu biziz, neke ta ezbear, lo bage gauean!

Zenbat gaztetxo, bakar ta amesiari,  
noraez gorritan, barri-aizetan igari!

Abertzaleak, zotin ta garraisiaka,  
aieneka, banatuta etxeak,  
eskubide ezinen sumina atzaparka,  
aberriaren -geurearen?- utsak muin-muinean.

Baserritarrak atsekabez, basetxeak baztertuak,  
etxe uts ta bizilagunen igesak itundu, ustua.

Langileria, zama ta zanpaden mailupe zapalean  
zapalkuntzak narrastuta, bekoen maila apalean.

Abadeak, ekinaren ondorio urri ta laburrez,  
euren abots ugarien oiartzunik ezaz, neke-minez.

Guztiok Ama bat bear,  
ezinbestezko entzule, jarraibide-izar,  
Maria, ezbearretan uler-itsas, malkoetan indar.

---lobo-4-

Maria  
saminduen pozkile  
zagoz gurekin  
lagun zakiguz  
Maria  
gurutzean garaile  
ken gure sumin  
uin ta ekaitz  
mina garaituz  
Maria  
nekez ta oinazez  
amatasun sortzaile  
kristauon atsegin  
arantzaz ta olatuz  
ludi barri sortuz  
mindura artean  
beti erditze min  
bizi barri eskeinka  
beti Jesusekin  
amatasun opaka  
seme barri egin  
zutik zagozala  
zutik egon eragin  
ZAGOZ, AMA, GUREKIN!

Doresteo Zugatzafr

ETA NIK ENTZUN...

Atxurkadak atxurkada  
egiñaz,sakon,lurrean,  
maitetasunari lur-emon eutsoen  
araiñegun illunabarrean.

Neue etxeetxoa  
nengoan  
bakartadeko  
txabolan;  
otsak entzun nituan...  
azkanean  
garraixi motel bat,  
eta geroan  
lur ezearen  
usaiña  
egutaroan.

Zure alteran,  
Ama,orduan,  
lora bi  
erre ziran  
kandela-kondoan.

Lora bi,  
auzo izenik  
eta adiskide.  
Atsekabea zuretzat, Amai  
Bitasuna ez da eta,  
zorion-bide.

E.Erkiaga

JASOKUNDEA

Jaunak bere ondara  
jaso zaitu,Ama.  
Zure begi gozoak  
itzuli gugana!  
Zerutarrak pozetan  
txalo eta oiu.  
Ama, zu ikustea  
koratu bait ditu.

Zure surrok gabiltza  
samiñez baterik,  
onbideko etsaiak  
ezin mepetrik.  
Zure laguntza gabe,  
Ama, guk zer egin?  
Zure bitartez Jaunak  
er gaitza berekin.

Ataungo Bonipagi A.

O MARIA, APAL, OTOI...

O Maria! O Maria!  
Apal,otni,enegana  
zure begitarte one!

Ene Ama, zu zarena,  
zeruko izar garbia,  
goizeko alba eztia,  
gauazko gidaria!

Ene Ama,zu zarena,  
zure baitan da guzia,  
graziaren iturria,  
Eva salbagarria!

O Maria! O Maria!  
Bekatorosen argia  
eta sokorria!

O Maria! O Maria!  
Zor dautzut ene bizia,  
zure naiz guzia!

Z E U B E A K     G O Z U Z

Neure billoiztasun guztia  
auzpeztzen dot, Ama,  
Zeure aigerrean.

Ez daukaturre-pitxirik,  
ez zidar-bitszik,  
ez txirlarririk  
ez arri dizdiratsurik  
Zeure burestuna apaintzeke.  
Utsik daukadaz eskuak,  
baso-gizonaren esku latzak.  
Baiña... Bai!  
Emen nozu nazan guztia,  
grinña ta pekatu,  
akats eta birtute  
(birtuterik baldin ba-dot, beintzat).  
Eta,  
Zeure oñietan isten dodaz  
basoko gizonen pozkida itxaropentsuak,  
eguzki-sarreretan munduak ixurtzen dituan kadentasun,  
larri-aldi ta goibeltasunak,  
abean zador,+ atsekabe ta itzeltasun ezkutuak  
eta bai-ta, goizerik gabera entzuten dodazan  
naibaguetuen erosta ta nekeen anotsak.

Larri dabil mundu zaarra  
oñiarri barrietan jagi guraz,  
baiña ez da gogoratzten Zugaz...

Zeureak gozuz, ba, gu, Ama.  
Ez dogu zapuztu gura  
mendez-mende lokarri sendoz eldu izan yalkun  
Zuganako oneraspen eta zaletasuna.

Leengo ta oraingoen  
maitetasun-ezaugarri  
gatorkizuz, gu, Ama,  
Zeure oñietara,  
atsekabe, pozkida, otoitz eta biozkadak,  
belaunik-belaun, dakartzuguzala.

Txikitxutatik gara  
Zeure magalpeko  
ta Zeugan uste osoa dogula,  
ez gaitu ezelako galsorik ikaratu izan iñoz ...

Artagan-tontorreko toki eder orretatik,  
(Begoña'ko jauretxe maitagarritik).  
zaitez, ba, surretrantzean bere  
gure bide-erakusle ta zaindari.  
eta emon, arnasea ta bakea,  
Euskalerritari.

J. Ane Arnaiz + ~~baserri = esku~~ tuko

==== ++ ==

AMA MARIARI

O Maria,  
neure argia,  
neure poza, neure Ama,  
zeurre leguna  
dala-ta, ona  
kantaz nator zugana.

Ai,nok leukan,  
neuk nai neunken,  
zeruzko abots leguna,  
kantatzeko  
ta ospatzeko  
zeure garbitasuna!

Nor legoan  
zeure ondoan,  
entzuten santu-santak  
ta aingeruak  
ta zeruak  
eiten dotsuezan kantakt

Ta il-orduan,  
oi-buruan  
ikus zagidazala,  
rieugaz baten,  
guzurtutene  
Txérren deunga zitala.

Mariari  
ein eskari  
kanta ein ezin deutsanak,  
ba kantari  
eztanari  
be baki entzuten Amak.

Gaur Amari  
ein eskari,  
ta emongoskuz graziak,  
izateko  
bere antzeko  
seme-alaba garbiak.

Ama zori  
oneko ori  
zara benetan Ama,  
ta ez eizu itxi  
asko ez gitxi  
laitzen zeure laztana.

P.Zamarripa

MAITASUN EOERRAREN AMARI

Zeñeri,Miren,zuri izan ezik,  
abes nerea zuzendu gaur nik  
pozez beterik?  
Zuretzat ezta,zeñentzat,Ama,  
nere abesti eztitsuena  
ta samurrrena?  
Nola basteri neike abestu  
eder-ederren egin ba'zaitu  
Urtzik,maitez,Zu?

Zerade,Miren,bigun,eztia,  
eskar txit deunez apain jantzia,  
zu jainkotia;  
oskarbi eder,euzki argia,  
neskutz txit aratz garbi-garbia,  
berdin gabia;  
zu,Anderi aundi ta Bakalduna,  
goi-baratzeko Lore bikaina,  
gelgarriena.

Donoki poza, lili gorria,  
Izar txit argi dizditzallia,  
uso txuria;  
Urtzi-maitia ta Ama laztana,  
erbéstetuen itxaropena

ta zoriona;  
zeñeri bada,Zuri izan ezik,  
abes nerea zuzendu gaur nik  
pozez beterik?  
Bañan,donoki-edertasuna:  
nik,naizen onek al nezakena  
Zuretzat,zer da?  
Ezerez onak,ze esango dizu?  
Zu-edertasuna nola edestu,  
nola,ba,abestu?  
Otsain gaxuak Bakaldunari,  
itzal itunak Eguzkiari  
zer eman legi?  
Ene Andera: nere ezinian  
auspeztutzen naiz zure aurrian,  
si,zerbait naiani!  
Ta zeradenez neskutz laztana,  
Ama maitasun ederrarena,  
deitu zugana;  
zure altzuan ikasi deitan  
dagokizun lez Zuri jarduten,  
majitez abesten!

Tene

AGUATZA ABESTUA

## I

Bozkariozko bortz misterioak1.- Anontziazionea

Adoratzen zaitut,/ Berbo dibinoa,  
 zeren egin zaren/ gizonene gatiki;  
 eta zuri dautzut/ ohora osoa,  
 amatu zarena,/ Birjina egonik.

2.- Bisitazionea

Birjina saindua,/ zuk egin bisitaz  
 Joanes bate baita / betikotz graziez.  
 Merezi dezagun / gozatzea zutaz,  
 zu eta laguna / maitatuz bihotzez.

3.- Jesus Jaunaren sortzea

Pobre sortu zare,/ Jesus, establian.  
 Adoratzen zaitut/ egun lasto-pean.  
 Umilki noala / hizitze guzian  
 erakutsi duzun / zéruko bidean.

4.- Mariaren purifikazionea

Birjina temploan / purifikatua,  
 eta sustatua / Simeon bezala:  
 zuhaurek eskeaini / Kristo amultsua  
 azken atseraino / gogoan dugula.

5.- Jesus temploan kausitzea

Amak, nigarretan / Semea galdurik,  
 bozik aurkitzen du / Doktoren erdian.  
 Jesus, ene hutsez / nigarrek eginik,  
 aurkituren zaitut / nik ere agian.

## II

Dolorezko bortz misterioak1.- Jesus Jaunaren agonía

Egorri kalitza// Jesus, duzu artzen.  
 Eroria zaude / manu dorpearri:  
 ni ere nitzaio/ bihotz guziz jartzen  
 zer nahi penetan / zure nahiari.

2.- Jesus'en azotatzea

Jesus, arroinari / larru-as lotua,  
 azotez zaituzte / zauritzen salbaiki.  
 Egizu ni ere, / noiz-nahi erstua,  
 gaitzentsat ez nadin / izan minberegi.

3.- Jesus'en elorri z koronatzea

Erregen Nausia,/ era odoletan  
 erraz eta trufaz / zaituztela eman,  
 Eta nik, ezdeusak, / plazer guzietan  
~~bixka~~ bizitza labur hau / dezedan ereman?...

4.- Gurutzearen garraitzaea

Iseak berria,/ Jesus, ene-gatik  
 artu izan duzu / gurutze dorrea.  
 Gogotik jasanen / dut zure ondotik,  
 animoz baterik, / nik ere neurea.

5.- Jesus'en gurutzean iltzea

Zuk osatu duzu,/ Jesus,gurutzean  
obra guzizkoa,/ gure erospena,  
Erakusten duzu / orrela iltzean  
gure salbatzeko /karrik biziens.

## III

Loriazko bortz misterioak1.- Jesus'en piztea

Jesus ilik piztu,/ oi zer bozkario!  
Ni ere berekin / piztu nau grazian.  
Oi zer ezagutza,/ oi zer amodia  
bikturen diot / bizitze berrian!

2.- Jesus'en zerurat igaitea

Zoaz loriari,/ Jesus Jauna,zoaz  
enetzat leku bat / en aldaratzerat.  
Etsaien artetik / grazien laguntzaz  
el-araz nezazu / loria bererat.

3.- Izpiritu Sainduaren jaustea

Izpiritu Saindu,/ lurrera jautsia,  
betea zarena /zeruko indarrez,  
ene bihotzean / pitz zure argia,  
erre bekit,Jauna,/ zuganako karrez.

4.- Mariaren iltzea

Amadioz zare / biziaz gabetzen.  
Birjina saindua,/ zoaz loriarat.  
Nik ere neurea / dudanean galtzen,  
zaren bitarteko / el nadin artarat.

5.- Mariaren zeruan koronatzea

Ama doatsua,/ zero gorenean,  
zure Aur maiteak / zeitu koronatu.  
Errespetatzen dut// ahuepez,lurrean,  
zure boterea: sokorri nezazu.

AGUR, ERREGIÑA

Agur,Erregiña, Ama errukiorra,  
gure bizitza,gozotasun eta itxaropena:Aguri  
Zuri deiez gagoz,Eba'ren ume erbestetuok;  
antsiz eta negarrez gatorkizuz negar-erri onetan.  
Ea,bada,gure bitarteko Andrea:  
zure begi errukitsu orreik  
gugana biurtu egizuz,  
eta erbeste onen ondoren erakuskuzu Jesus,  
zure sabaleko Seme onetsi ori.  
O biotz biguni,o errukiori,  
o Maria,Birjiña gozoa!  
- Gure alde otoi egizu,Jauengoikoaren Ama done orrek,  
Jesukirstoren agintzariak jadetsi daikeguzen.  
Amen,Jesus.

BIRJINA MARIA, AMA MAITEA

Birjina Maria,/ Ama maitea!  
Jaunaren graziaz / zare betea!  
Zeru guziaren / edergailua!  
Zure aurrez urrikal zaite!

Zeru beltzenean / izar garbia!  
Lanhoen erdian / ergizaria!  
Itsaso gaixtotik / libra gaitzatzu!  
Mariñela oihuz / zuri dagozu !  
Zure aurrez / urrikal zaite!

Elur utsa bezain / xuri zarenai  
nota gabekoa;/ ur garbiema!  
David erregeren / aur sainduena!  
Josep garbiaren / espas izana!

Zure aurrez / urrikal zaite!

Zeruko atea / egin zarenai  
Guri erregintzat / Jaunak emana!  
Bekatorosentzat / otoitz egizut,  
oro besoetan / tinka ~~gaztak~~ gaitzatzu!

Zure aurrez / urrikal zaite!

Eliza Amaren / begiralea!  
Aita Sainduaren / argitzailaea!  
Gure Herriaren / artatzailea!  
Etsai andienen / bentzutzailea!

Zure aurrez / urrikal zaite!

Gure eresturetan / lagunt gaitzatzu!  
Eskualdunak oro / zure gaituzu!  
Lurdeko Birjina,/ urrikalmendu!  
Zu nahi zaitugu / orok maitatu!

Zure aurrez/ urrikal zaite!

J.Barbier

ORAITIK...

Oraitik,  
oi Ama maitea,  
naiz zurea  
gogotik.

Boz batez  
zaitugu laudatzen,  
ohoratzen  
bihotzez.

Gau-egun  
oihuz nagokizu:  
oi nezazu  
zuk lagun!

Oi guri  
zuk zer ontasunak,  
fagoreak

Ni-ganet,  
oi Izar argitsu,  
eda zazu  
pindar bat.

Gazia  
nadin izen zure  
betiere,  
Maria!

Begoñako Ama Bizkai'n erririk ~~enik~~ erri ibilli zanekoa (1949)

Vursoakandik ikasi gendun  
sure izena gozo,  
betidanik zure irribarrea,  
pobre ta zapalduentzat bizi  
ezilkor sustrieta.

<sup>a</sup>  
sta era non, egun bateq, poz-dardara,  
egundo tuk entzun bakoa.  
Zeu ziñan etorteko, zentozan.  
Eta pobre ta zapaldu sendoak  
danak batzen alai  
jai-lanean eskuartzen.

Zar, muraso, neska-mutil,  
alkarturik gertakuntza pozgarrian.  
Ereñotz abar ta lorq~~et~~ txortaz  
arkuak eta ondo-otorriak Jasoten.  
Barru-ixillaren samin eta pozak  
bañun, umilde, ereñotz orrieta.

Mutik gazteak, alkondara zuri,  
bixikletaz pilloka Zuri lagun.  
Zuk, Ama, ume ta gazte lotu  
egun argi bai argi aren biotza.

Baiña dana une bat izan,  
irribarre bat, igaroan.  
Eta, gero, dana barriro oroi-itxaropen.

Garbi, garbi, garbi.  
Orain ain urriñetik  
argi aren urdiña etorri.  
Beñien biguna, eskuén erdi-agurra,  
igaroan, igaroan.

Geroko ekatzak, arrilosak,  
egun aren goiza itzali ez.  
Urrin, bai, oi urrin,  
itxaropen soillik balitzan,  
oindio nozonoz zertatzeko,  
beste aberri baten danok batera  
eskuartzeko jaia balitzan.

Zatoze, denok, goazen  
egun aretarantz.  
Noiz arretako maite guztiek,  
zatoze, urriñeko argi-laiñotik,  
zatoze egun aretarautz.

Luis Arostegi (1979)

Lurrak, urak eta beroek

Lurrak, urak eta beroek

adoratua Iauna:

Mariaren sabelean:

sortu duzu belhauna.

Iguzkia, ilargiak,

Kristo bai zerbitzatzen:

eta Kristo hau pietos,

Birgina ganik sortzen.

Deus guziek egiteko,

zein baita bnteretsu:

Haren ama izaiteko,

izan zare dohatsu.

Zeruko mandatariak

deitu zaizu grazios:

Zuk geraziaz joio heren,

gu baginen desiros.

Birginaren Semeari

sekulako loria;

Aita bai Espirituari

orobat aheria.

K.Harizmendi

O Andre loriakoa

O Andre loriakoa,

zeruez goragokoa:

nork baitzaatu kreatu,

ugatzaz duzu bazkatu.

Eba tristeak galdua,

zutzzaz dugu bidaldua.

Egin zara zu leihoa,

gu zeruan sartzeko.

O Erregeren atea,

arraitasunez betea:

boz bitezi gendeak,

huna salbo mendeak,

Birginaren Semeari,

sekulako gloria:

orobata Aita zuri,

bai Espiritu sainduari.

K.Harizmendi.

ANDRE DENA MARIARI

Zeruetan ene zarenx  
adhortatzat jarria,  
iduk-azu beti arren  
enegana begia.

Ikusteko non nabillan,  
ala zure mendotik,  
ala menean nabillan,  
hastantzko bidetik.

Senti nauzubazain laster,  
noala hastantzera,  
egizu zuk ere laster  
ene faboratzera.

Bitartekntzat ugatza  
embozu semeari,  
eta semeak bemoatza  
bortz zauriak aitari.

Zeruraiño arribatu  
sta ikus artean,  
Aita, Seme, Espiritu,  
zu hekién batean.

P.Argaiñaratz

SORTZEZ GARBIAREN GABA

(Maregall'ena)

Gaur gabeko zeruan urdintasuna!  
Betirauna ikusten dala bai dirudi.  
Illargi ta izarrak ziar, betirauna  
odejak bapere  
laus-turik gabe.  
Illargi ta izarrak gabaren donean  
osertze barikan ortzi urdiñean  
ainbeste distiraz argi egitean,  
lilluratutenean yat bertantxe gogoa.  
Gai da gaurko gaba, gau Jainkotikoa!  
Bai da gaurko gaba  
gau zerutikoa!  
Berak dirdiratzen daun ozkarbi-ziar  
Sortzez garbi ori jasten da zerutik.  
Izar bakintxa izpi geiagoz bizturik  
lontazilleko gau betean jasten da.  
Ixil da ludia,  
leundu da aixia.  
Zaratage dator... Ni gaban urdiña!  
Ni gaban bikaiña!

Lauaxeta

EUSKAL ABESTIA

(Ama maite, Maria erri abestia lez)

Gure gazteen abots bete-nasauak  
igande goizetan  
Ama Birjiñagana batera igonak.

Arima erdi-erditik dira urteten,  
eta gorputza bete-betean igarorik,  
aidean dira garbiki aurkitzen.

Mutillak eta neskatillak  
euren kantuan daroe soin-zear  
elbitz bigunaren ixilla  
lsiñio ta udabarriaren artean,  
eta mendia eta itxaso  
ta gure errria oso-nsorik.

Jolas eta dantzarako be egiñak,  
eta poz-jario ta alai onerañó,  
barru-barrutik emon daroe  
maite-su ézti jasanaren larria.

Urteak igaroz doazanean,  
zuon bikaiñik bikaiñena  
Andra Maria'ren besoetara dignen  
kantu bete orretan da geldituko.

Maiatzeko aize-bultzean  
naiz irailleko euri-jasean,  
barnean entzungo dozue, beti gazte.

Luis Aroztegi

AMA MARIA!

Ama guztien Ama, gure maitia!  
Amorioz betia, mantxik gabia  
Zugana gatoz, grazien iturria!  
Ikusi zazu zure dala Euskal-errria!  
Zurea, bail!, guk degun biotz guztia,  
zurea lorenaren usai esztia,  
zurea txoriaren kabi txikia,  
zurea gure aurren erregu txia!

Ta zu zeiñ zera?... Gaitz da nik esatia!  
Urrikaldu jaixoen izar argia,  
oen alargunaren laguntzallia,  
beren alabatxoñen gordetzallia,  
zenbait negar tristeren txukatzallia,  
erintzeko orduan txit pozgarria!  
O zenbat de zun maite pekataria?  
Zerura daramazu!, nola ordia?  
esanaz: zatoxi!, zatozi!, nere semia!  
O Amatxo, Amatxo! Ama maitial.  
Zugandik etorri zan Jesus guria!  
Ezagun da hor zeran: Abe Maria!....

Antonio Arzak

BIRJINA MARIAREN SORRERA GUZIZ ORBAN  
GARBIAKIKO ORDIU ORNAK

(Aita José Antxeta (1533-1597) Brasilgo aostotolu Jesusen Lar  
 gundikoa latinezko safiko neuritzetan egia, J.I. Arana k euskeraz ja-  
 rrita).

Goiz Orduak

Gizonen negar luzez errukirik  
 munduko Jaunak, zerura irikirik,  
 biältzen dio Ama-ri galaia,  
 Aingeru alaia.  
 Esaten dio, Ama izango zera  
 zeruko Aitaren Alabatxua bera:  
 onek du itxiko Jauna sabelean  
 gizondutzean.  
 Au izango da txit otsandikoa,  
 guztien gañez zorioneakoa:  
 poiez-szinik dago San Joakin  
 au jakiñakin.  
 Gloria Aitari eta Semeari  
 Megone-Santu ta Ama Birjiñari,  
 zeña dan izan orban-gabe sortzez  
 mirari ederrrez.

Leenengo Orduan

Astinduz arin gabaren illuna,  
 Maria da argi egun-sentiduna,  
 zero urdiñentzat ere miragarri,  
 gniz zoragarri.  
 Itxas-izarra degula jaino,  
 alai zaitezte, lur eta itxaso;  
 au da gizonak salbatzeko dama,  
 Jesus-en Ama.  
 Lur eta zero, arritzen da dana  
 ikustez ama, idor zegoana;  
 Birjina jaino, ta ez dala zikindu,  
 leizeak mindu.  
 Gloria Aitari eta Semeari,  
 eta Espiritu Jainko bakarrari.  
 Alaba au sortzez pozkidatzen dala  
 mundu zabela.

Iruko Orduan

Zeruko galai Gabriel-ek dio  
 Maria oni, bear dezu jaino  
 zure erraietik Jainkoaren Itza  
 grazi-ixuritza.  
 Sinistu dezu, kendu bear dala  
 Eba-ren gaitza, zugan dagoala  
 Jauna; agur, agur, graziaz betea  
 izan zaitea.  
 Itzal emanik Espiritu Santu  
 Jaunak orduan, nai du beregandu;  
 eta orra bertan egundo ez egiña  
 Ama Birjiña.  
 Gloria Aitari eta Semeari,  
 Megone-Santu ta Ama Birjiñari  
 Jainko bera onen sabelean

Seiko Orduan

Birjiña mendiz-mendi dator bera  
Joan donearen ama albistatzera,  
agur diola lengusu berari  
Isabel-ari.

Onek Maria aitu bezin laister,  
Auña saltoka sabelaren baxter  
bertan zaio asi, agerturik ala  
Jainkoa an dala.

Zorioneko Birjiña! du kanta  
Isabel onak. O zure goianta!...  
Mariak dio: ez neri, Isabel-a;  
Jaunari orrela.

Gloria Aitari eta Semeari,  
Megope-Santu ta Ama Birjiñari,  
zeinaren bozez pozez da mugia  
Aurtxo txikia.

Bederatzi-orduan

Ifar-aldea gabaren erdian  
eguzkiz dago jantzita agirian,  
jaio danean guzion bizitza  
Jainko-Adibitzta.

Gloria daude kantari zaruan,  
pakea dute deadar munduan  
millaka aingeruk, Jesus jaiotzean  
Dabid'ko urian.

Saltoka datoz artzai galaiak,  
pozaren pozez, jakiniñk berriak:  
Jainko-Semea gizon zekusaten  
ganbela baten.

Gloria Aitari eta Semeari,  
Izpírit-Santu eta Birjiñari,  
ama geldirik, duela berea  
Jainko-Semea.

Arratsaldean

O zenbat minen ezpata zorrotzak  
senti zituan zedorren biotzak,  
Birjiña, Jesus iltzen gurutzean  
ekusitzean!

Bada eren pena guziak danbaka  
emiltzen dira zure gain banaka,  
zure barrunetan osn zulaturik  
eta mindurik.

Iritxi idazu damuzko negarren  
iturri gozo, Birjiña, bai, arren,  
Jesus-en odol eta malkoz erin  
garbitu nadin.

Gloria Aitari eta Semeari,  
Done Izpiritu ta Ama Birjiñari,  
zei... Jesus-ekin asetu zan benaz  
erruki-penaz.

Azken-orduan

Azkenik, arai digu zeruratzen  
gure Efesoleak bere Ama:batzen  
dute gorputza aideak; begira  
arrizko obira.

Baña, zein laster zerutik jetxita  
anima da ager! Gorputza jantzita  
Seme ederraren beso-gaiñ da aingeruz,  
an doa goruntz.

Zabal da obitik usai gozo ta argi:  
Irutasunak gozatzen du; garbi  
aitor du dala danon Erregiña,  
Ama Birjiña.

Aita ta Seme ta Izpirituari  
gloria orobat Ama Birjiñari,  
zeiñ Jainkoagaz ezinda geiago  
goitua dago.

Eskaintza

Ama Birjiña, txit garbi ta maite!  
Erregutxo niek, arren, diña zaite  
artzeaz beti ni, zure antzeka,  
garbi izateko.(Alabiz).

Agur, Maria !

Udaberriko iguzkiaren hats aberatsak deiturik,  
liliak horra nun sortu diren, urhe, zilharrez eginik;  
Salomon bera ez baitzabilan hoin ederki apaindurik,  
gure begiek ez baitukate ikusgarriago denik.

Mendian gora, harrok-artetik jali ura garbi doa;  
gniko urdina bere duela mireail ezin hautsizkoa,  
iguzkit-rat irriz jausten da; -balu gizonen gegoa,  
jakin lezake guk dakiguna: zoin aldakor den arua.

Itsas haizeak mendistaratz hedoi gaxtoak dakartzaz;  
ilun eta hotz, erokerian, jostatuko da ekaitza:  
lili ederrer ekaria du herioaren jo beltza;  
errekan, orei, urak, goitika, baderama lohi gaitza.

Lili bat egertu da, lurrean egertu;  
bainan ez da lurreko gaitz izpirik hartu;  
zerua bezain garbi, zerutik zen sortu,  
sortzean bezain eder, zerura da sartu.

Iturri bat jaio da, izar ur begia,  
bere zaukana beti Jaunaren argia;  
ekaitzak ezin dako nahari lochia;  
hortan baitu Jesusek ukan edaria.

Gabriel aingerua, Zeruko hitzlari,  
etxeraino zitzaien jautsi Mariari,  
- Bera zagoen batez, otriztean hari,  
erraiteko Jainkoak nola zuen mahi.

Zion: Agur Maria, bakar emaztea  
dena garbi, argi huts, itzalik gabea  
Aita zurekin duzu; harena zurea;  
zutarik sortuko da Jesus Jaun Semea.

Guk, gaixtoek dingu: Ama zerukoa,  
ama guziak baino bihotz beragoa,  
atxiaguzao, otoi, ure lagungoa  
gal ez giten delarik jinen herina.

Oxobi

Amaren altzoen

Aingeruen Erregina,  
Jesusen Ama Birjina;  
nundik sinets eta nola  
Zu guk ama zaitugula?

Zuk egin zinuen haurra  
hain zen ona, hain ederra!  
Zero garbiena baino  
Argiagn, iarrbiagn,

Eta zure haur maitea,  
zero lurren erregea  
altzora zautzu erori  
ezko hutsa bezain hori.

Besnetan daukazuna,  
gorputz, zauri minek jana,  
guk, lurreknek, dugu hil,  
lurrean etzadin ibil.

Nori si zaude, Maria?  
 Hila de Jesus garbia.  
 Guk dugu hila itsustu,  
 guk daizkogu zainak hustu.

Agortua du bihotza,  
 Sahetseko saki gaitza  
 guk diogu barna egin,  
 lasterrago trenka zadin.

Maria, zeri si zaude?  
 Zure hilak nor du alde?  
 Zure nigarrez gu irriz,  
 lan tzar bereko gai berriz!

Nola sinets, bainan nola  
 zu gure ama zaudela!  
 -- Ba, sinets nezak, gizonia,  
 ni nuk zuen ama ona.

Oxobi

### Miren'i Otoia

Oben-zauri mingotsen  
 osakai bakarra!  
 Zeure maitasun orrek  
 deseingu negarra.

Biotz-karaz gagoz,  
 ni geure Neskutzal!  
 Esker dizdiz darozuz  
 gogo ta gorputza.

Fzpan zerutar orrein  
 leuna gozartzian,  
 itxarua sortzen da  
 oben itzelpian.

Geure samin artera  
 jutsiko in-spena.  
 Arren, Ama, jadetsi  
 lizun-azkespena!

Didar degin biotzak,  
 Miren errugia,  
 egin zaituz zeruko  
 maitasun atia.

Zeure garbitasuna  
 geuregan ixuri,  
 Sein ta gogoz diraungun  
 garbi eta zuri.

Ama on, biotz-bera!,  
 gntzoh atsegia:  
 begi orreik baitira  
 barneko urdiña.

Errugabe bakarra,  
 neurra bintz illa  
 itun zeugana dator  
 bakuntasun billa.

Orok ezesten daben  
 biotzan malkua  
 altzo orreten dimintzut,  
 o Miren gozua!

Jaunaren al-alatza  
 izadi guztia,  
 maite-alatza baiña  
 zeure Sorkundia.

Lauaxeta

AMA BIRJIÑAREN BIOTZ GARBI MAITAGARRIARI

Jainkoaren mirari  
guztien lorea,  
mehitxarrik txikienen  
izpirik gabea,  
zure Biotz ederrak  
izan du sortzea.

Zure Biotz maitea  
dala ain biotz-bera,  
nola guztiok orrutz  
egatuko ez gera,  
sartu naiean danok  
bere barrunbera?...

Ezti guztiak baño  
da gazoagoa,  
euzki,zeru,izarrok  
baño argiagoa,  
apainduri bikaien  
gai ederragoa.

Zurea degu,Ama,  
Jesus-en urrena,  
Biotz danen artean  
maitagarriena,  
zeru eta lurrean  
zoragarriena.

Zure Biotza degu  
oso maitatia,  
guganako amorez  
txit irazakia,

Jainko-grazi-goienen  
iturri bizia.

Bertute zeruzkoak  
or daude loretan.  
Begiratu gaitezen  
ispillu orretan,  
sutu ta erre arte  
zure amoretan.

Pakea nola izan  
gure biotzatan  
ez ba gatoz zugana  
ditugun penetan,  
ain ugari diranak  
mundu gaixto onetan?

Libra gaitzatzu,arren,  
Ama,infenutik;  
ez gaitzatzu, ez utzi  
iñidiz ere eskutik,  
egin dezagun beti  
alde pekatutik.

Birgiñ paregabea,  
zere biotzian  
gorde gaitzatzu ondo  
bizitza guztian,  
zerorrekin batera  
zerura artian.

Birjiña Ama Maria,  
Biotz eder ori,  
arren,iriki iguzu  
pekatariori.

Jose Inazio Arana

O MARIA!

Nola Zutaz txoratuko ez gera  
txoratu bazan Jaungoikoa bera?...  
Ez gabe ez litzake Idaberririk,  
zu gabe ez litzake loretxorik,  
zu gabe ez litzake iñon pozik,  
zu Gabe ez litzake Euskaldunik,  
zu gabe etzan izango Jesusik!...  
O Ama,Ama! diot biotzetik  
ez utzi galtzen gizon bat bakarrik!

Antonio Arzak

BEGONAKO ANDRA MARI TA EUSKAL MIXIOAKBEGONAN

I956ko Iraillen zan.

Lau apaiz euskaldun gengozan Begoñako Andra Mariaren eliza nagusian.

Los Riosko mixioetara abiatzeko prestatu giñan, eta Euskalerriari azken agurra ematera Bildu giñan berton.

Eta Meza bitartean, eta eskeintzak eta eskariak egiteko unean gengozala, nere amaren irudia etorri zitzaidan, bat-batean, gogora; aren irudia eta arek, nere txikitán, esan-dako itzok:

"Gu ezkondu giñanean, Begoñara egin genuen gure eztaiondoko ibiltea".

Orduan entzun nizun nik, lenengoz, "Begoña", izen polit ori. Eta zenbat aldiz ez ote dazut esan, gerotzik, itz zoragarri ori?.

Eta gauzok erabilli nizkizun nere gogo barnean, Meza bitartekoan:

Zer eskatu ote zioten nere gurasoak, egun arstan, Begoñako Amari?.

Gauza ~~es~~ onik asko, ziurki!...Eta ezkonkide on izan,...eta seme-alaba onak azitzeko graziak, batez ere...

Ongi baiño obeki bete zizuten beren lenengo eskari ori. On eta santu izan ziran, benetan, bai aita ta bai ama.

Santu-otsean il zitzaidan aita, naiko gazterik oraindik. Eta santu-otsean bizi ~~xixxi~~<sup>b</sup> zitzaidan ama, sei urtez <sup>b</sup> bere senarrarekin bizi izan ondoren, 38 urtez alargun zegoana.

Ongi bete zizuten, bai, gurasoak beren eginbearra. Ongi beteko ote nuan nik era, o-rain astera nijoan mixiolari bizimodu berri ori?.

Eta eskari au egin nion, beraixiki, zeruko nere ama, Begoñako Andra Mariiri: bedsinka zitzaila nere bizitza eta nere mixiolarizko lan berriak.

GURE ASMOA

Gendez ~~karrikalat~~ blei-blei zegoen eliza. Eta apaizak eta apaizgaiak nabari ziran, batez ere.

Ez zan au bat ere arritzekorik!.

Lauetako bi apaiz gazteenak, Meza <sup>eman</sup> berriek ziran. Eta beste bi azitxuok, Arrinda'tar Donato ta biok amabost urtez apaizgaitegiko irakasle izandakoak.

Eta suxe zan gu bion kezka:

Emen apaizak, ugari; ugari ta nasai; zero egin ere ez dakitela, askotan; alkarrrekin

zirkin-zarkun ere, beste askotan.

An, berriz, Mixioetan alegia, apaizten usaiñik ere ez!

Gazteizko apaizgaitegiko iru irakaslek burutu zizuten gure mixiolarien lenengo zortzikoa.

Arrakasta aundia izan zizun joera orrek apaizgai eta paiz gazteen artean.

Eta gauza guziaz gerta oī dāna, poliki-poliki galduaz joan zan baiña eztandaren diañtzuna; eta beste eztanda berri batem bearrean aurkitzen giñan.

Eta orixe zan gure asmoa:

Gure eztanda berri onekim, lenego arrakasta ura berritzea, aal balitzake.

#### URREZKO EZTAIAK

I963an, ots, orain ogeitabost urte ospatu genitun Begoñako Andra Mariaren urrezko eztaia.

Bizkaiko erriz-erri ibilli zan Aren irudi zoregarria, bertakoena fedea maitasuna piztu ta xuxpertuaz.

Artea ko apaizgaitegian nengoan, artean, irakasle. Eta berton suki g̃am genduan, egun osoan, Aren irudi maita,...lorez jantzia, kantuz alaitua, otoitzez maitatua.

Zenbat maite ta ardurazko lan ordurako eta artarako, baiña!

Aste bat surretik asi giñan, basoz-baso, eta baratzaz-baratz, inguruko txartaka ta lora politen billa.

Izai zugaitzeko erri-baso eder bat zegoen, apaizgaitegieren ertzeko menditxoan.

Ara bota genitun apaizgaitegiko berreun mutil kozkortuak.

Eta batzuk abarrak iñausi, bestek ondoak ebaki,...guk baso artan egin genitun tris kamitzak!.

Batzuk jaso, bestak skarri, ta urrengok xortak egin,...lorez, girgillesz, izalez eta arkuz bate g̃amitako genitun erriko plaza ta kale guziak.

Eta urrengo egunean Lemoara, Andra Mariari ongi-estorria ematera. Eta ango txalo, ta ango goraki!.

Eta gero, Arратi guziaren barneko ibilbidea, apaizgaiek alboan hitularik, beren "beka" gorriaz jantzirik, bide ondoko kereizak bailiren.

Eta inguruko baserristan amonatxök, eskuko zapi txuriak astindu ta astindu; eta bide ondoko nekatx urduriak, Ama Birjiñaren soñeko ertza ikutu naiean; eta aurreko ta atzeko laguntaldea, kanta ta kanta; eta guztion eta danem erditik, Begoñako Andra Mari inguruko soro, baratz eta baserriek bedeinkatzen,...Arratiko aran g̃x guzia bedeinkatzen, bail.

Zeanuriko plazan bukatu zan zoragarrizko ibillaldia. Antxe, Gisasola tar Maximo jaunaren etxe aurrean, ain zuzen.

Il berria zan Don Maximo; ala ~~tearrez~~ illa, Ekuadoreko lurralde kixkaliestan. Begoñako Andra Mariren seme maitale au izan zan euskal mixiolarien gidari.

Onek ~~komixta~~ burutu zizun euskal mixiolarien lenengo zortziko ura; eta berekin bat zitun beste arratiar bi ere.

Arteako apaizgaitegian egin genion gau-bela Andra Mariri. An egon giñan apaizak ~~etxetik~~ eta apaizgaiak, otoitz eta kanta, eske ta ~~eskainka~~... Zer eske ta zer eskein?. Mixioetan dabiltz, orain, orduko eta aleko ~~mixiolaria~~ zentbait apaiz eta ~~apaizgai~~...!

Itsasaldeko erri alaistara jo zuen gerò Begoñako Andra Mariren ibildaldiak. An zeagoan Ondarruko muga-mugan Saturrarango apaizgaitegia.

Eta ara joen giñan, itsastarren Ama Birjiñarenganeko jaiera biozti ura txastatzea-rrren. Eta ez giñan zuzietau.

Etxe ~~guxia~~ guziak, era ta margo guzietako dialez jantziak; eta ~~ez~~ dialek, loren beteak; ~~etxetik~~ eta ~~eskainka~~ eta kale luzeak, arku ederraz jo-siak; eta eskaillera estuak lurretik arkutara; eta andra pixkorak, eskaillera gora ta beera, maillu ta iltza ta lore ta ~~eskua~~ eskuetan... .

Bai,...girgillez jantzi ta apainduriko itsasontzi galanta zirudin Ondarruko erri osoak.

Zer dala-ta...?

Artaburu zebalez egindako, arku bateko idazpuru onek esan zidan zergatik zan guzti ori:

"Umi, ixilllik; Ama dator-eta".

Zeruko Ama zetorren, bai; itsestar bere same leialak bedeinkatzera zetorren, bai!

Eta zeruko Amaren bedeinkapena ugariaren eragiñaz, bertako sei same jatorrak Mixioetako bidea artu zizuten, Saturraranen irakasle zegoen Bastarretxea'tar Andoni buruko zutelarik.

DERION

Arratiko Artean utzi, ta Derioko apaizgaitegi berrira aldatu giñan, urte artan-artantxe.

Eta zer zañdari, zeñen irudi jarriko ota gurs elizatxo berrian,... eta Begoñako Andra Mariren irudia jartzea gogoratu zitzaignun guztioi.

Eta ala egin ere... Antxe dago Begoñako Andra Mariren irudi maitea, irri-jario, aldare atzeko ~~etxetik~~ orma zabalean.

Eta orma orren ezkerreko alderdi luzean,... margo ~~hizik~~ marrazki politak, Kristoren irudi maitea buruko dutelarik; eta apaizgai mordo bat Aren oñietan, Ari begira ta

Aren deiaren zai.

Eta eskualdeko besteko alderdian, len̄go apaizgaiak, apaiz biurtuta, Jaunaren Be-rrri-Ona sifisgabekoei aldarrikatzen.

Apaizgaien barneko gideri edo arimako aita mintzen ni, artean.

Eta aurreko orma oien irudiak nitun, sarritan, gau ta egun egiten nizkien itzaldie-kako gaien xirikagarri.

Gero ere, maiz biltzen ziran gurera, oparretan etorri oi ziran mixiolariak. Eta a-ik esan eta azaltzen zizkiguten gauza nabarmenak nitun, bestalde, nere gaien aberasgarri.

A Leen Artean bezala, jolaserako zelai ta leku gabek zeuden apaizgaiak orain, De-riion ere. Eta opor-orduetan geldirik zeuden mutillei esaten niem nik:

-Tire, mutillok, jokatu, bada; ustelduko zerate bestala, or geldi-geldirik!.

-Ez daukagu num eta nola jokatu, baiñal,-erantzuten zidaten, goibel ta kopeta-illum Adierazi genion gotzai jaunari gure mutillen kezka ori. Eta arik, ez zegoala orre-tarako dirurik, erantzun zigun.

Ala azaldu niem,urrengo egunean, gure mutillisi:

-Ez dago jolas-lekurik egiteko dirurik, mutillok!. Eta zuek jokatu nai dezuts, ez...?.

-Bai, jauna, bai...!.

-Nola, ~~baiñal~~ baiña...?.

-Geronek egingo ditugu geure jolas-lekuak!.

-Orrela baduzue, neronek gidatuko zaizuet.

Eta an ibiltzen ~~giz~~ giñan, egun eta ordu guzistako oporretan, jo ta ke, atxur, pa-a, pegaki ta pikatxoi.

Eta auxek ziran nere esaldi beiñenak , mutillok lenean eragitearren:

-" Ala, mutill!, gure Mixioetako "Montubien" alde, ordu osoko lanaldi pixkor".

Ellero joaten giñan, eta ciñez, Derioko apaizgaitegitik Begoñako elizara, eguraldi n egiten zuen arrtsalde batean.

Bazkalondoan irten, eta bostak aldsoon irixten giñan Artagan mendi gaiñeko Santute-ira. Eta sekulako elizkizuna egiten genuen bertako eliza nagusian:

Errosario santua, kanta ederren artean; bein-beiñeko itzalditxoa, urren; eta gure Jaunagiriaren onets-agurra, bukaerako.

Eta ango osteran, guk genkartzin irrintzi, salto ta brinko, Santo Domingoko alda-ez beera.

Eta zeiñen politik zirudigun gure oñieko Txorierri ibar zabala, eguzkiaren azken printzetalari.

Eta zeiñen eder ~~Wageri~~ zitzaigun gure Derioko apaizgaitegia,...Txorierriko itsaso berdeskara abia nai zuan itasontzi galenta zirudiñan.

#### MIXIOLARI

Berregei urtetan, abiatu nintzen Mixioetara.

-Eta zergatik ez aiz leenago abiatu?,-esan ziden lagun batek.

Ez dira ez, urte eldu oiek, Mixioetara joateko urterik onenak.

Nere lagun min eta ikasleak osotzen zuten lemengo txendako zortziko bikain ura.

Mira ederra egin zidaten, bai; baiña kezka larri batek eragotzi ziden aiekin batean abiatzea.

Zer eta zelango kezkak?.

Euskera irakasle nintzen, gure apaizgaitagien. Ez genuen nai orduko iritxi grazi ori!.

Orretzaz gaiñera, elerti, kondaira eta lutalezti edo geografiaren maisu ere nintzen.

Eta euskal gizon, gauza ta luraren berri ematen nizkien ene ikaslei, gaiok arrotzen nituan bakoitzean; naiko esteku ta eragozpenen artean, eman ere... .

Eta auxen, nere kezka:

Nik Nork artu ta azalduko ditzkie euskal apaizgaisi euskal kulturako gaiok, ni emendik aldatzen naizenean?.

Oiek orrela, Bilboko elizaren kanpñigu leiaketa bat sortu zan gure artean. Kondea <sup>na</sup> gaiak arrotuko ziran, leiaketa orretan. Eta gure apaizgaitegiko Elizkondairaren irakasle izango zan, bertan garaille azalduko zana.

Au duk nere ordua, esan nizum nik nerekiko... Zunzunegi jauna Gazteizen irakasle, Te-  
lletxoa Donostian, Gbñi Iruñean, eta ni Bilbon,...auxe duk euskal <sup>euskal</sup> -edesti es-  
kola sortzeko une ta aukera ederral. Auxe bait zitzaizun gure maixu ta euskal mixioen  
zuzendari zan Zunzunegi tar Jose jaunaren betiko emetsa.

Begon bildu nintzen, bi asteko leiaketa orrerri buru emateko asmotan.

An ekin nion, gau ta egun, nere esku arteko lan eta arazo orrerri.

Begonako Amari erregutzen nion, bertan ematen nuan eguneroko Mezan, lagun etorri zitzaidala, alegia... .

Baiña,...oker jo zidan kukuak!.

Ez zan ori, hunbait, nik zapaldu bear nizun bidea.

Bestea zan mere bide ori. Eta etorri zitzaizkidan, noiz bait, artarako-pausoa emateko bear nituen lagunak...Nik, apaizgaitegian neratilzkian gaiei lotu eal ~~leazkideken~~ irakas-le berriak, bai:...Berrutia, Olazabalaga, Etxenagusia jaunak; mere ikasle izandakoek, azkenetako biok.

Gerora ere, Mikel Zarate ta Ander Menterola etorri ziran. Lagun orrei nere eskuar-teko lanoik utzi,...eta or abiatu nintzan, alai eta pozik abiatu ere, gure Mixioetako lanetara.

#### MATXALA 'N

El Oroko uriburu dan Matxala izan zan nere lantokia, Ekuadoren.

Eta Matxalako zaindaria, Andra Mari, ain zuzen ere!

El Oroko erki edo probintziako uriburua, azitzen eta jazten dijan uriburu polita duzu Matxalako erri ori. Ori dala-ta, gotzaim maillara ere, orain berriro, igoerazi di-zutena.

Ala ta guztiz ere,...danen premiñan duzun erri exkaxa: eliza, apaiz-estxe, gotzain-estxe, eskolak,...eta batez ere kristau zintzoen bear gorrian dagoen erri exkaxa, bai!

Eta nola, eta esku utsik eldu arazo larri guzi ~~ma~~ oiei?

Esku utsik geunden, bai; baiña, Andra Mari genun zaindari.

Eta Andra Mariri erreguz, eta lanari mailluz,...or abiatu giñen mixiogintzan, ~~xxxx~~ su ta gar.

"Andra Mariri erreguz"...Malatza guzik egunetan, eta Ama Birjiñaren jaietako bederatziurrenenetan, Errosario santua esaten genuan, egunsentian eta erri osoko kalez-kale. "Rosario de la aurora" deitzen ~~xixkarrak~~ diote bertako elizarrak elizkizun oneri.

Beingoan eta beti ordu berean argitzen du egunak ango lurraldetan; goizeko bosterditan asten da lenengo argi-xirrinta, eta egun argi dago seiretako.

Eta zeruko argi-xirrinta orreri gure beatz arteko kandel-argiak eratzikirik, argituz ginjoazan érriko plaza ta kale guziak.

Kaleak kandslaz argituz, eta etxeak otoitzez berotuz, eta biotzak kantaz aleituz!

Bertakoak lendik ~~sekizkiten~~ kantaz gaiñera, beste kanta berri batzuk ere generabiltzen.

Bizkaian Begoñako Andra Mariri kanta oi ditugun kantak ziran. Aien bertsoak, pix-karen bat, aldatu ta guk aiei erakutsi genizkiak.

Eta aiek bai agudo ikasi, ta pozik abestu ere...

Andra Mariren ~~ixkarrak~~ irudia generaman gurekin. Eta aren iragazian eta aren surrean, etxeetako argiak piztuz zijoazten, eta ateak zabaltzen.

Eta jendea atadira irten, eta kaleko otoizlarien lerrostan sartu ta sartu zibazten.

Eta elizen giñan danok, seiretako. Eta Meza sentua esaten genuan, kristauez bleiblei zegoan <sup>eliza</sup> zarpaillean.

"Eta lanari mailluz" ekiten genion, gero.

Aberatsei dirua eskatu; gutxi baiña, ba da an ere aberatsik. Langilleria batu... lanari lotu...

Eta azaldu ziran elizak, etxeek, eskolak, gaixoetxeek...

Azaldu,...azi,...garatu!

Eta kristauez bate ziran Jaunaren etxeek; kristauez, Matxalako kaleok!.

No la...?

Andra Marik, bakarrik, daki!.

### TXILLA/N

Santutegi Mareixi bi ditu El Oroko erkiak: Matxala ta Txilla.

Sarkaldean dago Matxala; sorkaldean, berriz, Txilla.

Gezaldun zelai zabala da sarkaldeko lurrealdea; ~~txax Andesko xekintza~~ ta itsasoa du baztermuga.

Basoz jantxitako mendi-katea da ~~sax~~ sorkaldeko lurrealdea; ta Andes'ko mendi tontorrak ditu ~~basagunak~~ basaguren.

Itsas bazterrean dago Matxala; ~~basagunak~~ basagurengoko mendi tontorrean, Txilla.

Itsas bazterreko itsas gizonei argi egiten die Matxalak; erki osoko bizilegunei, Txilakoa Andra Marik.

Eta Andesko aitzetan kokatutako uso txuria dirudizu. Bera duzu El Oroko zaindari. Oraintzean berriro koroatua.

Ez nolanei ere!

Jaiera aundiak zizun erriak, bail. Mara-mara zijoekizun erromesak, bail. Ez baiña, nai ainbeste, ta ainbestetan.

Zortzi orduko bide luzea zegoen bertaraino... Ia iru milla metroz gorak zijoen bidetxigor loitsu ta latza. Eta ezin, bada, zaarrak eta gaixoak bide orretan barna, iñolaz ere, abiatu.

Eta asi zen bertako apaiza zen Lekuona'tar Jaunito mixiolaria:...bide berri bat egin bear zala-ta;...automobilak gora ta bera dbilli zitezken bide berri ta zabala, bail!

Eta jo zizun auzo-lanerako deia.

Kanta-sail onetan datozen olerkarien  
bizi ta idatzien zeaztasunak

ADEMA (Grazian). "Zaldubi. Apaiza. Sempere'n munduratu zan 1828'an eta Baiona'n il 1907'an. Batez be Baiona'ko "Eskualduna" asteroikoan idatzi eban; olerkiak, berriz, Baiona'ko "Gure Herria"-n eta Bilbao'ko "Euskalzale"-n. Zabala dozu Zaldubi'ren olerlana; bizi zala 30 bat olerki agerterazi zituan or-emen, eta il ondoren "Eskualduna"-k (1908-09) ta RIEV-ek (1908-09) beste sail eder bi. Idurimen aundikoa. Guztiz txukuna.

Akesolo (Lino). Karmeldarra. Dima'n jaioa 1911'an. Euskaltzaindikoa. Liburu-zaintza edo Bibliotekonomi ikastekak egiña. "Olerti"-n eta "Karmel"-en idatzi dau. Bere liburuak: Iñaki ta I iñatarren bari (1958), Santa Teresa'ren Ombidea, A. Oñaindia k lagunduta (1963), Salmoak bizkaieraz (1964), Euskal-esnale ta euskal-idazle Yose Paulo Ulibarri (1962), J. Etxeberri'ren Noizak x Noeak en itzaurrea (1970); eta aurrerago B. Etxenare'ren Linguae Vasconum primitiae (1966) erderaz jarri eban.

Andonegi (Ziriako). Mabriku'n jaio zan 1912'an. Naiko idatzi izan dau "Euzkadi", "El Día", "Zeruko Argia", "Euzko-Gogoa", "Karmel", "Eguna", "Olerti" ta olakhetan. Erriko albistak, bakar-izketak, alkar-izketak, bertsoak -Aitor'en izkuntza zarra, onein artean-, ta aber. Ba-daukaz antzerki batzuk be, Egizko maitasuna ta Belen'go Bidean, adibidez, argitaratu barik.

Apalategi (Manuel María). Ataun'go Bonipagi Aita kaputxingoa. 1901'an A-taun'en munaturatua. Beronen euskal lanik beiñenak: Egiazko Jainkoak (1932), Asis'ko Frantzisko Deunaren bizitzatcoa (1932), Asis'ko Beartsu Maitalea, k Erriarentzako Liturgia, Aste Nagusia (1931), Euskal-Irakaspidea, Amal, R. Tagore'ren antzerkia (1934), Gure Aditza (1960); Buenos Aires'en Instituto Americano de Estudios Vascos deritxon aldizkarian ainbat olerki argitara dauz "Sabiaga" izenordez.

Arana (Juan). "Loramendi", kaputxino-gai. Bedoña'n jaioa 1907'an, eta Donostia'n illa 1932'an, meza barria esateko egoalarik. 1932'an "Euskaltzaleak" eratutako Olerti-Egunean, berak eskuratu eban len-saria. "Zeruko Argia"-n agertazi ebezan bere olerki lanak. Il-ondrengoko lana: Olerki ta idatzi guziak (1960); Aita Yurre kaputxinoak gertatu ta argitara emona. Idurimen azkarreko olerkari.

Arana (Jose Inazio). Josulaguna. Azkoiti'n jaio zan 1838'an, eta Oña'n itzali 1896'an. Bere euskal liburuak: Jesuñen Biotz Sagraduko Billera (1870), San Ignazio rria, Egoñakoaren Bizitza (1972), Ama Birjina guziz Garbi (1872), Loyola-k Orolta txiki bat (1882), Bai, pekatu da liberalkeria (1888); olerkari lez naikoa idatzi eban: beronena da "Agur, Jesus'en Ama", gure eleizetan etangabe abestua.

1903'an, Langille aspergatxa, batez be euskal politikari ta izkuntzari buruz. Asko idatzi eban euskeraz ta erderaz. Euskeraz lau liburu ditu: Umiaren lenengo Aizkidia (1897), Egutegi bizkaitarra (1896), Lenengo Egutegi bizkaitarra, ormarakua (1897) eta Olerkijak (1919); Eleizalde'tar Kildobjika'k batu ta argitara emonak.

Argaiñaratz (Pierre). Ziburu'ko bikario ta izlari. Liburu bi ditu euskeraz: Abisu ta exhortationea probetoxosak (Bordela, 1641) ta Devoteh Breviarioa (Baiona, 1665). Itz lauz edo prosaz daukazu lenengoa, ta bertso errevez eta izkera gozoz egiña, bigarrena.

Arregi (Josu). Bilbao'n jaioa, 1916'an. Izkuntzak erakusten ditu: euskeria, inglesa, frantsesa... Euskeraz idazten dau "Agur"-en, "Zer"-en, eta aber. Ra-ditu olerki mee zorratzak.

Aresek Arrese-Britia (Feline). Otxandio'n jaio (1841) ta il (1909). A-ren bertsoak askok dakez buruz. Errromantikuen girokoa, zerbait beintzat. Olerkari ugari gartsua. Igibidez santugille zalarik be, orduko aldizkari guztietan azaldu euskuzan bere lanak. Argitaratutako liburuak: Ama Euskeriari azken agurrik (1879), Ama Euskeriaren liburu kentaria (1970), Asti-orduetako bertsozko lanak (1902), Olerki Txorrtatxua (1930), Olerkiak (1933), Olerkiak (1956).

Arriategi (Luis). Gaitika'n jaioa 1939'an. Karmeldarra. Errroma'tik eta Milan'etik Doktor Iñaztiñan eta Jakintzan. "Karmel"-en idatzetan dau naikoa. Itz lauz eta

Arteaga (Lontzo). Karmeldar. Mañari'n jaioa 1917'an. Alwaye (India) 'n apaitzu zan 1947'an. Gero Peru'tik be ibillia dogu aldikada baten; gaur Markiña'n bizi da. Itz neutrutz eta prosaz idatzi dau. batez be "Karmel"-en. Etxebarria'ko seme Frai Bartolome karmeldar idazle zarraren lanai buruz saio politik daukaz gertu.

Artola (Fernando). /Bordari/. Onadrribi'n munduratura 1910'an. Garatz arlakoa. Euskaltzaiña. Bertsolarien sustatzaille bizkor. "Euzko-Gogoa", "Egan", "Zeruko Argia", "Olerti", "Egan" ta olakoetan idatzi dau. Beronen olerki liburu argitaratua: Goraintzi (1968). Ba-ditu beste bost-sei bat laster argitaratzea; ipuin goz, alegi zuur eta antzerki arin, idazle ugaria.

Aurre-Araiz (Balendin). Axangiz'en sortua 1912'an. "Euzkadi", "Euzko-Gogoa", "Egan", "Karmel", "Olerti", "Agur" ta besteetan idatzi dau. Argitaratzea daukaz olerki liburu biak: Gogo-zelaietan eta Errimin. R. Tagore'ren lan batzuk, Txitra ta Txori galduak esaterako, argitaldu dauskuz. Lugiña.

Azkue (R. Maria). Aoaiza. Lekeitio'n munduratu zan 1864'an eta Bilbao'n il zan 1951'an. Euskalari, idazle ta musikalari. Ona, euskalari lez, bere Euskal-Izkindea (1891), Diccionario vasco-español-francés (1905-06), Morfología vasca (1923), Gipuzkeraren osotua (1935), eta abar; musicalari lez, Eleizarako eresiak ugari, Daniel Lamindano ta Andrea Urkaka iru oratoria, Ortzuri (1909) ta Urlo (1911) operak, Cancionero popular vasco (1918), eta idazle lez, Txirristadak (1898), Jesúsen Biotzaren illa (1901), Ardi galdua (1918), Euskal-erriaren Yakintza (1935), lau ale, ta Ipuiñak (1968). Euskaltzaindiaren buru bizitza guztian, 1970'an, Dejora'ko Amaren koroatze egunetan ainbat joan-etorri egin zituan, musika arloan batez be.

Azurmendi (Jose). Zegamarra. 1941'an jaioa. Aita prantziskotar. Euskaltzaiña. "Gakin", "Egan", "Olerti", ta "Zeruko Argia" ta "Anaitasuna"-n idatzi dau. Poeta lez, "Olerti"-n azaldu zituan bere olerki-lanik geienak. Orreikaz eta besteakaz osoturik atera eban gero Hitz berdeak (1971) derritxon poesi-idaztia. Ona beste batzuk: Hizkuntza, etnia eta marxismoa, Zer dugu Orixeren Kontra (1976), Zer dugu Orixeren alde (1977), ta abar.

Barbier (Jean). Apaiza. Donibane-Garazi'n ludiratua, 1875'an. Senpe-re'ko errretore 1913'tik. 1931'an il zan. Beronen euskal lanak: Itxasoko arrantzaleak (1897), Nere kantuak (1910), Gerla handiko kantuak (1920), Ama Birjiña Lurden (1920), Supazter xokoan (1924), Piarres, I (1926), Piarres, II (1929), Ixtorio mixterio (1929), Antxitxarburuko buhamiak (1971). Mierkari ona.

Barrenetxea (Nikolas). "Yurretar Julen", Aita kaputxinoa. Igorre'n munduratu zan, 1898'an. Mixiolarri ta euskal idazle. Beronen euskal lan batzuk: Bedoña tar Jhakin Abagai kaputxina. Olerki ta idatzi guziak (1960), Loramendi ta aren garai (1962), II-garren Batikann Batzarra (1965), II-garren Batikann Batzarra (1967). "Zeruko Argia"-n datoz onen poesiak. Ida, le errez gozoa, bizkaieraz.

Beiztegi (Jón). Eibar'en jaioa, 1911'an. Bertsoz ta itz lauz naikoa idatzi dau, "Euzko Deya" (Mexiko), "Euzko-Gogoa", "Alderdi", "Olerti" ta besteetan. Beronek sortu te zuzendu eban "Agur" asteroakoa, bizkaieraz. Ba-ditu lan argitara bageak, ibaietako arraiñoi buruzkoak, baitik bat.

(1)

Diharze (Jean). "Iratzeber". 1920'an, Lapurdi'ko Donibane-Lohizune'n sortua. Mierkari ospetsa. Gaur Beloñe'ko Abata nagusi. "Otoizlari" aigerkaria beronek zuzen-tzen dau. Euskal lának: Salmonak, G. Lertxundi'ren laguntzarekin itzuliak (1963), Euskal Herria eta Jainkoaren Gizaldea (1967); eta lau olerki liburuenak: Pindar eta lano (1954), Zerumenditik (1959), Argiz argi (1969), eta Uhaineri nausi (1974). Sarri jaso dauz poesi-sariak.

Enbeita (Kepa). Muxika-Areatza'n jaio ta illa, 1878-1942. Baserri lənetik beti bizi izana. Bertsolari lez, Muxika'koa ez-ezik, Euzkadi'ko Urretxindorra. Gerra aurretik, ia astero, azaldu eban zarbait "Euzkadi" eguneroakoan: 342'tik gora dira aren olerki-lanak. Iru bilduma dazeuguz: Enbeita Oleskarria (1966), Gure Urretxindorra (1971). A. Inaindia'k argitara emonak, eta aren loba Kepa Enbeita'k, igaz aitataren jaiotzetiko eungarren urtea ospatzeko gertatu eban Kepa Enbeita Urretxindorra (1978) liburuxka.

(1) Borntra. Aoaiza. Beloñe'ko Aita Lertxundi'ren Kantlikak (1948) liburuan datoz onen olerki-lan batzuk. 1929'gunean 7-4-7'an Baiona'n ospatu zan Eukaristi Bañerrakoa Erregerkaren latrea be herriena dozu.

170

Enbeita (Balendin). Kena'ren semea; lugiañ au be. Muxika-Areatza'n jaioa, 1906'an. Bertsolari lez, norgeiagoka askotan izan yaku txapeldun. "Ekin", "Zeruko Argia", "Arantzazu", "Karmel", "Olerti"-n idatzi dau. Berronek sortua da, batez be, Muxika'kn bertsolari eskola. Auspoa'k atera eutson Nere apurra (1974) eritxon 269 orrialdeko bertsolariburu.

Erkiaga (Eusebi). Lekeitio'n jaioa, 1912'an. Euskalitzain osoa. Kultura zabala dau. Olerkari. Euskal lanak: Arranegi (1957), Araibar zalduna (1962), Bate-tik bestera (1962) nobelak; beste bi oneik Neurria ta Aspaldiko Maigret argitaratu barik daukaz; bardin, Kanpainen atsekabez antzerkia. Hsko idatzi dau Euskalerriko aldizkarietan; baita olerki, antzerki ta nobela sariak sarri eskuratu be.

Etxaniz (Nemesio). Amaiza. Azkoiti'n jaina, 1899'an. Euskaltzaindikoa. "Euzko-Gogoa", "Egen", "Olerti", "Karmel", "Zeruko Argia"-n eta idatzi dau. Euskal lanak: Arraldea (1923), Nola idatzi euskeraz? (1950), Kristau Ikasbidea bertsotan (1950), Kanta-kantari (1951), Izeko aberatsa ta Irulearen negarra (1952), Antzerkiak, konta-kontafi (1958), Lur berri billa (1967), ta abar. Olerkari yaukal.

Etxebarria (Juan Anjel). Irakasle. Santurtze'n jaioa, 1934'an. "Karmel" eta "Olerti"-n idatzi dau, geien bat. Baita ogei bat liburu argitaratu be; ona: Gurutz-bidea (1966), Maitale galdua (1966), Lo ta amets (1967), Basoko lorak (1967), Batikan o II-garren Batzarraren Agiriak (1966-67); eta itzulpen oneik: C. Perrault'en Ipuiñak (1965), Martial'en Ziri-bertsnak (1965), Phedro'ren alegiak, kix iru ale (1965-66), Bakarautuak (1966), Famila'ko Ama Birjiña ta umeak (1966), Liturgi-goratzarreak (1966), Agustin Deunaren eskutitzak (1966), Esoño'ren Alegiak (1967), Catalunya'ko Olerkariak (1967), Bikaz Bidaztien aterpea (1968), ta abar.

Etxeberri (Joannes). Ziburu'n, arrantzale erritxoan sortua. Amaiza. Urtzitzian irakasle (doctor) zana. Baita bere errian, Ziburu'n, 1637'an eta, erretoare izana. Iru euskal liburu daukaz: Manuel Debozioñezkoa (1627), Noelak (1631) eta Elizarat erabiltzeko liburua (k636). Irurok dagoz bertsotan.

Gandia (Biktoriano). Aita Prantziskotarra. Mendata'n jaio zean, 1928'an. Euskaltzaiña. 1954'an, Zaraitz'en poesi-txapelketan sariduen. "Aranzazu", "Egen", "Olerti"-n idazten dau. Berrojen olerki liburuak: Elorri (1962), Hiru gizon bakarka (1974), eta Una batez Madrilen (1978). Idazle sakon fiña.

Gazteluzar (Bernando). Jesus'en lagundikoa. Ziburu'n sortua 1619'an eta Pabe'n illa, 1701'an. Ipar-Euskalerriko predikari. Idazti eder bat osotu eusku: Egia katolikak (1686). Bertsoz eginda dago. Jesukristo, Altareko Sakramentua, Andra Maria ta abar, txukun, garbi ta samur kix bertso-neurkera trebez goratzten ditu.

Harizmendi (Kristobal). Sara'ko semea, ta bertako bikario ta predikari. Liburu au idatzi ta argitaldu eban: Ama Virginaren Offizioa (Bordels, 1658); Trento'ko Eleiz-Batzar nausiaik ontzat emondako L'Officie de la Vierge Marie dozu laburdierara itzulita. Dana bertsoz.

Jauregi (Luis). Errrenderi'n jaio ta illa, 1896-1971). Amaiza. Olerkari. "Jaut-rukol" izena erabilli eban olerkiak izenpetzerakoen. Bere euskal lanak: Egizko edertasuna (1923), Ipuiak (1924), Biozkadak (1929), Maite-opari (1935), Xenpelar (kix bertsolaria) (1958), Loramendi olerkaria (1960), Paskual Duarte'ren Sendia (1967).

Latsa eta Agirre (Bonifazio). Ubidea 'ko semea, en haitzen ludiratu 1974'an. Zeberio'n eta Ea'n organu-jotzaille; atzenez, Argentina'ra aldatu ta kix en il zan. Jostirudi edo seinete bat itxi eusku: Todos erribatekos (1899). Erri izkera ta alkari-izketa bizi-kixkizbiziz osoturik dago. Ba-ditu olerki batzuk Donostia'ko "Euskal-Erria"-n azalduak: Txomin moskorti (1896) ta Ama-alaben tratuba (1897), adibidez.

Lohiague (J.). Labastide-Claarence'ko apaiz argi langilea, Beloize'ko Aita beneditar Gabriel Lertxundi'ri, euskal kantaz ornidutako "Kantikak" (1948) liburu mariala ateraten ainbat lagundu eutsona.

Maak (Antonio). Donostia'n sortua 1855'an eta berton illa 1904'an. 1884'tik 1904'ra beronerk zuzendu eban "Euskal-Erra", J. Manterola'k sorturiko aldizkaria. Bertsoz eta itz eskatuz idatzi eban.

Mitxelana (Salbatore). Aita Prantziskotarra. Zarautz-en munduratu zan 1918'an, eta Chaux-de-Fonds (Suiza) 'n itzali 1965'an. Euskaltzaiña. Olerkari ta saiolari. Itxi euskuzan euskal lanak: Arantzazu, euskal poema (1949), Ama-Semeak Arantzazuko kondairan (1951), Ogei kanta Arantzazuko (1952), Bizi nai, poema (Euzko-Gogoa, 1955), Gurubidea (Euzko-Gogoa, 1955), Idazlan guztiak, I (1977).

(1)

Muniategi (Sabin). Gañtegiz Arteaga'n jaio zan 1912'an. Olerkari errimea. Euskal lanak: Goiz-aize (1936), Bidean gora (1970); Kolonbiar Olerki txorta (1968) eta Duida'ren Arribitxiak (1973). Itz neurtuz jarduna dugu, ia beti. Kanpotar olerkari askoren lanak daukoz euskerara biurturik, batzuk argitaratuta, beste batzuk argitara bague.

(2)

Olabrera (Iñaki). Lasailletarra. 1901'an, Donostia'n jaioa. Irun, Zarautz eta Bilbao'n ainbat lan egin izan dau euskeraren alde. Herriaren liburuak: Salleko Juan Bautista'ren Bizitza (1955), Gogoratua (1972), Maite dedana (1975), Biotz iturritik (1977); azkenengo irurok olerki-liburuak dira, sentimendu aundiz moldatuak.

Onaindia (Santiago). Amoroto'n jaioa, 1909'an. Karmelder. Euskaltzaiña. Aldizkari askotan idatzi dauan arren, beronek sortu ta zuzendutako "Karmel" eta "Olerdi"-n batez be. Liburu beiñenak: Milla euskal Olerki eder (1954), Goi-zale (1956), Gure bertsolariak (1964), Jolas-keta (1965), Larrea eta Karmeldarrak (1968), R. Tagore'ren Iru poema (1963), Eguneroko Meza (1963), Onbidea (1963), Bergili'ren idazlanak osorrik (1966), Dante'ren Jainko-Antzerkia, zati bat (1968), Orati'ren Odak (Olerdi, 1965), Enbeita Oleskarria (1966), Euskal Literatura (1972'an asita, bost ale), Eskutitzak (1974), Goiznabar (.....), Euskal Elertia (1978), Lamiñak (1978), ta abar.

Solozabal (Paulin). Apaiza. Etxebarria'n jaioa, 1912'an. Sarri, "Egieder" izenordea dárabil lanak izenperatzekoan. "Jesus'en Biotzaren Deya", "Karmel", "Olerdi", "Agur", "Zer" ta antzekoetan idazten dau. Euskal liburuak, hertsosz geienak: Uxke-riak (1961), Urre bitsa (1962), Gizonetan (1969), Gizadian (1972), Deika (1974), ta abar. Argitaratzeko iru txorta daukaz gerturik.

Ugarte (Martin). Nekazarria. Brinkola-Legazpia'n jaio zan 1916'an. Zortzi bat poema daukaz, luze-luzeak, Larrea'ko Olerki-Egunetan sarituak. "Olerdi", "Zeruko Argia" ta "El Bidasoa"-n idatzi dau geienik. Bere nobela: On egiñaren obaria (1972). Errikoi ta memintsu ari da.

Urkiaga (Esteban). "Lauaxeta". Laukiniz'en jaio zan, 1907'an, eta Ga,teiz'en su-iskillbstu eben 1937'an. Poeta ta kazetari. Euskal idazle ugaria. Bere lanak: Bide barrijak (1931), Arrats beran (1935) ta Olerkiak (1974). Jesuitetan osotu zituan bere gazte-ikasketak, eta ikasle zala asi zan euskeraz idazten. Aih zuzen be, Begoñako Amari izan zan bere olerkietatik aurrenenetan. "Jesus'en Biotzaren Deya"-n dator 1925'gn. urteko lotazilleko zenbakian, 368'gn. orrialdean, -Begoñako Amari-, ~~berri~~ Basaraz S.J., bere amaren abizenez izenpetuta.

Zamarripa (Paulo). Anaiza. Laredo'n jaioa, 1877'an; Sondika'n itzali zan 1950'an. Euskaltzale errimea. Bere euskal lanik beiñenak: Gramática bizkaína (1909), Manual del vascófilo (1913), Zaparradak eta (1926), Kristauaren Dotriñea (1928), Gora begira (1927), Anayak gara (1929), Kiki-kili (1930), Firi-firi (1935), ta abar. Eder yakon olerkia, ta "Gora begira" goi-kutuszko poesia ornidua ditzu.

Zarate (Mikel). Anaiza. Lezama'n jaio zan 1933'an. "Karmel" "Anaitasuna", "Agur" eta abar idatzi dau, bere liburuak: Gure Meza Deuna (1959), Gure Salbazio-Egintza (1967), Meza liburu txikia (1968), Bizkaiko Euskal Idazleak (1970), Surgitzia miñetan (1972), Ipuin antzezo alegi mingotsak (1975), Euskal deklinabidea (1975), Euskal literatura, I (1977), Euskal Literatura, II (1978), Bizipenen bultzadaz (1978), Ipuin antzezk (1975), ta abar. Euskaltzaindikoa.

Zaitegi (Jokin). Arrasate'n jaioa, 1906'an. Apaiza. Euskaltzaiña. "Euzko-Gogoa" sortu ta zuzendu eben. Olerki liburuak: Goldaketen (1946), eta Berri Berri ere Goldaketen (1962). Sajakerak: Adiskide berekoia Olabide'ren Itum Berrien (1958), ~~etxabekix~~ Bidalien Egiñak (1965). Itzulpenak: Sopinkel'en Antzerkiak, ale bi (1946 ta 1958), Platon'eneko atarian (1952), Longfellow'en Ehangeline (1945) eti Euribide'ren Medeia (1963), Platon-Gorgia (1977), Eutifron eta Sokrate'ren Apología (1978).

Zarrantz (Agustín). Aita Polikarpo Iraizoz kaputxinoa. Ultzama ibarreko Iraizoz erritxan sortua, 1897'an. "Irisarri" izenordea erabilli dau olerkietan. Euskaltzaiña. Euskel lanak: Urte guziko Igande ta Ebanjelioak (1933), Yesu-Kristo Gure Paunaren bizi (1934), Lapurren mendea (1935), Gurutze bidea bertsotan; Arimaren zuzenbidea (1952), Dabid'en Eresiak (Zeruko Argia'n, 1932'tik asita).

Zugazaga (Lorentzo). Gamiz'en jaioa, 1943'an. Apaiza. Gaur Ger-nika'kn ~~txakurrak~~ Andra Mari eleizako txaunburu. Naikoa idatzia dau, bertsotan baitik bat.

(1) Moulier (Jules). "Oxobi". Bidarrai'n sortu zan 1888'an eta I-rube'n itzali 1958'an. Apaiza. Bere euskerazko lanak: Roxana-oihu (1925), Alegiak (1926), Heimatik zerura (1937), Haur-elhe haurrentzat (1944), Mintzian (1949), Oxalde (1953); argitara gabe: Gure mendiak eta Nola gauden eskualdun. Oxobi-ren lan ornoitzgarri zonbeit (1966), "Gure Herria"-k agertarazia. Alegilarri trebe.

(2) Muxika (Etxebarriena) Errobustiane. "Tene". Deba'n jaioa 1888'an, eta hondiñ be bertan bizi dana. Naikoa idatzi dau "Ezkadi", "Argia", "Gure Herria", "Jaungikino-Zale", "Zeruko Argia", "Karmel" eta olakuetan. Argitaratutu euskal lanak: Miren Itziar i Idazkiak eta Olerkiak (1923), Gogo-oñazeak (1934), Gabon (1935), Juan Jose (1936), iru azkenek antzerkiak.

## AURKIBIDEA

Ataria . . . . .

LENENGÓ ATALA
BEGOÑA KO KONDAIRAN ZEAR
Begoña'ko Ama kondairan zear... . . . . . 1 . . . . .
Jesus eta Maria.. . . . .
Bizkaia ta Andra Maria... . . . . .
Begoña'ko Ama ... . . . . .
Eleizea . . . . .
Iskwillu-otsak inguruau ... . . . . .
Aurtxo batek Maria'ri.(Luis_Jauregi) . . . . .
Miñez (Jokin_Zaitegi) . . . . .
Begoña'rantz (Belendin_Aurre_Agraiz) . . . . . 1
Maiatzeko lorak (Enbeita'tar_Kepa)
Mariaren bihotz. (Xabier_Iratzeder)
Begoña'ko Ama Birjiña (Arregi'tar_Josu)
Agur,agur,Ama! . . . . . 1 . . . . .
Ama Birjiña eriotzean (Joanes_Etxeberri)
Erromesén ereserkia . . . . .
Begoña'ko Zerutarrari (Arana_Goiri'tar_Sabin)
Zazpi,bai,zazpi! (Eusebio_Erkiaga)
Miñezko ezpata (Irisarri) . . . . .
Il-nbia utsik (J.Etxeberri)
Oi Ama maitea! (X.Iratzeder)
Bilbo (Muniategi'tar_Sabin)
Amatxoren magalean (Ataungo_Boninagi A.)
Ama! (Juan_Anjel_Etxebarria)
Gabon-gaba (Martin_Ugarte)
Aintza Miren Sorkunde Garbi-bargiari (Enbeita'tar_Kepa).
Gogn-elkartean (Bordari,Fernando_Artola)
Enarej (Mikel_Zarate)
Andra Mari (Muniategi'tar_Sabin)
Belen'go Estalnian (Iñaki_Olabeaga)
Alegera dadila (X.Iratzeder)
Lorarik zurienai (Aita_Onaindia)
Begoña'ko Amari (Arregi'tar_Josu)
Ziri-uneak (E.Erkiaga)
Oñitzta (Muniategi'tar_Sabin)
Salve,Regina...
Agur,gure Erregiña (Borotra)..... . . . . . 1 . . . . .
Zatozte,Mariaren aurruk...
Begoña (Muniategi'tar_Sabin)
Agur,Maria,Ama ona...
Amodioz bihotza sustaturik...
Gaztetxo it-ak Amari (Lorenzo_Zugazaga)
Agur,Ama,errukiz betea (Lino_Akesolo)
Aldiarren amaian (E.Erkiaga)
Begoña'ko Ama Euskalerrian zear (Andonegi'tar_Ziriako)
Nere bihotzari ele eder dario..... . . . . .
Onatx,erletxoak (Igramendi,José_Arana)
Ni lurra! Ni Bizitza! (José_Azurmendi)
Nor ote doakigu? . . . . .
Gurutz-nean (A.Onaindia)
Oñitzta (E.Erkiaga)

Agur, Ama maitea...  
 Ama eder garbi ... 1.  
 Ama maite, María...  
 Begoña'ko Am\_a samur...  
 Zeru goi-goitik...  
 Oi Karmeloko Lorea...  
 Egizu zuk, María...  
 Asarrearen semeak (Muniategi'tar Sabin)...  
 Jainkoaren Ama...  
 Zeru eta munduak...  
 Zeruko Ama...

## BIGARREN ZATIA

**KORRAXXAK**  
**BEGOÑA'KO AMAREN IRUDIA,**  
**KORBATUA**

Irudi bikian ... 1.  
 Bakearen Ama... 11.  
 Bilbao'ra jasteak ...  
 Irudia andik ona ...  
 Barritzatzeak...  
 1880'an, Begoña'ra erromes...  
 Koroatzea...  
 Bederatzzi-urrena...  
 Zoramenezko eguna...  
 Ibilkundea ta ondorengoak...  
 o o o  
 Ama Birjiña Begoñakoari...  
 Agur, Jesus'en Ama (Jose A. Arana, S.J.) ...  
 Agur, Ama Jesus maitearená...  
 Egun da gure Ama. (J. Lohiague)...  
 Eskaria (B. Aurre-Apraiz) ...  
 Toti, Amatxu! (B. Aurre-Apraiz)...  
 Agur, erru gabeko...  
 Maria, gure oiuak...  
 Agur, Ama, errukiz betea...  
 Maiatza da (X. Ir\_tzeder)...  
 Jainkoaren Ama guziz garbia...  
 Ama Iurruti miñean (Lorenzo Zugazaga)...  
 Ama! (B. Aurre-Apraiz)...  
 Erregiña, Andfe ona...  
 Lauda Maria...  
 Begoña'ko Andira Mariari (R. M. Azkue) ...  
 Angelus...  
 Ama Birjina maitea (J. Barbier) ...  
 Uholde baten pare (Zaldubi) ...  
 Begoña'ko Ama Ondarroaín (Andonegi'tar Ziriako) ...  
 Agur Ama urrikalmenduzkoai (J. Barbier) ...  
 Ikusiren zaitut...  
 Mariari berr atsekabeen (Andonegi'tar Ziriako)...  
 Kanta zagun guziek (Gazteluzar) ...  
 Malkoen usaiña (A. Dnaindia) ...  
 Sortzez Garbia ...  
 Goiz-arrats bakotzean (Muniategi'tar Sabin)...  
 Agur, Izar eder...  
 Goazen, goazen guztioik...  
 Agur, Ama Maria...

Zeruko Amari pozarren (B.\_Aurre\_Apraiz)...  
 Maria, guztiz dontsua...  
 Zerura geitzatzu,Ama...  
 Birjiña guztiz ona...  
 Ama,samiñez betea...  
 Agur,Marial (Andonegi\_tar\_Ziriako)...  
 Ama Birjiña Begoñakuari ...  
 Lore garbia...  
 Begoña'ko Andra Mariari (R.M.\_Azkue)...  
 Birjiña maite ...  
 Zuri gauude...  
 Eskualdunek,o Birjina Maria (Zaldubi) ...  
 Begona'ko Andra Mari...  
 Edertasun guztiaz...  
 Euskaldunok ...  
 Martirien Erregiña,otoitz! (Paulin Solozabal)..

#### IRUGARREN ATALA

##### BIZKAIKO ZAINDARIA

Begoña'ko Andra Mariaren Zaindaritza...  
 Mirariak... 1...  
 Begoña'ko Amaganako eraspena... 1...  
 Itxastarrak...  
 Ikustaldiak...  
 Bizkaitarren Erregiña...  
 Gernika ta Zaindaritza...  
 Lenfingo urretsak...  
 Izterbegiak ernai...  
 Azkengo ibildeuna...

9 9 9

Ama Begoñakuari (Enbeita\_tar\_Kepa)... 1  
 Ji Birjiña,ontasunez betea... 1:1  
 Agur,Izar eder...  
 Izar eder-eder. (X.\_Irat,\_eder).  
 Mariaren bihotza... 1...  
 Loirik baga sortu zan Maria (F.\_Arrese\_Beitia) ...  
 Bizkaiko Jagoleari bere egunean (F.\_Arrese\_Beitia)...  
 Begoña'ko Amari (A.\_Incaindia)... 1...  
 Lau Aizta (Beiztegi\_tar\_Jon) ...  
 Magnificat...  
 Amaikagarren egotaldia (J.\_Zaitegi)...  
 Gomutea (B.\_Aurre\_Apraiz)...  
 Sortzez Garbiko Amari (Salendin\_Enbeita) ...  
 Mater Dolorosa (L.\_Jauregi)... 1...  
 Ebangelari deia (Bikoriano\_Gandiaga) ...  
 Ama zera ta Birjiña...  
 Agur,zeruko Erregiña...  
 Agur,Jainkoaren Ama...  
 Zure babesera gatoz...  
 Maria guziz Saindua...  
 Maitasuna (Muniategi\_tar\_Sabin)...  
 Nere Ama on laztana...  
 Izar eder...  
 Goazen,goazen...  
 Maite zaitugun Ama...  
 Sindatu,Ama,Euskalerri nekatua(B.\_Aurre\_Apraiz)...

Olatu setatiak (A.\_Onaindia)... ... ... ... ...  
 Besteren <sup>Esa</sup> enera beti (E.\_Erkiaga) ... ... ... ...  
 Sortzez Garbia (Urre'tar Julen A.) ... ... ... ...  
 Andre Mariari (Ataungo\_Bonipagi A.)... ... ... ...  
 Multi sunt vocati (E.\_Erkiaga)... ... ... ...  
 Gure Izañ argia (Ataungo\_Bonipagi A.)... ... ... ...  
 Andra Maria Begoñakoari (Bonifazio Latsa) ... ... ...  
 Aingeru batek diño... ... ... ...  
 Leintik begiratuz (Muniategi'tar\_Sabin)... ... ... ...  
 Gabon amesak (Nemesi\_Etxaniz) ... ... ... ...  
 Ama, entzun, arren! (Andonegi'tar\_Ziriako)... ... ...  
 Begoñako Amari (Lauaxeta\_Esteban\_Urkiaga)... ... ...  
 Biarko olerkariak (Muniategi'tar\_Sabin)... ... ... ...  
 Ikaskuntza (Muniategi'tar\_Sabin)... ... ... ...  
 Baratzeko Amari (N.\_Etxaniz) ... ... ... ...  
 "Egarri naiz" (E.\_Erkiaga).  
 Illargiakatara (Loramendi) ... ... ... ...  
 Aingeruaren... ... ... ...  
 Guda aurkako zantza (Muniategi'tar\_Sabin) ... ... ...

#### RABBARRENxATAKA

#### LAUGARREN ATALA

#### 75' GARREN URTE-URRENA

Urte-urrenak... ... ... ...  
 Begoña, arrezker... ... ... ...  
 Koroatzearen urrezko ezteguak... ... ... ...  
 1950: Urrezko ezteguak... ... ... ...  
 Ibilkunde zoragarria... ... ... ...  
 Begoña'ra itzuliz... ... ... ...  
 Andra Maria'ren urtea ... ... ... ...  
 Begoña'ko Ama Bizkaiko Zaindari, 1903-1978; 75' garren urteko  
 osoakizunak... ... ... ...  
 Iru abotsak: txartel baten esanai... ... ... ...  
 Jai-egitaraua... ... ... ...

9 9 9

Jainkoaren Ama... ... ... ...  
 O Maria, igan zare... ... ... ...  
 Maria pekatu bagarik sortuari (F.\_Arrese\_Bsitia)... ... ...  
 Illuntzeko otoitzta baserrian (B.\_Aurre\_Apraiz)... ... ...  
 Maite zaitut (Zaldubi)... ... ... ...  
 Agur, Jesus'en Ama ... ... ... ...  
 Samurra (B.\_Aurre\_Apraiz)... ... ... ...  
 Guztiz ederra (Loramendi)... ... ... ...  
 Zeru-lurren Erregiña... ... ... ...  
 Amodio, ohore (Zaldubi)... ... ... ...  
 Izar distiranta (Zaldubi) ... ... ... ...  
 Nora?... Goral' (E.\_Erkiaga)... ... ... ...  
 Nere Ama kutunari (I.\_Olabeaaga) ... ... ... ...  
 Beti zindun berea (B.\_Gandiaga)... ... ... ...  
 Aurraren ipuiñø (Ataungo\_Bonipagi\_A.) : ... ... ...  
 Legea bete dau (E.\_Erkiaga) ... ... ... ...  
 Zure erraietan (Arteaga'tar\_L.)... ... ... ...  
 Gibonak Abestiak (Salbatore\_Mitxelena) ... ... ... ...  
 Ezti utsa (A.\_Onaindia)... ... ... ...  
 Surtzari txuri onekin (N.\_Etxaniz) ...